



Hasi, Azpillaga



Jon Azpillaga Urrutia, 1935eko azaroaren 26an Pasai San Pedron jaio zen.

Hamasei hilabete zituela, aita gerran galdu eta gero, Berriatuara joan eta bertako Torre baserrian hazi zen.

Isasimendiko Maria Arri-zabalagarekin Mutrikura ezkondu zen. Bertan bizi da azken berrogei urteotan.

Hiru herriko gizona izatetik Euskal Herri osokoa izatera pasa da. Herri eta auzo gutxi izango da bere ahots eder eta kantaera patxadatsua gozatu ez dituenik.

1961ean Bizkaiko txapela irabazi zuen. Osperik handiena, orde, Lopategi kantulagun zuela, herriz herriko jardunak eman zion. Entzulearen gogo bertso bihurtzeak isunak eta kantatzeko debekuak ekarrita ere, ez zuen inoiz etsi.

Tailerreko lanean erretiroa hartu arren, bertsolari jarraituko du: "...ahal dugun arte".

44482
GAS-129/21



Mikel Aizpurua

Hasi, Azpillaga

Auspoa Liburutegia

272



AUSPOA • SENDOA

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52

Fax 943 49 35 48

www.sendoa.com

editorial@sendoa.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Mikel Aizpurua

Hasi, Azpillaga

Auspoa Liburutegia
(2001)

© SENDOA ARGITALDARIA

ISBN: 84-95378-35-3

Legezko Gordailua: S.S. 42/2001

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Serinte

ESKER ONA

Mota honetako libururik ez daiteke osa jende askoren laguntzarik gabe. Bateren baten izenik agertzen ez bada ere, guzti-guztiak eskertu nahi ditugu:

Mutrikuko bertso Eskola

Loiola Herri Irratia. Laxaro Azkune

Euskadi Irratia. Nikolas Aldai

Bertsozale Elkarte. Xenpelar Dokumentazio Zentroa.

Maria Arrizabalaga Berabide

Jon Lopategi Lauzirika

Jon Mugartegi Iriondo

Martin Elordi Jauregi eta Arantza Gaztelumendi Lasa

Xabier Uranga Larrainaga

Mikel Osinalde Agirre

Aita Alejandro, j.

Aipatutakoez gain, liburuan agertzen diren bertsolari guztiei eta bertsoa bizi duzuen bertsozaleoi:

Eskerrik asko!

Mikel Aizpurua Aranguren
Deba, 2000ko abenduaren 11a.

Hitzaurrea	11
------------------	----

I. ATALA: GIZONA

Nongoa da Azpillaga?	15
Pasaia	19
Berriatua	31
Amona	45
Eskola	59
Lana	61
Soldadutza	73
Emaztea eta familia	75
Erretiroa	125

II. ATALA: BERTSOLARIA

Kopla	135
Bertsotan lehen urratsak	211
Pedro Mari Otaño	227
Txapelketak	231
Bertsolarien ibilerak	289
Uztapide	323
Lopategi - Azpillaga	327
Amerika	413
Bertso eskola	421
Omenaldiak	425

Hitzaurrea

Biografia batek pertsonaren nondik norakoak azaldu behar omen ditu. Bizi izan duena eta egin duena. Jaiotza, etxea, familia eta abarrak alde batetik eta egindako lana bestetik.

Bertsolari baten biografia idaztean, ordea, nekez bereiz daitezke bi alderdiak. Bertsolariak bizitza izaten du kantagai, bai librean aritzen denean baita inork gaia emanda jardun behar duenean ere.

Horregatik begi aurrean duzun liburu honetan bizitza eta bertsoak tartekatu ditugu. Beraz, gaiaren araberako antolaketa hobetsi dugunez, bertsoak ez ditugu kronologikoki idatzi.

Mutrikuko Bertso Eskolak merezitako oparia eman nahi izan dio Azpillagari liburu hau argitaratuta. Oparia, ordea, beretzat ez ezik, bertsozale, herrikide, lagun eta gureztat ere gertatu delakoan gaude.

Liburua, 2000. urtean idatzi dugu. Azpillagak lehen bertso plaza egin zueneko 50. urteurrenean. Hala ere, lehen bertso haiek haizeak eraman zituen. Geroago, mikrofono eta grabagailuei esker, bertsoek iraun dute. Bertan topatuko duzun Azpillagaren bertsorik zaharrena 1959koa da. Beraz, 41 urteko bertso uzta jaso dugu. Liburu honetatik kanpo geratu dira milaka eta milaka bertso; batzuk beste zenbait bertso-liburutan aurki daitezke, beste batzuk tarterik ezean, Mutrikuko Bertso Eskolako eta Xenpelar Dokumentazio zentroko artxiboetan dira ikerlariren batek noiz aztertuko.

41 urte hauetan Euskal Herrian eman diren aldaketa anitzen erakusleak dira bertsook. Historiagileek sekulako altxorra eta lan-tresna paregabea dute bertso-

laritza. Garai bakoitzean gizarteak zertaz hitz egiten zuen, zerk kezkatzen zuen, zer nahi zuen... bertsolaria-
ren ahoan zegoen; batzuetan gai jartzaileak gaia eman-
da eta, beste batzuetan, entzuleak entzun nahi zuena
esateko ausardia eta gaitasuna zituelako.

Giza harremanen, erlijioaren bizipenaren, politika-
ren,... edozein gaiari buruzko ikuspegi zein iritzien al-
dakortasuna erakusten du liburu honek.

Bertsolaritza bera ere aldatu da: gaiak, bertsolariak,
herriz-herriko ibilerak, saioak, bertso motak, hizke-
ra,... Jon Azpillaga lagun, honetaz guztiaz jabetuko ga-
ra eta bere zein bere bertso lagun bertsuez gozatuko
dugu.

Azpillaga "bertsozko narratzailea" dela, askotan en-
tzun dugu. Gai bat hartuta, bakarka ari denean, soka
luzea du.

Narratzailea izateaz gain, deskribatzaile bikaina ere
bada. Agian, Santa Eskeko kopia eskola izateak eman
dio detaile guztiak aipatzeko erraztasuna.

Narratzaile zein deskribatzaile, bertsoaren haria
ederki asko eramaten dakiela-eta, gainontzeko bertso-
larietara aitortzen dutenez, libreko saioko gidari aparta
eta bertso lagun estimagarria da. Azpillaga aurretik do-
ala, lagunak atzetik jarraitzea eta kolpeak ematea, be-
re zailean, errazago dutela diote bertsolariek. Ezaugarri
hau ere, koplatik omen datorkio. Bertsotan bezalaxe,
Jon izango dugu gidari liburuaren zehar. Ekin diezaiog-
un, bada, saioari milaka bider entzundako esaldiare-
kin:

HASI, AZPILLAGA

I. ATALA: GIZONA



Ama eta anaiarekin

Nongoa da Azpillaga?

1

Pentsa zazute azkenean non
egin behar dan gazeta
nere bizian egina det nik
makina bat ameseta
bertso mundu ta beste gauzetan
nabil hainbeste klaseta
“Mutrikuarra naiz” esan behar
hementxe bizi naiz eta.

2

Hamaika urte pasatu ditut
zutunik edo etzanda
Franko denboran utzi nituen
hainbeste gauza esanda
Pasaia, penaz beterik utzi
Berriatuara juanda
San Pedrokua daukat karneta
San Pedron jaio nintzan da.

3

Nik maitatzen det gure izaera
ta maite det baserria
denen gainetik maitatutzen det
ni hazi nindun herria
oinarri gisa gauza guztien
gainetik dago jarria
Berriatuko euskera daukat
gauz danen ezaugarria.

Denen gainetik laguntzat hartu
 beharra daukat Jaungoikua
 bere bitartez egingo nuen
 ziur orain artekoa
 maitatzen ditut neure gauz danak
 etxeko ta auzokua
 ahalik ondoen pasatu nahi det
 hemendik aurrerakua.

Jon Azpillaga.
 1998-12-19

Itsasgain elkartea. Mutriku

Bertso hauetan, Jon Azpillagak, bertsolari bizkaitarrak, Bizkaiko txapelduna izandakoak, hiru herri aipatzen ditu. Izan ere, Pasaia San Pedron jaio, Berriatuan hazi eta Mutrikun bizi da. Pertsona ospetsu eta estimatuekin egin ohi den bezala, herri bakoitzak bertakotzat jo izan du. Pasaiatarrek Pasaiakoa dute, berriatuarek Berriatuakoa eta mutrikuarek Mutrikuakoa. Berak, ordea, ez du bereizketarik egiten eta bakoitzari berea ematen dio.

Aita ondarrutarra eta ama Berriatuako Torre baserrikoa izan arren, Gipuzkoako Pasai San Pedroro ezkondu ziren; aitak bertako portuko dragan lanean ziharduen eta.

Gipuzkoara aldatutako bikote bizkaitarraren lehen kimua izan zen 1935eko azaroaren 26an jaiotako Jon Azpillaga Urrutia. Basarri bertsolari handiak txapela estreinakoz jantzi zuen urtean munduratu zen, beraz, beste bertsolari handi hau: Azpillaga.

Hamasei hilabete zituela, ordea, aita, Itsasalde baitailoiko gudaria, gerrara abiatu zenean ama-sumeak Berriatuara bueltatu ziren. Zoritxarrez, San Gregorio egun batez, maiatzaren 9an, Iata mendiari jaurtitako

bonbardaketan hil zen Juan Azpillaga Txakartegi. Etxean, semea eta 6 hilabetez haurdun zen alarguna utzi zituen.

Ama, Beronika Urrutia Argoitia, 2000ko urtarrilaren 12an hil zen; 90 urte beteko zituen egunaren bezperan.

Ondorengo bertsoak, gurasoak gogoan zituela jarri zituen Jon Azpillagak. Bere eta edonoren gurasoentzat balio duten bertsoak dira. 1980an XOXOA etxeak Ondarroako Antigua elizan grabatutako bertso kasetean agertzen dira:

Gurasoei.

1

Urrutiratzen bazaio bati
munduratu zan eguna
urteak joaten ari zaizkala
seinale bat ezaguna
andre ta gizon pobre ta aberats
hau da denok dakiguna
zahartu aurretik hiltzen ez bada
seguru datorkiguna.

2

Jakinagatik ez zala izango
lanik hainbeste gorespen
gazte zugatik ahalegindu da
hobeki izan zaitezen
orain guraso jator guziak
gozatzen saia gaitezen
gurekin ere ondorengoak
berdin portatu ditezen.

3

Zaharrarentzako behar genduke
 begiramen bat jatorra
 gazteak beren adarrak dira
 gurasoa da enborra
 guregatikan pasatu dute
 giza aldi bat gogorra
 ahal den ondoen bete dezagun
 berekin daukagun zorra.

4

Orain bizia gogorra dala
 lehenago ez zan hobia
 derrigorreko zahartzaro horrek
 badauka bere legia
 bizitza baten azkenaldia
 bestearen ataria
 bihotz zabalez eman daiegun
 merezi duten saria.

5

Hainbeste gauza eder badegu
 zuengandik ikasita
 halere asko egongo dira
 erdi ahazturik utzita
 ematen duten apurrarekin
 zaudete ezin bizita
 hamaikak badu sari ederra
 gutxiago merezita.

6

Gurasoaren errespetuan
 beti ibili gaitean
 lehendik datorren gauza da hori
 gure sorterri maitean.
 Agur guraso maitagarriak
 bizi gaitezen pakean
 alaitasunik ez galdu behintzat
 bizi diran bitartean.

Pasaia

Pasaiatik Berriatuara urte t'erdiko umea zela joan arren, ez zuen txoriak sortze-habia ahaztu. San Pedroko bodegoiaren aurreko etxean jaiotako umea, mutil koxkorra zela bueltatzen zen herrira. Gogoan du badiako ura ia elizako hormaraino iristen zela eta Donibanerako txalupetik arraunez, beso indarrez, egiten zutela joan-etorria.

Osaba-izebak eta lehengusuak zituen Azpillagak Pasaietan:

Haiek, gerra ondorenean nazionalistak zirelako Ondarrutik bidalita joan ziren. Arrantzaliak ziren eta, Ondarrun, nazionalista izateagatik bizimodu txarra egiten zieten Pasaiara joan ziren arrantzara. Gure aitaren hiru arreba eta anai bat joan ziren.

Udako oporretan aste beterako joaten nintzen. San Pedron, San Juanen, Trintxerpen Altzako Oleta auzuan... denean ibiltzen nintzen.

Donibanera txalupan pasatzen nintzen. Orduan arraunean ibiltzen ziren boteroak, gerora jarri zuten motorra.

Nere lehengusu batek Donibanen zeukan andregaita eta hara joaten ginen. Han dena euskaraz egiten zan. Hori da marka!, Trintxerpen dana gailegoz, San Pedron dana erderaz. Batzuek euskeraz egiten zuten eta euskeraz egiten zutenak ondo egiten zuten. Itxuraz, etxetan euskeraz egiten zan ze, orduan nerekin erderaz egiten zuten mutilek, (orain nere edadekoak direnak, nere lagunak direnak, oraindik amestadia badaukat eta) denak euskeraz egiten dute nik bezela.

San Juanen, ordea, kalean danak euskeraz; zaharrek eta gaztiak. Ia egunero joaten nintzan, han gustura egoten nintzan euskeraz egiten zelako.

Bizkaitarra izanik, gipuzkera ondo dominatzen nuen. Orduko bertso asko gipuzkeraz ikasita: Pedro Mari Otañorenak, Txirritarenak, Xenpelarrenak.... eta oso ondo moldatzen nintzen gipuzkeraz.

Baziren guraso erdaldunak zuten bi anaia eta arreba bat. Eurek ez zuten hitz bat erderaz egiten. Oso euskal zaleak ziren. Haiekin asko ibiltzen nintzen.

Jonek mutil koxkorretan ere bazuen euskararekiko kezka. Bertsotan, askotan egokitu izan zaion gaia izan da. Are gehiago, inoiz, gaiaren malgutasuna aprobetxatuz, bertsoak kantatu izan ditu gai jartzaileak propio eskatu ez dionetan ere. Hona adibide bat:

1982ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako final aurreko bat Durangon jokatu zen, abenduaren 5ean. Egun horretakoa da hurrengo saioa:

**Azpillaga bandoa jotzen ari zara, eta
zu Zeberio, entzuten zaude.**

Azp: Orain arkitutzen naiz
esan beharrian
herria jarri dedin
bere indarrian
berdin eleiza banko
ta berdin barrian
euskera egin behar dala
Durangoko herrian.

Zeb: Azpillaga badaukak
oain zer konpondua
zelebrea baitzegok
bai gaurko mundua
danbor haundi bat hartu
jotzen du bandua
Zeberioak holaxe
jotzen dik mandua.

Azp: Nere bandoarekin
behar dira ohartu
agindua daukat nik
neuk ez det asmatu
lan leku eder baten
nahi duenak sartu
euskeraz ez dakienik
ez liteke hartu.

Zeb: Danbor haundi bat dauka
besoan osorik
jotzen du huts egin gabe
aurrera pausorik
ta esnatutzen ditu
daudenak gaixorik
baina inork ez dio
egiten kasorik.

Azp: Kaso egiten ere
beharko dute hasi
disgustun bat gainera
ez dakien jausi
bankuko langileak
ta berdin nagusi
urte bete aurretik
beharko'ute ikasi.

Zeb: Honek goizean goizik
ekinaz lanari
bandoa jotzen dio
hor herri danari
Azpillaga jua da jo
bikario jaunari
ta bizkarrekoren bat
emango dik hiri.

Azp: Euskerarekin denak
ibili juntuan
herri on bat gehiago
hau degu munduan
bestek agindua det
nik pentsamentuan
berdin ein beharko dute
aiuntamentuan.

Zeb: Hola ibiltzen dituk
tontoak bakarrik
ta nei ez didak joko
horrekin adarrik
Durangon egiten dek
euskera ederrik
hemen ez zedukatek
bandoan beharrik.

Beste batzutan propio jarri izan diote euskararen
gaia:

1972ko apirilaren 30a; Donostia, gai jartzailea: J.M.
Iriondo

Azpillaga bakarka:

**Ikastola bateko atean bi ama beren se-
me-alabak atera zain ikusi dituk biak er-
deraz mintzatzen.**

1

Euskaldun bi andre zeratenoi
hor hiru bertso berezi
ta ziur askozaz ere gehio
dituzutela merezi
ongi da zuen haurrak gurekin
nahi dituzuela hezi
ikastola gauz ona da baina
aurrena etxetik hasi.

2

Aspaldi grina txarra sartu zan
 emakumien artera
 kontseju eman behar dutenak
 eta umien kaltera
 zertan zatozte ispilu txarra
 hemen guri ematera
 berriz ez zaitezela azaldu
 ikastolako atera.

3

Gaur hori egin dunak egin du
 beti edo gehienetan
 ikusi gure hizkuntza zaharra
 dagoela aienetan
 halare denak ez dira berdin
 eta ez nago penetan
 holako gutxi azaldu bedi
 Euskadiko sukaldetan.

Leitzan, 1975eko martxoaren 2an, Manuel Lasarteri eskainitako omenaldikoa da hurrengo saio hau:

**Azpillaga eta Lazkano. Gaixotasuna-
 rentzat erremediua eskatuko diegu. Gure
 Naparrua zaharrean Euskera galtzen ari
 da azken urte hauetan. Zer erremedio ja-
 rriko zeniokete gal ez dedin.**

Laz: Alde batera hau ikusirik
 ez degu sufritzen gutxi
 garai batetik honera bada
 hortan zenbait diferentzi
 baina gainbehera goazela ta
 betirako zertan etsi?
 Gutxinez, behintzat, egiozute
 lehen dagon apurrai eutsi.

Azp: Iritsia da halako baten
esnatutzeko eguna
Naparruari bultz egiteko
gaur ez da falta laguna
herri eder hau jarri nahi bada
lehen bezela euskalduna
aski litzake bete ezker
Lasartek esaten duna.

Laz: Garai batean Naparru zaharra
genduen zorionian
ekaitz txar batek harrapatuta
jarri digu agonian
goiko ta beheko beti gogotsu
hasi zaitezte lanian
alperrik presa egin gaberik
ura joaten danian.

Azp: Bildu zaitezte anai-arrebak
ta indartu alkarrena
pena litake galdu eraztea
hizkuntzarik ederrena
baina gauz batek oraindik jaso
litake bihotz barrena
Naparrua da zazpi ahizpatan
degun ahizparik zaharrena.

Laz: Lore on danak bakandu dira
ugaldu zaigu sasia
eta hori da gure artean
ikusten dan desgrazia
Lasarten gisa baratz horretan
egin zazute hazia
inork jarraitu nahi baldin badu
hor bada zer ikasia.

Azp: Naparruari zabaldu behar
lehioak eta atiak
bertatik berriz irten ditezen
lehen sartutako kaltiak
indar berriak hartu behar baitu
gure hizkuntza maitiak
hala behar bada hautsi bitzate
Naparruako katiak.

Nafarroa ez zen Euskara arriskuan zegoen toki bakarra. Euskararekiko kezka orokorragoa zen. 1978ko apirilaren 30ean Ahetzen egindako saioa da hurrengo hau:

Azpillaga eta Egileor. Bi bertso; zerk salbatuko du Euskera?

Azp: Euskera nola salba ditaiken
galdera latza benetan!
Guk maitekiro ibili arren
bihotz eta ezpainenetan
mintzaira ezin salba litaike
sukalde eta kaleetan
gure Euskera sartu dezagun
leku ofizialetan.

Egi: Ikusten da bai, gure hizkuntzak
badula nahikoa gradu
zuen aurrean aitortuko det
gaur zuzen eta ondradu
Euskera nola salbatu leiken
Itzainak galdetutzen du
andaluziak ez du salbauko
geuk salbatzen ez badegu.

Azp: Euskal Herriko umeak daude
erderakin mantenduta
ta txoko baten sartu nahi dute
gure Euskeraren konduta
saia gaitezen abertzaleak
oindik ez da berandu-ta
telebisiona Euskeraz jarri
erdarazkuak kenduta.

Egi: Lehen "Gora Euskadi" esanez gero
sartzen gintuzten oinpera
orain hori're libratu da ta
jarrai dezagun aurrera
dudik ez dago pausoik txarrenak
emanak dira gainera
oraindik zerbait egin gentzake
saiatzen baldin bagera.

Azp: Euskaldun batek izan behar du
bere lurrentzako fina
ta beti gogor aurrera eraman
indarraren ahalegina
estatuto bat bada ederra
Sabino Aranak egina
salba liteke euskaldun danak
abertzaleak bagina.

Egi: Gure hizkuntzai gertatzen zaio
makinatxo bat komeri
anai-arrebak nik bezelaxe
dakizue zuek gauz hori
eutsi Euskerai eta ez deila
beraz, lurpera erori
laguntasuna eska zaiegun
Martin Villa ta Fragari.

Bi bertso eskatu eta gehiago bota! Gaiak merezi zuen seinale.

Garai batean, zenbait gai jartzailek gaiak luze-luze azaltzeko joera izan zuten. Euskara gaia ipintzeko luze aritu zen, noizkoa den ez dakigun, Ermuako saio honetako gai jartzailea.

Azpillaga eta Lopategi. Euskera indartu behar degu ikastoletan baino, baita ere, sartu beste eskoletan, leku guztietan. Promesak promesak dira, baina ea noiz bihurtzen diran ekintzak.

Gero, beste gai bat ere badugu, betikoa. Hemen ditugu gure inspektoreak; promesak gora, promesak behera. "Bai, bai, bai," baina beti "ez, ez, ez" beti oztopoak ipintzen.

Azp: Euskal Herria erdaldun jarri
hori da gure kaltean
inspektore ta direktoreak
badabiltz gure artean
erabaki bat hartu beharra
dago Madrilgo gortean
ia Euskera eskolan sartzen
duten datorren urtean.

Lop: Bertsolariak halabeharrez
gagoz horren borondatez
engainu asko izan baitogu
geure herriaren kaltez
inspektoriak arduraz dabiltz
gure lotura ta katez
Madril aldetik promesa asko
baino laguntzarik batez.

Azp: Euskerak ezer balio duen;
hau jakintsuen galdera
ikusteagatik inspektore hoiek
datozte gure artera
salba gentzake Euskal Herria
piztu lezake Euskera
Jainkoak daki zenbat gentzakeen
danok bildutzen bagera!

Lop: Bildutakoan gure bihotzak
beti dagoz amestiak
danok dakigu fruitu ederrak
nola diren garestiak
baina etorkizun bihar-etziko
izan ditezen eztiak
euskeran mende behar genduzke
gure eskola guztiak.

Saio berean, Euskara gaia atera zen berriro. Ziur ez bagaude ere, 1981. urte ingurukoa dela uste dugu. Gaia errepikatzeak urte haietan zuen garrantzia erakusten digu.


**Azpillaga eta Lazkao-Txiki. Jaialdian
diren ikastolako eta beste eskoletako
haurrei.**

Azp: Hemen zagozen mutiko-neskak
alkarren aldamenean
nahiko genduke Ermuko herriak
jarraitutzea lehenean
zuek euskeraz ikasi eta
guztiak zorionean
beraz, euskeraz egin eizue
etxean eta kalean.

Laz: Jesusi haurra ein zaion eran
neuri ere zait atsegin
herri hontako haurtxo maiteak
mintzatutzen naiz zuekin
ikastola ta etxe ta kale
beti euskeraz hitz egin
gure Ermuan Euskal Herri hau
betiko galdu ez dedin.

Azp: Oain urte batzuk Ermuko herria
argi genduen ikusi
kaletan euskera hutsa zegon
geroztikan da iraultsi
zuek euskaldun jatorrak izan
zeuenari gogor eutsi
eta kanpotik etortzen diran
umetxoei erakutsi.

Laz: Etxean eta ikastolan da
lehenengo eginkizuna
herri on batek beti irauteko
lehenago ikasi zuna
haurtxo maiteak entzun zazute
hemen esaten deguna
biharrerako zuengan baita
herriko etorkizuna



Roman "Okelar" eta Azpillaga



Torre baserria

Berriatua

Pasaiatik Berriatuara aldatuta, Torre baserrian bizi izan zen handik aurrera. Jon Azpillagak berak emango digu baserri hartako bizimoduaren berri:

Han egunero 16 lagun biltzen ginen. Bertako lehengo erroaldekoak eta erroalde berrikoak. 16 lagun biltzen ginen bazkaldu eta afaltzeko.

Bizimodua leku denetan bezalakoa zela uste dut. Lana egin behar izaten zen eta lana, orduan, garia, artoa, garoa ebakitzea..., lehengo ohiturako lanak. Harrian ere garia jota gaude. Orduan, matxakadorak eta, ez ziren nolanahi egoten. Laian ere egina naiz. Baserriko lana gogorra zen baina, baserrian jan egiten zen. Gerra denboran gosea bazen, baina guk ez genuen goserik pasatu, Baserrian ez zen goserik pasatzen, lana egin behar, besterik ez. Eta 16 lagunentzako adina bazen.

Hamalau urte bete ordurako hasi zen Azpillaga baserritik kanpo lanean. Hala ere, baserria zer den gertutik ezagutu du. Bertsolari ibileran, baserriaren inguruko gaitan ondo moldatu izan da. Hona hemen zenbait adibide:

Mutrikun, 1996ko ekainaren 6an, Udaberriko bertso afaria. Roman Maiz "Okelar" eta Jon Azpillaga. Okelar sagar arbola da eta Azpillaga mihura. Azken hau zenbat eta ederragoa orduan eta sagarrondo kaxkarragoa.

Rom: Gure bizitza akordauta're
etorritzen zait tristura
urruti samar ikusitzen det
nuen edertasun hura
aizu! Nigana nolatan sortu
zinaden honuntz mihura?
Horri begira jarrita ere
hau da daukadan itxura!

Azp: Sagarra zertan eman didazu
holako amenazua?
Ez al dakizu? Denentzat daude
mendia eta basua
fruta ematen zuk pasa arren
zeure bizitza osua
nere gainean kantari daude
bidegarri ta zozua.

Rom: Ez dezu ondo konprenitutzen
egin didazun galerik
nere adarrak ez dute orain
behar zuten zabalerik
inguru hontan ez zaigu falta
sagar frutaren zalerik
pena hartzen det ezin det eman
inon gustoko alerik.

Azp: Neronentzako oso ona da
egualdi goxo epela
ta sagastian sagarretatik
bietatikan daudela
Ez al dakizu emakumeak
ere antzuak direla
arbolak ere izan litezke
emakumeak bezela.

Rom: Aizu mihura desafiuak
zuk botatzen dizkidazu
nere gainean ondo izatera
ez zinan egon behar zu
baztar guztiak izorratuta
inguru hontan dauzkazu
zu orain hemen hola bazaude
neu geldituko naiz antzu.

Azp: Mihura batek epel lezake
zuk uzten dezun hutsuna
nere gainetik zure gantz hori
asko izan ohi da juna
baina kabiak nere gainean
hortan daukat erantzuna
beraz, mihurak egiten degu
zuk egin ezin dezuna.

Rom: Arbola triste antzekoa naiz
nahiko eskas samarrik
ezin goruntza altxatu bait det
behar bezela adarrik
nik gizonentzat ematen det ta
ezin eskeini sagarrik
zuk hoientzako ez dezu ezer
txoriarentzat bakarrik.

Azp: Ez al dakizu nolakoa dan
mendi zuhaitzen karrera?
Sortu ta lasai bizi izateko
etorri nintzan lurrera
gizasemeei frutu ematen
jarraitu zazu aurrera
zuk hamar urte hartuko'ituzu
ta ni hogeitamarrera.

Rom: Zeure defentsan ari zerade
hori ezin leike uka
ta irabazi nahi dezu hemen
nerekin dezun burruka
menderatuko nauzula uste det
gainera apurka-apurka
zuk ez dituzu erru guztiak
nagusiak dauka kulpa.

Azken bertsoan sagarrondoak nagusiaren kulpa aipatu du. Hurrengo saioan nagusi baserritarra Mañukorta izango da, Azpillaga, berriz azkonarra. Mutrikun, 1994ko irailean izan zen saio hau:

Azpillaga eta Mañukorta. Mañukortak baserrian artasoro bat preparatu du baserrian. Uda aldean batetik bestera ibili da bertsoan eta kasu gutxi egin dio artasoroari. Azpillaga azkonarrak artasoro erdia hondatu dio.

Doinua: Anton eta Maria

Mañ: Lana egiteko nik
baneukan itxura
artasoro jator bat
ahal nuen modura
udaran joaten nintzan
juerga ta kantura
berriz etorritzian
beitzeko ohitura
nere artasoroak
oin daukan figura! (bis)

Azp: Baserritarrak badu
makina bat kako
mendi gainetan sortu
ohi da hainbat kaiko
ta azkonarrak, berriz,
lasai jan du nahiko,
nagusia bertsoan
ibili da bapo
nik ez daukat kulparik
alperra dalako. (bis)

Mañ: Oraindik erantzuna
zeneukan jakina
zu ikusita hemen
nik hartzen det mina
negar malkoka dago
nekezari fina
begien bistan ere
ikusit ezina
zeuretzat ein behar zendun
fina izan bazina. (bis)

Azp: Ontzat ezin det hartu
jaun horren esanik
plazaik plaza ibili
ez du beste planik
dirua irabazten du
bertsotara joanik
gainera ez zaio falta
jan eta edanik
orain arto jorratzen
ez daukazu lanik. (bis)

Mañ: Lau hankan ibiltzen da
hain degu baldarra!
Muturra ta burua
itsusi takarra
erremedio bat det
nekiko bakarra
eskuan hartuko det
arto jorrai zaharra
hemen bukatu da
gure azkonarra. (bis)

Azp: Azkonarra baldarra
hori ere du kanta
hori esateko al du
arrazoi aparta?
Neregatik bota du
gezurra galanta
baldarra neri esan
besteik ez zan falta
azkonarra baino ere
baldarrago da-ta. (bis)

Mañ: Arno mendi horretan
zerate sortuak
malezi danak ere
buruan hartuak
galdu behar dituzute
hemengo frutuak
hemen bukatzen dira
zure pekatuak
gaurkoz agurtu zazuz
soro ta artuak. (bis)

Azp: Gauzak behar bezela
ari da esaten
lanik gabe artuak
ez baitu ematen
etxia utzi eta
hortik da juaten
ta konturatuko da
hau halako baten
bertsotan dabilela
ni artuak jaten. (bis)

Hurrengo saioan azkonarra azeria bihurtuko zaigu.
1976ko ekainaren 6an Erkolesen (Euba, Bizkaia) Abel
Muniategik gai hau jarri zien Azpillagari eta Lazkao-
Txikiri:

**Azpillaga azeria izango da eta Lazkao-
Txiki oiloa.**

Azp: Mendan ez da jatekorik ta
horra jeitsi naz kalera
gose dagonak oilo bat nahi ta
hor non arkitzen dan bera
luma harroak, zama luzea
arkakosuen antzera
denbora askoko bizik ez dozu
deskoidatutzen bazera.

Laz: Fina izateak ez du balio
halantxen iruditzen zat
amenazua nunahitik bada
beti langile finentzat
azari zakar, beldurgarri hau
gauza maltzurra da, behintzat,
ni oilo txiki samarra ez al naiz
azeri haundi batentzat?

Azp: Sasoi batzutan bildotsen bila
ibiltzen gara mendian
ezer ez dago eta kalera
jeitsi behar azkenian
okela gitxi ta luma asko
zuk dadukazu aldian
oilo zaharra be ez da hain txarra
besterik ez dagonian.

Laz: Honek daduka gose haundia
ta honek jateko antsia
pinu artetik oilategira
gau hontan dago jeitsia
Icona-k ere hauek hiltzea
nola dun galerazia
merezi ez dun makina bati
gordetzen zaio bizia.

Azp: Oilo zaharra da; etxeko andreak
hau ez dau asko zainduko
honek emanda arraultza asko
habitik ez da kenduko
baina besterik ez dagonean
zuri ezin egin uko
luma ta guzti jan eta ere
ez naiz asko gizenduko.

Laz: Pinu tartean honek eiten du
egun guziko bizitza
gero gauean oilategira
harroturikan isatsa
ni arraultz jartzen zintzo ta ongi
hori da nere egintza
gu langileok persegituta
lapurrak libre dabilta.

Behin azeri lapurra izatea tokatzen bazaio bertsolariari hurrengoan berari egingo diote lapurretan. Hala, 1979ko abenduko 16an, Donostiako Karmelo Baldan pilotalekuan On Manuel Lekuonari eskainitako omenaldian, Iñaki Murua gai jartzaileak honela hitz egin zuen:

Azpillaga eta Amuriza. Zuri, Azpillaga, baserritarra izanik, joan zen egun bate-tik astoa falta zaizu eta, badirudi, Amuriza honek, nahiz holakoaren itxura ez izan, lapurtu ote dizun.

Azp: Egun hauetan gauza batekin
nabil zeharo nahastua
nere auzoko gizona dala
neri hori narrastua
nik lehen neukan ta orain honek du
izugarrizko astua
ta ziur nago hori ote dan
gure sorotik ohostua.

Amu: Asto kaxkar bat medio dala
jarri gera hemen teman
ikuilu bat badaukat eta
pentsua ona nik eman
hori dala ta jende aurrean
jarri nau ijito faman
nik zuri ezer ez dizut ohostu
baizik hartu ta eraman.

Azp: Astua dala medio daukat
nik barrena sotatuta
gizona ez da aberastutzen
era hortan jokatuta
harek ostikoz ere badaki
lehen sarri egin du-ta
laster ikusi behar degu hau
antiojuak apurtuta.

Amu: Antioju ta hain gabe ere
ibiltzen naiz ni edonun
asto zahar bati ez nioke nahi
buztan azpian egin mun
nik ez dut ezer lapurtu eta
zuk hori jakin behar zenun
asto premirik izan banuan
jabia eramango nun.

Azp: Disimuluko ateraldiak
dira lapurren esanak
lehenago ere lapurrak dira
jator samarrak izanak
antiojuen azpitik ditu
arrantza ederrak emanak
bera baino're astoago da
astua ohostu duanak.

Amu: Asto jabea kolpera jarri
zaigu ero eta bero
ni lapurretan hasteko ez naiz
izan fraile edo lego
alkar honela txarto hartzerik
hemen ez nuen espero
asto on bana biok daukagu
alkar eraman ezkeru.

Bertsolaritzak beste inon gutxitan ikus daitezkeen mirariak egin ditzake. Esate baterako, Azpillaga handia erle txiki bihurtzea. 1983ko urtarrilaren 13an, Xanpunen omenaldian bi berriatuar jarri zituzten teman:

**Azpillaga eta Arregi. Arregi lorea eta
Azpillaga erlea.**

Azp: Erle ontzitik atera eta
lore eder baten tinka
hor ibiltzen naiz ihintza dagoen
goizean beti korrika
ni ere gauza edertzalea
eta zu zera polita
zuretzat ni naiz berdin gabeko
aspertzen ez dan fabrika.

Arr: Erleak beti izan izan dau
loretxoaren premina
eta loreak erlearentzat
egin ohi dau ahalegina
sinistu gero egunsentian
itxaroten dizut baina,
zu zariala nigana heldu dan
zanganorikan haundina.

Azp: Molde berdina daramakigu
gizaldirikan gizaldiz
beti lanean lore gainean
inoiz ez nabil pikardiz
eztiarekin medizina ere
egiten dute aspaldiz
frutu gabea izango zinan
erlea izan ez balitz.

Arr: Egun eta gau ni egoten naiz
zure zain ta amets baten
guk sortutzen degun ezti hori
etxera zuk eramaten
hauxe bakarrik eskatu eta
erlea dizut esaten
bertsolarientzat ezti fina egin
ondo kantatu dezaten.

Azp: Lora politez horni diteke
leihoa eta jardina
badira hainbat arrosa mota
lirio ta krabelina
nik zuregandik ateratzen det
ezti goxo eta fina
gero gizonak harrapatzen dit
nik kostatuta egina.

Arr: Erleak eta loreak badau
munduan hainbat jatorri
zu goizetikan inguratzean
golpean diot igarri
ni polita ta ona nenguan
ta honuntza zera etorri
baino gaurkoz nahikoa dezu ta
bihar barrero alkarri.

1976ko apirilaren 25ean kazkabarra izugarria bota
zuen. Biharamunean, J.M. Aranaldek gai hau jarri zien
Gorrotxategi, Lopategi, Lizaso, Lazkao-Txiki, Lazkano
eta Azpillagari:

**Atzoko kazkabarrak puskatu zituen
Euskal Herriko loreak.**

Azpillagaren bertsoa ekarri dugu hona:

Bart arratseko kazkabar horrek
egin arren pikardiak
ibar, zelaiak eta oihanak
dauzkagu berde-berdiak
sasiak eta elorriak'e
ditu lorezko orriak
lore batzuek erori arren
sortuko dira berriak.

Hona aldatutako bertso saio hauetan ez ezik, urte luzeetan egindako kopla saioetan ere bere baserriko ezagutza sakon eta zabala agerian utzi izan digu.

Soldadutzatik etorri eta, 23 bat urte zituela, Berriatuatik Ondarroara joan ziren bizitzera Azpillagaren ama eta bi semeak:

Gu Ondarrura etorri ginen bizitzera, baina, Berriatuatik alde... ez gendun egin. Gure aita Torrek ez zuan nahi izan. Ez zan despedidarik ere egin. Berak ez zuan nahi izan. Hari iruditzen zitzaion guk han segitu behar genduela.

Aita Torre Jonen amaren anaia zen:

Nik nola ez nuen beste aitarik ezagutu, neretzako hura aita zan eta ni beretzako semea.

Ezkondu eta gero ere Jonek berriatuarra izaten jarraitzen zuen:

Garai batean Frankok ipinitako botazio batzuk izan ziran eta konturatu ziran ni ez nintzela Mutrikun enpadronatuta. Orduan, nik ezer ez nekiela, Mutrikuko udaltxeko alkate eta sekretarioa Ondarrura joan ziren eta han esan zieten Berriatuan egongo nintzela. Berriatuara joan ziren eta Mutrikura ekarri zuten enpadronamentua neu ezertako molestatu eta neuk ezer jakin gabe.

Amona

Torre baserrian bizi ziren 16 lagunen artean, bazen Jon Azpillagarengan eragin handia izan zuen bat; amona. Bere amonaz berba egitean ahotsa ere aldatu egiten zaio eta hunkidura zein miresmen ñabarduraz jositako hizketari ekiten dio:

Amonak neri esandako gauzak beste inori ez zizkion kontatuko. Nik Sabino Aranaren eragina amonagatik izan det. Sabino Aranarekin hitz eginda zegoen behin Ondarrun. Eta amonarentzat, Sabino Arana Jaungoikoa bezalakoa edo Jainkoaren hurrengoa zen. Izugarrizko gizontzat zeukan eta niri ere, hala azaldu zidan, eta nik uste nuen hala zela, gizona. Baina, gero konturatu nintzan 38 urterekin hil zenez, 38 urteko gizona ezin zela Jaungoikoa izan; eta politikoak-eta, nolakoak ziren eza-gutu nuenean Sabino Arana beste halakotzat hartu nuen. Baina, niretzat, Sabino Arana gizon haundia izan zen eta oraindik ere bada; nahiz eta orduan beste era batera ikusten nuen.

Abertzaletasuna amonarengandik jaso nuen. Hura abertzale hutsa zen. Gu eskolatik joan eta eskolako eginkizunak erdaraz egiten eta guk elkarrekin hitzen batzuk erdaraz edo egiten baginuzen, negar ere igoal egiten zuen amonak: "Akabo gure euskara, eta..." Min haundia hartzen zuen amonak gu erdaraz entzutearekin.

Gure amonak esaten zituen hitz asko gure amak ez ditu esaten, ezta amonaren gainontzeko seme-alabek ere. "Sua ixutu" esate baterako, inork ez du esaten, ez gure osabek ez izekoek,... bertan "piztu" esaten da. Edo "arco iris"-i "ostarkoa" esaten zion. Nik ez dakit nondik

ateratako hitzak zituen, nonbaiten entzun edo,...ez zekien irakurtzen eta erdaraz ezta hitz bat ere. Dena entzunetik ikasitakoa. Gure aitona gazterik hil zen bere seme-alabak ume zirela (zaharrenak 16-17 urte zituen) eta amonak, baserriko andrea izan, kontu guztiak berak atera behar zituen eta denak buruz ateratzen zituen guk lapitzarekin baino azkarrago; errealetan gainera!

Amonari errespetu eta miresmen handia zion Azpilagak. Bere bertsoetan ere aurrekoekiko errespetu hori erakusten du. Gaztea zela, zaharren aholkuak entzutea tokatu zaio, aitonduta eta gero, aholku emaile ere badugu. Ondorengo bertso sailean aitona paperean eta aitona zela botatako bertso saio batzuk bildu ditugu.

1980an XOXOAK argitaratutako kasetean aitona bati entzundakoa bertsoetan jarri zuen:

Jolasean zebiltzan neska-mutil batzuei begira zirela aitona batek esanak.

1

Lehenguan egondu naiz
aitona batekin
harrituta zeguan
gaurko gaztiekin
neska-mutilak beti
dabiltz elkarrekin
itxura asko baina
ezer gutxi egin.

2

Gaurko neska mutilak
daude borondatez
ni harritzen naiz dagon
modaren izatez
kalean zapartaka
portaleko partez
bistan itxura asko
ezkutuan batez.

3

Gure denboran dantza
 zan debekatua
 eliza ere zerbait
 bada aldatua
 esaten zuten soinu
 madarikatua
 orain libre dagona
 leheno pekatua.

4

Ez dakit moda horiek
 non jaso dituzten
 lehenago ez zan inor
 horrela ikusten
 baina izkutueta
 ezer bazan jausten
 pekatuen beldurrez
 ez genduan uzten.

5

Horregatik gazteak
 ez jarri kezketan
 egiak esan ditut
 neronen ustetan
 agur gazteak nola
 besterik ez detan
 gero damutu gabe
 saiatu gaztetan.

1995ko ekainaren 6an, Mutrikun antolatutako bertso afari batean saio hau egin zuen:

Zu zeure etxeko ispilua zara. Azaldu behar diguzu, hiru bertsoan, Azpillaga nola ikusten duzun egunean zehar. Bat, goizean jaikitakoan; bestea, bazkalostean eta hirugarrena, iluntzean, oherakoan.

Goizean

Ohetik jaiki ta erresumen bat
ispiluan det egina
kuadro eder bat badaukat gelan
etxean danik haundina
goizean jaiki ta ez det ikusten
oso gizaseme fina
esaten diot: “Zuk hobe zendun
ohetik jaiki ez bazina”

Bazkalostean

Ta eguerdian nun jartzen naizen
indar ta sasoi betian
bazkaldu eta ondorenian
gela aldera joatian
esaten diot: “Hoitamar urte
hik ez dauzkak apartian
gutxienean hi biziko haiz
beste berrogei urtian”

Iluntzean

Baina gaubean erakuste'itu
aurrea eta atzea
nekatutzean agure batek
berakin dauka trantzea
egun guztian hor ibilita
dator indarrak galtzea
esaten diot: “sartu haiz eta
hobe erretiratzea”

Horrela, bada, ikusten du bere burua Azpillagak.
1994ko irailean, Mutrikuko saioan bere lehen argazkia
ikustarazi zuten:

**Azpillaga eta Elorza. Azpillagak berari at-
ratako lehen argazkia topatu du. Argazki
hori da Igor Elorza.**

Elo: Lehenbiziko orrian
hasi zara lehen
eta nireganaino
iritsi ondoren
zeinen mutil polita
daukazun gaur hemen
ta begiratu orain
zer bihurtu zaren!

Azp: Gizonak zahartzen gera
hola gabiltzala
argazkiei badiet
halako itzala
emaztea ta biok
bila genbiltzala
konturatu naiz lehen
guapoa nintzala.

Elo: Guapoa zinen baina
itsusi jadanik
apustu txikitxo bat
egin nahi dizut nik
joan herriko plazara
argazkia harturik
ezetz inork sinistu
ni izan zinenik.

Azp: Orain ia ematen
badet marrazkia
andreak ere badu
horren aitzakia
nere buruarentzat
daukat errukia
orain saiatu zait
nere argazkia.

Elo: Pasa behar dituzu
hainbeste estrago
konsuelo txikitxo bat
emateko nago
alboan andrearen
argazkia dago
ta ere ez dago orain zu
baino politago.

Azp: Argazkiak ikusten
izan detan beta
izan'e kuadernua
nedukan beteta
ta orain gordetzeko
badaukat arreta
ondo gordeko zaitut
polita zaude-ta.

Elo: Beraz, gorde nahi duzu
gaur nire dizdira
oroitzapen kontu hau
tristetzen ari da
malko bat heldu zaizu
zure ezker begira
nahi baduzu pasatu
hurrengo orrira.

Azp: Behintzat konturatu naiz
nintzan dotoria
naiz eta kolorea
eduki horia
gorputz tentia eta
aurpegi hobia
hor geldituko al da
nere istoria?

Aitonak eta gazteak sarri elkartu izan dira bertso gaietan. Aurreko bertso saio berekoa da ondorengo jarduna:

**Azpillaga eta Murua. Azpillaga, aitona,
Kalbaixotik behera dator meza nagusira.
Muruak, gazteak, txakolinez betetako goi-
tibehera arrastaka darama Kalbaixon gora.**

Azp: Aitona batek gazte dagona
nolabait nahi du zuzendu
zuk bezelaxe gazte denboran
gauza berdina izan du
goitikan behera etorriko da
hori lehenago esan du
hobe zenduke txakolin hori
eramango ez bazendu.

Mur: Aitona dator meza asmotan
ibileraz nahiko babo
eta ni, berriz, izerditan blai
goitik beheraren esklabo
txakolinari egingo diot
ermitan hiru-lau trago
apustu baietz plazara iritsi
aitona baino lehenago.

Azp: Gaztea da ta disfrutatu nahi
ta neri ez zait inporta
nik kontsejuak emango'izkizut
ondo jakinda nago-ta
txakolin hoiek gora orduko
beharko dituzu bota
edo bestela geldituko da
arbola haundin bat jota.

Mur: Batzuk gorako edango ditut
besteak gora igota
hura sasoia! Haiek orruak!
Gaztea zeinek aguantat?
Eta, aitona, badaezpada
bide erditik aparta
nik daramadan goitibehera honek
bozinarik ez dauka-ta.

Azp: Kalbarioko plazan izaten
dira hainbat bertso kopla
nik nahi nukeena okerrarekin
inon ez zaitela topa
edaten dira hainbat botila
edo baso eta kopa
Txurruka plaza iritsitzea
besterik ez dizut opa.

Mur: Zuengandikan zurrut egiten
gaztetan nuen ikasi
kaja oso bat laiste hustuko det
horra hor adierazi
behera aurrean hartuko ditut
horko zuhaitz eta sasi
sartu eleizan ta nere alde,
arren, erreztatzen hasi.

Mutrikuko Santa Eskeak, ondo merezitako omenaldia egin zion, 1995 otsailaren 4an, Roman Maiz “Okelar” koplari eta bertsolari bikainari. Parte hartu zuten bertsolariek, Azpillaga, Narbaiza, Mugartegi, Juan Mari “Erdikua” eta Laxaro Astigarragak galderak egin behar zizkioten Okelarri eta honek erantzun. Azpillagaren galdera eta Romanen erantzuna jarriko ditugu.

Azp: Gauza txarra sekula
ez liteke ondu
Roman ez da ibili
mundurikan mundu
gauza bat jakin nahi det
behar deu konpondu
zergatikan gaztetan
ez zinan ezkondu?

Oke: Ez da inork hartutzen
ez nindulako aintzat
hori aitortu beharra
orain badet, behintzat
hauxe esango det nik
entzulearentzat
beti geroko utzita
denbora joan zat.

Aitonak aitonekin eta aitonen gaietaz ere aritu behar izan dira. 1996an Ibarren egindako saioa da hurrengo:

Puntuka Azpillaga, Jose Lizaso eta Agirre. Norbaitek plazan esan omen zuen: "Hiru aitona horiek mingain azkarrak daukate"

Liz: Hori al zendukazun
guri esateko?

Agi: Asko falta degula
bizkor izateko

Azp: horrek esan duena
guk degu beteko

Liz: mingain ona behar du
bertsotan eiteko.

Agi: Ta emakume kontua
degu gehientxonian

Azp: hasi baino bukatu
gaizki azkenian

Liz: hau dek errosariua
zahartu geranian

Agi: eta indarra falta
tiro pitxonian.

Azp: Horretarako ez da
gure edadia
Liz: pakian utzitzia
guretzat hobia
Agi: lehenago eginda gaude
bakoitzak beria
Azp: noiz hartu behar degu
formalidadia?

Liz: Bide zelebretikan
gerade abitu
Agi: inor ez da halere
gehiegi harritu
Azp: ahaleginak eginda
ezin gea kabitu
Liz: guk zer egingo degu?
lehengua kontatu.

Agi: Beraz, lehenguak hobe
degu kontatuta
Azp: lehengoarekin nago
aspaldi ahaztuta
Liz: berririk ezin degu
ezin mugituta
Agi: Lizaso aspaldi ez da
tajuz montatu ta.

Azp: Guk dadukaguna da
mingaina leguna
Liz: hori da berritsuak
egiten deguna
Agi: horixen bakarrik da
gelditzen zaiguna
Azp: Lizaso zaharra hori da
balio ez duna.

Liz: Zertako hasi zera
Lizason pikardiz?
Agi: Hutsa Azpillaga bera
sasoikua balitz
Azp: trankil-trankila zaude
juan dan aspaldiz
Liz: zeuk noiz egin zenduan
azkenengo aldiz?

Agi: Hori ez dago goguan
honen jenuan
Azp: Lizasok daukana da
kolera iguan
Liz: etxean triste eta
erronkan kanpuan
Agi: nik apuntauta daukat
kalendariuan.

Azp: Lizasok indar asko
mingainaren puntan
Liz: hargatik gaur zurekin
ari naiz disputan
Agi: ez dakit ezer ere
sinisten dizutan
Azp: oraindik egiten det
astean hirutan.

Liz: Hau da napar zezena
mundura jaiua!
Agi: Gezurretan ari da
baldar arraiua
Azp: itxura halakua
ta ez zera iaiua
Liz: hola dibertitzeko
non dek nerbiua?

Agi: Azpillaga hizketan
formal jardun hadi
Azp: zein nolakuak geran
ez al da nabari?
Liz: Heuk siniste'ez dekanik
ez esan besteri
Agi: eta isildu hadi
majadero hori!

Azp: Ez dezute esan nahi
zeuen kontu dena
Liz: zertako esango deu
gezur nabarmena?
Agi: Isilik gordetzea
ez al da onena?
Azp: Neu naiz gazteena eta
badaukat kemena.

Liz: Gaur nun utzia degun
jakin nahi det burua
Agi: hementxe daukagu ta
zure apurua
Azp: formal bukatutzea
ez da segurua
Liz: lotsatzen hasi naiz ta
isiltzera nua.

Aitonon kontuak barik, amonenak ere sarri izan dira. Honako hau Mutrikun 1996ko irailaren 7an entzun genuen:

Azpillaga eta Mañukorta. Azpillaga erratzarekin bazterrak garbitzen ari den amona da eta Mañukorta txoko batean amarauna egiten ari den armiarma.

Azp: Ni amona bat zaharra naiz baina
batere ez zait inporta
ta armiarma bihurtutako
prenda bada Mañukorta
zikintzen dizkit sukalde, atari
armaio, atze ta korta
berehalaxe hil behar det hau
eskoba honekin jota.

Mañ: Aizu, amona buruzuria!
Emate'idazu grazia
eskobarekin lana egiten
umetatik ikasia
kabi egiten ni ere ai naiz
badet nire malezia
zu bezelaxe estimatzen det
nik ere neure bizia.

Azp: Bizia maite dezula baina
egin beharko adio
garbitasun ta txukunkeriai
ez diezu amodio
amaraun eta zikinkeria
besteik ez zaizu jario
gaizki egiteko bestetarako
zuk ez baitez balio.

Mañ: Armiarma batek esan bezela
batere ez dauka lotsik
galtzeko hemen nola ez dedan
nik gaur egunian sosik
goitikan behera zikin batzuek
bota eiten dizut, baizik.
Burutik behera jauste'z badira
amona egon zaite pozik.

Azp: Armiarma hau ezagutzen det
nolakua dan aspaldiz
baina harrapatuko zaitut nik
kontu-kontu ez bazabiltz
paretan zehar harrapatzea
pentsatu det hainbat aldiz
frijitu eta jango genduan
jatekua izan balitz.

Mañ: Aizu, amona! Begiratuta
emate'idazu grazia
hainbat uda ta hainbeste negu
etxe zahar hontan pasia
txoko guztiak ezautzen ditut
badet nere malezia
argiagorik etortze'z bada
salbo da nere bizia.

Eskola

Euskal Herri osoan bezala, Berriatuan ere ez zegoen eskolan euskaraz egiterik eta beste zenbait tokitan eraztuna zena han giltza zen. Euskaraz egiten zuenari giltza ematen zitzaion eta honek hurrengo mintzatzzen zenari pasa eta eguerdian giltza bere eskuetan zuenak arratsalderako 100 bider idatzi behar izaten zuen “No hablaré el vasco en la clase” moduko esaldiak. Jon mutikoak, askotan izan zuen giltza eskuan.

Azpillagak, gehienen antzera, eskola izan zuen erdal gun e bakarra. Etxean, kalean eta, gero lantokian ere, ez baitzuen euskara besterik entzuten.

Erdaraz, eskolatik atera nintzenetik eta soldadu joan arte gutxi egin det, Ondarrun ez zen erdaraz egiten eta. Han izan nintzen tailer batean lanean eta han ez zuen inork erdaraz egiten. Erdaraz ez nuen asko ikasi eta soldadutzara joan nintzen nekiena atzera ahaztuta ia. Han ikasi nuen berriz erdaraz dakiten pixka.

“Afizio haundia” omen zion Jonek eskolari eta baserriko lanak zirela medio egunero joaterik ez zuen arren, ahalik eta gehienetan joaten zen.

Garai hartan, ordea, gazterik utzi behar izaten zen eskola lanera joateko. Eskola utzi beharraren oroitza-pen gozorik ez du Azpillagak:

Hamahiru urterekin azkeneko aldiz eskolatik etxera joan nintzenean nire gelara sartu eta, eskolara gehiago joango ez nintzelako, negar egin nuen. Jakinik ez nintzela gehiago joango penaz edo... neu bakarrik ezkutatu eta negar egin nuen. Beste denak pozik, baina ni isilik.

Ez da harritzekoa, txikitatik esku artean biltzen zuen guztia irakurtzen zuen, liburuak, bertso pape-
rak, ... ikasteko gogo handia izan duen pertsona bai-
ta Azpillaga. Ikasteko gogo horrek, eskola gutxiko
umea, asko dakien gizon egin du.



Jaunartzea

Lana

San Juanetan irten nintzen eskolatik eta Arimen egunean hasi lanean, 14 urte egin baino 24 egun aurretik. 14 urte azaroaren 26an egiteko nintzela, hilaren 2an sartu nintzen lanean. Sartzeko muga 14 urtekoa zen baina, ni aurretik sartu nintzen. Seguridade Sozialik eta, ez nuen; 14 urte arte ez zegoen Seguridade Sozialera apuntatzerik.

Itsasontziak konpontzen zituen. Ondarroako tailer batean "pintxe" sartu zen, ikasten eta soldata gutxirekin. Egunean 6 pezeta ematen zituen etxean. Berriatuatik Ondarroarako bidea bizikletan egiten zuen "Indurainek baino kilometro gehiago" Goizeko zazpitan jaiki eta, "orduan, lana ikaragarri egoten zenez" 10, 11 eta inoiz 14 orduko lan-egunak ere bete omen zituen.

Gero soldadutzatik etorri nintzenerako, mutil haundia ordurako, beste tailer batera joan nintzan eta han sozio hartu gintuzten, guk eskatu gabe. Han, sozio, 2-3 urte egin eta gero bi tailer jarri genituen anaia eta biok beste sozio batzuekin, bat Mutrikun eta bestea Ondarrun.

Beraz, lanaren alderdi guztiak ezagutu ditu. Langilea eta langile izateari utzi ez dion patrioarena ere. Jubilatatu aurreko urteak gogorrak izan zituen. Lana urritzeaz gain, krisialdi latzean egiten zena kobratzeko ere arazoak izaten ziren. Inoiz joan izan zen bertsoara burutik lan arazoak kendu ezinik. Emazteak ezagutzen du ondo senarra:

Gure gizona ez da kanpoan jendeak pentsatzen duen bezain lasaia. Gauza askorekin ni baino estuagoa da. Itxuraz patxada

haundikoa da baina arazoren bat badu, ez dizu esango, baina sufritzen egongo da.

Osasun gogorrekoa izan arren, "angina de pecho" eman zionean ere, tailerreko arazoak eta estresagatik eman zion.

Ondorengo saio hauetan bi paper hauetan agertu zaigu: langile eta patroï. Betiere, lanaren aldekoa.

1976ko ekainaren 6an, Erkolesen. Gai jartzailea: Abel Muniategi.

Azpillaga bakarka:

Behargineri, langileri bi bertso

1

Ekonomien komisio bat
bada entzuten genduna
noiz izango da garbitasuna
argitutzeko eguna
lanean beti gogor saiatu
izan bada euskalduna
Euskal Herrian geldi deitela
bertan egiten doguna.

2

Maltzurkerin bat badabil hemen
ziur ez dakit zeinena
jende asko da langilearen
bizkarretik dabilena
jende guziak badaki lur hau
lanean dana finena
sindikato bat behar genduke
euskaldun biharginena.

EUSKALDUNON EGUNKARIAk, egunero, garaian garaiko berrien inguruan bertso bat argitaratzeko ohitura zuen. Azpilagak sarritan jaso zuen idazteko deia. Hona ale bat:

Baxurako arrantzaleak

Motiboren bat izango zuten
manifestatzen hasteko
Bilbo ta Pasai sarrera gabe
itsas aldetik uzteko
orain Frantzitik antxoia dator
salneurria jeisteko
arrantzalea hortaratu da
ogia irabazteko.

Langileei ez ezik nagusiei ere kantatu izan die. Ondorengo bertsoak J.M. Iriondok eskuratu zituen 1965ean.

Nagusi bihotz gogor bati

1

Hitz egin biharrian
nago nagusia
erabaki dezagun
daukagun auzia
txikia da ematen
dan irabazia
langile taldea da
hasarrez josia
egiten dezulako
gauza itsusia.

2

Hamaika pena pasa
bihar bihotzian
poz haundirik ez dago
etxian sartzian
lanian gogor egin
guk aste guzian
hala ere dauzkagu
haurrak oin hutsian
zer egin genezake
zuk eman ezian?

3

Dirua dadukanak
 lezazke gauz onak
 baina galdu dituzu
 lehen zenduzkan sonak.
 Dirua nunahi bota
 ta pasatu bromak
 bizimodu eskasa
 menpian dagonak
 ordu bat ez du onik
 holako gizonak.

4

Bildurtuko al zera
 hauxen esatian
 egiten dezuna da
 zureztat kaltian
 gu sortu ginadenak
 lurralde batian
 alkar maitatzen beti
 saiatu gaitian
 bestela ezin sartu
 zeruko atian.

5

Inoiz ez dezu izan
 diruaren faltik
 gaitz ahulerian sartu
 zera horregatik.
 Jan nahi dezun bezala,
 txanpaina kopatik
 zabiltz ez dezulako
 bihotzaren tautik
 odola zurruputzen
 gure zainetatik.

Azkena kanta bihar
 nizuke berela
 uste det hitz egiten
 alperrik gaudela
 zuk dezu borondate
 eskas ta ergela
 bihotzetikan ere
 hain zera igela
 etxe berririk ez det
 hartuko horrela.

Nagusi gogorrari bertso berriak jarri zizkiona nagusi bihurtuko du bertsolaritzak. Nolako nagusia zen erakutsi zigun Ermuko saio honek:

Azpillaga eta Igartzabal. Azpillaga nagusia da eta Igartzabal langilea.

Azp: Joan dan aspaldi lantegi baten
 ari gera alkarrekin
 nagusi gisa ni aritzen naiz
 ta zu langile nerekin
 aitortzen dizut: jatorra zera
 ta lan egiten dezu fin.
 Galdetzen dizut: konforme al zaude
 jornal eta lanarekin?

Iga: Nere jornal ta lanari jarri
 behar naiz orain begira
 nere gisara gaur egun hemen
 gehiago ere bizi dira
 zuk irabazten dezu dirua
 neretzat gutxi kupira
 ta ez al dituzu irabaziak
 bialdutzen atzerrira?

Azp: Nik atzerrira bialdutzeko
ez det izaten gusturik
nagusi geran asko gabiltza
zu bezelaxe juxturik
jornal haundia ez dezula-ta
ez zazu hartu disgusturik
gehiago pagatuko nizuke
ez balego inpueturik.

Iga: Langilea naiz ta izan nahi det
beti langilean gisan
baina nagusi asko ez zaitezte
gaur zauden erako izan;
herria eta langileria
hartu hutsaren peskizan
ta koittaduak bien bitarte
miloï pila bat han Suizan.

1982ko txapelketan ez zen nagusira iritsi eta lantegiko atezain jarri zuten.

**Azpillaga eta Zeberio. Lantokiko sar-
rerreran Azpillaga portero dago eta Zeberio
bost minutu beranduago dator lanera.**

Azp: Lehen ere inoiz egin du
hau ez da gaurkua
atezainak honentzat
eiten du nahikua,
erdi lotan datorren
tontolapikua
logalea dezula
itxura kaikua
juan ta azkar ein zazu
lehen galdutakua.

Zeb: Bost minutu berandu
eman du albiste
gure portero zahar hau
ez daukagu triste,
atzo parranda egin nun
nola naizen gazte
irikizak atea
aguro ta laste
hala're egingo diat
porterok hainbeste.

Azp: Porteruak zaitze'itu
ate ta jardina
besteak zuzentzea
bere ahalegina,
berandu etortzeak
ematen dit mina
heldu liteke baina
beti du ezina
azkena etortzen da
alperrik haundina.

Zeb: Besterentzat badauka
hainbeste enredo
hasten naizenen lanen
egiten det bero,
bokadilotxo bat jan-
go diat bai gero
honek ematen duna
aitzeki ta zero
bera langile izanda
jarri zan portero.

Azp: Denborarik gehiena
eiten du geldia
parrandan ibiltzeko
ez da kobardia,
tabernazalea da
hoi du alderdia
begiak gorriak ta
kolore berdian
lanean egiten du
bestien erdia.

Zeb: Honek egiten duna
besteari kanta
atea irikitzeko
horrenbeste lata,
altxatzeko gogua
hori zaio falta
bere burua jarri
langile aparta
bien bitartez degu
alperra galanta.

Txapelketa horretan bertan, baina oraingoan Durangon, puntuari erantzun zion Azpillagak.

**Zu haundi eta ni ere haundi
nork erasoko lanari**

gauz xelebreak esaten orain
hemen ez ote da ari
arrazoia ere eman leioke
hori esan dun jaunari
ta lana, berriz, utziko diot
gogua dadukanari.

1982ko Txapelketa nagusiko finalekoa da hurrengo saioa; bizitzan bestelako paperak egokitu bide zitzaizkien Amuriza eta Azpillagari, Xabierrek berak lehen puntuan aitortzen duenez.

Biok langileak zarete, baina zuen eskuak ikusita, bada zuen artean diferentziarik. Amuriza, hire eskuak olio eta koipez zikinduak, eskulan gogor batek zartatu eta puskatu dituen eskuak dira; hireak aldiz, Azpillaga, beti paper artean garbi eta lirain gorde diren eskuak dira.

Amu: Paperak orain aldatu behar
hau da komeri sorgina
nire laguna guri dago ta
lehengo apaiza zikina
esku horiei begiraturik
ez zaude langile fina
beste itxura bat izango zendun
nire postuan bazina.

Azp: Lan gogorrean ari dalata
horren beste negar malko
zein lantegitan lanean hasi
aurretik pentsa beharko
paper artean nere eskuak
daude leun eta bapo
nik ez dadukat bat ere errurik
zu tontua zeralako.

Amu: Arrazoi hoiek paper artetik
zuk aterako zinuzen
karrera ere egina zaude
Donostin eta Toulusen
esku zikinak ditudala ta
tontotzat jo nauzu zuzen
zu jaio zinan egun haretan
lapur galanta sortu zen.

Azp: Uste gabeko arrazoi txarra
ez da gauza egokia
gizon alperrak beti berekin
du antsi ta aitzakia
nahi baldin ba'ezu nik hartuko det
zuk dadukazun tokia
eta orduan egingo degu
lagun arteko pakia.

Amu: Lehen kontra zegon ta orain alde
bakea dela suertez
langile on bat ez duk saldutzen
horrelako tratu merkez
Jainkuak ere lotsa behar du
zure egile izatez
karpeta hoiek hartu ta zuzen
parlamentura joan zaitez.

Azp: Alde ez nago zure antsia
sartu zait nere kolkuan
gainera ez da nere beharrik
izango parlamentuan
bizar zuriak irten zaizkio
eta zipotza lepuan
berak gehiago ostuko luke
balego nere lekuan.

Amu: Lapurretako leku txarra da
Amuritzaren langintza
eskuak zikin dituelako
ezin hor goietan mintza
baina ez uste naizenik gero
holako tonto murrizta
nik ere ostuko nuke zu bezain
lapurra izan banintza.

Azp: Alperkerian dabilen batek
ditu bere desgraziak
bere eskuak olio eta
grasaz daduzka jantziak
gizon alperrak zeintzuk diraden
gaude pentsatzen hasiak
alperkeriak berekin ditu
beste defekto guztiak.

Bertsolaritza ere lana bada. Askotan aitortu izan da
hala. Azpillagak Donostiako final horretan honako
puntuari erantzun zion:

**Egindako lanaren
damurik ez izan**

badakizute aspaldi
gu nola gabiltzan
kantatzen degu plazan
ta berdin elizan
gure kantuak frutuak
gero eman ditzan.

Soldadutza

Soldadutza Burgosen egokitu zitzaion. Gertu.

Orain bai gertu! Orduan ez zan gertu izaten. Orduan urruti zegoelakoan! Autobusean edo trenean joan behar izaten zan eta ez ginan sarri etortzen. Nik 15 hilabete egin nuen soldadu. Orduko gutxien egin genuenak izan ginen, 56ko kinta.

Soldadutzan beste bertsolari bat ezagutu zuen, bere kintoa den Joxe Insausti. Honek, Segura herriko taldeko partaide zela, herri arteko “Fernando amezketarra” saria irabazi zuen 1985ean Florentino Goiburu eta Pedro M. Etxezarretarekin batera.

Insaustik “Bar Sotillano”n afaltzen zuen eta bertso-tan zebilen egun baten erantzun egin nion. Bina bertso edo bota ondoren, presaka zebilela-eta, alde egin zuen. Ia egunero egoten ginen elkarrekin baina elkarren izenak besterik ez genekizkien. Hark ni Juan nintzela besterik ez zekien.

1960ko txapelketan “Victoria Eugenia” ez zegon lekurik. Altabozak kanpora ipinita, kanpuan jende asko egon zan entzuten.. Antzokitik, nere kopakin atera nintzenian sekulako saludua egin zidan Insausti horrek:

“Lagunei esaten aritu nauk, Bizkaitik hona etortzeko eta holako bertsolaria, heu izan behar huela”

Oraindik Gipuzkoa guztiko kintoek bazkaria egiten dute urtero.

Biok joan eta bertso-tan egiten degu bai elizan baita bazkalostean ere. Lehenengo urtean, 300 bat lagun hasi ginan baina, bagoaz jeisten. Joan zen urtean (1999) Kalbarion egin genuen meza ederra. Oso tenore onak ere

*badauzkagu, Urrestilako Moxorro, Jesus M. Lekube...
eta giro ona izaten da. Azkenekoan ez ginen 200 lagu-
nera iritsi.*

Jose Insaustik, berak, Donostian, Azpillagari egin
zitzaion omenaldian nola ezagutu zuen gogoratu zuen:

Azpillaga ezagutu
nuan zorionez
berarekin soldadu
Burgosen egonez
gutxitan alkartu naiz
inun lagun hobez
bertsolari aparta
ahotsik goxonez
ta jatorrenan pare
jotzen det gizonez.

Emaztea / Familia

Garai hartako gazte baten bizimodua ez zen lanera eta soldadutzara mugatzen; dibertsiorako ere bazuen astirik.

Guk, orduan, sasoi edarra geneukan eta ibili egiten ginen, mendiko erromerietara eta...

Sasoia duenak jairik jai ibiltzeko aitzakiarik ez duenez, ondo ezagutzen ditu jaiak eta euskal jolasak. J.M. Iriondok Loiolako Herri Irratian egiten zuen "Beti Jai" irratsaioan kantatu zituen ondorengo bertso hauek Jon Azpillagak. Urtea: 1964

Agurra:

Txanda etorri da ta garaian
hasi behar det lanian,
gai sakon, eder, haundi bat dago
Azpillagaren gainian.
Loiola Irrati hontan ezagun
naukazute aspaldian
badakizute euskal-jolasak
zer modutan bizi dian...
Agur egiten det nik lehenbizi
Beti Jai-ren atarian.

Euskal Herriko jai, dantza eta jolasak.

1

Sarri ez ditut munduan izan
hau bezalako egunak
bertsolariak gera gauza asko
azaldutzen ditugunak.
Ai, euskal-jolas agurgarriak,
alaiak eta bigunak,
agurtzen ditut hoiek maitatzen,
dituzuten euskaldunak.

2

Joan dan aspaldi ikusi degu
 guk jostaketa flakorik
 ez nuen uste Euskal Herrian
 behin ere horrelakorik.
 Atzerritako dantza berriak
 gure gazteak harturik;
 baina ez dago gure asaben
 sueltoa bezalakorik.

3

Gure asabak kontau ziguten
 lehenako hamaika kontu,
 mendietako erromeritan
 sarritan ziran juntatu.
 Alaiki ibili, mendirik-mendi,
 danak sueltoan dantzatu...
 Garai batean ez zan egiten
 gaur dagon hainbat pekatu.

4

Euskal Herriko ohitura-kontu
 hau esan nahi det lau hitzez:
 itsas-bazterrak inguratuak
 nola ditugun harkaitzez,
 ohitura hoiek sortutakuak
 maite ditzagun bihotzez.
 Ai antzinako guraso zaharrak
 gaur ere bizi balitez!

5

Gure asabak bizi ziraden
 oso sinismen senduan
 eta ez ziran erretiratzen
 behin'e garai beranduan.
 Ohitura asko asmatu dira
 aurrerapenen moduan,
 baina gureak menperatzeko
 bat'e ez da sortu munduan.

6

Guk berdin izan behar genduke
 aurreko ta atzekoak,
 ohitura hauek dira garbiak
 eman dizkigu Jainkoak,
 gure soinu ta dantza suelta,
 abesti eta bertsoak...
 guk ere beti maita ditzagun,
 euskaldun bihotzekoak.

7

Zenbait alditan zahar haien hitzak
 sartu zaizkit bihotzera,
 horregatikan bizi nahi det nik
 guraso zaharren antzera.
 Ohitura haiek ikusten ditut
 dijoztela galtzera;
 Jainko laztana, ni ere eraman
 ohitura hoiekin batera.

8

Denbora hartan dana zan haundi,
 ezertxo ez zan argala,
 zelako gauzak izaten ziran
 esango det berihala,
 orduko soinu ta erromeriak
 ez zeguan nola-hala,
 esan ziteken haiek guztiak
 txorien kanta zirala.

9

Bertso honekin amaitutzen det
 gaurkoz jarri ditene lana;
 gutxi egingo nuen nik baina
 egina det ahal dedana.
 Euskalduna naiz ta nola ez maite
 nere lurra edota ama?
 Agur Euskera eta ohiturak,
 ta agur Euskal Herri dana.

Mutrikuko Olatz auzotik gora, Kostolamendirantz, Isasimendi izeneko baserri bat da. Han jaiero erromeria izaten zen. Ez zen ermitarik, baserria eta mendi taberna bat.

Hamasei urte zituela, Isasimendiko alaba zen Maria Arrizabalaga Berabide ezagutu zuen. Maritxuk, berak kontatuko digu hasierako kontu haiek:

Lehenengo San Jeronimon ezagutu neban; ordurako beste neska batekin zabilen. San Jeronimon dantzaldi bat edo bi egin genduzen. Gero Gabonetan, San Esteban egunez mutil koadri-la etortzen zen gure baserri ondoan egiten zen erromerira. Neska ta mutilak, han juntatzen ginen danok.

Gure baserria bi bizitzakoa zan eta, gurean barik, bestean egiten zan erromeria. Artean, 16 urte egiteko izango nituen. Olgeta-benetan hantxe hasi ginen eta gaur arte.

Jon argala zan, luzea eta mehea, kaxkar-kaxkarra. Neskoï gustatzen zakun modukoa. Dantzan egiten gendun, etxe alboan pixka batean jarrita egon eta, gero, bakoitza bere tokira.

Ni etxeratu ondoren bera tabernara joan eta, koadrilan, tri-pakiak afaldu eta bertotan aritzen zen.

Isasimendirako bidea ez zen samurra izaten. Hasieran, oinez, Berriatuatik ordubete. Gero, Olatzera erre-pidea egin zutenean, Olatzera bizikletan eta, handik gora, oinez joaten zen Azpillaga.

Astean behin izaten ginen. Igandetan. Laguntzera joan eta gero elkarrekin segitzeko tratua edo hitza eman eta halaxe segi.

Geroago, Mutrikura jeitsi eta pelukeria jarri zuenean, egunero etortzen nintzen. Bera bakarrik bizi zen eta lanetik irtendakoan egunero etortzen nintzen andregaiarengana, poz pixka bat emateko ere! Ordurako Ondarrun bizi ginen ama, anaia eta hirurok, eta motor txiki bat neukan joan-etorrietarako.

Hogeita lau urterekin ezkondu zen; 1960ko urriaren 8an Mutrikuko Jasokundeko Andre Mariaren elizan. Ezkonduz geroztik Mutrikun bizi da.



Ondarroa, 1959-9-19

Korbata jantzi zuen lehen eguna.

*Ondo. Oso herri polita eta jatorra da. Euskaltzalea.
Nik ez daukat hemendik inora joateko asmorik.*

Esan bezala, Azpillagak “neska-laguntza” zer zen ondo ezagutu zuen bere garaian. Bizitzeaz aparte, horri buruz kantatzea ere egokitu izan zaiolako. Bertsotan jorratzen denean, umorez jorratzen den gaia da “neska-laguntza”rena.

1977ko abenduko 18an, Azpeitian kantatutakoa da hurrengo saio hau.

Larrañaga eta Azpillaga. Azpillaga neska laguntzera joan da eta begia belztuta etorri da.

Lar: Faborez esanikan
eskatuaz dantza
horri hartzen nion nik
gaiztuaren antza
ta ez zaio gertatu
gustoko neskatxa
norbaitek eman dio
muturreko latza.

Azp: Jakin gabe hitz egin,
da hutsik haundina
isilik egotea
hobe ez dakina
neska hori zan gozo,
ona eta fina
beltzuna hau da haren
anaiak egina.

Lar: Ezin sinistu leike
horrela esanik
geuk antzeman diogu
ondo portau zanic
ez da gustora ibili
neskatara joanik
ta musuak ematen
ez du izan lanik.

Azp: Musuen gustu hori
ez daukat ahaztuta
ezta ere esan zidan
hitz hura galduta
datorren igandean
daukat pentsatuta
harengana joatea
pistola hartuta.

Lar: Esan duna egia
ezin leike izen
Azpillaga badakit
nolatan zabilten
zu ere ez zinaden
portatuko zuzen
igurtziko zun maite
izan bazinuzen.

Azp: Igurtzeko ere nago
gizon aproposa
ederki ibili zan
halako larrosa
nerekin hainbestean
ez zitekeen goza
anaien disgustua
neskatxaren poza.

Lar: Musu baten aitzakiz
zabiltza botata
deklaratu behar det
enterau gera-ta
aurpegi beltzarekin
honek daukan planta!
pistola bazun baino
polboria falta.

Azp: Zer pasa zan esango
dizut orainguan
gizon kobardeak'e
badira munduan
atzetikan etorri
ta ni jo buruan
hilko nuen aurrean
ikusi banuan.

Azpillagak ez du, balizko neska-laguntzetan, behintzat, zorte handirik izan. 1979ko martxoan, Aian kantuan zela, neskaren aita du kontrako.

Azpillaga eta Etxeberria. Azpillaga, joan haiz Etxeberriaren alaba laguntzera eta horrek, aitak, txakurra xaxatu dik.

Azp: Nik maitasuna sortuta naukan
zure alaba maitian
txakurkerian ibili gabe
ondo konpondu gaitian
ni alabari laguntzen junda
aita zain zegon atian
errespetuen tutik badezu
txakurra lotu katian.

Etx: Hauxen da, jaunak, mutiko gazte
benetan buru arina
zerbait serio esango diot
gaizki hartuko du baina
pentsatu zazu alabatxua
nik maitatzen det zeuk haina
hori ez nizun xaxatuko nik
jator etorri bazina.

Azp: Hau bera degu golfokerian
ibili ohi zan klasia
ni era hortako bat ote naizen
burutik dauka pasia
alabarekin ez dezu egingo
zeuk nahi zendukeen guzia
biak katean lotuko ditut
txakurra ta nagusia.

Etx: Mutiko maite, aitaren hitzez
hartu ezazu arreta
kontsejuxo bat komeni zaizu
oraindik gazte zaude-ta
ama eta ni geure alabai
begira beti gaude ta
etxera zatoz ez zaitez egon
meta atzian gordeta.

Azp: Holako jauna dagon lekuan
batek ein behar atzera
baina egizko maitetasuna
sartua da bihotzera
aita, egunen batetan ondo
portatu beharko zera
bestela eskopeta bat hartuta
nator neska laguntzera.

Etx: Txakur gaiztua gendukagunik
zuk ez zenduen jakingo
aita zahar honek hara ez dizu
hainbat oinaze emango
alaba maite ez dezunikan
ere ez dizu esango
behar bezela zatozenian
zaunkik ez dizu egingo.

Azkeneko bi neska-laguntza hauetan Azpillagak, itxura denez, huts egin du. Hala izanik, ez da harritzekoa mutil zaharraren paperean jartzea. 1964an Bilbo-ko zezen-plazan jokaturako Bizkaiko txapelketako finaleko saioa da ondorengoa.

Mugartegi neska zaharra izango da eta Azpillaga mutil zaharra.

Azp: Urte batzuek pasa ezkeror
ez da izaten lotsarik
gaurko kaleak ikusten dira
neska zaharrakin beterik
itxura denez ez dadukate
lehenako zaharren legerik.
Zer darabiltzu sasoi horretan
gona motz-motzak jantzirik?

Mug: Atzerritikan moda berriak
ekartzen ditugu herrira
ta mutil zaharrak engainatzeko
kontuak hauexek dira.
Ikusten ditut oso zahartuak
dotore jantzitzen dira
horregatikan zu beti zabiltz
neri atzetik begira.

Azp: Begiratzeak kunplitutzen du
mutil zahar on baten gala
zuk badakizu zuek baino askoz
ondraduaguak gerala
ta neska zaharrak hortxe dabilta
zer egin ez dakitela
hauts ta pinturan gastatzen dute
aste guztiko jornalala.

Mug: Mutil zahar honek tentatutzen nau
sarritan amets gozotan
honenbesteko tristurik ez da
sortu neronen auzotan
Oker zabilta nere ondoren
egin dituzun pausotan
zu baino askoz gaztiaguak
ibiltzen ditut besotan.

Azp: Gezur batzuek esanda hemen
mutil zaharra nahi engaina
gaztetutzen da pinturarekin
atzazkal eta ezpaina.
Ez dakit nora pausoa bota
hain jarritzen da apaina
berandu samar akordatu da
oindik ederra da baina.

Mug: Zahartuta gero ez da izaten
horretan ilusiorik
apaindutzeko nik ez det hartu
sekula ofiziorik.
Lehen ederra dan batek ez dauka
ondutzeko desiorik
mutil zahar honek besterik ez du
holako desafiorik.

Azp: Lehenago ez zan horrelakua
mudatu da azkenian
gabaz kalera ateratzeko
preparatu egunian
denbora gutxi pasatutzen du
bere etxeke lanian
gure herrian zelako festak
hau ezkondutzen danian!

Mug: Gazte ginala ibili ginan
ezkondutzeko asmotan
orain holako gauzarik ez det
inoiz neronen gogotan.
mutil zahar hauek sinestu danok
oker dabiltzala hortan
ni ez nintzake zugaz egingo
gaizki bizi izatekotan.

Eta saioa, elkarri puntutan amaitu zuten.

Azp: Lehen gazteak ginan ta
zahartuak gerade

Mug: oraindik ez daukagu
hainbeste edade

Azp: baina gera estimazi-
o larregi gabe

Mug: bakarrik bizitzia
askoz degu hobe.

Mug: Inoiz izandu ditut
ezkontzeko deiak

Azp: baina beste batera
buelatu begiak.

Mug: hortan ez dira izango
inoiz gure ideiak

Azp: lehen ez zan baina edertu
digu pinturiak.

Azpillagak bertso saioetan izan ez zuen suertea izan zuen bizitzan. Maritxurekin hasitako neska-laguntzak bizitzarako laguna eman zien biei. Esan beza-la, Mutrikura ezkondu ziren.

Biak langileak izanik, ez zuten 1968an "100.000 pezetako" sariko gai-jartzailleari bururatutako egoerarik jasan beharrik.

Agirre eta Azpillaga. Azpillaga ezkontzeko etxea behar baina dirurik ez du eta Agirre dirudunari eskatzen dio.

Azp: Ezkondu nahi ta ezin ezkondu gertatzen dana askotan etxe koxkor bat erositzeko aspaldin nabil asmotan zuk diru pila ba ote dezun enteratu naiz gaurko hontan eta zertako dituzu hoiek etxean gordetzekotan?

Agi: Sentitutzen det antzemate'izut diru beharrez zerana jakin al dezu nere etxian pizkaren bat badedana zure moduan beste askotxo etortze'ira neregana gehiena baldin baneuka ere badaukat zeini emana.

Azp: Erantzuera eman didazu oso hizkera gaizkian pobre dagonak bizi beharko dirudunaren azpian nik pentsatzen det gaizki zaudela zuk dadukazun ustian Aurrezki Kutxak bost pagatze'itu nik hartuko'izut zazpian.

Agi: Uste al dezu ni ote naizen aberatsikan haundina danentzat haina ezin iritsi bihotz ona daukat baina nik dadukatan diru pixka da neure izerdiz egina zuk ere zerbait behar zenduan zintzua izan bazina.

Azp: Baina guziak ez daduzkagu
aurreratzen pikardiak
nik'e lanian zuk bezelaxe
bota ditut izerdiak
ganbara zoko batean dauzka
urdinak eta berdiak
deskuidon baten arratoi zurik
jango dizkizu erdiak.

Agi: Nere diruak ez dira egoten
oso leku narratzian
maitatzen ditut irabaziak
baitira neke latzian
zuk lan egiten dezula baina
tabernara iluntzian
zu're hasi zaitez ahorratutzen
gizon zintzuen antzian.

Sariketa berean, Azpillaga bakarka:

**Azpillaga ezkondu da eta bigarren
egunera alargun gelditu. Hilobiaren au-
rrean hiru bertso.**

1

Bi egun dira ireki zala
zorionaren atia
eta horra nun bi egunera
joan da emazte maitia
pozaren ustez hasi nintzan ta
hau etorkizun tristia!
Baina edonun izan dedila
Jaunaren borondatia.

2

Bihotz minaren nabaimen danak
ezin esan bertsetan
atzo goizean pentsatzen geunden
geroko gurasuetan
ai emazteak! Jaunak agintzen
baitu geure pausuetan
zure anima zerura joan da
aingeruen besuetan.

3

Hontara ezkerro mundu hau pasa
beharko det honenbestian
nere bihotza jarrita dago
txit etorkizun tristian
pentsatzen nago betiko sartu
konbentu baten azpian
zutaz pentsatzen egon nadien
nere bizitza guztian.

Zorionez, Azpillaga ez zen alargundu ezta bizi-alargundu ere. Hirurogeita hamargarren hamarkadan askotan ateratzen zen dibortzioaren gaia. Hona adibide batzuk:

Donostia. 1976ko urtarrilaren 25a. Lazkao-Txikiri omenaldia.

Azpillaga eta Agirre. Azpillagak bere andrea moja doala esan dio Agirreri.

Agi: Oraintxe dala hogeit bat urte
biok aldare bateko
joan zinaten betiko hitza
alkarrekin emateko
jakin nahi nuke zer pasatu dan
gauza hori egiteko
haren gustorik ez dezu bete
oin moja alde egiteko.

- Azp: Eginkizunak orain artean
daduzkat ondo beterik
hontaz aurrera andrearekin
ez det ezer egiterik
andrea moja dijuala ta
ez neinke hartu besterik
ni oraindikan gizon gaztea
hargatik nago tristerik.
- Agi: Gaztetatikan maitetasun bat
haretxi hartu zeniozun
ta gizonari nola gertatu
horrenbeste estuasun
santu itxuran gure Azpillagak
pekatuen bat egingo zun
jakingo nuke zure andreari
zertan huts egin diozun.
- Azp: Hutsikan ez det, bada nahi zuen
Jaungoikuaren grazia
hil baino aurretik nahiko zuela
zerua irabazia
seme-alabak ondo dauzkagu
eta bastante hazia
ni bezain ongi portauko ahal da
konbentuko nagusia!
- Agi: Bere okerrak disimulatzen
honek badu maneja
baina gizon hau makaldu zala
hartuta nengon tajua
seguru asko honen andrea
moja hargatik dijua
zu ere fraile jua zinazke
hura moja badijua.

Azp: Maite nuen ta moja juaterik
nik hari ez nion opa
ta ziur dakit bera dan bezain
onik ez nitake topa
ta dibortziua eskatutzerik
ere ez leike antoja
Azpillaga oain gelditutzen da
ez andre eta ez moja.

Nolakoak diren kontuak bertsolaritzan! Agirrek Azpillagari fraide joateko aholkua eman dio azken saio honetan. Bi urte t'erdira Agirre bera joango da fraide: Soraluze, 1978ko uztailaren 7a. Gai-jartzailea: J.M. Iriondo.

Agirre eta Azpillaga. Agirre, andrearekin aspertuta fraide dijoa eta Azpillaga, fraide aspertuta, ezkontzera. Gaur, hemen, despedida egiteko topo egin dezue.

Agi: Aldare baten ezkontutzeko
hitzak guk eman ginuzen
eta zuk, berriz, frailetzarako
asmoak hartu zinuzen.
Ni ezkondu ta aspertua naiz
zoritxarrean, hain zuzen,
gizarajo horrek ez dakizu asko
zer egitera zoazen!

Azp: Alkar agurtu beharra dago
hemen bidien erdian
andrea utzi ta fraile sartzea
pentsatu dek azkenian
hori pensatu dezu ezertan
indarrik ez dezunian
ni orain nua ezkontutzera
nagolako indarrian.

Agi: Beraz, indartsu bizi zerala
badezu segurantzia
nik'e badaukat andre haundi bat
malizi onez jantzia
sasoia nuen artean sarri
goxo asko igurtzia
nahi baldin ba'ezu utziko dizut
neonek nahi ez ta utzia.

Azp: Zure andreak, beraz, nerekin
izango duela txanda
bere denbora freskoa dago
zurea dago joanda
itxura danez zure sasoia
ederki doa joanda
ez zera asko mejoratuko
Arantzazura eramanda.

Agi: Zu konbentuan aspertu zera
ai, kankailu arraiua!
Itxura danez, ez zera izango
errezorako jaiua
emakumeai emate'iozu
horrelako baliua
liburu gabe esango dizu
harek Ebanjeliua.

Azp: Andrearentzat aitzaki asko
ditu honako kaikuak
emango ditut bizilegean
zuk ainako ejenpluak
andretarako gauza ez eta
nekatu zaizka eskuak
konbentuetan lehen daude sobre
zu zeran bezelakuak.

Aurrekoan andreak ihes egin badio Azpillagari,
oraingoan inoren andrea etorriko zaio. Mattini Donos-

tian emandako omenaldian entzun genuen saio hau;
1972ko urtarrilaren 16an.

Joxe Agirre eta Jon Azpillaga. Agirre hasiko da. Agirre, zuri andreak ihes egin zizun eta zure lagun Azpillagarekin juntu da. Ez dakigu edo beti besterena goxo den edo etxeko otso. Ez dakigu zeinen kulpa izango den.

Agi: Ezkondu nintzan egun baten ta
hau penagarrizko lana!
Malko garratzak sortzen dituna
neri gertatu zait dana
oraingo gizon berria ez du
askoz hobeia izana
honekin nola konforma leike
nerekin aspertu zana.

Azp: Uste zenduan andrea hartu
zendula beti-betiko
baina koittauak alde egin behar
honek ez bazuen hilko
bere arrazoitan hau ibili da
beti gogor eta tinko
etxean ondo hartu bazendu
nigana ez zan etorriko.

Agi: Emakume on bat izandu balitz
ez zuan joan behar inora
tratu berrian ez du izango
uste'un hainbeste mejora
gizona ere ezagutzen da
probatu eta gerora
zurekin ez du ez pasatuko
nerekin hainbat denbora.

Azp: Zure etxetik ihes eginda
nerean dago behinepin
egin behar ziran lanak egiten
gogotikan dio ekin
gizon jator ta ona nintzana
hark lehendikan zuen jakin
orain hi hago andrerik gabe
eta ni, berriz, birekin.

Agi: Andrerik ez det etxian baina
aingerutxuak badaude
ta etzazula uste daukanean
zuk uste hainbat nahigabe
sorgin gaiztuak alde egin zidan
eta neretzako hobe
gizajo hori ez zera egin
prenda ederraren jabe.

Azp: Ta orain fama kentzen ari da
etxetikan irtenari
zer esango diot ba nik orain
zentsunbako gizonari?
Apaizak ere lan onak danak
egiten ez dituk ari
andrea nola emate'iote
honelako kertenari!

Dibortzio kasuetan errua norena den erabakitzea
ere tokatu izan zaie bertsolariei.

**Azpillaga eta Lazkano. Azpillaga
emaztea eta Lazkano senarra. Zuen adis-
kide batzuk, senar-emazte batzuk apar-
tatu egin dira. Azpillagak, emaztea den
aldetik, andreari botatzen dizkio kulpak
eta Lazkano, berriz, gizona izanik, uste
du gizonak zituela kulpak.**

Laz: Nik pentsatzen nun ezkontza hori
aurki ote zan galduko
gizon zahar hori ez baitzebilen
gizon jatorren moduko
goizero han zan taberna baten
ohetikan jaiki orduko
ni bezain formal jokatu balu
ez ziran apartatuko.

Azp: Baina gizona zer esan dezu?
Ez zaude ongi hitz egina
emazte hori halabeharrez
alperra eta zikina
gizonarentzat gauz onik ez du
eskasa eta ziztrina
dibortziuen beharrik ez zan
ongi portatu bazina.

Laz: Hori izango da uztarri baten
hain garratza dan trantzia
horixe baita biziogatik
bizilagun bat saltzia
baina hain oker zebiltzen eta
hau da nere iritzia
beti burrukan ibiltzez geroz
hobe da apartatzia.

Azp: Andre txar horrek sekulan ez du
berekin eduki lotsik
gizonak zerbait lan egin arren
etxean ez zeukan sosik
eta gainera senarrarentzat
horrek ez zeukan bihotzik
zuk andre ona hartu zenduan
ta egon zindezke pozik.

Laz: Zuk andrearen akats haundiak
begiz ikusten zinuzen
eta nik, berriz, senar purtzila
ez zebilela hain zuzen
baina gaitz hauek auzoko etxean
pasatzen dira errezen
guk ez degu han zerikusirik
ta elkar maite gaitzen.

Azp: Garai batian haiek ez ziran
jatorrak ta amestiak
segurki kulpa izango zuten
bai batak ta bai bestiak
diburtziatu diran ezker
biak dabilta tristiak
gu behintzat ondo konpontzen gera
hor konpon beste guztiak.

Horrelakorik gertatu ez bazaio ere, zail izango du
Abel Muniategi gai-jartzaileak Aretxabaletan jarritako
gaiaren egoerara iristea:

**Azpillaga eta Lasarte. Ba omen da
Mongolian; hori da Txina eta Errusiaren
arteko estatu bat, nahiko estatu handi
bat, ba omen da pareja bat, bikote bat,
senar-emazte bi, ehun urte elkarrekin bi-
zi izan direnak. Senarrak ditu 118 urte
eta andreak 116. Lasarte senarra eta Az-
pillaga andrea. Hiruna bertso.**

Azp: Pasa ditugu hainbeste poz ta
pasa ditugu nahigabeak
mundu honetan asko izango
dira gu baino hobeak
ehun ta hamasei ta hamazortzi
urte haundien jabeak
nolatan izan geran bizian
biziorikan gabeak.



Azpillaga, Lasarte eta Uztapide

Las: O, Emaztea! Ehun urtetik
gora pasatuak gaude
lehen ere zinan egokia ta
bitxo dotorea zaude
egun batean hau hartu nuen
ta hartu ez banu hobe
maite nun baino ez nintzan egin
prenda ederraren jabe.

Azp: Bitarte hontan izandu degu
makina bat esperientzi
hartu nunetik nere senarra
orain ez da gutxi jeitsi
ehun ta hamasei urte ditut nik
honek ehun ta hemezortzi
orain besterik ez deu egiten
batak bestia igurtzi.

Las: Sorgin zahar baten itxura hartzen du
ile zaharrak banatzean
igurtzi ederrak hartzen ditut nik
inoiz bereganatzean
motots haundi bat erabiltzen du
buru gainean atzean
udaberrian tontortutako
porru zaharraren antzean.

Azp: Lehenago ere nere senarrak
errita egin dit sarri
lehenago bertsoan zer esango zun
nik azkar diot igarri
hainbeste urteko lanak ezer ez,
horretxek jartzen du larri
ehun urtean jardun naiz baina
haurrik ez degu ekarri.

Las: Gu laguntzera umerikan ez ta
ez izatia nahiago
hau esanda ere ez da izango
komeni baino gehiago
gobernu txarra izan det eta
hargatikan argal nago
nik uste nuen honen ondoan
hilko nintzala lehenago.

Senar-emazte bizimodua ez da askotan erraza izaten. Senarra bertsolaria izateak ere baditu bere alde txarrak. Maritxuk, Jonen emazteak hala dio:

Pozik bizi izan naiz. Baina bertsolaria beti da kanpuan. Ez dago sekula etxean. Familia izan genduen sasoiari, senarra falta izan zitzaidan. Batian, lanian; lana ere ez zan gaur eguneko modukoa: barku bat sartu zala-eta, gaba erdian deitzen zioten eta hurrengo eguneko eguerdira arte edo arratsaldera arte lanean egon behar eta, gero, iluntzean etxera etorri, jantzi eta berriz, kantatzera, goizeko laurak-bostak arte.

Zenbat gaba pasa ote deten nik lorik egin gabe? Orain telefonoak eta baditugu baina, orduan, ez zegoan ezer... eserita zain egon, leihora hurbildu eta falta, falta, falta,... goizeko seirak iritsi eta gizona falta.

Sasoi hortan bertsolariak bertsuak bota eta bertsuak bota jartzen ziren eta non bizi zirenik ere...zer ordu zenik ere...ez zekiten.

Gure gizonak askotan egin du: goizean etorri, arropak aldatu eta tailerrera joan ohera sartu gabe.

Gurian alabak zenbat bider esan dio:

- Aita! Zer? Aitarik ez daukagu guk edo....?

Hori askotan. Nik ikusten nuen lotara ordu bete edo bi orduz etortzen zalako.

Maritxuk esandakoari erantzuteko gai aproposa da hurrengoa. 1991eko apirilaren 7an Muxikako hiru bertsolari txapeldunak omendu zituzten: Jon Lopategi, Euskal Herriko txapelduna; Jon Enbeita, Bizkaikoa eta Abel Enbeita, Arabakoa. Saio honetan Azpillagak eta Areitiok Abel Muniategi gai-jartzailearen esanetara jardun zuten.

Emakume gehienek, kanpoan ibiltzen diren senarrak, etxean egoten direnak baino gehiago maite omen dituzte.

Azp: Ezkondutzean egin ginaden
gure familien kargu
gero herria zuek emanda
hainbeste indar badegu
bat baino gehiok kontatu arren
ez gabiltzala ondradu,
baina emazteak maite gaitue
zerbait ona badaukagu.

Are: Onak gerala esaten jarri
zaigu hau ondorenean,
eta horrela izan leikela
neu be nago antz emanean
baina itxuraz ez gaituzte nahi
beraren aldamenean,
traste hobeak gerala diote
urruti gagozanean.

Azp: Bertsolariak etxetik kanpo
gabiltzanak gehienetan
baina andre ta umeak goza
dira berba eztieta
ta emakumea aspertutzen da
gizonen igurtzietan
horregatik gu kanpotik gabiltz
zapatu ta igandetan.

Are: Zapatu ta jai etxetik kanpo
batera eta bestera
era horretan doa bizitza
hemen astetik aстера
gero etxera hurbildutzean
laztan gozoa ematera
maitasuna zer txoroa dogun
hortik kontuak atera.

Azp: Bertso saioak bukatu eta
jetxitzen gara berela
pelmaren batzuk gure ingurura
arrimatuko direla
etxera joan nahi ta ezin alde
giro izaten ez dela
oker txikiak badoguz baina
formalak gara bestela.

Are: Kanpo aldetik etxe aldera
goaz estu eta presa
han bilatzen dugu maitasuna
baita ere gure babesa
baina Azpillaga gitxinez dogu
paretxo bat metro pasa
zati guzti hau maitatutzea
ez da izango erreza.

Batzuetan, Jon Azpillaga Euskal herritik kanpo ibili izan da. Behin, Azpillagak eta Lopategik hiru txapelketa egin zituzten Xalbador eta Mattinen aurka: Saran, Parisen eta Gernikan.

Parisera Lopategi eta biok, andrerik gabe joatekoak ginen. Preparatzen ari nintzela Lopategi etorri zen eta gure andreak esan zion:

Zuek daukazue baloria! Andreak etxean utzi eta zuek Parisera! Gizonak bakar-bakarrik!

Eta Lopategik:

Jesus! Parisera andrearekin joatea, bodara bokadiloarekin joatea bezala da!

Pasadizo honek Xalbadorri eta Mattini grazia haundia egin zien eta askotan kontaktzen zuten.

Senar-emazteen arteko harremanak bezala gizon-emakumeen zereginak ere aldatzen hasi ziren. Hona, 1975ean Leitzan jarritako gaia, horren adibide:

Azpillaga eta Jose Lizaso. Lizaso, senarra, lehengo alkatea zen; Azpillaga, andrea, oraingoa.

Azp: Emakumeai halako baten egin behar zion harrera lehen bezela ezin begira zaio orain gona barrenera galtzaren jabe egin gaituzte ta hartu dugu karrera mundua hobeki izango dala uste det gaurtik aurrera.

Liz: Zer nahi lukean honek esan du
inork nahi bazuan entzun
baina badakik ez dezutela
gizonak hainbeste zentzun
aginpidea nahi dezula ta
beti ez zaitia jardun
probatuko da ta jakingo da
nola agindutzen dezun.

Azp: Gizonezkuen izate hori
aspaldi gendun kontuan
emakumien aldean haundi
beraien pentsamentuan
emakumeak ez geunden lasai
zenduten fundamentuan
zuek tabernan agindu eta
andrak aiuntamentuan.

Liz: Behingoagatik ez naiz juango
emakumean igasi
buru onduan emakumerik
sekulan ez dut ikusi
zuen eskutik gauza onikan
ezin litake iritsi
dezutena da kontua asko
baina fundamentu gutxi.

Azp: Gobernadore jaunak'e orain
maizagua du bisita
herriko etxeko mahai muturrian
andre eder bat ikusita
gizonak hobe dute ibili
burua behera jetsita
ia oraindik uzten zaitugun
genitun gonak jantzita.

Liz: Kontu horiek entzun beharra
ez al da lotsagarria?
gobernadorea nahi al digu
andretxo ipurgorria?
bestela ere bazedukan hor
gauza nola erabakia
zuen eskutan uzten badegu
akabo gure herria.

Azp: Emakumeak gobernatutzen
badauka hainbat balore
somatutzen da etxe bateko
sukaldera joanda ere
eman didaten alkatetza hori
konplutuko det dotore
ta deskuidatzen baldin badira
hurrena gobernadore.

Liz: Emakume hau azkenerako
gogor sartua da saltsan
ez zaitze egon gauza guztiak
konpontzeko esperantzan
emakumean mendeko herria
pikueta joan zan
berdina baita zerbiziua
ahuntzak eite'una baratzen.

Askotan egokitu zaio Azpillagari emakumeari buruz
kantatzea eta beti errespetuz eta miresmenez egin izan du:

Aurten emakumearen urtea da.

1

Aurtengo urtean mundu guzia
zan emakumeen hitzeko
gaizki zегuen biderik bazan
ahal ondonik garbitzeko
berez hiztunak dirade eta
nola esan isiltzeko?
Jainkoak egin ginduzen hemen
elgarrekin ibiltzeko.

2

Emakumea argia degu
 alaia eta apaina
 urte betean bakarrik nola
 izan agintien gaina
 beren urtea bukatu dala
 askok pentsatzen du baina
 hurrengo urtean ere aginduko
 digute ziur nik aina.

3

Urte betean egon zerate
 lorategi baten bapo
 hobe ote zan zuen denbora
 izatea sekulako
 nik hori, behintzat, emango nuke
 botazio honerako
 zuen agintzea izanez gero
 munduaren onerako.

4

Gaurko mundua paketutzea
 ez dakit nun litakian
 gerra soinua somatutzen da
 usterik ez dan tokian
 bizi gindezke elkar konponduz
 patxaran eta pakian
 gerrarik gabe izanez gero
 agindu hurrengo urtian.

1982ko txapelketan, kartzelako gaia izan zen: **Emakumea**. Hona Azpillagaren hiru bertsoak:

1

Emakumea gaitzat hartuta
 lan haundi batek narama
 emakumeak jatorriz dauka
 txar edo onaren fama
 baina gehienak eramaten du
 famili bateko zama
 nik hoientzako esan nahi nuke
 gora jasotzen ahal dana
 gehien gehiena goratu behar
 ni sortu ninduen ama.

2

Emakumea paraisoan
 Adanekin egondua
 esaten dute beragatikan
 galdu ote zan gerua
 emakumeak berakin dauka
 familiako berua
 sortutzen digu etxeko poza
 sortutzen du ingurua
 emakumerik ez balegoke
 akabo gure mundua.

3

Ta emazteki hoientzat nola
 eman behar ez dan sonik
 etxeak ez du ezertxo ere
 sukaldean ez bada gonik
 bat baino gehiok esaten dute
 ez da emakume onik
 gizonetzkuak etzazutela
 esan horrelako bromik
 ez da munduan emakumea
 maite ez duen gizonik.

Bere omenaldi egunean ere, eskerrak emateko bertsoak kantatu zituenean gogoan izan zuen bere emaztea eta gainontzekoak:

Bertsolarien bizimodua
dira poza eta penak
etxetik irten ta herririk herri
ibiliak gera denak
baina gehiago sufritzen dute
sukaldean zai daudenak
bertsolarien emaztekiak
nerea eta besteenak
zuek zerate txalo guztiak
merezi dituzutenak.

Hau izan zen eskerrak emateko kantatu zuen hirugarren bertsoa. Maritxu emazteak, gogoan du bertso honen ondorengo txalo zaparrada. Omenaldiak direnean ez omen du ondo pasatzen:

Emaztea nerbiosa egoten da. Gainera pentsatzen da, omenaldia egiterakoan, gizona zahartu egin zaizula edo...

12 edo 13 omenaldi hartu ditu eta bastante gaizki pasatzen da. Berak gaizki eta ni gaizkixo.

Urduritasuna, emozioa eta...

Nik beti euki dot neure harrotasuna nere gizona bertsolaria eta euskal zalea dalako.

Horregatik zaila da sinestea benetan ari denik senarrari honako hau esaten dionean:

Hainbeste bider esan diot: Nik gaur beste jakingo banu, bertsolari batekin ez nintzen ezkonduko.

Ezkontzak familia hastea ohi dakar. Juan-Maritxu bikoteak ere, ekarri zituen ondorengoak; bi seme-alaba dituzte: Jon Andoni, Rocío Frailerekin ezkondua eta Andoni semea duena eta Miren Josune, Jon Aldalurrekin ezkondua eta Malen alaba duena.

Seme-alabak eta ilobak jaiotzen ikusi dituenak izan du jaiotzari buruzko bertsoak kantatzeko aukera.

1975eko abenduaren 20an, Azpeitiko Izarraitz pilota lekuan, Eusebio Eizmendi "Txapel" zenaren omenezko jaialdian botatako bertsoak.

Negarrez jaio den haurrari.

1

Jaio berri dan haurtxo txikia
zera esate bateko,
nork esan dizu begi itxian
hola negar egiteko?
Oraindik gure munduko izate
hau ez da errez beteko....
Negar malkotan arkitzen zera,
ez zera zorioneko
ta halabeharrez izango zera
negar asko egiteko.

2

Oraindik jaio berria zera,
daukazu zotin umila;
mutil polita, begiak dir-dir,
ta gorputza borobila.
Negar pixka bat egiten duzu,
kukurrumixka isila;
nik nahi nukeena halako baten
buelta etorri dedila,
gero garrasi egin beha'zu
askatasunaren bila.

Seme alaben bertsozaletasunari buruz Maritxuk, zera dio:

Semea ez da bertso zalea. Kanpoan urte askoan ibili da ta. Josune bai. Sasoi batean, balkoitik balkoira Konstituzio plazan kantatu zuen hiru bertsolariekin; 5000 pta ekarri zituen etxera.. Idatziz ere, asko gustatzen zaio idaztea.

Azpillagaren semea Euskal Herritik aparte ibili izan da futboleko atezaina zen garaian. 18 urterekin Valladolid-eko bigarren taldean jokatu zuen; ondoren, soldadutza Ferrolen egokitu zitzaiola-eta bertako taldean aritu zen. Soldadutza bukatuta, Puertollanoko Calvo Sotelo taldeko atezain zela, gaur egun ezaguna den Ca-

ñizares bere ordezko izan zuen. Puertollano utzita Yec-la, Lemoa eta Eibarren ere ibili zen. Azkenean kirola utzita, etxera itzuli da.



Familia

Antzeko gairen bati egin behar izan zion aurre Jonek 1977an Zestoan egindako saioan. Bertan, aita barik, semea izatea egokitu zitzaion. Euskal herritik joatearen arrazoiak, ordea, bestelakoak ziren.

Mattin eta Azpillaga. Mattin, zure seme hau, Azpillaga, urte luzeetan etxetik kanpo izan eta gaur etxera etorri da.

Mat: Aspaldi du, nik seme hau
ez nuela etxean ikusi
ta nere semea dela ere, gaur,
kasik ezin dut sinetsi
ez dakit besteek eraman zuten
hala joan zan ihesi
jakin nahi nuke seme maitia
nola zeran hola hazi.

Azp: Lau bat urte pasa ditu
etxetikan apartian
aita bezin txiki nintzan
ni etxetikan joatian
herrian alde lan egin nuen
gure euskera maitian
eta horregaitik preso egon naiz
kartzela gaizto batian.

Mat: Jakin zazu, zu, semea,
kezketan egon naizela
ni iguzkitan nintzen ta
zu, berriz, zinun itzala
baina jakizu gauza batekin
pentsatutzen nabilela
hola hasteko esaten duten
bezin txarra ez da kartzela.

Azp: Tratu txarrak eta lanak
honenbeste hasi nabe
garai hartan txiki nintzan,
ahalge edo indarge
orain haundia hasita nago
ta indar askoren jabe
ez ninduten eramango, ez,
metrailetarikan gabe.

Mat: Zorionez, nik, semea,
hazia zaitut ikusi
asko sufritu ba'uzu ere
oraindikan zera bizi
Euskal Herria debalde orain
ez dugu behar guk utzi
hola haundituta aurpegi ematen
hazten ai zaigun Carlosi

Azp: Etorri zait aita honi
ondo erantzuteko txanda
aita errespetatzeko
denbora ere joan da
etxian aitak agintzen zuen
mutil kozkorra nintzan-da
gauza on danak honek jan zitun
neri txarrenak emanda.

Mat: Hori hemen sinesteko
jendea ez dek tontua
gu ikusita jendea
beira ziagok harritua
aita txikia hemen eta
semea horrelakua
denak honek jaten zitun ta
ni goseak egotua.

Azp: Flako eta txiki nintzan
hoi ez zan nere graziko
aita beti baserrian
buru ta lehendabiziko
kartzelak duen bizitza txarra
ez dezu zuk ikasiko
haruntz eraman bazinduen ere
ez zinan asko hasiko.

Semea ez ezik alaba izatea ere tokatu izan zaio Azpillagari. 1972ko apirilaren 30an, Donostian, esaterako. Gai jartzailea: J.M. Iriondo. Gorrotxategiren azken bertsoa, tamalez, ez zuen grabagailuak hartu.

Azpillaga, Agirre eta Gorrotxategi. Agirre ama; Azpillaga alaba jai hauek (Aste Santua) mendian "tienda de campaña" batekin bere mutilarekin, Gorrotxategirekin, pasatzeko baimen eske hasiko zaizu.

Azp: Ama permiso eske nator ta
ez zaite jarri tristerik
ez det pentsatzen zure bihotzean
iluntasun bat uzterik
denbora pasan mendira goaz
ez gaude horren gazterik
ez izan beldur ez degu egingo
haizea hartu besterik.

Agi: Gauza onikan gerta al leike
zuek mendira irtenik
ez pentsa gero zu kostatzen gabe
hoinbeste hazita zaudenik!
guraso batek ez bailuke nahi
gero etxerako penik
zure esanik ez det sinisten
ez det ematen baimenik.

Gor: Amak zer erantzun behar zuen
hasi orduko banekin
alaba permiso eske joan ta
erantzun erritarekin
zer demonio egin behar degu
honelako amarekin?
Berau gaztetan zabarra zan ta
bildur da alabarekin.

Azp: Mutil horrekin ni ibiltzen naiz
herri ta auzoko festetan
berri guziak ondo dakizki
ama ez egon kezketan
lehenago ere zerbait nahiean
hasten da igande denetan
baina zu lasai egon zindezke
ez diot uzten ezertan.

Agi: Alaba maite ez nauzu ari
zure buruan kaltera
zu konfiantzan ez zaitzela
mendi gainera atera
mutiko gazte buru haundi hau
bialdu alde batera
ez pentsa gero hori doanik
Kalbaituak egitera.

Gor: Ama petral asko dira baino
hau gauz horretan bakarra
alaba etxian edukitzeko
honek eiten du indarra
badakit ondo nik bera zer dan
amatxo honen negarra
denbora baino askoz lehenago
amona egin beharra.

Azp: Haundikerizko kontuak dira
mutilen pentsamentuak
aizazu ama ez zazula hartu
hainbat gauza burutuak!
Pekatuaren sustriak dira
lehenago zaharren kontuak
gainera ez du gaur problemarik
seigarren mandamentuak.

Agi: Uste al dezu ez datorrela
hortatik gauza tristerik
zabarkeritik ondoren onik
ez daukagu iristerik
zeure buruan jabe ez zera
alaba hor hain gazterik
zuk ez daukazu amak esanak
isilik egin besterik.

Oraingoan Azpillaga izango da aita. 1982ko txapelketakoa da gaia:

Lopategi, kanpoan bizi nahiago huela ta, etxetik alde egin huen; orain berriro etxera hator, hire aitaren galdezka, Azpillagaren galdezka.

Lop: Gazte nintzala ihes joan nintzen
txori horien antzera
maite bainuen kanpo aldeko
edertasun haien zera
oi gurasoa beti bezela
bihotz oneko bazera
garai bateko seme galdua
badator berriz etxera.

Azp: Grazi haundirik ez zidan egin
semea etxetik juatiak
juan zinanetik etxe bizitzan
izan ditugun kaltiak,
berriz etxera badatorrela
esan du seme maitiak
nahi dezunean etorri zabal-
zabalik daude atiak.

Lop: Bildurrez nengon sortu ote zen
zuretzako endredoa
gaurkoa sarri liluragarri
ta penagarri geroa,
era hortara engainatu zen
behin nere buru eroa
baina sarritan gogoratu zait
nere etxearen beroa.

Azp: Gaixorik dator berekin badu
katarrua ta eztula
gurasoari ez egin berriz
seme horrenbeste burla,
juan zinan baino zure iruipena
ez zat ahaztu sekula
hortik pentsatu aitak semea
hainbeste maite zaitula.

Lop: Maitasun askok sortzen du sarri
horrelako abusua
eta nik ere emana nuen
abenturazko pausua
baina berriro zabalik daude
bihotza eta besua
seme guztiek ez dute izaten
horrelako gurasua.

Azp: Etorri eta bere gauz danak
esaten ditu frankorik
ikusten danez maitasunean
ere ez dator plakorik,
berriz aitari eta amari
ez botarazi malkorik
munduan ere ez dagolako
etxea bezelakorik.

Lop: Arrazoi onak eman dituzu
garaiz edo beranduan
eskarmentu bat falta zen eta
hori ere jaso genduan
egi antzera gezur ugari
izaten baita munduan
gaurtik aurrera seme leial bat
izango duzu orduan. •

Azp: Semean falta etxean zer dan
ni konturatu naizela
eta zuk ere behar zenduen
zeure etxeko epela,
hontaz aurrera lehen baino hobeto
gu konpondu gaitzela
aita-semeak bizi gaitezen
lagun haundiak bezela.

Tenore honetan aita dugu Azpillaga. Bertsotan ere, sarritan hartu behar izan aitaren paper hori.

Itzaina gai jartzaile zela 1978ko apirilean, Mattini Ahetzen egindako omenaldia.

Azpillaga, Lazkao-Txiki eta Lazkano. Azpillaga aita, Lazkao-Txiki semea eta Lazkao-Txikik, semeak, nahi du esposatu, ezkondu, baina neska beltz batekin eta neska beltz hura da Lazkano. Aita hasiko da behar den bezela.

Azp: Garaia diagu semea hiri
gauzak esaten hasteko
notizi ederra ekarria dek
aitan bihotza pozteko
horren tontua izanik, behintzat,
ez nian asko usteko
era ederrak izango dituk
mutur beltzak ikusteko.

Ltx: Beltzak'e gero badira aita
pertsone on da sanuak
lehen'e badira jende bikaina
hangoak hartutakuak
aita ez zazu gaizkitzat hartu
nere buruko asmuak
ezkondu ta ikusi nahi nituzke
Afrikako eremuak.

Laz: Aita ez dala oso konforme
gauzak badu itxuria
nere kolore denak bildurtu!
Jaunak, hau da komeria!
Esan liteke ni ote naizen
inpernutik isuria
azala beltza dadukat baina
bihotza daukat txuria.

Azp: Beti izan da apartekua
mutil koxkor honen grina
neska beltza ta gainera haundia
hoi da okerrik haundina
beltzik sekula ez nun ikusi
ta hori da nere mina
iruditu zait neska ote dan
galipotakin egina.

Ltx: Aita haundia ta metro t'erditik
semea ezin da pasa
itxura hau nik ikusi eta
ez naiz bizi oso lasa
holako aita bikaina eta
semea horren eskasa
beltzakin ere aterako det
zuk hainbesteko arraza.

Laz: Nere senargai bihotzekoa
gauz hau har zazu goguan
ia hemengo zuriak baino
neu ederrago naguan
horiek hor dabiltz beztu nahirikan
beti itsaso onduan
ta ni beltz-beltza izango nauzu
udara eta neguan.

1994ko irailean Mutrikuko Kalbaixo jaien inguruko bertso jaialditik bi saio aldatuko ditugu hona. Azpillaga, bietan, aita paperean.

Azpillaga, aita, Egaña, ama eta Igor Elorza, alaba. Igande goiza da eta aita mendira joateko asmotan jaiki da. Ama, berriz, etxeko lanak egin eta mezatarara joatekotan. Alaba oraintxe etorri da etxera. Goizeko zortziak dira eta komune-ko atearen parean zaudete hirurok.

Azp: Lo nahiko egin eta mendira
joan nahian haize hartzera
igande goizez ni ohetikan
jaiki betiko antzera
alaba, berriz, juxtu-juxtuan
etorri zaigu etxera
ordu hauetan etorritzeko
nun kristo ibili zera?

Ega: Zazpitan jaiki sua piztuta
kafia egiten hastean
bururatu zait ni nabilela
hain bizi modu tristean
aizu, alaba, gaurko parranda
gehitxo zan nere ustean
aita bistatik badijoa ta
kontentu horrenbestean.

Elo: Etxean sartu eta hauek biak
hasi dira zarataka
eduki dudan gaba ostean
besteik ez zitzaidan falta
bietako bat ez dut entzun nahi
ta egin behar dut hanka
diskutitu nahi dezuen beste
ni komunera noa-ta.

Azp: Amak lehenengo etxeko lanak
gero eleizako jira
hauek ez dute ezer egiten
bere aitari begira
biak ederki konpontzen dira
ni sartzen naute erdira
ama-alabak berdinak dira
ta ni banoa mendira.

Ega: Aizu alaba ez nun espero
nik horrelako gauzikan
zortzirak joak ditugu eta
zortzi t'erdiak kasikan
aita akerra makilarekin
mendira doa pozikan
hau ez degu ez familia bat
jende mordo bat baizikan.

Elo: Hemen daukagun jende mordo hau
familia bat izan zen
neroni ere gaur triste nago
gehiegi ez zait gustatzen
utzi ezazu behingoz mendia
ta aita jokatu zuzen
lagundu iozu amari neri
bazkari eder bat jartzen.

Azp: Neri etxean eman didaten
ustegabeko kartzela
ama ez zaigu konturatutzen
karga latzak datozela
alaba ikusirik dabilela
orain dabilen bezela
nik pentsatzen det ezkondu aurretik
aitona egingo naizela.

Ega: Alde batera utzi ezazu
aitonatzeko aukera
ordu bietan logela denak
itxiko'itut goitik behera
gosaririkan ez da zerbitzen
zazpiretatik aurrera
gaurtik aurrera jokatu det
hotel jabeen antzera.

Elo: Gure etxea jadanik dabil
gaur hotel baten antzera,
beraz, nik ere egin behar dut
komeni zaidan galdera
ni gau osoan hor ibili naiz
alde batetik bestera
bietako nork eramango nau
orain neronen ohera?

Azp: Auzoetatik jakinda dauzkat
nere alabaren famak
aitari hitzik egin gabetan
egin izan ohi'tu planak
bera parrandan hor ibiltzen da
ta bestientzako lanak
alaba hau baldarra badago
amak dauzka kulpa danak.

Ega: Ni banijoa gaur mezetara
errezatzera Kristori
ez det jakin nahi gure etxeko
hainbat kontu ta istori
ume txatxu hau maiz parrandaren
atzaparretan erori
ondo aitaren alaba zera
ume makarrosa hori!

Elo: Bat hasi eta gero besteak
egin didate galanta
ez zait gustatzen diskusioak
hartu behar duen planta
nere postua defendatzeko
egin behar du zarata
bietako bat be ez da errudun
alaba baldarra ez da-ta.

**Azpillaga eta Egaña. Azpillaga hamar
seme-alaba hazi duen aitona. Egaña Az-
pillagaren semea, ezkondua, ez du ume-
rik izateko asmorik.**

Azp: Mundua oso gaizki dagola
hau da abiapuntua
janik ez dagon tokitan beti
negarra eta kantua
zure aita zaharrak hainbat egin du
ta dauka ezagutua
nik hamar ume eta zuk batez
orain ez zera tontua.

Ega: Ume beharrik ez det sentitzen
ez ote dezu igarri
gaurko gazteak nola gabiltzan
askatasunan egarri
zure desdixta zein izan degun
pentsatu izan det sarri
hamaika aldiz joko zendun ta
gero hamar haur ekarri.

Azp: Zure aita zaharra beti izan da
umila eta isila
baina, hala ere, familia bat
izan gendun biribila
semeak beti ibiltzen ditu
indizio ta pastila
eta gainera ez zera joaten
inoiz ume baten bila.

Ega: Arrazoi dezu askotan naiz ni
botiketako bezero
ume kontuan zer goleada
zuk hamar eta nik zero
neronek ere sei-zazpi ume
baneuzkake honezkero
estraperloan egin zinunak
neuretzat hartu ezkeru.

Azp: Famili batek izan behar du
haurrak sortzeko modua
oraingo hau ez da hain txarra baina
hobeago zan lehengua
gozamenean pentsatzen beti
minutua ta segundua
zu bezelako asko badaude
bukatuko da mundua.

Ega: Munduan nahiko ume badago
zertan ekarri etxera
barkatu baina ni ez nijoa
saltsa hoietan sartzera
bolibiana bat ekarriko det
beste askoren antzera
baina, aitona, biloba hortaz
harro egongo al zera?

Aita ez ezik aitona ere bada. Baina bertsolaritza soringinak ilobaren paperean jarri zuen Mutrikun, 1993ko irailaren 11n.

Andoni Egaña bere alaba Saioarekin etorri da Mutrikura eta, parkean direla, han elkartu dira Azpillaga eta honen iloba Malenekin. Bi neskatzak, Saioa (Egaña) eta Malen (Azpillaga) hizketan hasi dira.

Azp: Aizu Saioa ikusten zaitut
neska polit ta epela,
behin ikusita konfiantza ere
hartu behar deu berela.
Ikusten zaitut zure aitatxokin
honuntza heldu zarela
eguna ondo pasatze al dezu
nik aitonakin bezela?

Ega: Gaur aitak festa omen zuen ta
heldu gera lasai-lasai
zure aitona bertsolaia da
hala hartzen diot usai
alde hortatik biok berdintsu
aurkitzen gera nolanahi
zu aitonataz harro bazaude
ni aitatxotaz ere bai.

Azp: Ni baino zerbait zaharrago zera
ta badaukazu kemena
telebistatik bertsoak aitzen
nik ere badet ahalmena
zure aitatxo Andoni Egaña
badakit hain ona dena
nere aitonak izan behar du
bertsolaririk onena.

Ega: Bera txikia, bera umila,
bera pasa atakera
une batean aldatu digu
hasierako papera
nere bi oinak zure zapatan
sartu litezke batera
horretan ere badezu Malen
zure aitonan tankera.

Azp: Biak goizean ta arratsaldean
kalera ertetzen gera
aldi batzutan tabernara ta
hurrena berriz parkera
tortila jaten batzokian gu
ederki moldatzen gera
gero Aranzubin frituak jaten
izaten degu aukera.

Ega: Aizazu Malen ez izan arren
gu batzokiko bezero
gurean ere izaten degu
hamaika gauza jenero
zure aitona xelebrea da
ondo pentsatuz gero
aita papera egiten hasi
aitona egin ta gero.

Azp: Baina Saioa nere aitona
etzazu jarri kakoan
eskutik hartu eta kalean
gabiltza ere frankoan
nere aittona ta zure aita
beti dabilta kanpoan
geuk ere berdin egingo degu
haundiak hazitakoan.

Ega: Aitona eta aita sarritan
elkarren aldamenian
hamabost urte barru gu ere
neska gaztien planian
itsas ertzean ibil gaitezke
etorri ta joanian
lagun bat beti izango dezu
Zarautza zoazenian.

Erretiroa

Gizon handi, sendo, osasuntsuaren irudia eman du Azpillagak eta halaxe izan da 1993. urtean sustoa izan arte:

Zarautzetik Urdanetara bidean den Izeta sagardotegiko inaugurazioan Mañukorta eta biok egin genuen saioa. Urtarrilaren hamaseia zen. Biharamunean, San Anton eguna, Maritxu emaztearen urtebetetzea zen.

Berandu joan ginen etxera, laurak edo izango ziren. Loaldi bat egin nuen eta esnatu nintzenean, goizeko sei-rak aldera, sekulako mina sentitu nuen bular aldean eta eskumako besoa ere gogortuta. Ezkerrekoa izaten omen da eta neure artean pentsatu nuen: "Indarren bat eging-dakoan sortuta edo..."

Gau guztia holaxe pasatu nuen. Goizean andreari zor-ionak eman eta egun osoa pasa nuen oso triste eta gaizki.

Astelehen goizean, ohetik jaiki nintzenean berdin nengon eta orduan pentsatu nuen, lanera joan gabe, medikuarenera joan behar nuela. Medikiak segidan urgentzietara joateko agindua eman zidan. Neure kotxea hartu eta Mendarora joan nintzen. Bertan elektrokardiogramak atera zizkidaten eta gaizki nengoela ematen zuen. Anbulantzia hartu eta Donostiako Erresidentzia-ko UBIRA sartu ninduten. Arrue medikua tokatu zitzaidan. Suertea izan nuen, bertsozalea eta nere laguna zen.

Handik Poliklinikara eraman ninduten. Poliklinikan nengola entzun nituen Bertso Eguneko bertsoak Telebis-tatik. Lazkao-Txikik hantxe kantatu zuen azkeneko bertsoa. Aita Santi Onaindia eta Alfontso Irigoieni egin zitzaien omenaldia egun hartan.

Biharamunean angioplastia egin zidaten eta UBI nengoela ingresatu zen Lazkao-Txiki. Hain zuzen ere, Lazkao-Txikik, bere bizian lepoan azkena izan zuen haurra nere iloba Malen izan zen. Ume zale ikaragarria zen Lazkao-Txiki. Harek bildurra bazeukan:

- E, Joxe Miel! Hori ez dek ezer eta! - Gure andreak esaten zion.
- Hemendik pasa direnak, badakit, bueltatu bai baina hilda bueltatu dirala - erantzun zion Lazkao-Txikik - Bildurrak nago.

Bildur ikaragarria omen zeukan. Ni bisitatzera sartu nahi zuen eta ez zioten utzi. Ni atera nintzenean, bera UBI berezian zen, inor sartzetik ez daukan hartan. Leihotik ikusi nuan. Gerora, Poliklinikatik Matia geriatrikora eraman zuten. Andrea eta biok, bertan ikusi genuen, azkenekoz.

Gaixotasunak nolako ondorioak utzi dizkion umoretsu kontatzen du:

“Zahartrosis” daukat baina gainontzekoa ondo. Bihotza, bere baten behintzat, ondo. Lehen egunero hartzen nituen pastilak egun bitik bat hartzeko agindua eman didate. Bihotzekoa ondo daukat, baina, artrosia daukat gorputz guztian eta horrekin nabil gaizki. Artrrosiak ez omen du inor hiltzen baina hil arte osatu ere ez.

Lanean lehengo bizimodu berdina ezin egin. Lanera-ko ez naiz gauza; kanean ibiltzeko eta bai baino... Probatu nintzen lanean berriz baina belaunak haunditu egiten zitzaizkidan eta gerritik ere gaizki, gabaz lorik ezin egin... eta orain jubilatua nago. Bertsotarako, ordea, gauza banaiz. Lepotik gorakoa ondo dago. Ez zen mejo-ratuko lehendik baina onena horixe daukat.

Garaia baino lehen hartu behar izan zuen, beraz, erretiroa. Hala ere, bertsotan ez du erretirorik hartuko. Herriak deitu eta gai izan bitartean, bertsotara joango da. Ezetz esaten ikasi ez duten bertsolarietakoa da Azpillaga eta, honezkero, ez du ikasiko. Emazteak daki horren berri:

Gureak ez daki ezetz esaten. Orain bertsolariak hasi dira ezetz esaten baina lehen obligazioa bezala sentitzen zuten. Gaur bertsolari gehiago dira. Jonek esaten du: *gazteentzako da bertsoa nik neure tamainan egin...*

Ez da erraza izaten bertsolari bakoitzaren “tamaina” zein den baina Azpillagak ia 100 plaza bete zituen 1999an. Hogeita hiru urte lehenagoko bertso batek, bukaera emanda osatutakoak, azaltzen digu bertsolariaren jarrera: Segura, 1976ko ekainaren 10.

Munduko bizitza hau
hartu behar da umil
norberea egin arte
bat ez dago trankil
misiolari gisa
herriz herri nabil
negarrez jaio nintzan
kantuz nahi nuke hil.

1993ko otsailaren 6an, Mutrikuko Santa Eskeak 25 urte bete zituen ikastolaren alde dirua biltzeko indarberritu zenetik. Aste horretan bertan Azpillaga ospitaletik etxeratu zen.

25 urteurrenarekin batera Azpillaga bera ere omentzen zen egun hartan. Hainbeste egindako gizonak merezi zuen. Andreak eta seme-alabak lagunduta afarian eta ondorengo ekitaldian egon zen.

Afaldu aurretik, Santa Eskeari hutsik ez egiteko saio bakar bat egin zuen bere aspaldiko kopla eta bertso lagun duen Mugartegirekin. Hona aldatu dugu Ametza tabernan egindako saio hura:

Mutriku. 1993ko otsaila. Santa Eskean Ametza tabernan.

Urte honetan Azpillagak, bihotzekoak jo ondoren, egin zuen kopla saio bakarra.

**25. Urteurrena Mutrikun Santa Eskea
berritu zela ikastolaren alde.**

Azp: Gabon Jainkoak. Ohitura zaharrak
esaten dun esanera
herri guztia pasa ondoren
bagatoz Ametzanera.

Mug: Hau da etxe bat jator askua
deitzen diote Ametza
ondo portauko dirana hemen
badaukagu esperantza.

Azp: Santa eskean hasi ginala
hoita bostgarren urtia
neuk hasi nuan, baten bada ere,
hartu nahi nuen partia.

Mug: Indar berritzen zu jarri zinan
bai Mutrikuko herria
ta erantzunez eman nahi degu
zure ongi etorria.

Azp: Bat baino gehio egon omen da
ni hilko naizelakuan
lata ematen oraindik segi
nahi nuke urte askuan.

Mug: Azpillagaren sentimentuan
gaur datozkit barrenetik
Santa Agedak gorde zaitzala
luzaro osasunetik.

Azp: Promesa neukan kantatutzea
holakoxe leku baten
oraindik ere sendo nagola
auzuak jakin dezaten.

- Mug: Gizon haundia degu bihotzez
argia beti memoriz
gaur ere asko bizi dirade
Azpillagaren inbiriz.
- Azp: Etxe honetan ondo dakigu
zer eginkizun daukagun
Pakita degu denon amona
bera koplatu dezagun.
- Mug: Nik izan nahi det hitzaren bidez
Azpillagan lagun fina
honenbestekin agurtzen zaitut
Pakita, zu, lagun mina.
- Azp: Urte mordo bat bada senarra
mundu hontatik joan zala
gizon ona zan eta Jainkuak
zeruan gorde dezala.
- Mug: Senar maitea joan zitzaizun
zuri zeure ingurutik
eta gaur gure koplak entzuten
egongo al da zerutik?
- Azp: Munduko partez gero zeruan
izan zaitezten batera
aingeruekin irtengo zaizu
zeruetako atera.
- Mug: Baina neroni ez dit egiten
neroni bat'e grazirik
zeruan hilda baino nahiago
mundu honetan bizirik.
- Azp: Joserrak dio herri honetan
dago tabernari abil
Jose Luis hori hemen ez dago
eta nun kristo ote dabil?

- Mug: Saioa hainbat luzako zanik
hemen ez nuen usteko
ia ordua izango degu
limosna eske hasteko.
- Azp: Baina Jose Luis kankailu bat da
garbi dago ikusita
edozer gauza jan ta edaten du
rejimenari utzita.
- Mug: Ez naiz sartuko rejimen hortan
bestearen alorretan
Azpillaga ere gogor jardun zan
berdintsu bide horretan.
- Azp: Baina Jose Luis ez al dakizu
ezin litekeela hola
nik ere azkar utziak ditut
tabakua ta alkohola.
- Mug: Hau da gizon bat zezenak bezin
indartsu haundia izana
baina gaurkoan bete beharko du
sendagilien esana.
- Azp: Baina Mirentxu koplatsu gabe
ezin gertzake alde egin
bera dalako auzo guztiko
edertasunen atsegin.
- Mug: Hasi danean Azpillaga hau
aurkitzen zaigu berritsu
nik ez det ondo ezagututzen
nun ote dago Mirentxu?
- Azp: Larogeita hamar kilo inguru
izango ditu barrena
gure herrian aurkitutzen dan
emazterik ederrena.

Mug: Istori zaharrak esaten duna
ez det esango noizkua
baina horrekin seguru dago
pekatu haragizkua.

Azp: Berandu dala esaten dute
luzatutzea kalteko
pena da baina bukatu behar
Apallunera joateko.

Mug: Santa eskeak berekin ditu
eginkizun ta istori
eman dezuten guztiagatik
eskerrik asko denori.

II. ATALA: BERTSOLARIA

Kopla

I. SANTA ESKEA

Santa Eskeak tradizio handia izan du Euskal Herrian: Gabon eskea, San Juan eskea, Santa Ageda bezpera,...


Beste herrietan bezala Berriatuan ere, Santa Ageda bezperan eskaleak atera ohi dira. Jonek txikitatik eza-gutu zuen ohitura hau eta sei urte zituela eskaleen taldean hasi zen. Gogoan ditu garaiko bi koplari: Hilario Ugarteburu "Ikaran" (Gerora Frantziara ihes eginda-koa) eta Pascual Retolaza "Etxano".

10 urterekin ikasitako koplak kantatzeari ekin zion eta 14 urteko mutil koxkorra zela, bat-batean jardun zuen koplatan. Orduan bera zen koplari bakarra eta herriko beste bertsolari famatu batek, Mugartegik, soinua jotzen laguntzen zion.

Garai hartako koplak puntu bakarra zuen:

Koruak koplariak esaten zuena errepikatzen zuen eta gero hurrengo koplak errima gordetzen zuen eta koruak erantzun. Hirugarren puntua beste errima batekin zen. Nahi bazendun bertan ere segi zezakezun. Bi errimak, behintzat, igualak; bestela itsusi gelditzen zen. Baziren koplariak horri begiratzen ez ziotenak, baina, jendea konturatzen zen ez zuela errimarik. Koplariak zirenak, bi errima seguru edo hiru edo igual lau osatzen zituzten.

Gaur egun kopla doinua aldatu egin da. Bi puntuko doinuak erabiltzen dira: "Dios te Salbe, ongi etorri" edota "Bedeinkatua izan dedila" Azken hau pixka bat aldatuta, berez, San Juan eskeko doinua zen. Azpillaga bizi izan den inguruetan ez da San Juan eskerako ohi-



Santa Eskean

turarik izan. Bera, behin bakarrik atera zen Usurbilgo talde batekin.

II. MUTRIKUKO SANTA ESKEA

Badira 33 urte Mutrikuk Santa Eskea errekuperatu eta indartu zuela. Aurretik, kalean ez zen bat-bateko kopla kantatzen, Eskea egiten zen baina ikasitako koplekin; Santa Agedaren bizitza kantatuz eta abar. Baziren koplari batzuk: OKELAR anaiak, eta aurretik Manuel AITZETXEBERRI. Hauek baserritarrak ziren. Baserri aldean mantentzen zen ohiturari indar berria eman zitzaion ikastolaren aitzakian.

Ikastola hasi berria zen. Dena kuotekin pagatzen zen, ez zegoen inongo laguntzarik eta dirua falta zen.

Dirua biltzeko bertso saio bat egiten zen urtean eta ikastola zabaldu zen urtean joan ginen lehenengoz Santa Eskera dirua biltzeagatik. Urte hartan (1967), hain zuzen, larunbata gertatu zen. Egundoko diru pila bildu zen. Ondarrun, Mutrikun eta, gabaz, Deban kantatzen genuen. Ikastolarentzako laguntza ikaragarria zen.

Hasieran Santa Eskeko egunean joaten hasi ginen, otsailaren 4ean, Santa Agedaren bezperan bertan. Baina Mutriku herrian ez zen baserrietan bezala gabaz joaten eta, aste gorriko eguna bazan, lana utzita, ez zuen inork joan nahi izaten. Halaxe, egunez oso jende gutxi joaten ginen eta iluntzean lanetik irtendakoan etortzen ziren beste batzuk.

Ni, dena den, joaten nintzen baina soinu-jolerik ezin bilatu eta 8 lagun ere irtenda gaude. Orain, berriz, 50 eta gehiago joaten gera. Gaur egunean, 2 eta 3 talde ere izaten dira baina lehen bat osatu ezinda ibiltzen ginen.

Orduan jarri genuen ohitura hau; otsaileko lehen larunbatean egitekoa. Honekin hasi zen Santa Eskea berriro indarra hartzen, denak libre egoten baitziren. Beste herri batzuetan ere gauza bera egiten hasi ziren.

Komeni da esatea larunbatera pasatzeko ideia Jose Arrizabalaga "Masillas"-i, ikastolako sortzaileetako bati, bururatu zitzaiola.

Esaten zuten politago zela bezperan joatea baina egun txarra baldin bazen etxe eta baserrietan ez zen inor egoten. Orain, ordea, larunbata denez, guk joan behar degun baserrietan enteratuta egoten dira eta handik kanpora ezkontutako seme-alabak ere han izaten dira zain. Hau, aste erdiko egun batean ezin daiteke izan.

Neuk hasieran ez neritzon ondo horri, beti Santa Ageda bezpera izaten zela eta, baina egundoko harrera izan zuen. Hasieran ez ginen atrebitzen herritik ateratzen ere. Geroztik ez gera Ondarrura ez Debara joan. Urte batzuk geroago hasi ginen Galdona mendira gabaz ateratzen eta Modesto OKELAR-i omenaldia egin zitzaion urtean (1989an) hasi ginen Laranga auzora joaten.

Gaur egunean, Mutrikuko Santa Eskea Bertso Eskolak antolatzen du. Goizez talde bat ateratzen da kalean zehar. Arratsaldean, berriz, talde bat kalean eta beste bat baserrietan ibili ohi dira; gauean ere, baserriak koplatzen dira.

Baserritik baserrira arteko ibilaldiak luzeak izan ohi ziren. Are luzeagoak, auzoko herrirainokoak. Hasieran Mutrikutik Ondarroara autobusez joaten zen eskale taldea eta, han bukatu ondoren, azkeneko autobusa hartu eta Debara hurbiltzen zen.

Gaur egun, Mutrikuko inguruko baserriak koplatzera kotxez joaten da:

Azkarrago egiteko. Beste herri batzuetan gu baino lehen hasi ziren eskaleak etxe batetik bestera kotxean joaten eta badakit periodikuan, eskera kotxez joatearen kontrako iritzia atera zala.

Horrek ez zidan niri esanahi haundirik ematen, ordu-rako ijituak ere eskean ibiltzen ziren, aurretik oinez edo astuakin, baina, Santa Eskean hasi zirenerako, ijituak ere kotxean ibiltzen ziren herri batetik bestera.

III. KOPLARIAK

Mutrikun gero eta koplari gehiago dabil. Hasieran Jon Azpillaga hasi zen bakarrik. Gero Modesto Maiz "Okelar" mutrikuar koplari handia batu zitzaion, baina, honek, larunbatetan irteteari ekin ziotenean utzi egin zion. Geroxeago bueltatu zen Santa Eskera bere anaia Romanekin. Mutrikuko Santa Eskea izen handia hartzearekin eta taldeak ugaritzearekin batera kanpoko bertsolariak etorri izan dira: Mugartegi, Narbaiza, Anjel Larrañaga, Meabebazterretxea, Zulaika,... eta etortzeko goz bertsolari asko da Euskal Herrian.

Hala ere, Mutrikuk berak baditu Santa Eskerako koplari bikainak. Juan Mari Agirrezabala "Erdikua", Laxaro Astigarraga, Justo Pagola "San Juan", Joseba Mugertza "Irabaneta" eta Bertso Eskolak umatutako gazteak: Xabier Astigarraga, Egoitz Alkorta "Beano", Eneritz Azkue, Iñigo Arrizabalaga, Urki Bilbao...

IV. KOPLA SAIO BAT

59 urtetan behin bakarrik huts egin zion Jon Azpillagak Santa Eskeari. Amona hil zitzaion urtean, hain zuzen. Amona urriaren 8an hil eta, ohiturak agindu bezala, lutua gordetzen zuen. Urte barruan etxean hildakorik izandako inor ez zen eskale joaten. Halaber, eskaleak lutua zegoen etxera hurbiltzean, koplari kantatu gabe, "Kirie Eleison" kantatzen zuten "eta hori ez bazekiten" Pater Noster-a (Aita Gurea) errezatzen zen.

59 urte. Esateko errazagoak dira betetzeko baino. Beraz, inork baino hobeto jakingo du nola gauzatzen den koplak saio bat:

Herri bakoitzak bere modua du, baina, Mutrikun, ate ondora soinua joaz hurbiltzeko ohitura da. Lehengo koplak ongi-etorriak eta esplikazio bat eman; ze talde ge-

ran eta gero etxeko denak koplatu. Hasi, alargunik baldin bada, alargunetik eta gero etxeko jauna, etxeko andrea, seme-alabak, ezkondu gabekoak,...denak.

Beti saio dextente bat. Behin kantatzen hasiz gero, pagatu behar duenak entzun egin behar izaten du, ordu erdiko saioak eta ordu bete ere pasa izan degu inoiz; ordu erditik gora sarri.

Ni ibili naizen beste herri askotan ate ondora joan eta, limosna eman edo ez eman, dozena erdi-hamar bat koplak kantatu eta bukatu egiten dute, baina Mutrikuko ohitura limosna eman arte kantatzen segitzea da. Eman aurretik isiltzen bazera "nabo" edo "pot" egitea da, koplak ahitu egin zaizkizula, alegia, eta hori entzun baino lehenago segi egin behar da.

Kantatzen den bitartean atea itxita egoten da. Barruan daudenak ate ondoan jartzen dira eta, atea zabaldu gabe, barrutik entzuten dute. Nire txiki denboran ere gure baserrira etortzen ziren koplariak halaxe kantatu behar izaten zuten, limosna eman arte.

Beraz, euri edo ateri, metro bat elur edo eguzki ederra dela, koplaria ate ondoan egoten da saioa bukatu arte. Eta saioak noiz bukatu behar duen atearen bestaldekoak erabaki behar du. Pot egin baino nahiago edozer zuela eta, Azpillagak gogoan du, Milioi gaineko baserri batean, gomazko abarkak, artilezko galtzerdiak eta brusak jantzita, elur gainean egindako ordu beteko saioa. Baserritar hark erruki gutxikoa edo ohituraren jarraitzaile amorratua izan behar!

Hala ere, Azpillagak ez du gogoan inoiz harrera txarrik jasan izana:

Arreta haundi-haundirik gabe pasa bai, baina arrazoi txarrik eta despreziorik ez. Joaten garenetan zain egoten dira eta badakigu joaten ez garen leku askotan pixka bat haserre edo egoten direla joaten ez garelako.

Benetan harrera txarrik inoiz jaso ez badu ere, bertsoetako fikzioan izan du arazoren bat:

Ondorengo bertso hauek 1982ko otsailaren 6an,
Zestoako pilotalekuan jasoak dira.

**Agirre eta Azpillaga. Jon Azpillaga,
Santa Ageda eskean dabilela Oranda ba-
serrira heldu da. Koplatzen ari da, eta
hango astoak belarria jan eztio ba...**

Agi: Gauza hau gerta berri da,
kristauak, hain justu;
limosna ona emateko
ni nengoen prestu,
baina gure etxian
suerterik ez du:
asto batek besteai
belarria moztu.

Azp: Hobe da behar bezala
gauza esplikatzea:
astua ta nagusia
dauzkagu antzea.
Santa eskaleak behar du
haruntza joatea
hobe zenduke astoa
katean lotzea.

Agi: Astua errenditzeko
zendun esperantza,
baina laster hartu dizu
gauza horrek mudantza.
ate ondolik eiten zun
sekulako arrantza,
buruan ere badezu
astuaren antza.

Azp: Bihotz onez joan gera
Santa Ageda eskian
baina astuak ez digu
ez utzi pakian,
badakit gauza ongi
nola litekian:
Astua ta nagusia
lotzea katian.

Agi: Hori eiteko gizon hau
ez da langilia,
eskerako bidea du
hor erabilia.
Lehen bi belarrikin
degu ibilia,
orain galtzen bada ere
badu seinalia.

Azp: Astoak egiten zun
gogotik arrantza,
ta hau bakarrikan balitz
zitakian pasa.
Koplaria ez zegon
ate onduan lasa,
astua koskaka ta
limosna eskasa.

Bertso kontuak lagata, benetako saioak erakustea onena izan ohi dela eta irakur (kanta) ditzagun 1994ean Azpillagak eta Modesto Maiz "Okelar" bikoteak egindako kopla saio batzuk. Elkarren segidan kantatutakoak dira. Lehena, arratsalde horretako 11. saioa, hain zuzen ere, Laranga auzoko San Juan jattetxean. Bigarrena Kalbarioko ermitako tabernan eta hirugarrena Erbitxo baserrian. Hiru toki hauetako nagusiak kopla zaleak izateaz gain, koplarien lagunak

ere badira. Gertuko ezagutza honek bizitasuna, grazia eta piperra ematen dio Mutrikuko Santa Eskeari. Ezezagunen aurrean bota ezin diren puntuak, lasai asko botatzen dira lagun artean. Etxeko jaunak entzun behar izaten dituen ziriak ere lagun artean geratzen dira.

Ezaugarri hau dela eta, Mutrikun bertako koplaria beti estimatu izan da gehiago kanpokoa baino. Kanpoko koplari batek gaitza du halako saio luzeak egitea.

San Juan jatetxea.

Azp: Gabon Jainkuak ordu hoberik izan ote da sekula?
Opa dizuet gure Jainkuak guztioi gabon daigula.

Mod: Nik ere hasi behar det baino hasiko ez banitza hobe afaldu ez det ondo egin ta nago umorerik gabe.

Azp: Hemen badago jende gaztia eman behar zaio beria eta gurekin baldin bazabiltz sortuko da umoria.

Mod: Neuk ere ederki ikasi nuen umore eukitzea zer dan ta hori berez etorritzen da ez baita erosten dendan.

Azp: Santa eskeko ibilera hau dago guretzat egina urtean baten izaten dala daukat penarik haundina.



Santa Eskea. Jon Azpillaga eta Modesto "Okelar"

Mod: Ondo aspertuta nago ni behintzat
Santa eskeko lanian
ta aurten ere gaurkoz banabil
ni bigarren egunian.

Azp: Etxe hontako nagusi jaunak
badauka hainbat ixtori
merezi du-ta bertso batzuek
bota behar zaizko Juxtori.

Mod: Pentsatu dezu, beraz, Juxtori
botatzia zuzenian
"A la puñeta" iges egin du
ni etorri naizenian.

Azp: Lehenago hori asko bezela
da langile bat izana
restaurantean bapo bizi da
transportian hasi zana.

Mod: Hainbeste urte pasatu ditu
gidaritzan edo txofer
aitu dedanez lautik hirutan
ibiltzen omen zan oker.

Azp: Kamioakin ibili zana
gazte denbora osuan
ederki asko bizi da orain
Langamendiko auzuan.

Mod: Horrek ederki ikasi zuan
zer diran behia ta goia
andra onduan egotearren
saldu zuen kamioia.

Azp: Nik ere hori lehendik badakit
ta ez da juergista makala
horrek dadukan suertea da
andre jator bat daukala.

Mod: Andria hartzeko orduan hori
ibilia zan alerta
eta konkistatu ere egin zun
lotsagabia da-eta.

Azp: Kamionista ganberrua da
hoi det sarritan entzuna
Usurbiltikan hau etorri zan
han inork'e nahi ez zuna.

Mod: Bere herrian bizi zan arte
zagon gizon kobardia
ta Ama Birjina modukua hartu
zun orain daukan andria.

Azp: Hitz egiteko abildadia
lotsarik ez dauka bat'e
Langamendia herria balitz
egingo zuten alkate.

Mod: Alkatetzako ofiziorik
horrek ezin leike bete
hori alkate ta hi aguazil
berdin samarrak zerate.

Azp: Baina Modesto ezer ez dezu
esan gauz hori esanda
hori alkate ez zan izango
ni aguazila izanda.

Mod: Sekula ere ez det esango
orain bezelako egirik
hasiko zinaten zuek biok
alkar aurrea hartu nahirik.

Azp: Juxtorentzako bota ditugu
ez dakit zenbat bengala
pentsatzen nago Begoñak ere
zerbait merezi duala.

Mod: Juxto ezagutu zenduen zuk bai
eta gainera aurrez-aurrez
zu baino emakume ederragorik
mundu hontan ez da berez.

Azp: Juxtoren kontra Begoñak ezin
lezake ezer zabaldu
harekin ezkondu zanetikan
ez da ez alperrik galdu.

Mod: Baina Juxtori ez zaiozu eman
hainbeste inportantzia
hura hartu zuen momentu hartan
hobe zuen neu hartzia.

Azp: Behar dan garaian nonbait jo zuten
korneta edo aldaba
eder askuak ekarri ditu
bi seme eta alaba.

Mod: Hain neska gazte hemen badaude
zuretzako modukuak
haundi, txikiak, zahar ta gazteak
altuak edo bajuak.

Azp: Baserri hontan bizitzen dana
gorputz haundiko jendia
ez da erreza nonbait bilatzen
era hortako sendia.

Mod: Jende hobia bilatzerikan
ezin leikela espero
pisu galanta badute behintzat
baskulan jarri ezkerro.

Azp: Bi seme eta alabarekin
hauek daukaten itzala
gure Jainkuak urte askuan
sano kontserba ditzala.

Mod: Etorkizuna jarri dezute
zuek hemen gerorako
nagusi izango zerate hemen
beste ehun urterako.

Azp: Denbora lasai hartu behar da
bestela gure kalteko
hemengo lanak buka ditzagun
Kalbariora joateko.

Mod: Kalbariora joan behar dala
ta ni gogo gabe nago
Santo Kristua gorra da eta
ez digu guri entzungo.

Azp: Orain gabean saiatu behar
bukatu zaigu eguna
Kalbariora azaldu bedi
gehiago entzun nahi duna.

Kalbario

Azp: Laguntasuna eskatzen diot
Kalbarioko Kristori
lehendabiziko gabon Jainkoak
ongi etorri danori.

Mod: Barrua triste dadukat eta
ezin leike jarri alai
Jesukristoren laguntasuna
beste gauzarik ez det nahi.

Azp: Afalondoan hau izaten da
lehendabiziko bisita
seirak artean segi behar da
Kalbariotik hasita.

Mod: Goizeko seirak aparte daude
egia garbi izanik
neska zaharrikan ez dan lekuan
nik ez daukat zer esanik.

Azp: Modesto baino koplai hoberik
ez da izango munduan
ederki asko jarraituko du
Azpillagaren onduan.

Mod: Neska zaharrakin hartutzen det nik
izugarrizko tankera
eta polita izanda ere
konformatuko bait gera.

Azp: Emakumekin Santa eskean
ta danak dauzkagu bero
suerte hori etorri zaizu
denbora joan ta gero.

Mod: Ni furgonetan etorria naiz
hauen hizketak entzuten
gomarik dagon galdetu dute
eta luzia nahi zuten.

Azp: Hirurogeita beatzi urte
esan lezake akabo
baina Modesto zure trastekin
goma beharrik ez dago.

Mod: Neu ere inoiz egon izan naiz
goma horiei begira
erosi igual eingo nituzke
merkiak baldin balira.

Azp: Ibili gera mendian eta
ibili gera kalia
hemen lehenengo koplitzekua
izango degu Julian.

Mod: Zuk esan dezun Julian horri
behar zaio bertso bota
baina alperrik ez al da izango
ez du ententituko-ta.

Azp: Lehenago ere entzunda dago
hori makina bat saio
ederki asko konprenitzen du
gaizki esaten bazaio.

Mod: Gaizki esanda entenitzen dula
horixe ez nuen uste
eta alaba nerekin behintzat
haserratuko da laiste.

Azp: Kastila aldetik etorria da
makinatxo bat holako
Mari Karmenek hartuko zuen
gizon formala dalako.

Mod: Euskal Herrian bere denboran
egingo zuen nahiko lan
lehenengo ezagutu nuenean
ikusi nuen auzolan.

Azp: Udaletxeko lanetan ere
deituta sarritan juna
hau da gizon bat zernahi lanetan
ondo kunplitu ohi duna.

Mod: Inork esanda lana egiteko
beti eukitzen da beldurra
herremienta eskasak dira
pikatxoa ta atxurra.

Azp: Letxe txarrian egoten dala
ez baldin bada lanian
parua ere ez da hain txarra
besterik ez dagonian.

Mod: Paruan egonagatik ondo
irabazten du gizonak
eta gainera berantzat dira
Kalbarioko txanponak.

Azp: Mari Karmenek taberna hontan
badu hainbat zalaparta
oso gustora lan egiten du
hemengo arraza da-ta.

Mod: Begiratuta horrek ez dauka
kristau txarraren itxura
auzo honetan jaiotakua
gero joan zan Mutrikura.

- Azp: Kolore gorri-gorriak dauzka
Julianen emaztiak
kalian gutxi ikusten dira
holako andre gaztiak.
- Mod: Arrazoi dezu gutxi dituzte
holako kolore ederrik
ondo jate'unak ez du izaten
bat'e pinturen beharrik.
- Azp: Lanean ere horrek egin zun
nerekin saio bapua
beste bat ez da erraz bilatzen
hori dan bezelakua.
- Mod: Astian dendan egoten dala
ondo enterauta nago
ume txikien erropak saltzen
lan haundirik ba al dago?
- Azp: Gaurko gaztiak umegintzako
berekin dauken ikara
ume erropen denda alperrik
umerik sortzen ez bada.
- Mod: Batzuk ume bat nahi izaten dute
eta beste batzuk batez
txupetak saltzen hasi beharko
ume erroparen partez.
- Azp: Lehen furgonetan entzundakuak
danak gezurrak ez dia
txupetak baino askoz hobe du
kondoia saltzen hastia.
- Mod: Zuk badakizu gomak Zikautxun
fabrikatzen dituztela
ta Mañukortai esango diot
eiten hasi ditezela.

Azp: Baina lan hortan hasten badira
akabo da naziua
Kalbarioko Kriston onduan
hau da edukaziua!

Mod: Lehen ere Kristok entzungo zitun
makina bat horrelako
haren denboran ez zan ibiltzen
egiten ez zirelako.

Azp: Ta behar ez dan lekuan ere
guk sartzen degu eskua
Anjeles ere hortxe daukagu
emazte eder askua.

Mod: Neu ere momentu hontan nengon
Anjeleseri begira
bi edo hiru frutu politak
horrek eginak badira.

Azp: Anjeles beti ezagutu det
hain emakume iaiua
gero kalean bizi bada ere
bailara hontan jaiua.

Mod: Zer diferentzi ikusten degun
guk sarritan mundu hontan
behin baino gehiagotan ibili
det nik nere besoetan.

Azp: Baina Modesto zertan gabiltzan
lehenago degu apunta
hemengo lanak buka ditzagun
Erbitxon zai dauzkagu-ta.

Mod: Beraz hemendik joan behar degu
ahal bada indartsu ta fuerte
agur Anjeles ta agur Karmen
bihar eguerdira arte.

Erbitxo baserria

- Azp: Kalbariotik iritsi gera
ta bagenekigun nora,
han zeuden lanak egin ditugu
orain gatoz Erbitxora.
- Mod: Nik ere berdin pentsatu det gaur
bisitatzea Erbitxo
eta urtero ohi dedan bezela
etorri naiz txintxo-txintxo.
- Azp: Gu hemen gera Santa Eskeko
eguna noiz dan esaten
eta gure zain egon diranak
gau on bat pasa dezaten.
- Mod: Umore txarrez etorri naiz ni
sinistu behar didazu
erdi gaisorik hor egondu naiz
sukarra neukan jo ta su.
- Azp: Lehenago ere badakizute
Modestoren historia
goizeko seirak baino aurretik
sortuko da umoria.
- Mod: Oraintxe hartu dedan abisu
horixe ez da mardula
oilarra kantuz hasten danian
isildu behar degula.
- Azp: Makinatxo bat urtez ibili
gera elkarren urrian
ohitura zahar hau zaindu nahi degu
ahal dala Euskal Herrian.

Mod: Hiruroitamar urte luze nik
oraintxe ez ditut aparte
eta halare jarrai nahi diot
arnasa daukaten arte.

Azp: Langamendian eta kalia
egin dira hainbat saio
Erbitxoraino heldu bagera
Sabini gustatzen zaio.

Mod: Gizon honetxi lehenengotikan
eman nahi nioke lata
edo bestela seguru degu
egonaldi bat galanta.

Azp: Langilea ta tratante ona
failoik ez dezu ezetan
baina gehiegi diruarekin
eiten dezu amesetan.

Mod: Diru gehiegi eukitzea're
ona danikan ez uste
uste gutxina daukazunian
sekuestratuko zaituzte.

Azp: Modesto, honi pasa zaiona
neri ez zaidak gustatu
diruarekin egin behar da
irabazi ta gastatu.

Mod: Dirua gutxi irabazten da
eta ez da etortzen berez
nik zorrik ez det oraindik baina
sobranterikan ere ez.

Azp: Nik sarri egin dedan gauza da
ta esanda ere berdin da
osasuna're mejoratzen da
parranda batzuk eginda.

Mod: Ta nik parrandan ezin nezake
pasatu hainbat denbora
tentsiorikan ez zait bajatzen
ta kolesterola gora.

Azp: Sabin, Modestok lana egin du
bere bizitza danian
orain kontsejo ematen dabil
ezertako ez danian.

Mod: Bizi guztian lan egiteak
ez baitu ondo ematen
eta orain ikasi behar det
kolperik ein gabe jaten.

Azp: Sabinekin dauzkan bentaja danak
nolanahikuak ez dia
bera oraindik sasoikua ta
andria dauka gaztia.

Mod: Buru argiko gizona beti
izandu zerade, Sabin,
andriai lanak agindu eta
zeuk etxetikan aldegin.

Azp: Gaztetan ere Sabinekin ez du
izan berez buru hutsa
zeozergatik hau aldatu zan
Apategitik Entzusa.

Mod: Lehen isilikan egon naiz baino
orain esango det hauxe
emakumia engainatu zun
beste asko bezelaxe.

Azp: Andrearekin famelirako
horrek badu armonia
bere garaian sortu zituen
bi alaba ta semia.

Mod: Hemen pasa dan bezelakorik
ez da askotan ikusten
neuk'e ikusia nago behintzat
arrebak anaia hazten.

Azp: Sabini utzi eta Ixabel
beharko degu koplatsu
limosna ona behar danian
emazteari eskatu.

Mod: Esango dizut momentu hontan
entenditzeko nahikua
ardi esnia saldu lasai-ta
eingo'zu gurekikua.

Azp: Ixabel beti izana degu
bere buruaren jabe
mila durokoren bat badauka
gizonai eskatu gabe.

Mod: Mila duro zuk badauzkazula
honek esan duen gisan
nik kontseju hau ematen dizut
faltsua ez dedila izan.

Azp: Lehengo urtean ez nintzan egon
gaisorik egon nintzala
baina uste det orain bi urte
limosna hori izan zala.

Mod: Ezagun da bai denok gaudela
hartzeko desiuetan
baina gaur ez dago gauza haundirik
orduko preziuetan.

Azp: Ixabelekin ezingo gera
saia eguna zabaldu arte
alaba ederra badago hemen
kopla dezagun Arrate.

Mod: Neska ederra zera Arrate
ez dago esan beharrik
pena da baina hau gertatzen da
neretzat alper-alperrik.

Azp: Egia da bai Arratek berak
zeinentzako dan badaki
bihotzez oso maite duena
Ametzaneko Iñaki.

Mod: Mutil ederra dala esan du
ta hala izango da bera
baina nik hari hartutzen diot
pikaro baten tankera.

Azp: Nolanahi ere Arratek dauka
izpiritu bat argia
aingeru baten itxurakua
horrek daukan aurpegia.

Mod: Berez langile itxurakua
ez da neskatxa motela
horren begiak ematen dute
bi eguzki diradela.

Azp: Ezkontzen zeran egun haretan
izan nahi degu testigu
bertso kantari joango gera
aitak eskatzen badigu.

Mod: Denbora asko baino lehenago zu
igual jarri ezkontuta
neu're banator eztaietara
etxafleguak hartuta.

Azp: Baina Modesto Okelarkua
flojo dabil indarretik
badaezpada ezkondu zaitte
zeharo zahartu aurretik.

Mod: Hiruroitamar urtekin ere
gogorra dago gizona
urtiak asko daduzkat baina
zerbizioz nago ona.

Azp: Arraterekin aski badegu
aldatu dezagun gaia
beste neska bat badago hemen
deitzen zaiona Amaia.

Mod: Zu're nobiuarekin iku-
sitzea izango degu poz
zein apartatu badegu hemen
ta ate ondoraino hatoz!

Azp: Egia da, bai, hemen badaude
itsusiak ta guapuak
eta baita ere bizar haundiak
igerrak edo plakuak.

Mod: Ate onduan hementxe dago
jende alai ta lasaia
beste guztiak guapuak dira
neu bakarrik itsusia.

Azp: Hau baino talde xelegorik
sekulan ez det ikusi
beste bi mutil etorri dira
belarritako ta guzi.

Mod: Nola liteke belarritako
hori belarrian jarri
harri koxkor bat lotuko nuke
hoiez gainera gehigarri.

Azp: Aizu Amaia! Zure etxetik
nonahi ez zaitte aldetu
mutilen batekin hasi aurretik
zeure aitari galdetu.

Mod: Ez dakit zer moda klase duten
gaurko eguneko mutilak
belarritako luziak eta
okotzeraino patilak.

Azp: Mutil koxkor bat badago hemen
nik ezagutzen detela
oso argia izan behar du
Jon deitzen da, ni bezela.

Mod: Neuk'e badakit azken orduko
mutil koxkor bat badala
jenio berri ez dakit baino
bestela aitan iguala.

Azp: Jonekin egin beharko det nik
gerorako koplaria
aitak dadukan gogoia badu
ta nere abildadia.

Mod: Koplartzako abildadia
horrek eukiko du modan
baina jenio txarra da eukitzia
kantatzen hainbat denboran.

Azp: Seguru asko ez da izango
jenioz oso plakua
ta bertsoetan oso ona, berriz,
aita dan bezelakua.

Mod: Aitak bezela linternerotzan
ein beharko ditu lanak
ta bertso onik ez leike bota
presaka ibiltzen danak.

Azp: Ate ondolik entzun zaidazu
Jon Azpillagaren hitza
linternerua baino askozaz
hobe da bertsoaritza.

Mod: Linterneruak eukitzen ditu
nik al dakit zenbat kontu!
Ta askotan hauxe egiten dute
konpondu ahala apurtu.

Azp: Zer jende modu arkitzen geran
eman nahi nuke aitzera
berrogei lagun etorri gera
Erbitxo bisitatza.

Mod: Kuadrila ederra ate ondora
bidali gaitu Jainkuak
emakumeak badaude batzuk
erdi mozkortutakuak.

Azp: Hemen ez bada kanta beharra
berdin izango da gero
guri ez zaigu bat'e ajolik
ondo pagatu ezkeru.

Mod: Ondo pagatzeko pentsatzen det
hartuko dezula asti
presupuestuak kobratzen degu
IVaren zerga ta guzti.

Azp: Ordu erdi bat pasatu degu
gutxinez ate onduan
Modestok esan beharko dizu
zenbat eman behar duan.

Mod: Ta esan beharra eukiko det nik
agindu duen ezkeru
gutxienetik espero ditut
hemen bost bat mila duro.

Azp: Bertso zalea dala diote
eta nik ez dakit zer esan
koplari txarrak izan bagina
honezkero aspertuko zan.

- Mod: Jendeai ondo joerazteko
oso zera aproposa
etxean diruik ez badaukazu
aide! Kaja de Ahorrosa.
- Azp: Hau baino talde ederragorik
mundu honetan ote da?
Edertasun hau nabaritzeko
azaldu zaite atera!
- Mod: Gaiztua zera ta projimua
ez zaizu bat'e ardura
ta laister ingo'eu atia puskau
eta joan horra barrura.
- Azp: Hemen badaude hogeit bat mutil
ta beste hogeit bat neska
danak dauzkagu ia loak hartu
ote zaituzten galdezka.
- Mod: Oraintxe hasi gerade hartzen
ijitu traza galanta
txakur txiki ta asto itsusi
bat besteik ez zaigu falta.
- Azp: Gu zenbat geran, probatu nahia
dezu etxeko atian
baina guk lasai kantauko degu
zeorrek nahi duen artian.
- Mod: Lehen ere esan det projimorikan
zuk ez dezula famatzen
atia puskau ta banator ni
ez badidazu ekartzen.
- Azp: Nik lagunaren errukia det
neugatik ez zait inporta
Sabin limosna ekar ezazu
Modesto gaizki dago-ta.

- Mod: Ate ondoko eskaliakin
kontuak ondo atera
orinala ere ekar ezazu
diruarekin batera.
- Azp: Gaur ere pozik kantatzen degu
ta ez da izango azkana
baina geurekin guk iturri bat
degu bukatzen ez dana.
- Mod: Baina beti're lagunarekin
euki behar dezu kezka
bestela laister hasi behar nun
komuna nun dan galdezka.
- Azp: Errezelua egiten ere
hasiko naiz berihala
hamaika aldiz zuk esan dezu
horren laguna zerala.
- Mod: Bizi guztian eduki det nik
gizon honen inbiria
honen laguna beti izan naiz ni
baina bera ez neria.
- Azp: Sabineke beti lagunentzako
izandu hainbeste grazi
beronek asko egiten du-ta
bestiei eginerazi.
- Mod: Langileari egite'iozu
zuk izerdi asko tira
noizik behinetan egoten zera
katalejotik begira.
- Azp: Sabin koplakin aspertu dala
ia daduka ezagun
isildutzeko berak esan du
eta bukatu dezagun.

Hiru saio hauetan eta, gainontzeko gehienetan ere, Azpillaga izaten da lehen koplak kantatzen duena eta bigarrena erakusten duena. Bertsoaren haria berak eraman ohi du eta bere kantu lagunak berari jarraitzen zaio.

Bestalde, aipagarria da azken saio hau. Ate baten aurrean, bi koplariok, 79 koplak bota baitzituzten. Ez da Euskal Herrian halako markarik hautsi duen herri asko izango. Mutrikun, ordea, behin baino gehiagotan egin izan dira holakoak.

Mutrikun baserriak koplak eta kalea koplak ez da gauza bera izaten:

Kalea gogor samarra ere bada, 10 metrotik 10 metrora kantatu behar izaten da; tabernatik tabernara eta dendatik dendara. Hori ez da baserrietik baserrira kantatzea bezalakoa, baina, umoretsua, kuadrila onak, goserik eta egarririk ez da izaten, nekatu ere ez da baserrietan beste nekatzeko... Hala ere, gabaz baserrietara joan ohi gara.

Gogorra bai, baina sarritan koplak behar izan du berak bakarrik kalean.

Hona ekarri ditugun aleak 1995ean, Anjel Larrañagarekin botatutakoak dira. Goiz hartan, 18 saio egin zituzten! Eta ez nola nahikoak!

1. Saioa. Ileapaindegia: Maritzu (Azpillagaren andrea), Miren Errementeria eta Anjelita. Saioa hasita zegoela ekin zion grabaketak.

Azp: Etxean beti dago beharra
eta saiatu beharko
beti lanean ari da hori
andra txintxua dalako.

Lar: Arrazoietan dabil gaur Juan
gehienaren iritzian
andre fin bat hor komeni baita
bertsolaiaren etxian.

Azp: Beti alegre bizi da hori
albora uzten du pena
senarra berriz harrapau zuen
munduan zanik onena.

Lar: Neronek ere pentsatakua
hasi behar det esaten
hain haundia ta guzia fina
ez da erreza izaten.

Azp: Seme-alabak ezkondu eta
umedun eginak dia
oaindik Maritxu aurkitutzen da
amona gazte-gaztia.

Lar: Gaur Azpillagak esan duena
nola ez genduen broma
etxe danetan behar litzake
zure moduko amona.

Azp: Bestentzat ere bertso batzuek
kantatu beharko dia
eta hurrena kopla dezagun
Miren Errementeria.

Lar: Begiratuta zer esan faltik
ez diot bilatzen horri
hain andre guapa zaude ta nola
pelukerira etorri?

Azp: Denbora asko ez da oraindik
Sabas mundutik joan zala
gizon ona zan eta Jainkoak
zeruan gorde dezala.

Lar: Fede santuan bizi geranak
hau sarri dator gogora:
egunen baten bilduko gera
berriz elkarren ondora.

- Azp: Harek ez zuen inoiz maitatzen
eskandalu ta nahasterik
mundu honetan ez zuen egin
danei lagundu besterik.
- Lar: Era horretan portatzen zala
duda haundirik ez dago
zeruko Aitak onentsuenak
nahi baititu beretzako.
- Azp: Hiru emakume daude barruan
ta horra hiruren nota
beste hiru-lau kantatu behar
Anjelita hor dago ta.
- Lar: Ai Azpillaga bai al dakizu
ni zer nenguan pentsatzen?
Zure andrea ari ote dan
lagunak dotore jartzen?
- Azp: Anjelita hau ondo bizi da
txatarrerua gizona
lana ere sendo eiten du baina
aberastuta dagona.
- Lar: Itxaropenak eduki leizke
biharko eta etziko
holako gizon bat duen andrea
gaizki ez baita biziko.
- Azp: Bukatu ere ein beharko da
ia aspertu nahiz eta
limosna eman beharko dezute
bakoitzak mila pezeta.
- Lar: Hara Maritxu gauza batekin
erdi kezkatuta nago
hemen eskale etorri gera
zeuk kobrau baino lehenago.

2. Saioa. Donibane okindegia: M^a Isabel, Aitor, Mikel, Pakito.

Azp: Beti ez dira harrapatutzen
hau bezelako lekuak
agur denori hasteko eta
egun on bana Jainkuak.

Lar: Neroni ere ilusiotan
jarrita nago begira
nahiago nuke leku guztiak
honen berdinak balira.

Azp: Fede askorik euki ez arren
santatan eta santuan
ohitura zahar hau galdu ez dedin
gu ari gera kantuan.

Lar: Gu era hontan ibili arren
inor ez leike harritu
Santa Agedaren ohitura zaharra
nahi degu indarberritu.

Azp: Larrañaga hau kanpotarra da
eta ez daki nik aina
M^aIxabel hor dadukagu
andre guapa ta bikaina.

Lar: Nahiz kanpotikan etorri naizen
ezin neinke erretira
neu ere pozik egoten bainaiz
neska politei begira.

Azp: Beti begira ni ibiltzen naiz
andreen aldamenian
gaur baino ez dakit hobe zagon
ezkondu zan egunian.

Lar: Ai Azpillaga! Entzungo zendun
ta hasiko naiz aipatzen
senar jatorra duen andrea
sekula ez dala zahartzen.

Azp: Maixabelek badaki zer dan
hartzia eta ematia
ta eskale datorrenarekin
beti du borondatia.

Lar: Era honetan mintzatutzea
ez da izango pekatu
ta zer emana dagon lekuan
pozik ohi degu eskatu.

Azp: Arrantzalea esaten dute
da itsasoen esklabo
Begoña ez da etorri baina
bere senarra hor dago.

Lar: Emakumea zertan dabilen
sarritan ez da jakiten
seguru asko ibiliko da
etxeko lanak egiten.

Azp: Ez dakit zenbat urte dituen
horrek patroitzan pasatu
dirua sendo irabazten du
ez daki zertan gastatu.

Lar: Esan bezela badira gauzak
beharko diot erantzun
diru mordoa enpleatzeko
a zer aukera daukazun!

Azp: Borondatea horrek badauka
oso intentzio garbiz
baina gehiago emango zigun
emaztea egon balitz.

Lar: Zer gertatzen dan gure etxean
esango det honezkero
hango gisara hemen'e andrak
ote dabilta poltsero.

Azp. Operatua omen da bera
ez naiz jardun berri bila
nik Begoñari opa diotana
azkar sendatu dedila.

Lar: Gauza berbera eskeinitzeko
ni ere nago jarria
osatu eta bisitatzea
lehenbailehen bere herria.

Azp: Aitor barruan ote dagan
hemen hala esan dabe
gazte denbora pasatuko du
gose asko pasa gabe.

Lar: Derrigor daukat sentitzen dana
berari esan beharra
askotatikan bera baitegu
lanean ai dan bakarra.

Azp: Aitor lanean ari zaigula
entzuten degu serio
berak bakarrik ez du egiten
Mikelek laguntzen dio.

Lar: Zerbait interes beti jartzen du
hau bezelako tokiak
ta denak berak eite'al dituzte
pastelak eta ogiak.

Azp: Aitor ta Mikel maitasuntsuak
omen dira bihotzetik
sasoia ere halakua ta
neska guztiak atzetik.

- Lar: Seguru asko zure esana
izan liteke egia
ta igual bertan jarriko zaie
zerbitutzeko tokia.
- Azp: Neska ondoren beti ez jardun
mesedez bertan jota ke
tranpan batean jausiko dira
deskoidatzen bazerate.
- Lar: Azpillaga ta nik garai hori
lehentxio pasa genduan
gauza politak izaten dira
elkar maite dan lekuan.
- Azp: Talde jatorra daukagu hemen
beti digute azaldu
ogi ta pastel ugari egin
gauerako denak saldu.
- Lar: Nahiz ta guziak abildadea
berekin ez du izaten,
modu horretan saiatuko da
klienteak irabazten.
- Azp: Bertsolariak hasera badu
baina ez dauka atzerik
Maria Ixabel zuk eman arte
ez daukagu isiltzerik.
- Lar: Guk zenbat eman inortxo ere
ez degu jartzen neurtuta
ixil-ixilik joango gera
emandakua hartuta.
- Azp: Lehengo urtean zer eman zendun
horra gauza dan bezala
ziur ez nago baina uste det
mila durokoa zala.

Lar: Nahiz ta nik esan zure jornalik
ez deguala neurtuko
aurten'e hainbat ematen badu
ez gera haserretuko.

Azp: Pakitok ere alde egin du
bihotz haundiko gizona
baina aurrean gelditu balitz
entzungo zuen kristona.

Lar: Zirikatu edo ondo hitz egin
zer ote zuen merezi?
Entzuteko ez zun gogorik eta
hargatik juan da igesi.

Azp: Maria Ixabel hemen ari da
negozio seguruan
hartu ta hartu eta ez dakit
noiz kristo emango duan.

Lar: Itxura antzean portako zala
banuen itxaropena
inbiria ere jarri zait eta
bertsotan hau det azkena.

Azp: Eskerrik asko ta isilduta ere
ez dio bat'e ardura
hemen badago zer jana eta
sartu zaiztezte barrura.

Donibane okindegi-pasteleria da eta Santa Eske tal-
deari bandejatan atera zitzaizkion janari eta edariak.
Hona hemen azken koplaren argibidea.

3. Saioa. "Maria Rekadista": Lupe, Jo- se Manuel.

- Azp: Egun on eta ongi etorri
gaude esan beharrian
gu aurten ere etorri gera
lehengo ohitura zaharrian.
- Lar: Edertasun hau ikusi eta
nola ez gera hasiko?
Ama-alabei egun on bana
emanez lehendabiziko.
- Azp: Ama-alabak halaxe dira
ondo egin dezu hastia
ama oraindik hemen daukagu
ederra eta gaztia.
- Lar: Azpillagaren begirazuna
ez degu gero makala
neronek ere antzeman diot
ongi kontserbatzen dala.
- Azp: Hau baino andre ederragorik
herri guztian bai ote?
Guadalupe du izena baina
Lupe deitutzen diote.
- Lar: Zure kontuak jarria nauka
barrendik pentsamendutan
ez ote zauden gazteagotik
ez ezautuan damutan.
- Azp: Inori plana kentzeko berriz,
nik ez det izan indarrik
Jose Manuel nahiko du horrek
ez zeukan besteen beharrik.
- Lar: Zu zerorri're izana zera
emakumeen graziko
ta horrek ere Azpillagari
joaten ez zion utziko.

Azp: Guadalupentzat bertso guztiak
ezingo ditugu bota
gaia aldatu beharko degu
Josefina hor dago-ta.

Lar: Josefina hau aipatutzeko
ez daukagu garai junik
lehendabiziko jakin nahi nuke:
horrek ba al du lagunik?

Azp: Nobixuakin ikusten ere
ondo ohituta gaude ta
ikusitzean ematen dute
Romeo ta Julieta.

Lar: Josefina hau neska polita
maitia eta laztana
baina batekin gelditzen al da
aukeran asko dauzkana?

Azp: Uste det oso sinpatikoa
dala horren nobixua
ez dakit nondik etortzen da ta
ez dakit nun dan jaixua.

Lar: Nungua dezun jakin nahiean
duda bat dago ertena
baina bihotzez maite bazaitu
hori da inportanteena.

Azp: Ondarrutarra omen da bera
sinpatiko ta goxua
pastela baino hobea, berriz,
Josefinaren muxua.

Lar: Beraz, tratua dadukazute
goxotasun ta alaietan
jeneralean horrela ohi da
soltero dagon garaian.

Azp: Bi emakumeak kopla ditugu
gure saioa akabo
Lupe zure zai hemen dago-ta
pasa zaitte Eduardo.

Lar: Sarri ez zaigu guri tokatzen
hemen hainbeste loteri
uste baino gehio eman dulako
milo bat esker Luperi.

**4. Saioa. "Pedro Urkiri" janari denda:
Pedro Mari, Arantxa, Pilar "Katxo"**

Azp: Santa Eskeko eguna da ta
boza behar degu altxa
egun on danoi ta ongi etorri
Pedro Mari ta Arantxa.

Lar: Denak aipatzen hasiko gera
denda barruan daudenak
Azpillagantzat andre-gizonak
neretzako beste denak.

Azp: Ai Larrañaga! hitz hori hobe
euki bazendu gordeta
danakin gaizki ibili bi'ezu
alargun asko daude-ta.

Lar: Azpillaga're neurritik gora
ez ote zerade juna
nahiz ta senarrikan ez eduki
eduki leike laguna.

Azp: Pedro Marikin hasi beharra
izango degu agian
hori lanian hasten da beti
goizeko seirak aldian.

Lar: Goizo hasita hala ere dago
oraindik sasoi fuertian
lan egitea atsegin baita
hainbat andreren tartian.

Azp: Andre ederra ohian utzita
sarri ohetik erori
diru zalea hori bai baina
tonto galanta da hori.

Lar: Neronek ere tentatu gabe
ez det joan nahi igesi
Pedro Mari hau fina dalako
andrea gaizki ez da bizi.

Azp: Goizeko seitan lanean hasi
gabeko hamabitan utzi
ta andreari esaten dio
ingo deu bihar edo etzi.

Lar: Gauza zaila da gehientsunean
denetako zoriona
andrearentzat pikardia da
nekatutako gizona.

Azp: Pedro Marintzat nahikoak dira
zertako bota gehiago
orain Arantxa koplaz dezagun
andre txit polita dago.

Lar: Erreparuan jarria nago
neu ere honek esanik
oraindik ere ez dezu ematen
hogeitaz urte daukazunik.

Azp: Umore txarrik inoiz ez dauka
beti dago irriparrez
hau baino andre hobea hartzen,
Pedro Mari, ez da errez.

- Lar: Engainatutzen urte batzuak
izango ziran juanak
berak hainbeste meritu badu
hau eskuratu zuanak.
- Azp: Arantzak errez beteko du bai
gizonaren kapritxua
neskatxa batek bezala dauzka
iztarrak eta petxua.
- Lar: Azpillagaren bide beretik
zerbait entzun bihar dezu
nahiz ta Arantxa dezun izena
dena larrosa zera zu.
- Azp: Hau jaiotzean akordatu zan
zeru ta lurren Jabia
hau da larrosa eder bat baina
bat'e arantzarik gabia.
- Lar: Larrosa eta arantzak nahastuz
badira zenbait momentu
hori Pedro Marik jakingo du ta
hobe berari galdetu.
- Azp: Etorreratik Pilar Katxori
begiratutzen nenguan,
urte batzuek badauzka baina
zeinen ederra dagan!
- Lar: Gorputza dauka oraindik fina
ta ile hori horia
emakume bat izatekotan
hori da kategoria!
- Azp: Mutrikun ezer egiten bada
zabaldutzen da partia
zuk hobe dezu disimuluan
Benidorrera joatia.

Lar: Benidor hartan zahar ta gazteak
denetik dira aukeran
ta opa dizut lagun batekin
ia elkartutzen zeran.

Azp: Hainbeste gizon izaten dira
oporretan juandakuak
berriz aukera ederra dago
aberatsak ta guapuak.

Lar: Nik ongi dakit berak duela
boltsa dirutan betia
komeni zaio lagun gazte bat
sasoikua ta fuertia.

Azp: Urte mordo bat izango dira
bere ezagun naizela
berdekeria gustatzen zaio
Azpillagari bezela.

Lar: Berdekerian izan liteke
zuk hainbeste kategori
baina ziur naiz neskata fin ta
guapa beti dala hori.

Azp: Ordu laurden bat pasatu degu
bertso mordo ta kanta
Arantxa ekarri zazu limosna
nahikoa izango da-ta.

Lar: Ate guzitan desio degu
hemen hainbat borondate
eskerrak mila limosnagatik
berriro gatozen arte.

5. Saioa. "Urkiri" harategia.

Azp: Egun on Joxe ongi etorri
hau da umore epela!
Gu aurten ere etorri gera
joan dan urtetan bezela.

Lar: Ohitura da-ta eskean datoz
Santa Agedan bezperan
ia zu ere beti bezela
ongi portatutzen zeran.

Azp: Harakin eta dendariekin
ez naiz errukitzen bat'e
krisis haundia dagola baina
bapo moldatzen zerate.

Lar: Zu bezelaxe neroni ere
pentsamentutan nenguan
eskatutzeak poza ematen du
zerbait dagoen lekuan.

Azp: Harategi bat hementxe dauka
ta bestea beheko plazan
guztia egin beharra zeukan
hau aberastuko bazan.

Lar: Baina guziek ez dute hartzen
horrek hartu dun antzeko
era horretan jokau behar da
herria meioratzeko.

Azp: Hemen berau ta bestean, berriz,
semea ta emaztia
gorde ta gorde darama honek
bere bizitza guztia.

- Lar: Era horretan jokatu eta
ez leike asko harritu
zerbait eitia normala da ta
badaukazu nun partitu.
- Azp: Neskatan ere Joxe nola ez zan
oso mutil kobardia
Beleoteitik ekarri zuen
berdin gabeko andria.
- Lar: Zer pasatzen dan bizimoduan
aitortuta ere berdin da
orain hargatik moldatzen da hau
lana erdia egin da.
- Azp: Joxpak badaki ondo eramaten
bai hemengo eta hango
aspaldi ez det ikusi baina
geldirik ez da egongo.
- Lar: Bizi beharrak sortutzen baitu
mundu hontan komeria
holako andrea duen gizonak
harek badu loteria.
- Azp: Joxparentzako nik pentsatzen det
bota degula nahikua
semea ere fina daukate
aita dan bezelakua.
- Lar: Semearentzat aitari zertan
ariko gera kantuan
berai kantatu ez al da hobe
han behera joandakuan.
- Azp: Oso gaztea ez bada ere
sasoikua oraindio
Ramuntxu deitzen diote baina
Don Ramon esan leikio.

- Lar: Nekatu eta lan egitea
askoren penitentzia
aitak hobe du erretirua
berihalaxe hartzia.
- Azp: Ezagun dago zu Erramon hau
dala begi onekua
andregaia ere harrapatu du
larrosa bezelakua.
- Lar: Neronek ere konfiantza det
Azpillagan esanean
suertekoak izan bitez hor
elkartutzen diranean.
- Azp: Klean ere pareja ederra
planta onian dihardu
itxura hala hartzen diot nik
laster ezkondu bihar du.
- Lar: Zenbat urtetan dagon ez dakit
sasoia ez dauka juna
baina lehenbailehen ekarri leike
amarentzako laguna.
- Azp: Egia da bai amak etxean
andre gaztea du falta
geldirik ez da bera egongo
Txaparronekua da-ta.
- Lar: Ai Azpillaga ate batian
hainbeste zertan luzatu
borondatia, halako baten,
beharko degu eskatu.
- Azp: Egia da bai oain artekoa
ez al da izan nahikua
Joxe lehenoxe bezala aurten
izan borondatekua.

Lar: Holaxe segi nahi genduke guk
borondate ona hartzen
eta zuk ere holaxe segi
haragia asko saltzen.

6.Saioa. Xabier Uranga.

Azp: Don Alejoren etxe aurrian
hasi gaitezen kantari
Xabier gaixo omen dago ta
oroitzapenak berari.

Lar: Geu ere triste sentitzen gera
gaisotasun gora beheran
gaurko saioa zerbait entzunda
ia animatzen zeran.

Azp: Beste batzuek esanda dakit
kalentura daukazula
horrek atzetik seguru dauka
katarrua ta eztula.

Lar: Ta enteratu berriak gera
ezkonberritan zaudena
katarro hori ez al da izango
izerdian ondorena?

Azp: Ate onduan ikusi degu
ari da pixkat indartzen
seguru asko etxean dabil
andrea mimuak hartzen.

Lar: Hemen albotik entzuna daukat
ez det arrazoi osorik
mimo batzuek hartziagatik
jarri ote dan gaisorik.

Azp: Espabilatu zaitezen bada
guk egin degu bisita
beraz, taldera etorri zaitetz
jertse haundi bat jantzita.

Lar: Bakardadean sentitu leike
benetan triste ta larri
emaztea ere libre badago
gure taldera ekarri.

Azp: Nola luzaro kantatutzeko
honuntza etorri ez geran
agur Xabier ta azkar azkar
ia osatutzen zeran.

Xabier Uranga Mutrikuko Bertso eskolako
sortzaile eta lehendakaria da. Egun hartan, gai-
xorik, ezin izan zuen Santa eskera atera.

7. Saioa. Erlojerua: Alberto, Arantxa.

Azp: Beti bezela etorri gera
Santa Eskeko kantari
zenbat zeraten ez dakit baina
ongi etorri danari.

Lar: Entzule dagon edonork ere
agurra hartu behar du
ohitura zaharra galdu ez dedin
zintzo etorri gera gu.

Azp: Hemen urrea eta zilarra
dago modu egokian
guk gustorago kantatzen degu
dirua dagon tokian.

Lar: Sarri gehiena daukaten hauek
borondaterik gutxina
baina hemengoa izan behar du
gizon jatorra ta fina.

Azp: Alberto honek balixua ta
dirua dauka aukeran
gu badaezpada urte guzitan
honuntza etortzen gera.

Lar: Urte askotan bildu zerala
garbi eman dezu hitza
hainbat alditan ez zan helduko
gaizki portatu balitza.

Azp: Erlojuaren negoziua
dauka bolumen haundian
Marruekoson erosten ditu
eta prezio erdian.

Lar: Gaur Azpillagak jarriagatik
erdi traperuen famak
era horretan joka behar du
negoziante ona danak.

Azp: Ez det esango Alberto honek
ezer ez dunik balio
baina andrea dauka kristona
Arantxak laguntzen dio.

Lar: Begien bistan ikusten degu
esaten zan errezena
eta andrea izan behar du
erlojua bezain zuzena.

Azp: Barruan egon behar zuela
lehendik pentsatzen nenguan
amama eginda egonagatik
zeinen ederra daguan!

Lar: Alde danetan gustagarria
umila eta leiala
hortik kanpora bistan daukagu
ongi kontserbatzen dala.

Azp: Andreak ez du gizona uzten
inola eta ezela
hauek gaur egun ibiltzen dira
nobiuetan bezela.

Lar: Aiton-amonak eginda gero hau
ez da gero errezegi
era hortako dibertsian
urte on askotan segi.

Azp: Noiz bukatuko ote dezute
Alberto horren galdera
eskerrik asko limosnagatik
ta goazen beste aldera.

**8. Saioa. "Manuel" harategia: Manuel,
Anjelita, Juana Mari, Maria Jesus,
Eduardo Azkue.**

Azp: Egun on eta ongi etorri
sartutzean barrenean
iruditzen zait ote gauden gaur
lekurik ederrenean.

Lar: Ekinaldi bat itxurazkoa
bada zeini eskainia
lehendabiziko ongi etorri
Manuel ta konpainia.

Azp: Baina lehenengo koplatu behar
etxe hontako alarguna
esan didate atzo izan zala
Anjelitaren eguna.

Lar: Egun hauetan izaten gera
tentale eta hizlari
ta egun baten atzerapenez
nik zorionak berari.

Azp: Urteak dira zure senarra
mundutikan joan zala
gizon ona zan gure Jainkoak
zeruan gorde dezala.

Lar: Fedearekin bizi geranak
itxaropena munduan
egunen baten elkartutzeko
berriz elkarren onduan.

Azp: Berri batzuek kontatutzeko
etorri gera koplari
biak batera kopla ditzagun
Manuel ta Juana Mari.

Lar: Holakuari ilusiotan
jarri ohi gera begira
bertsorik ez dute entzuten baina
negoziante finak dira.

Azp: Apirilaren hogeitamarra
da egun seinalatua
egun horretan izango omen da
matrimonio santua.

Lar: Irriparrezka ikusten ditut
elkarrengana jarriak
urte askoan iraun dezala
hartzen duten uztarriak.

Azp: Manuel honek neska eder bat
somatu zuen auzuan
lana egiteko aitzakiakin
etxera ekarri zuan.

Lar: Zapatarikan ez da erosten
aurretik probatu gabe
ta zuk lanean probatu dezu;
artista fina zerade.

Azp: Artistatasun asko ez dauka
hau nola dan harakina
baina edonork ez du harrapatzen
holako Ama birjina.

Lar: Balio dula antzeman zaio
ta bera nola ez goratu
Manuel ere zerbituko du
ta klientela mejoratu.

Azp: Ai Juana Mari! Ezkondu eta
urte on askuan goza
ezkonduta ere nik deituko'izut
Antsomendiko arrosa.

Lar: Nik fina dala antzeman diot
oso denbora gutxian
ta gero lana ein beharko du
karnizeian ta etxian.

Azp: Nola Mutriku herri txiki dan
denak gerade ezagun
Maria Jesus hor daukagu ta
hori koplatu dezagun.

Lar: Zer pasa zaion argi ta garbi
horra nik Mari Jesusi
mutil asko du aukeran eta
bat gaur ezin du bereizi.

Azp: Maria Jesus polita dago
inor badago ederrik
zenbait kankailu hartzea baino
hobe da bizi bakarrik.

- Lar: Asko esatia litzake baina
denak egiak dirade
horrelako bat ez leike gera
fruturik ekarri gabe.
- Azp: Fruturik gabe gelditzen dira
hainbeste emakume fin
ta zu zergatik ez zera ezkontzen
Eduardo Azkuekin?
- Lar: Lehengo aldiz gaur ikusi det
gorputzez ez dago fina
alderdi on bat badu berekin
eskatzen ondo dakina.
- Azp: Eduardokin ezkondu eta
ai zer nolako bolada!
Gutxienean bost ehun lagun
joango gera bodara.
- Lar: Zer gozatua bilatu leike
gerri gerritik helduta
mutil guapoa jarri litake
hogeit bat kilo galduta.
- Azp: Baina bi gusto izango ditu
Eduardokin ezkontzian
bata gainian dagoanian
eta gainetik kentzian.
- Lar: Eduardo hau berdin samarra
gainian edo azpian
zatarrena're ederra baita
goseak dagon guztian.
- Azp: Maria Jesus barka ezazu
atera degun demanda
hori guztia bukatutzen da
limosna eder bat emanda.

Lar: Erakargarri apartekua
baita neskan irrifarra
Maria Jesus bilatu ezazu
zeure gustoko senarra.

Azp: Nonbait limosna eman dezute
agurtzen behar det hasi
eskerrik asko guztiori ta
denok ondo-ondo bizi.

9. Saioa. Frutadenda: Mila.

Azp: Egun on eta hasi beharra
dago hemengo lanari
bisitatxo bat egin beharra
eduki degu Milari.

Lar: Denak agurtzen jarriak gaude
bisitatuaz tokiak
eta nik ere agurtzen ditut
haundiak eta txikiak.

Azp: Eta Milari gauza guziak
dao argi esan beharra
berdura eta frutak bezela
bera ere dago edarra.

Lar: Begi onetik daukazu bista
zu ez zabilta aparte
emakumeak politak dira
gaztiak diran bitarte.

Azp: Juan daneko urte morduan
Mila ezagutzen det nik
zu, nola Kristo, ezkondu gabe
aurkitutzen zera oraindik?

Lar: Ezkondu gabe gelditze hortan
badago zenbait notizi
bat txarra baino ez al da hobe
askokin itxuran bizi?

Azp: Mutil talde bat dagon lekuan
zu Mila jarri begira
baldar samarrak egonagatik
jatorrak ere badira.

Lar: Mila neskatxa fina degula
gaude tankera emanak
lanikan ere ez du egin beharrik
honekin ezkontzen danak.

Azp: Seguru asko zuk maitaleak
izango'ituzu morduan
neuk hiru bertso kantaiko'izkizut
ezkontzen zeran orduan.

Lar: Neronek ere egun horretan
etortzen nahi nuke saia
aldez aurretik deitu zazute
non izango dan bazkaia.

Azp: Alboan dezun neska polita
bildurturik dago Lore
baina holakorik ez da edukitzen
aurretik ezkondu gabe.

Lar: Horrelako bat edukitzeko
zertan eduki senarrik?
txarra izan da ere ez bailegoke
inor aguanta beharrik.

Azp: Barazki eta frutakin Milak
badauka lanik nahikua
umea, berriz, errez zaintzen da
besteek egindakua

Lar: Bere garaian izan behar zun
mutiletan abantaila
duda egiten det Mila ote dan
oso ligatutzen zaila.

Azp: Berak esan du bertso saioa
egin neurri laburrera
aski bada ta zu, Jose Mari,
pasatu zaite aurrera.

Lar: Berriro ere bisitatuaz
honera nahi det azaldu
ta bitartean nobio bilau
ta fruta ugari saldu.

10. Saioa. "M^a Angeles": Luis Mari, Maria Angeles.

Azp: Eta hurrengo bertso saioa
hementxe degu berezi
egun on eta ongi etorri
Luis Mari ta Anjelesi.

Lar: Nola gatozen badakizute
ezin liteke kejatu
Santa Agedaren ohitura zaharra
nahi genuke kontserbatu.

Azp: Anjeles honek badaki ondo
gauzak nola izaten dian
urdaiazpiko eta ogia
lehengo ohitura zaharrian.

Lar: Maria Anjeles bihotz oneko
emakumea zerade
hainbeste gauza ekarri dezu
ezer ere eskatu gabe.

- Azp: Denda zabala ta ugaria
saldutzen dute nunahi
horgatik pozik bizitzen dira
Maria Anjeles ta Luis Mari.
- Lar: Ai Azpillaga bai al dakizu
tankera nago emanik
emazte fina duen gizonak
ez dula egiten lanik?
- Azp: Bankuetako kontu guztiak
dijuaz gora ta gora
hauei bakarrik faltatzen zaie
gastatutzeko denbora.
- Lar: Seguru asko hiletarikan
oraindik ez dezu joko
baina lehenbailehen aprobe txatu
gauz gutxi utzi geroko.
- Azp: Emakumeak aurreatzeko
daukate hainbat lan mota
gizona, behintzat, ondo tratatu
jubilatuta dago-ta.
- Lar: Jubilazio urte hoietan
ez al zan kontu grabia?
Maria Anjeles ikusten degu
oindik sasoiko andria.
- Azp: Jubilatuta, auskalo harek
zenbat kobratutzen duan!
Gustora asko ibiltzen da hura
emaztiaren onduan.
- Lar: Adin horretan lagun hoberik
ezin liteke espero
aberatsenak berak baitira
elkar maitatu ezkerro.

Azp: Anjelesen ama ezautu nuan
ez zan ez andre makala
Maria Anjelesek ezagun dauka
"Txotis"-enekua dala.

Lar: Maria Anjeles ez zan biziko
sekulan lanik ein gabe
adin horreta iritsita ere
zu andre gaztea zaude.

Azp: Luis Mari eta Maria Anjelesek
badute hainbat meritu
eurak lanian gogor ai dira
eta semea mediku.

Lar: Sendagileak izan litake
kategori eta fama
urte askotan zaindu ditzala
bere aita eta ama.

Azp: Maria Anjelesek inbitatutzen
zaituzte danok batera
urdaiazpiko ta ogia jaten
etorri danok atera.

11. Saioa. "Elias" harategia: Elias, Margarita, Anabel.

Azp: Legorretatik etorria da
ta hainbat bertso zalia
egun on eta ongi etorri
Elias ta familia.

Lar: Nungua degun badakigu ta
agurtutzea garaiz ta
ongi etorri neroni ere
Gipuzkuakoa naiz ta.

Azp: Etorri zan ta hemen gelditu
hemen bizi da aspaldiz
hau Mutrikura ez zan sartuko
herri ona izan ez balitz.

Lar: Goierritikan itsas ertzera
ilusiotan etorri
jale haundiak dira hemen ta
honek karnizeia jarri.

Azp: Zertan gabiltzan jakin nahiean
igual arduratzen zaitu
Roman Okelar omentzen degu
ta lehengo ohiturak zaitu.

Lar: Santa Agedaren bezperakoa
lehengo ohitura zaharra
oraindik ere Gipuzku hontan
badauka honek indarra.

Azp: Langile batek beti izaten du
lana egiteko arreta
karnizerua ederki dabil
kliente onak daude-ta.

Lar: Jendez beteta karnizeria
era berean kalia
jenero ona saltzen duela
hortxe dago seinalia.

Azp: Elias honek harategian
eiten du hainbeste saio
tabernan'e bai ordu mordua
jokua gustatzen zaio.

Lar: Ai Azpillaga pekatu danak
ez zeuden esan beharrik!
gizon formalak ez du egiten
egunero lan bakarrik.

Azp: Hoiek jokuan tabernan eta
ama-alabak hemen zai
jokalariaik gaitz bat badauka
beti irabaztea nahi.

Lar: Jokuan edo karta giroan
nonbait behar du jolastu
horrek daduzkan txanpon guztiak
errez ez leizke gastatu.

Azp: Aldamenian nola dadukan
oso estampa polita
Eliasentzat aski bada ta
orain, berriz, Margarita.

Lar: Nik ere zerbait esan behar det
pentsatzen detan bezela
iruditzen zait ematen dute
ia biak ahizpak direla.

Azp: Ai Margarita! Gauza batzuek
dauzkagu berdin beteak
horrek eta nik egun batean
betetze'itugu urteak.

Lar: Alabak gaizki hartua dauka
nik esandako guztia
zu polit zaude baina ama ere
oraindik dago gaztia.

Azp: Baina Anabel ez zaite jarri
jarri ezin den moduan
larrosatxo bat ematen dezu
zure amaren onduan.

Lar: Zer pentsatutzen nagoen orain
esanda ingo den pakia
ama holakua dezulako zu
zerade horren guapia.

Azp: Ai Larrañaga Anabelentzat
esan dezu gauz grabia
Margarita zu ederra zaude
baina Anabel hobia.

Lar: Gauza guziak kontatu dira
hemengo nobedadian
Margarita're polita baitzen
Anabelen edadian.

Azp: Ta ikusten det hemen oraindik
kanta behar da gehiago
beste alaba gazte bat bada
eta hura, berriz, nun dago?

Lar: Beste alaba nun ote dagon
gaude kargua harturik
karnizeria txikia da ta
denentzat ez da lekurik.

Azp: Baina oraindik Anabelekin
segi nahi nuke aukeran
zerbait entzun det, jakin nahi nuke
ia noiz ezkontzen zeran.

Lar: Era hortako berri polita
enteratzea ona da
bertso aitzakiz bildu nahi degu
Anabeleren bodara.

Azp: Hor ibiltzen da nobiuakin
kanpua ta barrenian
ezkontzeko ere oraintxe zaude
sasoirik ederrenian.

Lar: Ilusioa behar du baina
dena ez da zoriona
eta Anabel sinistu zazu
oaintxe zabilta ondona.

Azp: Baina hemen ezingo degu pasa
eguerdi-arte guztia
ta Margarita hobeko dezu
boltsa zabaltzen hastia.

Lar: Eske dabilen jendeak badu
ez dakit zenbat komeri
emanagatik milaka esker
esango diet deneri.

12. Saioa. Merkatua: Moteko Antoni.

Azp: Egun bat pasa nahi gendun nunbait
Santa Eskien kontura
horregatikan etorri gera
hemen dagon merkatura.

Lar: Ilusiotan etorria naiz
ni Mutrikuko plazara
gaur zer saldua ikusten degu
zeinek erosia bada.

Azp: Hemen badago zer erosia
ez degu nahi erosterik
guk ez baitegu gaur eskatutzen
limosna baino besterik.

Lar: Esan bezela gure aurrian
zertatik eman badago
fruta're berdin hartutzen degu
baina dirua nahiago.

Azp: Beti bezela segi nahiean
gu gabiltza ohitura honi
bertso batzuek kanta beharra
daukat Moteko Antoni.

Lar: Nik ere zerbait aipatu nahian
Azpillagaren egiak
gaur egunean ez daude asko
holako emakumiak.

Azp: Antonik ondo daki gauza hau
dala guztion jatorri
pena bat daukat kantatutzero
gaur ez zerala etorri.

Lar: Beraz horrek'e ezagutzen du
eskekuaren eskola
begiratuta antzeman zaio
geure inbiriz dagola.

Azp: Ez naiz hasiko Antonirentzat
gauza tristeak esaten
baina ba'kizu urte guztiak
berdin ez dira izaten.

Lar: Gure bizitzak dituelako
honelako komeriak
ilun antzean bazaude ere
izango dira hobiak.

Azp: Ta boltseruei egin beharra
izango degu orrua
denbora asko pasa baino lehen
pasa ezazute zorrua.

Lar: Gure oraingo eginaldia
oso polita izan da
bati begira kantatu degu
saria denena izanda.

13. Saioa. "Pikotxiki"harategia: Antxon, Mila.

Azp: Leku askotan ate ondotik
gelditzen gera begira
baina aurrera sartutzen gera
zer jana dagon tokira.

Lar: Zortzigarrrengo karnizeria
badegu gutxienikan
Mutriku hontan jate'al dezute
haragia bakarrikan?

Azp: Santa Agedak egingo al du
komeni hainbat mirari?
Egun on eta ongi etorri
Antxoni eta Milari.

Lar: Gaur irrifarra nahiko errexa
dago hauen aurpegian
bizimodua erreza baita
zerbait dagoen tokian.

Azp: Antonek ere umoreakin
izaten du saldu nahia
bera serio samarra baina
andrea dauka alaia.

Lar: Bikote baten diferentzia
era horretan behar du
gizonak merke erosi eta
andreak garesti saldu.

Azp: Bai al dakizu Athletiri
Betis tokatu zaiona
eta berari ez al dio egingo
Realai egin diona.

Lar: Gehientsuenean gertatzen da ta
hori da nahiko normala
ez al dakizu haundi gaiztuak
gu domatzen gaituala?

Azp: Betis oraindik igo berri da
badago zer ikusia
ez al dakizu gure Athletik
dala denan nagusia?

Lar: Batere ez det futbolik maite
ez nazazula gorrota
Athletik edo Realta izan
batere ez dit inporta.

Azp: Baina Antoni gure Athletik
beti ondo zaio erori
Gipuzkoako atheletisten
presidentea da hori.

Lar: Beraz, Antoni gustatzen zaizko
futbolaren arrazoiak
karnizerua dan partetikan
maitatzen ditu lehoiak.

Azp: Baina futbolak guretzat ez du
negoziorik azaldu
zuk hobe dezu Athletik baino
txuletak galanki saldu.

Lar: Azpillagaren moduko asko
eduki balu onduan
gure Anton hau honezkerio
aberastuta zeguan.

Azp: Andrearentzat egin nahi nuke
orain aurkezpen zuzena
begira zeinen polita dagon!
ta Mila dauka izena.

- Lar: Urte batzuek pasatu arren
gazteago gelditua
berorrek edo bere gizonak
nork ote du meritua?
- Azp: Beti negarrez ibiltzen dira
ta ematen didan letxia!
Jakin dedanez Amoton ere
erosi dute etxia.
- Lar: Neronek ere zure gaiari
jarriko diot lotura
golfua franko bizitzen dala
baserritarren kontura.
- Azp: Antonek, nonbait, eresia du
jaiotetxe baserria
Mutrikun pozik bizi da baina
maite du bere herria.
- Lar: Horrenbeste lan eginez gero
dirututzia normala
aurpegian'e ezagun baitu
erdi traperua dala.
- Azp: Ni Amoroton kontra ez nua
ezer ere esatera
hau Amoroton jaio zan baina
ez da tontua atera.
- Lar: Negozioko munduan badu
behar aina kalidade
gurekin ere portatuko da.
Eskatu beldurrik gabe!
- Azp: Ba al dakizute ordu bitara
denbora gutxi dagona?
Bestetan ere kanta behar da ta
eman zazute limosna!

Lar: Barka zazue gure bertsotan
sartu bagera gehiegi
limosnagatik miloi bat esker
eta horrelaxe segi.

14. Saioa. Barrenkale.

Azp: Alde batetik denda daukagu
bestetik okindegia
ia poz-pezik betetzen degun
guraso zaharren legia.

Lar: Azpillaga hau horrela dabil
ez dakit zenbat urtian
ohitura eder hau ez da galduko
gu bizi geran artian.

Azp: Goitikan ez da nunbait izango
inoiz hainbeste laguntzik
balkoi ederrak ugari baina
danak daude ia hutsik.

Lar: Zu bezelaxe neroni ere
jarrita nago begira
ta Azpillaga lasaitu zaitez
bazkaltzen ariko dira.

Azp: Noizik behinian begiratzen det
behian hasi eta gora
baina gero're bazkaldutzeko
izango dute denbora.

Lar: Ez da berdina Azpillaga ta
nik pentsatuzten dedana
eskatutzean emango dute
gehientsunak berde bana.

Azp: Denbora joanez bukatutzen zait
ia kantatzeko beta
orain isildu beharko degu
denak eman digute-ta.

**15. Saioa. Osinalde harategia: Joxe,
M^a Eugenia.**

Azp: Agur etxeko familia ta
entzuten dagon laguna
osasunakin pasa zazute
Santa Eskeko eguna.

Lar: Ilusiotan etorri gera
Santa Agedaren bezperan
garai honetan gaurko egualdia
onegia da aukeran.

Azp: Hemen daukagu nagusi jauna
gure Joxe Osinalde
limosna ederra ematen du horrek
ta mokadua debalde.

Lar: Aspalditxotik sartuta gaude
eskalien gramatikan
portatzen danak ez du izaten
zurikerien faltikan.

Azp: Baina Joxekin hasi beharra
da limosnaren tratuan
hori Legazpin jaio omen zan
Deskargatikan gertuan.

Lar: Alde haietan badirade bai
holako giza-lerdenak
sarri mendiko semeak dira
negozianterik onenak.

Azp: Koplari ere ibilia da
nago esan beharrian
errespetuan kantau behar da
holako baten aurrian.

Lar: Formal antzean kantatze hori
beti ez degu normala
igual gero esango digu
enbusteruak gerala.

Azp: Lanera etorri baina neskatan
ez zan mutil kobardia
Ziñuatikan ekarri zuen
urre gorrizko andria.

Lar: Neu're tankera emanda negon
ez zendun esan beharrik
begi argia ez dula horrek
karnizerian bakarrik.

Azp: Joxek gaztetan pasatu zuen
ia Gipuzkua dena
ta azkenean bilatu zuen
Mutrikun zanik onena.

Lar: Egia da bai, andrea dago
gaztegina eta guapa
eltze guztiek izaten dute
beraien neurriko tapa.

Azp: Ez gero pentsa bakarrik aitu
danik harategi zirkuan
lau seme eder baditu horrek
beira zer lan ein zituan!

Lar: Gaur eguneko gazte gehienak
ikaskuntzan ibiliak
seguru nago ez diradela
aita bezain langiliak.

- Azp: Operatua omen da Fermin
horregatik dago flako
seguru asko gaitz hori duke
azido uriko dulako.
- Lar: Errez askorik bilatu leike
zuretzako medikua
berdura janez kendu liteke
zure azido urikua.
- Azp: Mediku jaunak kontseju ematen
eginda hainbeste saio
fruta omen da gauz ona baina
okela gustatzen zaio.
- Lar: Berdurak eta okelak ez du
bere neurrian kalterik
kolore ederrak daduzka horrek
horrek ez dauka ajerik.
- Azp: Baina Fermini bere bizio
hori ezin zaio kendu
koinaka eta Whiskixa ere
batzuetan edaten du.
- Lar: Xelebrezkua izan behar du
gaur hemengo propaganda
Azpillaga ere bapo bizi da
manduak aina edanda.
- Azp: Emakumeak ondo dakite
gauza horrela ez dela
Maria Eugeni gizona zaindu
galduko zaizu bestela.
- Lar: Baina zu, Fermin, danak ez dira
gorputzarentzat kaltian
aprobetxatu beharra dago
sasoia degun artian

- Azp: Bateko dala batzarra eta
hurrengo reuniua
hiru-lau kopa edatekua
da Ferminen jeniua.
- Lar: Neure bertsoa jarri behar det
gizonezkuen planean
sinpatikonak jartzen baikera
txispatutzen geranean.
- Azp: Maria Eugeni ezagututzen
daramat hainbat denbora
soltera baino ederragua
ezkondu eta gerora.
- Lar: Bi alaba ere polit-politak
hori bere famelia
gizonak ere ongi zaintzen du
garbi dagon seinalia.
- Azp: Bi alabaren kontu horretan
izango zan ikutua
Maria Eugeni polita bada
Ferminen du meritua.
- Lar: Polita bada amarena ta
bestela aitaren aitzaki
ama da hemen beti seguru
aitanik inork ez dakit.
- Azp: Maria Eugeni ikusten degu
neska gaztetan bezala
hor da seinale aizazu Fermin!
Masajista ona zerala.
- Lar: Urte batzuek pasatu arren
andrea dauka puntuan
hor ikusten da artista dala
hau're haragi kontuan.

Azp: Aurreko aldean jarri digute
ardo ta manjar edarrik
seguru asko ez deu izango
bazkaltzera joan beharrik.

Lar: Egia garbi esatekotan
oaindik goserik ez dago
holako lekuan egin litake
ordu erdi bat gehiago.

Azp: Jan ta edaten hasi zaitezte
zertako egon gosiak
eskerrik asko ta agurtzen ditut
etxean dauden guziak.

16. Saioa. Samikolla: Alemaniarra.

Azp: Agurtzen deguz aitzen daudenak
San Nikolasko auzua
itsas gainian aurkitutzen dan
herriko paradisua.

Lar: Horretxegaitik kantuz hasiak
gera umore onian
gabiltzalako Mutrikuk duen
auzorik politenian.

Azp: Santa Agedako bezpera da gaur
gero're bada denbora
postrea jaten lasai badaude
erten zaitezte kanpora.

Lar: Bertsozaleak diraden hoiek
gure aurrean hor daude
ta hura ere atera zaigu
ilerik sekatu gabe.

Azp: Ni ere begira egon naiz baina
ez det hain garbi ikusi
zeinen polita azaldua dan
bere turbante ta guzi.

Lar: Erreparua edukia det
Azpillagan esanian
kenduta zeinen polit ote da
tapauta hala danian?

Azp: Alemanaren detailea ere
burutik ezin zait kendu
entenitutzen ez badu ere
oso pozik entzuten du.

Lar: Ilusiotan horregatikan
gerade honuntz ertenak
guk ere gehio maite ditugu
estimatzen gaituztenak.

Azp: Alemanaren ekintza hori
ezin litake tatxatu
bere herrian nola ez daukan
hementxe aprobetxatu.

Lar: Alemanaren kontua dezu
hau bertsoen abentura!
Bizar ta guzti hartutzen diot
euskaldun baten itxura.

Azp: Hemen pezetaz korritzen degu
Alemanian markua
interesakin emango zuen
gaur hemen emandakua.

Lar: Hainbeste gauz on egin dun batek
halere ez gaitu harritzen
fama guztiak alperrik dira
ez badigu entenditzen.

Azp: Jardun ta jardun ai gea baina
orduak doaz aurrera
bazkaltzera ere ez gera iristen
deskuidatutzen bagera.

Lar: Zeinek entzuna dagon lekuan
ez leike errez laburtu
pena da hemendik joatea baina
beharko dira agurtu.

Azp: Berriro lasai ez naiz egongo
zuek ikusi artian
eskerrik asko limosnagatik
ondo bizi bitartian.

17. Saioa. Motetarren etxea: Dioni.

Azp: Motetar danak jakin dezaten
hemen pasatu naizela
agur eginda kantatuko det
lehengo urtetan bezela.

Lar: Gure aitzakiz nahiz ta gehienak
siesta pixka bat galdu
ohitura zaharra bizi da eta
batzuk lehiora azaldu.

Azp: Ezetzik inoiz esan ez eta
jarraitzen degu aurrera
talde berririk ez da azaltzen
urterokoak gu gera.

Lar: Gazte berririk ez dan lekuan
zaila dago indartzia
baina bi andre sasoiko daude
merezi zun etortzia.

Azp: Ate honetan kantatzen degu
beti urte bakoitzian
pena da baina jakin degunez
Dioni ez dago etxian.

Lar: Gaur iritziak eman litezke
berdin samar dan kasuan
egualdi ederra dagoelako
mendira alde egingo zuan.

Azp: Famelikoak gutxi dira hemen
jarri ezkerro begira
ama bezela seme-alabak
hanka egin dute mendira.

Lar: Gauza gehiago esan litazke
ez dakit nik zer berezi
gaur eskaliak gatozelako
igual joan dira ihesi.

Azp: Eta honekin izango gera
bukaera eman beharrian
beste saio bat egingo degu
maiñelen etxe aurrian.

18. Saioa. Marinelen etxe aurrean.

Azp: Umore onean azaldu gera
Mainelen etxe aurrera
Santa Agedak lagunduko du
hola portatzen bagera.

Lar: Eske datorren jenderarekin
errukituak dirade
han goian ere erden baitute
bazkaltzeko astirik gabe.

Azp: Baina honuntza etortziakin
ez zaitez kejavu bat'e
denbora gutxi egingo degu
ta laister libre zerate.

Lar: Ahal bada inor ez degu jartzen
kantuakin aspertuta
gu txintxo-txintxo joaten baikera
ematen dana hartuta.

Azp: Limosna hartu ta aldetakuan
ez gera joaten tristerik
baina limosna ona izatea
ez genduke nahi besterik.

Lar: Goitik bota dan limosnarekin
ez gerade haserraten
kontentu dira jardinean dauden
lorak ez badira galtzen.

Azp: Limosna nola hartzen dan ere
ikasia du bidean
Eduardo honek boltsakin erraz
harrapatze'itu aidean.

Lar: Egin beharrez egongo gera
Eduardoren aitorrak
lodi samarra da bera baina
eskuak dauzka bizkorrak.

Azp: Ohitura eder hau gorde nahi degu
Mutriku herri kaskuan
Santa Agedak lagun daigula
holaxe urte askuan.

Lar: Emandakoa eskertu eta
joan beharko da ihesi
limosnagatik miloi bat esker
denok ondo-ondo bizi.

Honenbestez bukatu zen goizeko ibilaldia. Bazkaldu ondoren Azpillagak Laranga auzoan jarraitu zuen eta afaldu ondoren Roman Maiz "Okelarri" omenaldia egin zitzaion. Omenaldia ondoren Galdonamendira joan zen koplaztera goizaldera arte.

Jon Azpillagak Santa Eskerako duen zaletasunaren berri ematen digu 1996ean egindako ibilera. Goizeko 10:30etan hasi zen Mutrikuko kaleak koplazten. Bazkaldu ondoren jarraitu zuen afaltzerako bukatzeko asmoz. Afaldu ondorenean, baina, ezin izan zion koplaren tirari kontra egin eta hirurak jota izango ziren etxerazterako. Biharamunean, Santa Ageda bezpera eguna, Elgoibartik jasotako abisuari erantzunez, goizeko 9:30etan ekin zion koplazteari eta gaueko 12:00ak arte jarraitu. Bi egun haietako koplak guztiak bat-batekoak izanik, egitea baino errazagoa da kontatzea. Koplarien laguntzaile asko, atzeko korua osatzen duten askok, ez luke hainbeste egingo. Azpillagak, ordea, artrosiak eragindako minari muzin eginez, Santa Eskearekin konplitu zuen.

Bertsotan lehen urratsak

Bertsolaria jaio edo egiten den eztabaidan sartu gabe, Azpillagak bertsoa odolean daramala aitortzen du. Berraitona Tturrut bertsolaria zuen:

Nirea handik dator. Aitaren partetik, aitonaren aita. Bertsolari polita zan. Ondarrun baziran bertso jartzaileak. Burgoa, Hankamotz... Tturrutek ez zituen bertsoak idazten. Inoiz zerbait egin zuen:

Egunero biltzen gera
Zubi zahar azpira
herriko mozkorrenak
han izaten dira.

Idazten ez zan saiatzen, baina ez zan bertsolari txarra izango ze, Txirritarekin behintzat, Ondarruko plazan kantau ei zuan, eta orduan Txirritarekin kantatzeko maila behar zan.

Aitona Jose ere, oso bertsozalea zen. Gure aitari ere gustatzen zitzaion eta osabak ere bertso asko zekizkien buruz.

Bertsolaria tturrutarra da. Alabak esaten dit nik, Azpillaga barik, Tturrut izan behar nuela.

Beraz, sena eta odola ona zuen Jonek bertsolari izateko. Bertsolaritza bideari ekin aurretik koplagingintzari lotu zitzaiola azaldu dugu aurreko kapituluan:

Ni lehenengo koplatan hasi nintzen. Koplariak eta bertsolariak entzuten nituen. Aurretik Zepai ezagutu nuen eta Txapel ere bai; baina Basarri eta Uztapide ziren gehienbat entzuten zirenak. Ni hasita nengoen koplak eta, kantatzen. Mugartegi eta biok tabernetan eta bertsotan ere ibiltzen ginen ordurako. Hasi, koplantik ha-

si ginen eta gero bertsoa pasatu ginen. Koplatik bertsoa ez dago alde haundirik.

Lehen plaza ofiziala Amorotokoa izan zen:

Guk kantatu aurreko urtean Basarrik eta Uztapidek kantatu zuten Amoroton. Haiek 1949an kantatu zuten eta guk 1950ean. Orduan, nik 14 urte nituen eta Mugartegik 16. Berriatuan tabernetan eta erromeriak bukatutakoan kantatzen genduen. Mutil gazteak ginen eta Amorotoko mutil gazteek, San Luistarrek, Berriatuan tabernan entzun edo... joateko deitu ziguten. San Martin eguna bera zen eta oraindik Amorotorako bide kaxkar bat zegoen, zabala bai, baina harri-bide bat zen eta hara bizikletaz joan ginen.

Ez zuten, biek ala biek, gaur eguneko izen bera. Bata, Mugartegi, Juan "Astapotxa" zen, bere baserriak Patroikua du izena baina, haren hormaren kontra astoek ura edateko putzu modukoa zegoelako Astapotxa esaten zioten; bestea, Azpillaga, Juan "Torre" Torre izeneko baserrian bizi zelako.



Eubako Pasionistatan, lehen mikrofonoak. Mugartegi eta Azpillaga.

Pena dut zinta magnetofonikarik ez zala. Nik badakit altabozik gabe kantatu genuela. Eztarri edarrak bai guk orduan, biok ere! Mugartegi oso eztarri onekoa zen eta... jendea ikaragarri zegoen; San Martin egun haundia izaten zen Amoroton, gazteen eguna. Udaletxeko balkoitik kantatu genuen. Nik uste det altabozetik bezalaxe adituko zela. Jendea isilik egoten zen, errespeto haundiz. Gaur egun, altabozak izanda ere, ez da hain ondo entzuten, jendeak hitz egiten du-eta.

Saio horren saria Mugartegik du gogoan. Antolatzaileek ez ei zuten bi bertsolari mutiko hauentzat dirurik aurreikusi eta saioaren ostean txapela pasa omen zen entzuleen artean. Itxura batean ez zuten saio makala egingo, 400 pezeta! bildu ei zituzten-eta. Azpillagak, 14 urterekin lanean hasi zenean, egunean 6 pezeta irabazten zituen tailerrean.

Gaur egun ezagutzen dugun bertsolaritzaren historia osoan bakarra da Azpillaga eta Mugartegiren kasua. Lehen plaza elkarrekin egin zuten egunetik 50 urtera herri berean, egun berean eta ohitura berean (mikrofonorik gabe) kantatu zuten. Amorotoko plazan, 2000ko uztailaren 4an, San Martin egunean, udaletxeko balkoi beretik egin zuten hamazazpi minutuko bertso saioa; librean, noski!

Orain 50 urte magnetofonik ez zelako arranguraz genuen Jon Azpillaga. Bertso haiek joan ziren, aireak eraman zituen. 2000. urtekoak, ordea, plazatik bertatik grabatu genituen. Bi saioen alderaketa polita gerta zitekeen, baina, besterik ezean, goza dezagun azkenarekin. Mugartegik bota zuen lehen bertsoa:

Mug: Hasierako agur aldia
izaten da gogorrena
saio polita eskeinitzea
degu gauz horren hurrena
hemen aitortu beharra dago
memorira datorrena
entzule danoi opa dizuet
agurrik maitakorrena.



Ataungo plazan mikrofonorik gabe.

Azp: Jaungoikoaren borondatea
izan dedila zuekin
berrogeita hamar urte badira
hemen ginala alkarrekin
bitartean zer egingo gendun
inork ez leike, ez, jakin
eskerrak goiko Jaungoikoari
eskerrak zuri San Martin.

Mug: Berrogeitamar urte bete da
bertsotan hasi ginala
harrezkeroztik, herri ta erbeste,
egin degu eginahala
une honetan zer sentitzen dan
ezin esan berihala
esango nuke, usterik gabe
urteak joan dirala.

Azp: Esan dezaket gelditzen dira
marka guztiak hautsita
orduan hemen egon ziranak
gutxi ditut ikusita
makinatxo bat herri jatorri
egin diogu bisita
Euskadi dana ikusi degu
Amorototik hasita.

Mug: Zer esan ere ez dakigula
hainbeste lagun jatorri
oraindik ere heltzen diogu
lehengo ohitura zahar horri
zuek aurrean ikustea da
gure pozaren iturri
joan zirenak ondo joan ziran
datozenai ongi etorri.

Azp: Orduan behintzat izan genuen
kantatutzeko aukera
berrogeitamar pasatu dira
eta urteak aurrera
gaurko moduan egonez gero
hemendik hamar urtera
zuen gustoa izanez gero
pozik etorriko gera.

Mug: Gazte denboran ibiltzen ginan
orain baino arinago
urteak ere joan dira ta
alde pixka bat badago
baina oraindik zahartzaro horrek
badu hainbeste abaro
oraindik ere bizi gera ta
zer behar degu gehiago?

Azp: Sasoia beti onena bada
egundainoko islada
guk badakigu gaurko gazteak
ondo ibiltzen dirala
gaur daduzkagun bertsolariak
eiten dute eginahala
faiilo txiki bat guk izan gendun
formalegiak ginala.

Mug: Gure arteko eztabaida hau
ez da benetan arina
laster isilik egon beharrak
horrek ematen du mina
baina oraindik gorde nahi degu
barruan kantatu grina
lehengo bidean segiko gendun
gazteak izan bagina.

Azp: Franko denbora genduen eta
ez ginan oso tristiak
ezin zitezkeen balkoitik esan
pentsatutako guztiak
baina orduan bertsolaritzan
zabaldu ziran atiak
guk egin gabe utzitakuak
ein dezatela gaztiak.

Mug: Ez da erraza gauza guztiak
bide onez eramaten
aldizka nonbait okerrak ere
hortik badira juaten
baina ahalegina egin dezagun
barrun deguna ematen
horrez gainera danen aurretik
euskaldun onak izaten.

Azp: Goguan daukat Amоротoko
egun hartako gradua
Don Jose zegon hemen abade
gustatzen jakon ardua
guk'e orduan tabernan sarri
egiten gendun tragua
mozkorren fama gendun guk baina
geu baino mozkorragua.

Mug: Hartu dugunez, noizbait zabaldu
izan da gure atia
irudipenak ilundu eta
ausardiaren kartia
baina nik hemen eman nahi nuke
gauz horren errematia
ez dago ondo herri aurrean
dana garbi esatia.

Azp: Egia esan ederto neukan
eta etorria era
gaurko egunez eman nahi nuen
bertsoaren bukaera
bertso elkarte ta bertso eskolek
jarri didate barrera
beraz ni sano nagon bitarte
jarraituko det aurrera.

Mug: Halabeharrez, isildu behar
ta da guztien kaltian
itxaropena lagun harturik
hemen ibili gaitian
gazte denboran nahiz ta egondu
arrazoi horren fuertian
jarraitu daigun bertso kantari
bizi geran bitartian.

Azp: Berrogeita hamar urte badira
bi saiotan ginan jardun
ta gaur goizetik dugu bakarrik
zer suertea daukagun
baina gauza bat faltan hartzen det
orduako hainbeste lagun
eta saiua bukatutzeko
puntutuan egin dezagun.

Mug: Puntu batzuek alkarri
jarriaz aurrena

Azp: jendearentzat ohi da
gauzik ederrena

Mug: aitortu beharra dago
berez datorrena

Azp: oraindik ezagun dago
sasoiko gaudena.

Azp: Gorputzak tente behintzat
ondo estaliak

Mug: hala komeniko zaigu
hona etorriak

Azp: entrenamentu gabe
puntuak jarriak

Mug: horretxek dira benetan
gauz ikusgarriak.

Mug: Alkarri lagun eginez
bihotzak alaitu

Azp: aurreko jendeak, berriz,
pozez jartzen gaitu

Mug: horrek hainbeste ta gehio
merezi baititu

Azp: honekin ez bedi buka
aurrera jarraitu.

Azp: Amoton sarri izan
gera bertsuetan

Mug: neskalaguntzen ere
noizbait batzuetan

Azp: kantak jarri litezke
gure pausuetan

Mug: Azpillaga inoiz galdu zan
zuen auzuetan.

- Mug: Neskagalaguntzen joana
beraz, garai batian
- Azp: hori ez zan izaten
neretzat kaltian
- Mug: ni berriz itxaroten
tabernako atian
- Azp: bapo jartzen zinan zu
jan ta edatian.
- Azp: Batek joan behar bazuen
neu joan beharko
- Mug: hortarako ni ez nintzan
ni eder ta guapo
- Azp: inork ez zuen hartzen
txikia zalako
- Mug: gauza guztiak beti
neure kalterako.
- Mug: Pikardiaren falta
ez zegon besterik
- Azp: oso mutil lotsakor
izan zan gazterik
- Mug: horregatik ez nago
gaurkoan tristerik
- Azp: zahartuta nor daukagu
holako trasterik.

Agurrak

Mug: Berrogeita hamar urte luzetan
jarriak bertso kantari
geure ustetan sekulan ere
faltatu gabe inori
ondo pentsatzen jarri ezkerero
ez al da nahikoa zori
orain guretzat omenaldia
eskertzeko bada hori
ondo izan eta agur ta erdi
eskerrik asko danori.

Azp: Historiak in ikusten da bai
urrutira goazena
baina oraindik ez da amaitu
bertsoaren almazena
egia esan, zuzena izan da
guk ibilitako sena
agurtutzen det hemen bildu dan
jende zahar ta gazte dena
guri ez zaigu inoiz ahaztuko
Amorotoren izena.

Ez ziren asko izango lehen saio hura eta oraingo hau, biak, entzungo zituzten entzuleak. Bertsolarien kasuan, marka handia da, gero!

Hurrengo plaza Asterrika izan zela uste dut. Urte hartan bertan. Gero Frantzesena esaten zitzaion taberna batean, Ondarruatik Lekeitiora goazela. Gero Mendexan, Modesto "Okelar"ekin. Lehen saioak auzo txiki horietan egin nituen Mendexa, Larruskain,...

Mutrikun, kantatzen hasi nintzenetik eta urte dextente pasata estreinatu nintzen; Basarri, Uztapide eta hirurok Txurrukaren 200. urteurrenean, 1961ean, kantatu genuen. Ordurako "profesionala" eginda.



Gorozikan apaiza begira. Mugartegi eta Azpillaga.

Jon Azpillagaren lehen bertso laguna Jon Mugartegi izan zen. Elkarren arteko adiskidetasuna mende erdia baino gehiago luzatu da. J.M.Iriondok 1965eko ekainaren 9an Berriatuan elkartu zituen eta lagunaren arteko bertso saio hau grabatu.

Azp: Alkar biltzean kontatzen dira
gure umore ta penak;
zuk badituzu bertsoarako
indarrak eta kemenak.
Bertsoz ia nik pasatu ditut
bertsolari-talde denak
baina, neretzat, zu zera beti
bertso-lagunik onena.

Mug: Aspalditxoan ez gera bildu,
lagun, gu elkarrengana;
ni desiatzen nengon zurekin
hitz egiteko ahal dana.
Zuk esan dezu nik badetela
indarra edo kemena,
gaztetatikan zeuk kendua det
nik dadukaten gehiena.

Azp: Lehen esan dizut ta orain berriz
beha'izut berri-berria,
jaiotzatikan izan dezula
bertsolari-jatorria
zure kaskarra hautatutzen det
eta nere eztarria,
bi gauza hoiekin egin diteke
egitan bertsolaria.

Mug: Mingainetikan egoki zaude
eta burutik argia,
lehenago ere eman zenidan
sarri hortako bidia.
Nik ondo dakit zu zeradena
gaur bertsolari haundia;
zure mendean izan behar du
oraindik Euskal Herria.

Azp: Zenbat alditan gu elkarrekin
gaztetatik gera ari
ta jendiantzat jarria degu
makinatxo bat komeri
lehendabiziko zu hasi zinan
ta ni zugana etorri,
zuregatikan izan ez balitz
ni ez nintzan bertsolari.

Mug: Nik banekien zure izateak
argi izan behar zula;
zuk bazenduen buru argia
eta bihotza mardula.
Euskal Herriko ohiturarenzat
utzi ez egin sekula,
gure bitartez Euskera hori
beti indartu daigula.

Azp: Bertsolariak etorkizuna
berrikua daukate,
lehen ere sarri esan det baina
entzun hauxe esan arte:
Bi bertsolari Euskal Herrian
gorengo mailan dauzkate,
nere iritzian bi hoiek dira
Mugartegi ta Lasarte.

Mug: Gure izenik ez da aitutzen
Azpillagarena beste
nahiz ta sarritan guregan egon
bertso berriaren eske.
Gure izatia ona balitza
hauxe egin genezake:
gu gehiagorik ez gera ezer,
geure legezkoa bete.

Azp: Ez dit batere grazirik egin
zure oraingo esatiak,
oso laburra izaten baita
bertsolari izatia.
Baina biziro ezagutua
da bertsolari jendia;
hoi bai dala urretxindorra
kaiolan preso egotia.

Mug: Ni ere zerbait gogoratzen naiz
orain zure esanian
gu ez gerade ezagututzen
ez, Euskal Herri danian.
Txoriak legez preso hartuak
gaude gu bertso-lanian,
zerbait gehiago egingo degu
libratutzen geranian.

Azp: Ez ote dira nahiko oraingoz
orain arteko kontuak?
Bertsoak ere izan behar dute
labur eta kontatuak,
bota ditugu orain artean
burura gogoratuak
pittin batean entzun ditzagun
orain arte kantatuak.

Mug: Azkenengoa ez da izango
eta nahi nuke hitz egin
aditutzera heldu diranak
hartu dezaten atsegin
agur egin ta zuen aurretik
gaur ezin degu aldegin
beste saio bat gero egingo,
pixka batean itxogin.

Pedro Mari Otaño

Azpillagak umetatik zekarren ikasteko gogoia zela-eta, baserrian agertzen ziren liburu eta bertso-paperak irakurri eta buruz ikasi zituen; ez dago hau baino bertso eskola hoberik.

Bai horixe. Koplari hasi orduko nik ez dakit zenbat bertso jakingo nituen buruz. Gehienbat, Pedro Mari Otañorenak, Txirritarenak eta Xenpelarren "Azken juizio egunekoak" denak nekizkien, Zapirain anaienak, Pello Errotarenak... Gehienak bertso paperetan jasotakoak; baina Pedro Mari Otañoren liburu txiki bat bazen ordu-rako, eta hura irentsi nuen.

Honetaz gain, Berriatuako Kanpetxan, taberna-barberia zen hartan, "Bertsolaria" izeneko bertso liburua zegoen eta gu, mutil koxkorrak ginenean, ilea moztera joaten ginen. Hango nagusiak bazekien bertsoa asko gustatzen zitzaigula eta beti eskatzen genion eta ematen zigun. Handik ikasten nituen asko. Eta gero gure aita zenak bildutako bertso paperak gure amak bazitun etxean eta handikan ikasi nituen bertsoak; ikaragarri nekizkien buruz.

Nik bertso-paperak saltzen ez nituen ezagutu. Bitxia bada ere, Berriatua Bizkaiko herria izanik, Bizkaiko bertsolarien bertso-paperik ez zen azaldu han, Enbeitatarrak eta baziren ordurako, baina denak Gipuzkoa aldera jotzen zuten. Gehienak Txirritarenak izaten ziren; Xenpelarrenak ere baziren baina, nik, maiteena, Pedro Mari Otaño izan dut. Gero Basarri hasi zen periodikuan idazten, "La voz de España"-n, orain ez da hau baina orduan bai. Basarrik bere artikulua denetan bertsoak idazten zituen eta nik bertso haiek ikasten nituen.

Pedro Mari Otañok liluratu zuen gaztea. Otañoren bertsoetan zerbait atzematen zuen Azpillagak, ala bertsoek atzeman zuten bera? Oraindik ere, neke gabe hitz egiten du Pedro Mari Otaño, honen bertsoetatik, ordea, onena zein den esatea ez du lan erraza.

Asko ditu: Esaterako "Zazpirak bat" izugarri onak dira. "Kubako anaiei", "Gure lehenengo gurasoak",... Harez gero, orduan azaldu ez ziren bertsoak ere azaldu dira. Otañok denetan zituen bertso onak, haren historia hor dago, nik ez dut asmatu. Nik hura maite izatea... ez naiz ni bakarrik, Basarrik ere hala esaten du; bere gidari edo berak gehien sakondu zuen maisua Pedro Mari Otaño izan zala. Beste batzuek beste bat izango zuten, beste era batekoa, baina nik, gehienbat, haren egikera hartu nuen. Beno, haren egikera dena ez dago egiterik, harek izugarrizko moldaera zuen-eta. Adibidez badu bertso batean, hasieran gainera:

*"Gure lehenengo guraso aita
Adan eta ama Ebaren
lehendabiziko semeak Kain
ta Abel izan ziraden"...*

Errima bukatu eta aurrera segi esaldia. Hori inoiz egin det nik baina oso gutxitan eta Pedro Mari Otañok bertso askotan dauka. Esaten da idatzirako bertsolaria zela. Ahotik ahora nolakoa ote zan? Ahotik ahora ere oso ona omen zan. Txarra zeukana, eztarria zeukala katarrosoa, nik orain daukaten bezelakoa.

Hona, 1980an argitaratutako kasetean Pedro Mari Otañori eskainitako bertsoak.

1

Mila zortzirehun berrogei eta
 hamazazpiko urtean
 izar eder bat sortu izan zan
 Zizurkil herri maitean
 ta Errekalde deitutzen zaion
 baserri jator batean
 merezi du ta Otañorekin
 denok oroitu gaitean.

2

Urtarrilaren hogeitaseian
 eta Pasaiko portuan
 Euskal Herria agurtu eta
 sartu omen zan barkuan
 hainbeste lagun negar eginez
 zituala inguruan
 haren bihotzak zer nahigabea
 izango zuan orduan!

3

Argentinara artzai joatea
 zan talentu bat galtzea
 baina komeni zaigu Otaño
 ejemplo gisa hartzea
 jaioterria zala ta ez zala
 pasa zuan gurutzea
 merezi zuan Euskal Herriko
 enbajadore jartzea.

4

Errekaldeko intxaur haundia
 maitatzen zuan galanki
 haren azpian enterratzea
 omen zuan erabaki
 hainbeste urte dira hil zala
 azterrenik ez izaki
 hezurren bila joango nintzake
 nun dauden baldin baneki.

5

Haren bertsoa gazte gazterik
 hasi nintzan irakurtzen
 kantari hasi nintzan garaian
 ez zidan gutxi laguntzen
 bizi guzia pasa ondoren
 Euskal Herria agurtzen
 penagarri da behar hainbatek
 ez duala ezagutzen.

6

Argentinako Cordoban hil zan
 Santa Feko probintzian
 mila bederatzi ehun eta
 hamarreko maiatzian
 goresten zaitut Pedro Maria
 maisu haundien antzian
 hil arteraino gordeko zaitut
 gogoan ta bihotzian.

1998ko Bertso Egunak, Pedro Mari Otaño izan zuen gogoan. Antzerki antza zuen ekitalditxoan honako bertsolari hauek hartu zuten parte:

Xabier Perez "Euskitze": Pedro Mari Otaño

Jesus Alberdi "Egileor": Jose Bernardo, Pedro Mari-ren osaba

Patxi Iraola: Otañoren "Txepetxarenak" kantari.

Angel M. Peñagarikano: Publikoarekin batera kantari: "Lagundurikan denoi" eta "Mutil koxkor bat"

Jon Azpillaga: Txirrita. Pasaiako despedida bertsoak kantari.

Txapelketak

Gaur egungo bertsolari askok txapelketa izan du bere izena ezagutzera emateko bidea. Eskola arteko txapelketak direla, sariketak (Osinalde, Lizardi, Xenpelar, Orixe, Berriatua,...), lurraldeko txapelketak edota txapelketa nagusiak direla, bertsolariak lehiatu behar izan dira, bertan izena lortu eta gero, plazetan kantatu ahal izateko.

Azpillagaren kasuan ere, txapelketak izan du bere garrantzia. Lagata zuen bertsolaritzari berriz ekiteko eta, txapelketa ona egin eta gero, Euskal Herri osotik plaza-deiak jasotzeko.



Markinako 1959ko saria. Azpillaga eta lagunak koparekin.

Bizkaiko txapelketara 1959an joan nintzen estraine-koz. Orduan 23 urte nituen, eta bertsoaritzari lagata egin nituen 4-5 urte. Mugartegi soldadu joan zen, nik 19 urte edukiko nituen eta gero, akabo! ez nuen bertso gehiago kantatu.

*Soldadutza eta gero Mugartegik bularreko gaixotasun bat hartu zuen eta etxetik ez zen inora irteten. Neuk atera nuen Markinara. Nahiko meritua bazuen plazara ateratzearekin. Eta zergatik? Nik ere ez nuen joateko esperantzarik baina Markinan lehenengoak 1.000 pta. eramango zituen eta besteek 500 pta. Eta 1.000 pta orduan zer ziren ba al dakizute? Bezperan Mugartegirengana joan nintzen, konbentzitu, joan egin behar genuela eta... (orduan dirua danean falta zan eta han ere bai) Uztailaren 18a zen, Karmenak, neuk irabazi. Bigarren Ibartzabal, hirugarren Mugartegi, lau-
garren Egia ...*

Puntuari erantzunez bertso hau bota zuen Azpillag Markinan:

**Zer egingo zenduke
txoria bazina?**

*Laster egingo neuke
hegazkada fina
mundu guzia ikusten
egin ahalegina
gura izanagatik
ezin joan baina.*

Bizkaiko bigarren txapelketa honen inguruan, antolatu ziren zenbait jaialdi eta sariketa. Ondarroan, esaterako, abuztuaren 16an joan nahi zuten bertsolari bizkaitar guztientzat sariketa bat antolatu zuen udalak. Lehen saria Mugartegik eraman zuen; bigarrena, Azpillagak.

*Gero finalera Bilbora eta han Balendin Enbeitak irabazi zuen eta ni bigarren, hirugarren Jose Alberdi, lau-
garren Juan Ormaetxe....*

Hurrengo Bizkaiko txapelketa 1960ko irailaren 11n Bilboko zezen plazan jokatu zen:

1960an berdin. Bilbora joan ginen; aurretik ezer praktikatu gabe. Mugartegik irabazi zuen, ni bigarren eta Balendin Enbeita hirugarren.

Hau dela eta Donostira joan ginen Mugartegi eta biok txapelketa nagusira. "Campeonato del Mundo" esaten zitzaion hari. "Munduko txapelketa", "Frantsesak" etorri zero ez zuten "Euskal Herriko txapelketa" ipintzen uzten. Esan zitekeen independentzia sortzen zela edo... bazan zeraren bat jartzeko. "Campeonato del mundo" bakarra horixe jokatu da.

Donostiako finalera iritsi aurretik lurralde bakoitzean txapelketak egin ziren. Basarrik ez zuen sailkapenetan parte hartu, zuzen-zuzenean finalerako utzi zuten. Finalera sailkatu zirenak hauek izan ziren: Mugartegi eta Azpillaga bizkaitarrak; Uztapide eta Mitxelena gipuzkoarrak; Xalbador eta Mattin Iparraldekoak eta Narbarte eta Perurena nafarrak.

Txapelketa aurretik ezagutzen nituen. Mattin, Xalbador, Mitxelenarekin... kantatuta nengoen. Ez nituen ezagutzen Narbarte eta Perurena. Onak zirela bagenekien baina zer inporta zitzaigun? Gu joan ginen gaurko gazteak doazen modura; galtzekorik ez daukagu eta segi, joan eta kantatu.

Zortzi bertsolari hauetatik epaimahaiak lau aukeratu behar zituen aurrera egiteko. Hiru aukeratuta zailtzak izan omen zituzten laugarrenaren izena emateko. Beraz, Narbarte, Mitxelena eta Azpillaga lehiatu ziren laugarren toki hori betetzeko. Hirurei ariketa bera jarri zieten. Epailleek Azpillaga apartatu zuten. Hona, Azpillagak gaiari kantatutako hiru bertsoak:

Lehengo bertsolari zaharrei

1

Nik zer esango dizuet bada
lehengo zahar haiei begira?
Penagarri da baina hemendik
aspaldi samar joan dira
eta gazteak eman nahi degu
al dan ondoen segira;
baina oraindik askozaz hobe
zahar haiek bizi balira.

2

Izen batzuek kondairak ditu
oroimengarriz jarrita
gu baino askoz hobeak ziran
hori nago igarrita,
garai bateko Pello Otaño
eta hurrena Txirrita,
guk zer arraio egiten degu
toki hontara etorrita?

3

Pello Otañoren bertsuak entzun
ta bat hartzen du beldurrak
Ameriketan gelditu ziran
bertsolai honen hezurak
zertako dira etsaiak eta
zertako gauza maltzurak
bertsolaririk onena hantxe
estali bazuan lurrak?

Arratsaldeko saiora hiru pasa ziren: Uztapide, Xal-
bador eta Azpillaga. Hurrengo galbahean Xalbador
atzean geratu eta Uztapidek Bizkaiko gazte, luze eta
ezezagun baten aurka jokatu behar izan zuen Basarri-
rekin neurtzeko ohorea. Finala Basarrik eta Uztapidek

jokatu zuten. Berriz ere, 1935ean bezala Basarrik eraman zuen txapela. Dena den, txapelketa hartako emaitzarik pozgarrienetako bat bizkaitar baten loratzea izan zen; hirugarren geratu zen Azpillagak entzuleria bereganatu zuen.

Txapelketa horren aurretik ni ez ninduen ia inork ezagutzen. Han egon zen jendearen % 99a gipuzkoarra izan zen. Napar batzuk ere baziren, bizkaitarrak oso gutxi (ondarrutar batzuk) Berriatuatik ez dakit inor joango zen; joateko ere orduan ez zen giro! Kotxea inork ez zeukan eta Donostiara joateko, goizean ez-dakit-zer-ordutan-irtenda, joan behar zen. Berriatuatik ez zegoen autobusik eta Ondarrun autobusa hartu behar zen. Hala ere, Victoria Eugeniaren kanpo aldea ere jendez bete zen eta altabozak ipini zituzten kanpoko jendearentzat eta gainera irratiz eman zuten zati bat. Ni orduan eza-gutu nintzan eta handik aurrera ez naiz gehiago gelditu.

Jon Lopategik egun hau gogoratu zuen 1998ko azaroaren 8an, Pasai San Pedroko Ondartxo abesbatzak Azpillagari eskainitako omenaldian:

Lehenengo aldiz ezautu nuen
Bilboko Arenalian
gero, hobeto, hirurogeiko
txapelketaren aldian
izugarrizko prestutasunez
abertzale irudian
bihotzak zutik jarri zituen
"Victoria Eugenian"

Txapelketa hartako sorpresa izan zen Azpillaga. Orduan ezagutu zuen bertsozale askok. Ez da gauza izango orduko eta oraingo sariak hemen konparatzea, baina jakingarri gera bedi Azpillagak 3. postuari zegozkion 3000 pta., kopa eta zenbait opari jaso zituela.

Hurrengo urtean, 1961ean, Bilboko Coliseo Alban, Bizkaiko Txapelketa jokatu zen. Honetan, finalera zu-



1960ko txapelketan Euskaltzaindiako buruarengandik saria jasotzen.

zenean pasatako Azpillaga izan zen txapeldun; bigarren, Sagardui; hirugarren, Balendin Enbeita eta laugarren, Mugartegi.

Ondorengo txapelketak, 1962koak, Euskal Herriko txapelketara sailkatzeko ere balio zuen. Lopategi izan zen txapelduna, Azpillaga bigarren eta Mugartegi hirugarren. Aipagarria da Bizkaiko final honetako bertsolarien jatorria. Lau bertsolari Muxikakoak ziren: Lopategi, Sardui, Balendin Enbeita eta Ajuria; beste hiru Berriatuakoak: Azpillaga, Mugartegi eta Arregi eta bat, Markinakoa: Ibarzabal.

Donostiako Euskal Herriko finalean hamar bertsolariok kantatu zuten: Azpillaga, Lopategi, Basarri, Uzta-pide, Mitxelena, Xalbador, Mattin, Zabaleta eta Arozamena.

Bertsolari guztien izenean Azpillagari egokitu zitzaion agurra botatzea:

Danen izenen agur, Donosti,
ta berdin gipuzkotarrak,
agur, Bizkaiko anai-arrebak,
arabatar eta naparrak,
Mugaz gorunztik etorri diran
Frantses euskaldun bakarrak,
hementxen bildu gaituelako
maitasunaren indarrak,
paradiso bat dirudigu gaur
Donosti herri zaharrak.

Ondoren, egun hartan Azpillagak egindako saio bazuk aldatuko ditugu hona:

Puntua jarrita:

**Kapoirik jan al dezu
aurten gabonetan?**

Jolasian ote dabil
ala edo brometan?
egun hoiek ditut nik
gogozko benetan,
oso gaizki ibili naiz
geroko egunetan.

**Adanek ez zun izan
amagiarrebik,**

sekulan ez det entzun
holako egirik,
ez al dezu eduki
ertera hoberik?
Inork ez bagenduke
ez zegon kalterik.

Azpillaga eta Mitxelena gaia emanda:

Azpillaga izango da Donostiako guardia bat, kale-kantoi batean geldi dagoena, eta Mitxelena Gipuzkoako herri txiki bateko baserritarra. Hain zuzen ere, baserritarra guardia dagoen inguruko kale-ertz batetik bestera hasi da pasatzen, eta guardiak, seinaleak kolore gorria markatzen duelako, "alto" ematen dio. Hiruna bertso.

Azp: Komenia dan ertera honek
merezia du aitzeak,
nik zaintzen ditut Donostiako
kale erdi ta ertzeak,
baserritarren ezjakin horrek
ekartzen ditu galtzeak,
argi gorrian pasatutzeak
dakazki heriotzeak.

Mit: Donosti hontan aguazil hauek
daude mesede usteko,
ahal baldin bada lurreratuta
inor hor ez ikusteko,
beste lanikan ez dadukazu
jornala irabazteko,
gure moduko ezjakinari
nondik joan erakusteko.

Azp: Baserritar hau honuntz etorri
aurten Santo Tomasetan,
bere urteko errenta hori
pagatutzeko ustetan,
gero kalian nonahi ibili
berak nahi duan klasetan,
halako baten ikusiko du
edukaziua zer dan.

Mit: Errita txarrak ein dizkidazu
litaken bide danea,
ni ezjakina nola naizen
mintzatu nazu onea,
baina eskuan hartu du gerrian
zedukan zigor bat mehea,
nik pentsatu det berau ez dala
Euskal Herriko semea.

Azp: Zuk esan dezun arrazoi hori
ez zate bate gustatzen,
astuak ez du zientzirikan,
hori hasi naiz kontatzen,
baserritarrak kalera etorri
eta nolanahi jostatzen,
kulpaik ez daukan gizaraxua
nola hasiko nintzan jotzen?

Mit: Hobe ziraden ez egin baina
amenazoaz bai burla,
esaten zidan: eskuan daukat
zigor bat oso mardula,
beste inorekin ez det makila
probatu izan sekula,
nik jo-leku ona detela-eta
neroni jo behar naula.

Bakarka.

Lau oin emanda: **Lana, jana, dana, bana,**

Falta du zeozerbait
ta egin behar lana,
inguratuko bada
eguneko jana,
hortatik etortzen da
etorkizun dana,
nik emango nieke
danei aitzur bana.

**Hor aurrean daukazu sobre bat hamar
mila pezetakoa. Hamar mila pezeta ho-
riek gaur hemen txapeldun gelditzen da-
narentzat izango dira. Eta baldin zure-
tzat gertatuko balira, diru horrekin zer
egingo zendukean kantatu behar dezu
hiru bertsotan.**

1

Honuntz etorri ordurako gu
jarriak ginan kezketan,
hamar mila pezeta hortxe
jarriak daude sobretan,
hamar bertsolaritatik danak
estimatuak benetan,
neretzat izan ezkerro danak
gastauko ditut festetan,
baina nolatan izango ez dan
zertan egin ametsetan?

2

Gastatze horrek izaten ditu
 txit ondoren itsusiak,
 ta pena haundia ematen baitu
 lanian irabaziak,
 neri ez baitit afiziorik
 inoiz eman gordetziak
 inork ez daki zer etorkizun
 izango duan atziak,
 hemen utzita joanak dira
 orain arteko guziak.


3

Gu beti izan genezakela
 ejenpluaren peskisan
 batzuk dutena kalean eta
 beste batzuek elizan,
 oso jakintsu haundi batekin
 ni lehenguan egon nintzan,
 ta harek ere hitz eder hauek
 eman zizkidan eskeintzan:
 ondo gastatutako diruen
 damurik behin ere ez izan.

Txapelketa honetan Azpillaga ez zen aurrera pasa.

Bizkaiko hurrengo txapelketa Ondarrun jokatu zen:

1965koa Ondarrun jokatu zen eta lehenengo Lopategi izan zen, bigarren Mugartegi eta ni hirugarren, Arregi laugarren, eta ondoren Ajuria, Sardui, Muniategi eta Pujana. Orduan laga nion txapelketari. Izan ziren gehiago baina ni ez nintzen gehiago presentatu. Bazan halako zera bat, gipuzkoarra nintzela, bizkaitarra nintzela... inork ez zekien nongoa nintzen ere eta gero gipuzkoarra Bizkaian txapeldun... Bizkaitarrei hori ez zitzaien gustatzen eta nire artean esan nuen "ni zertan nabil hemen ez gipuzkoarra ez bizkaitarra... batez!" Kontu hauek Mutrikura ezkondu nintzenetik sortu ziren. Batetik Pasaian jai, bestetik Mutrikun bizi...



Loiola Irratiko saria, 1965.

Elxeberria, Insausti, Baxekarte, Mugartegi eta Azpillaga.

1967an ez nuen parte hartu ez Bizkaikoan ezta nagusian ere.

Tartean 1963an eta 1965ean Loiola Irratiko sariketa irabazi zuen.

Loiola Irratiko sariketak udaberri aldean jokatzeko ziren zenbait kanporaketa egin ondoren. Erabakia entzuleen eta epaimahai baten botoak kontuan izanda hartzen zen. Gehienetan entzuleen botoek erabakitzen zuten irabazlea.

Loiola Irratiak, sariketa hauetaz gain, beti izan du tarte bat bertsoari eskaintzeko.

Ondorengo bertso hauek 1969ko ekainaren 7an. kantatu zituen Azpillagak "Beti Jai" izeneko saiorako.

Ilargira bidean dabiltzanei.

1

Aspalditikan nengon Loiolan
kantatzeko ia gosez,
ta zuek ere eongo zinaten
neri aditzeko pozez,
Loiolatikan bila etorrita
nik nolatan esan ezetz?
O aditzaile bihotzekoak
agurtzen ditut bihotzez.

2

Amerikarrak tresna eder bat
orain ere egin dabe
ta bere bidez izan nahi dute
ilargiko jaun ta jabe.
Mundu guztia aldrebes dabil
ta ez dira izutzen halare
hemen bazegok zer konpondua
ilargira joan gabe.

3

Gauza horiek ikusi eta
nork ez degu hartuko min?
lotsa bakarrik genezake ta
bestela ezin ezer egin.
Alde guztitan teknika dabil,
batetik bestera arin
hobe luteke ilargia utzita
Vietnamgo pakiak egin.

4

Urte honetan mundu hontatik
haruntza dira pasiak,
hiru-lau tresna egin ta bidali
izan dituzten guziak,
Ameriketatik batzuek eta
beste batzuek Rusiak
hoiek miloiak gastatzen eta
mundua erdi-gosiak.

5

Jakin dedanez hainbeste miloi
 tresna hortan gastatuta;
 hori dalako mundua degu
 ia-ia dana ahaztuta
 haundiak egiten du txikia
 gerraz utzi zapuztuta,
 hobeko zuten miloi horiek
 Biafra-ra bialduta.

6

Aspalditikan arkitzen dira
 aurrerapenai begira;
 abitu dira eta aspaldi
 iritsi bide erdira,
 okasio ta eskandaluan
 dabiltzanak asko dira
 hemen konforme ez diradenak
 joan bitez ilargira!

1967ko txapelketa istilutsua izan zen. Alde batetik, Xalbadorri txistuak jo zizkieteneko hura izan zelako, eta bestetik, epailetza eta antolaketa zalantzan jarri zirelako.

Giro honetan "Onena pentsuak" etxearen babesean "100.000 pezetako sariketa" antolatu zen. Lehen saria 100.000 pezetakoa zen, bigarrena 50.000 pta. eta gairontzeko finalistek 10.000 pta. izango zuten. Aurreko urteko txapelketa nagusiko txapeldunak, Uztapidek, 18.500 pta. eraman zuen dirutan.

Beraz, diru sariak erakargarriak ziren txapelketan parte hartzen ez zuten bertsolarientzat ere: Basarri (1962an laga zion txapelketari), Agirre, Lasarte, Azpilla...

Sariketa honetarako antolakuntzak, bere iritziz, 16 bertsolari onenak aukeratu zituen. Hamasei hauetatik



Loiola Irratiko saria, 1965. Jon Mugartegi eta Jon Azpillaga.

zortzi iritsi ziren finalera. Jon Azpillagak lehen fasean kantatu zuen, baina ez zuen aurrera egin.

Sariketa honetan egindako bi saio idatzi ditugu emazteari buruzko kapituluan. Honako utzi dugu bakarka, "Uso zuria" doinuan, botatako bi bertso hauek:

Gaia: **Telebista**

1

Ikusten du mundu dena
hortan badauka kemena
bera duanak estimatutzen
du etxearen barrena
etxe batean izatekotan
degu gauzarik onena.

2

Hamaika gauza badago
hortan etxe baterako
television afiziuia
gauz askon gainetik dago
denbora pasan txit ona baina
euskeraren kalterako.

Sariketa honen ondoren, ez zen bolada batean txapelketarik antolatu. Hurrengo, Euskaltzaindia berriro antolatzaile zela, 1980an egin zen. Finalera honako zortzi bertsolariak heldu ziren: Azpillaga, Amuriza, Enbeita, Etxeberria, Garmendia, Gorrotxategi, Larrañaga eta Xanpun. Txapelduna Amuriza izan zen, bigarrena Enbeita eta gainontzekoen artean ez zen sailkapenik egin.

Segidan 1980ko txapelketako ale batzuk jarriko ditugu:

Azpillagaren agurra:

Ongi etorri eta egun on
naizen modu apalean,
bertsolariak zuek gozaten
bagatoz eginahalean;
hainbeste mila bildu zerate
gaur Baldaren magalean,
herri-irradi guziak, berriz,
kantari daude kalean,
gure hizkuntza entzun dezaten
Euskal Herri zabalean.

Ofiziotan Azpillaga eta Gorrotxategi:
Biok lagunak zarete, bi neska. Zu, Gorrotxategi, oso neska polita. Azpillaga, zu oso neska itsusia. Neska polita hasiko da eta itsusiak segi, hiruna bertso zortziko nagusian.

Gor: Biok gu auzo batean jaiotako
ta inguruan haziak,
baina edertasunez ez gerade
era berdinez jantziak;
ni ederra ta, ai zenbat malko!
ditun neska itsusiak,
zaude zu lasai, inork ez ditu
hemen zorion guziak.

Azp: Nere lagunak batek dituen
poz danak dauzka hartuta,
ispiluaren aurrean jarri
ta dago liluratuta;
sasoia ere halakua du,
dana dago barkatuta,
baina mutilak nigana datoz
gorputzai begiratuta.

Gor: Neska itsusiak esan didana
nik izango det goguan,
mutur zorrotza ta itsusia
baino mutilak onduan;
eskote haundi ta gona motzak
neskatxa merken moduan,
itsusi dana edertutzeko
zertxobait behar zenduan.

Azp: Gorputzez neska ederra nago
nahiz ta aurpegiz itsusi,
gerorako're ni ondo nago
dote eder eta guzi;
mutil gazteak, horren atzetik
arren ez zaitezte hasi,
arrautzak nola frijitzen diran
oraindik ez du ikasi.

Gor: Arrautz kontua nere lagunai
belaxe bururatuta,
bihar edo etzi ezkondu behar
mutil jator bat hartuta;
ta beste hortan hasi behar baden
ohe txurian sartuta,
ein beharko'ezute trapu batekin
mutur hori tapatuta.

Azp: Politasunak bentaja danak
ez ditu izaten lurrian,
eta ni, berriz, ikasia naiz
hain sukalde ederrian;
horrek eguna pasatutzen du
ispiluaren aurrian,
hartzen duenak bazkari onik
ez du izango urrian.

Puntua jarrita bi bertso:

**Oilo bat falta zaigu
oilategiatik**

hori ez zendun esango
behinik behin nigatik;
nolako gizona nagon
begira bertatik,
sekulan ez det izan
oiluaren faltik.

**Puzkarra zala uste
ta putza izaki**

bestiari ematen
badaki aitzaki;
botatzen danian azkar
usaia da jaiki,
botatzen Iriondok'e
neuk bezela daki.

Hiru bertso doinu eta neurri librean.

**“Nik ez dut handia egin nahi” esan di-
zu zure haurrak.**

1

Nere haurraren esaerakin
esna dedila jentea,
gaurko goizean zer gusta zautan
umearen esatea;
haren begiak pozikan daude,
bihotza berdin betea,
hainbat jostailu gaurko goizean,
aita ere zuan maitea,
izan ere zein gauz ederra dan
beti ume izatea.

2

Haur txikiaren esakera hau
 ez da guretzat kaltian,
 oraindik gero ikustekoa
 badaduka apartian;
 zer gozamina gaurko goizean
 sortu zan etxe maitian,
 bazter guztiak nabaitzen zitun
 jostailu ederrez betian,
 nik esan diot: *jolastu zaitte*
haurra zeran bitartian.

3

Horlako hitzak esaten dira
 maitekor ta bihotzeko,
 ia aski zan ahoa itxita
 hitzik gabe gelditzeko;
 baina zertxobait asmatu behar
 haurra lasai ibiltzeko:
Mundu hontara etorri gera
luzaroan bizitzeko,
izan zaitela haundia hazi
eta zahartuta hiltzeko.

Hamarreko txikian hiruna bertso:

**Hi, Azpillaga, galtza berriak egin nahi
 eta Etxeberria sastrearengana joan haiz..**

Azp: Etxeberria'k ditu
 sastre-lanteriak,
 baina beti ez ditu
 betetzen begiak;
 oker egindakuak
 baditu erdiak,
 lehen egin zituzunak
 ez hain dotoriak,
 ia egiten dituzun
 lehen baino hobiak.

Etx: Neri gertatzen zaizkit
aldrebeskeriak,
jakin beha'ituzute
gaur hemen egiak;
sastre batentzat ere
hauek komeriak,
lan txarrak ekartze'itu
gizon haundigiak,
nik ezin ondo hartu
honi negurriak.

Azp: Sastre bakarra dala
dago ikusia,
lan horretan herrian
bera nagusia;
egiten duen lana
dana itsusia,
hanka bata motza ta
bestia luzia,
ta gero kobratzen du
nahi duen guzia.

Etx: Honi trajia egiten
hor nintzaden hasi,
bainan hortako hainbat
ez nuen ikasi;
baldarra ta haundia
ipurdi ta guzi,
gainera jarritzen da
benetan itsusi,
kobratzia besterik
ez dezu merezi.

Azp: Ez nizuke galdu nahi
lehen daukazun sonik,
baina jantzi txarrakin
ez dezake bromik;
gaizki eginda ez du
kobrauko txanponik,
honek josten ez daki
ez galtza ez gonik,
sastre txarrantzako
ez da gorputz onik.

Etx: Lotsagabekerian
ez zaude motela,
esan nahi dezu kulpa
bakarrik detela;
nik garbi esango det
bihar dan bezela,
propagandarik ez det
egingo bestela,
nik ez daukat etxian
zutzat hainbat tela.

Arratsaldeko saioko agurra.

Azpillaga

Berdin gabeko bertsozaleak
agurtzen ditut aurrena,
sekula inon gertatu bada
hau gertakizun lerdena;
jakin zazute barrendik pozez
leherturikan nagoena,
esan lezake hemen arkitzen
dala Euskal Herri dena,
gaurko honetan Balda hau degu
munduan den ederrena.

Ofiziotan Garmendia eta Azpillaga: **Zuen inguruan ez da giro. Hau da usaia! Biotako bat izan da, noski.**

Azp: Bi lagun bildu gera
alkarren onduan,
beti ibiltzen gera
halako moduan;
gizon ederra nago
osasun senduan,
hortikan konturatu
zeinek bota duan.

Gar: Ondo bazkaldu degu
esan duan trazan,
bazkaldu ondorenak
nei ez dit erasan;
usai onak izaten
dirade baratzen,
honek bota duena
kiatsa're bazan.

Azp: Honuntz etorri gera
ondo bazkalduta,
Garmendia jaunak hau
berak esan du-ta;
nere gorputza ezin
legoke galduta,
kolore onak ditu
baina ustelduta.

Gar: Ustelduta dagola
daukaten jardina,
neri iruditzen zait
gaur badala dina;
Azpillaga'i tokatu
isildu ezina,
hobe zenduan honuntz
etorri ez bazina.

Azp: Gauzak pasatzen dira
gaurko egunian,
ondo mantendu gera
jan ta edanian;
Garmendiak usaia
du aldamenian,
zaratarekin bota
botatzen danian.

Gar: Hainbat aitzaki hemen
dago alkarrentzat,
bazkalondo honetan
Garmendiarentzat;
fama txarra, Azpillaga,
daukazu zuretzat,
zeuk pekatu eginda
kulpak besterentzat.

**Xanpun eta Azpillaga. Biok bata bestearentzako
errege zarete gaurkoz; erregeen eguna. Egizkiozue
elkarri erregaluak.**

Xan: Errege batentzako
gaur badaukat grina,
uste gabe jina,
gradu hori baita
kezkatzeko dina;
ipar aldetikan
hunara naiz jina,
eskaintzeko badut,
zuk ere berdina:
botila bat pollita
ta han koñak pina.

Azp: Hau ikusita nere
begian malkua,
ona da gaurkua,
lagun bat etorri da
berdin gabekua;
errespetatze'itugu
lege ta Jainkua,
nola bera daukagun
beti betikua;
bihotza ematen dizut,
ez al da nahikua?

Xan: Batek eskaintzen dio,
besteak eskea,
zerbait ditakea,
bazter guzitan dugu
sua eta kea;
elgar konpontzeko
gauza bat nekea,
guk bilatzen dugu-
ta ez da merkea,
berriz eskaintzen dautzut
ordainez bakea.

Azp: Bake premian dago
benetan mundua,
gerra ugaldua
nola iritsi lezaken
guretzat gradua?
Lapurdin bizi zera,
ez zaude galdua,
baina gaur Donostian
libre azaldua,
erdiko muga dago
zuretzat kendua.

Kartzelako gaia:

Puntua emanda

**Ni ondo nabil eta
besteak or konpon**

danok badakizute
ori nola dagon;
pasa ditugu hainbeste
egun eta gau on,
Iriondok badauka
nik hainbat zorion.

**Batzuek eskubi ta
beste batzuk ezker**

Gaur horrela gabiltza
makina bat bazter;
baina bildu beharra
dadukagu laster,
banaka ibilita
ez daukagu ezer.

Gizona ez da ogiz bakarrik bizi.

1

Lana daukagu irauntzarako
eta ogia jateko,
agintzen dauden denak jakinda
ez genduke, ez, kalteko;
kultura edo jakintza degu
zerbait gauza on emateko,
Jaunak gizona egina dauka
bere jabe izateko.

2

Bost kontinente ditu munduak,
hau aspaldiko grazia;
txiki nintzala eskolatikan
hau genduen ikasia;
amerikarrak alde batetik
eta bestetik Rusia,
nun ote dago hoiek esaten
diguten demokrazia?

3

Mundu hontako bost puska hoiek
ez dira alkarren urrian,
arma haundiak eginda daude,
guztiok gaur beldurrian,
Euskal Herria ere erabat
jarri nahi nuke aurrian,
gizonak libre bizi behar du
bera sortu zan herrian.

Azken agurra

Azpillaga

Amurizari lehendik nengoen
buru makurtzen hasia,
nola dan bera bertsolai ona
eta gizon ikasia;
bertsolariak egun larria
franko badegu pasia,
baina hau hola ikusteagatik
arriska leike bizia,
besarkada bat guziori ta
agur Euskadi guzia.

1982ko txapelketan final-aurrekoa izan zuen Azpillagak lehen saioa. Oartzunen finalerako txartela lortu zuen. Finala, Donostiako Balda pilotalekuan abendua-

ren 19an jokatu zuten ondoko bertsolari hauek: Amuriza, Azpillaga, Jon Enbeita, Lopategi, Garmendia, Lazkano, Sebastian Lizaso eta Peñagarikano. Amurizak eta Lopategik parean bukatu zuten saioa. Elkarren arteko norgehiagoka egitean Amuriza gailendu eta bigarren txapela irabazi zuen.

1982ko txapelketa Idiazabalen hasi zuen. Saio hartako bertso batzuk aukeratu ditugu:

Puntua jarrita:

**Badoa urte zarra
badator berria**

lengo oitura zarrak
dakarren legia,
egia da urtea
juan dala ia
berria izan dedila
hau baino hobia.

Azpillagari eskainitako bertso askotan bakezalea dela entzun izan dugu. Txapelketako saio hartako gai jartzaileak igarri bide zion:

**Ez naiz ni gerraren zale, baizik bakea-
ren alde.**

1

Gerraren zale ni ez naizela
bota nahi det oihartzuna
eta jendeak hartu dezala
bertso honetan entzuna,
baina mundua zer ote dezu
gerratikan daukazuna
alkar hiltzea gorrotoa da
eta eginkizun lizuna
guztiok beti eska dezagun
pakea ta maitasuna.

2

Bat edo bestek gerra bizia
 nolabait nahi du mantendu
 gerrazalien burutik hori
 inolaz ezin da kendu,
 armak hartuta legien kontra
 bestien lurrak berendu
 berak indarra daukatelako
 txiki daneri gailendu
 arma beharrik gaur ez litzake
 elkar maiteko bagendu.

3

Bat bezelaxe gerraren zale
 dira eskandaloso denak
 erakutsi nahi munduan zehar
 euren armaren kemenak,
 badaukazkite eginkizunak
 ederrak eta lerdenak
 gerrak bakarrik ekartzen ditu
 disgustu negar ta penak
 hobe gobernatuko balira
 gosiak hiltzen daudenak.

Umorezko gaiak ere egokitu zitzaizkion Donostiako finalean:

**Azpillaga eta Sebastian Lizaso: Auto-
 eskola bateko ikasle eta maisu zarete.
 Azpillaga, hi izango haiz ikasle eta auto
 gidaria momentu honetan. Eta Lizaso,
 hire ondoan doan irakasle edo maisua.
 Biok autoan zoazela bazterra jo duzue.**

Azp: Nere irakasleak
etzeukan arretik
orain maldizua
sendo muturretik
arnasa eta putza
berriz sudurretik
esan didazu juan
zaite bazterretik
zuk zuzendu behar zundun
jo baino aurretik.

Liz: Guri pasa zaizkigu
xelebrezko markak
ondo ez ditu ikusi
bazarreko markak
buru handi baldarra
pareta jo dek tak
frenua zapaltzeko
indarrrik ez daukak
zertako'ituk hoinbeste
luzetako hankak.

Azp: Biok abitu ginan
kotxean sartuta
orain irakaslea
da hasarratuta
askoz hobeto dezu
neri barkatuta
arrazoia nik daukat
ez det pagatu ta
ikasi beharko det
trator bat hartuta.

Liz: Baztarra jo diguzu
lelengo kolpetik
ta milagro ez degu
iriki kopetik
bazterrera juanda
zegoen topetik
egia esango diat
goguan hartzak hik
animalientzako
ez zegok karnetik.

Azp: Hala ere ez da izan
oztopo grabia
ni naizelako berez
gizon suabia
geldi joan naizelako
zan kontu garbia
irakasle hau berriz
ez dago noblia
bilatu beharko det
zu baino hobia.

Liz: Oraindik ez zait pasa
hartu dan sustua
kotxe berria hautsi
hau det disgustua
bestek ez dik egingo
ez hire gustua
autoeskuelakoa
alperrik gastua
bere gurdi ta guzi
erosi astua.

Azpillaga futbol kontuan aritu behar izan zuen 1982ko txapelketan. oraingo honetan Peñagarikanorekin. Gaia, ohi bezala, bere horretan (bere luzean) transkribatu dugu:

Orain, Azpillaga eta Peñagarikano. Oraintxe bertan abisua ematen didate eta ez da gezurra, alegia, partidua hasi dela, Atotxan Athletic eta Realaren arteko futbol partidua. Eta lehen denboraldiko minutu gutxi hauetan, oraingoz, erresultadua hauxe da: hutsean doaz. Eta ez goizean Lopategik esan digun bezela, hamabi eta hutsa. Eta Azpillaga eta Peñagarikanorentzat hauxe da gaia: hain zuzen zer diozuek, Klemente, eta zer diozuek, Ormaetxea. Klemente Azpillaga eta Ormaetxea Peñagarikano.

Azp: Oraindik Ormaetxea
badago astia
nik daukat ekipo bat
ona ta gaztia
gaur nahi nuke bi puntu
hemen iristia
ta aurten Espainiko
liga irabaztia.

Peñ: Hainbeste jende etorri
da Atotxa zelaira
danok jarri zaitezte
partiduai begira
Gorrizek hartzen badu
eta fuerte tira
Bilboko galtza beltzak
marroituko dira.

Azp: Zure esanak ez dit
egin bate grazi
euskaldunak alkarrri
nola hezurak hausi?
bi euskaldun eta batek
behar du irabazi
gaurkua irabazten
behar didazu utzi.

Peñ: Kontrariuak gera
zuri ta marroiak
on haundik ez dit egingo
Eguarrin turroiak
prueban jartzen badira
Donostiar sasoiak
katu bihurtuko dira
Bilboko lehoiak.

Azp: Orain ere hitz egiten
nagusi antzera
bilbotarrak ez dizu
egingo atzera
hainbat kopa ta liga
ekarri etxera
guk haina egin orduko
umilduko zera.

Peñ: Lehengo urtean Real
txapelan jabia
aurten ere Uefan
sartu izango dia
Zubizarreta, De Andres
edo Sarabia
Bilbao ona da baina
Reala hobia.

1987an Araba-Bizkaiko txapelketan kantatu zuen
berriro:

*Ez nintzan gustora ibili gaizki pasatzen nuen-eta. Lo-
pategi, Amuriza, Enbeita eta Elgetzuren ondoren bosga-
rren gelditu nintzan. Orduan esan nuen "Ni gehio ez nijoa".*

Maritxu emazteak senarraren egoera labur azaltzen
du:

Jonek bertsoarekin egunero gozatzen du baina, txapelkete-
tan sufritzen ikusi dut.

Txapelketa honetan Durangon 1987ko abenduaren 6an egin zen final-aurretik zenbait bertso hautatu ditugu:

Azpillaga eta Amuriza. Jon, zuri "Paroan nago eta borondaterik bada.." esan deutsu Xabier Amuriza, 25 urteko mutil gazte honek. Hiruna bertso hamarreko nagusian Azpillaga hasita.

Azp: Paruan dagon mutil gazte bat
etorri da neregana
hau da seinale bere bizitzan
problema asko daukana
bera oraindik, mutil gaztea
ta zahartuta dauka ama
inguruetan somatutzen det
mutil formalaren fama
ta hortarako baldin bazagoz
nik emongo deutsut lana.

Amu: Gazte izanik, oso gazterik
problemak etorri jataz
zuk badakizu zelan nagoan
atez ate lanen faltaz
asteburuan gasturako be
aukera ederrak daukatzaz
zure eskeintza ez onartzeko
ez ahal naz izango kapaz
emon dirua! zeuk egin lana!
eta holan biok "en paz"

Azp: Lanik gabea saltsan sartzen da
edota droga saltzera
kalerik kale hortxe zabiltza
eskale baten antzera
nik lanbidea jarriko deutsut
eta ez egin atzera
emon dautsudan barri ederra
eroan eizu etxera
diru faltarik ez dezu izango
ondo portatzen bazera.

Amu: Nik banekian nora joan hau
kantuan hasi zenean
lana ta lana, besterik ez da
lagunan almazenean
borondatea eskatu dautsut
paroaren izenean
egon seguru zure dirua
doa bide zuzenean
zeure alabakin ezkonduko naz
aberasten nazenean.

Azp: Gutxienean berakin dauka
hamar urteko karrera
alproja gisan ibilitzeko
ez zinan sortu lurrera
nere alaba nahi ote duen
bere hurrengo harrera
neregandikan aparte zabiltz
etorri zaite hurrera
ilea moztu, bizarra kendu
eta jarraitu aurrera.

Amu: Alperrekoa izango da gaur
Azpillagaz barriketa
ia ez dakit hanka egin edo
hartu neure eskopeta
honek nunbaiten lortua dauka
Haziendako karneta
besteri oindik burla egiten
berak etxea beteta
zelan moztuko't bizar ta ulea
dirurik ez daukat eta.

Puntuari erantzun:

**Eguzkia neguan
estimagarria**

Azp: Gaur ere goiko puntan
izan da jarria
kentzen digu guretzat
hotzaren larria
ia berotzen duen
gure Euskal Herria.

Azken puntua emanda, hamarreko nagusian kantatzeko.

Azp: Urteak juan, urteak heldu
esperantzik ez da galdu
batak besteai bizkarra eman
eta etsaiak bialdu
Euskal Herriak urte hauetan
hain itxura ederra du
gazte jatorrak ugari datoz
ez dago zertan makaldu
**etsai gaiztoen zitalkeria
oraindik ez da itzaldu.**

Zortziko txikiko ariketak Azpillaga eta Josu Arriola elkartu zituen. Gerora, Azpillagak Euskal herriko txapelketara joateari uko egin zionez, bere lekua lehen erreserba zen Josu Arriolak bete zuen.

**Zu, Josu, hogeitun urtean zoologikoan
egon dan lehoia zara eta zu, Jon, orain
dakarren barria. Hiruna bertso zortziko
txikian Josu hasita.**

Arr: Zu be ibilia hor
libre eta aske
baina pizti guztiak
harrapa litezke
leku onena danik
zuk ezazu uste
tonto guztiak hona
ekartzen dituzte.

Azp: Pasatu izan dezu
denbora eztia
preso pasatu arren
bizitza guztia
nik det alaitasuna
zu zagoz tristia
zu zera lehoi zaharra
eta ni gaztia.

Arr: Adina nik egingo
nizuke gaur truke
eduki gura neuke
zuk aina bertute
oso haundia eta
polit ematen dute
behintzat kaiola hauxe
hazi behar dute.

Azp: Kaiolak ez daduka
horrenbeste kako
ta zuk begietatik
hainbat negar malko
hogeitaz urte pasatu
izan ditu bapo
orain bota zaituzte
zahartu zeralako.

Arr: Hoba bota ezkerro
ai, adiskidea!
eta libre egongo da
geroko bidea
eternidade bat zan
bizitza nirea
hobe da gazte eta
preso ez; librea!

Azp: Ibilbidea ere
txarra omen du ta
zer garrantzi lehoi bat
zahartua zainduta
danak hortxe zebiltzen
ezin mantenduta
oain gehio balio du
narrua kenduta.

Kartzelako lana:

**Aurten 120 euskarazko liburu barri
agertu dira Durangoko azokara. Hiru
bertsoetarako gaia.**

1

Durangon dagon azoka honek
badu halako harrera
ehun ta hogeï liburu nunbait
dagoz gutxi gora behera
zerbait erosi nahi duenentzat
hor azaldu dan aukera
zer edertasun euskera maite
duten guztien aurrera!
lehengo kontuak amaitu ziran
mejoratzen ari gera.

2

Danak dakite euskera dala
Euskadiren oinarria
lehen zapalduta, baina oraintxe
altxatzen dago jarria
oraindik gehio irtengo dala
daukagu iragarria
esna dedila euskozalea!
esna dedila herria!
denon artean salbatu daigun
euskera maitagarria.

Beste azoka ederrago bat
 sekulan ez det ikusi
 gaurkoa ez da orain hiru egun
 hor martxan ziraden hasi
 gaurko eguna, euskozaleak,
 ez zaizue gaizki jausi
 zuek'e hainbat gauza irakurri
 saltzaileak irabazi
 Durangotikan juaterako
 liburu bana erosi.

Azpillagaren azken agurra:

Hogei eta sei urte badira
 txapeldun izan nintzala
 oraindik ere hemen nabil ni
 lagun gazteak bezala
 burua zuri jarri zait baina
 lehengoa daukat azala
 eskatutzen det nere osasunak
 luzaz kontserba nazala
 Arriagako txapel santua
 Jaunak bedeinka dezala!

Txapelketa ofizialetatik kanpo, Bizkaia-Iparralde lehiaketa ere jokatu zuten 3 aldiz: Saran, Parisen eta Gernikan. Bizkaitik, Azpillaga eta Lopategi lehiatu ziren eta Iparraldetik, Xalbador eta Mattin.

Pariseko txapelketako bertsoak aldatuko ditugu hona. Teodoro Hernandorena izan zen antolatzailea eta gai jartzailea.

PARIS 1969

**Gaur hunera, neska polit asko etorri
 dira bertsolariak entzutera. Neska horie-
 tako bateri bakoitzak bertso polit bana.
 Gero senargaiak errepikatuko dion ber-
 tso bat. Senargaiak, baina ez amak.**

Azp: Begiz jotako neskatxatxoa
ondo dakizu zein nintzen
tamainan zaude era berian
beti gorako ta gizen
bizi guztia pasatuko det
aingerua, zu zerbitzen
zu bezelako lore politik
batere ez dago Parisen.

Lop: Guk badakigu nolatan diren
maitasunaren giharrak
guk badakigu nola goratu
holako lore edarrak
nere begiak bete baititu
gaurko santu Olatarrak
zuk hainbat argi ez dute egiten
Lidon dabiltzan izarrak.

Mat: Orai solasten hasi nahi nuke
neskatxa gazte hoiekin
gogoa kanbiatzen baitzaiote
Parisa egitearekin
ta esposatu behar ba'uzue
ezkont eskualdunarekin
zorionian bizi nahi ba'uzu
ez nauzu apartatu Mattin.

Xal: Neskatx xarmengarria
aurrean zaudena
zoin izan ote da ama
izartxo horrena?
Zu ikusi ta bozten
zait eni barrena
zu izaiten ahalik
gaur Xalbadorrena
ni nindaike gizonik
zoriontsuena.

Mattin neska polit xarmanta bat da. Lopategi Amerikatik diruz josita etorri dan gizon bat, tripa haundi samarra du eta adinean sartua. Azpillaga, gizon gazte bat; ez du dirurik baina langiletasunean da aberats, gazte lerden bat da. Biak Mattin neska politarekin ezkondu nahi dute. Xalbador, berriz neskaren aita da; bere alaba Mattin kontseilatatu behar du.

Lop: Gazte nintzala banituen nik
fortunaren esperuak
Amerikara eramán nindun
nere odol sendo, beruak
neska polita ezautarazi
etorri eta geruak
bion artean gasta ditzagun
ekarri'tudan diruak.

Azp: Amerikatik zu bezalaxe
helduak ditugu jaunak
honuntza etorri ta neskatxuai
hainbeste lata emanak
nahiz eta zuri alaba eman nahi
beren aita eta amak
diruz bakarrik ez dira egiten
emakume baten lanak.

Mat: Orai artian neskatxa nintzen
egin beharko emazia
eta gizongai hau biekilan
badaukat hautaguzia
ez zait gustatzen dolarrarekin
zahar bat neri etortzia
nik hori baino nahiago nuke
diru gabeko gaztia.

Xal: •Ezkongaietan izaiten dira
bide estu ta zorrotzak
alaba, entzun zentzuarekin
galai horien arrabotsak
maitetasuna da beharrena
gutti balio du sosak
lehen-lehenik esan eidazu
zer erraten dautsu bihotzak.

Lop: Zuk badakizu nere herrian
Don Gerbasio naizena
neregandikan jaso zindezke
dirua eta izena
nik ondo dakit diruz bakarrik
ez dala bide zuzena
tripa haundi honek ez du azaltzen
nik daukadan almazena.

Azp: Beraz, diote ez dula falta
Amerikako dolarrik
bainan halare neskatxa batek
nola ez izan bildurrik?
gero zahartzean hau hil litake
eta zu gazte bakarrik
diru hutsakin beharko dezu
ez dezu izango haurrik.

Mat: Orai nik hartu beharko nuke
emazte baten gradua
gizongai batek indarra badu
eta bertziak dirua
eta aitari galdetzen diot
arrazoin bat seriu
diruz erosi ote litake
egiazko amodiua?

Xal: Bata aberats zahar samarra ta
bestia pobre xarmanta
ene alabak hoitan bietan
senartzat ezin zoin hauta
gaztetasuna ona da baina
sosa ere behar baita
egizu uros bizi ditezen
zu alaba ta ni aita.

Lop: Neskatxa honek aitan inguru
baditu bere guardiak
hartu nahi leukez etorkizunen
bide zabal ta argiak
nik hamar urte zaindu baititut
Amerikako ardiak
saririkan ez al du merezi
hango nire izerdiak?

Azp: Ameriketan gazte denbora
ez duzu iragan gaizki
orain diruak dituala ta
tranpa guztiak dakazki
zure aitaren aitona itxura
sukalde baten da aski
bi agure zahar etxe batean
gehiegi dirade, noski!

Mat: Nik esplikatzen hasi behar dut
aita zure inguruan
zure alaba ezarri nahi
aberats baten graduan
zure ustea duzu dirutan
ni, berriz, amodiuan
plazer guziak dituen persunik
ez da bizitzen munduan.

Xal: Zure solasek, alaba maite,
bazuten hainbertze pisu
ta galai hoiien solas ederrek
ez zaituzte ezarri itsu
hoitabat urte badituzu ta
nahi dezuna egizu
bizi guzia pasa ezazu
amak bezain zoriontsu.

Orain arteko berotzeko gaiak izan ziren. Hemendik aurrerako saioak ziren puntuagarriak.

Ondorengo gaiak, kartzelako gaiak izan ziren, bikote bat kantuan ari zela, beste bikotea entzuten ez zuen toki batean egoten zen.

Azpillaga sendagilea da eta Lopategi ijitoa, buhamesa. Ijitoa gaixo egon da eta Azpillagak, sendagileak, ahal zuen bezain ondo sendatu du. Ijitoak kontua eskatu dionean sendagileak ez dio dirurik eskatu eta ahal duenean erregalo txiki bat ekarriko diola esan dio. Ijitoak erantzun dio ongi dala eta handik gutxira oilasko bat bidali dio. Sendagilea berehala konturatu da oilasko hori orain dela 15 egun berari ostutako oilaskoa dela. Gaur kalean topo egin dute eta ijitoak erregalia jaso duen galdetzen dio.

Lop: Gaixotasunak sortzen badira berela dator gastua disimuluan azaldu dut nik egiten nuen kostua ta hona hemen kalean zehar nere sendagile prestua zureganaino heldu ote da bialdu nun oilaskoa?

Azp: Ongi egindako osagileak
hori ote zun merezi?
lehen falta nuen oilasko hori
berriz eskuetan jausi
beste ijito bat bidali du
bere oilasko ta guzi
nik Gabonetan jan behar nuna
honek baitzidan ebatsi.

Lop: Behar bezela ez du erantzun
nik egindako galdera
behar bezela ez zan saiatu
hau ere bere lanera
ni gaur eztulka gogor nenbilen
ia eroria behera
nire gripekin jarraitzen dut ta
hortan berdindutzen gera.

Azp: Zenbat ijito eskertzarreko
egun badabil munduan
ta nik osatu nuen ederki
Jaunak dakien moduan
halere berak erakusten du
gripekin nola daguan
ijito txar hau hilda zeguan
nik osatu ez banuan.

Lop: Itxura badu baina lan hoiek
ez dira azaltzen juxtuan
gaur egunean nondik aurkitu
sendagile oso prestuak
alferrik dira hauekin egin
genezazkean gastuak
hobeak dira nere amonak
jartzen ditun enplastuak.

Azp: Lehenagotikan bagenekigun
ijito jendien berri
ijito zaharrik inoiz ikusi
ote da herririk herri
gazte samarrak hiltzen dirade
azkar gaixorik erori
berriz gaixotzen baldin bazera
neregana ez etorri.

**Asko dauzkagu gaur, beren etxeetatik
urrun, erbesteratuta. Batzuk, bere gogoz,
lan bila atera direlako, baina, bertze au-
nitz, bortxaz, bere herria maite izan du-
telako, euskaldun izan eta iraun nahi
izan dutelako; bere etxea, bere familia,
bere herria, batzuk, bere maitea eta, ba-
dira ere, bere eliza utzi behar izan dute-
nak. Horiek denak dira erbesteratuak.
Beraz, zuek bata bestearen ondotik, hi-
runa bertso erbesteratuei.**

Azp: Orain Parisen, ainitz ditugu
Donostin ziranak lehendik
ta horrentzako goxotasuna
biali nahi dugu hemendik
utzi dituzte Euskal Herriko
herri maite eta mendik
Sabino Aranaren itxurazkoak
sortutzen dira oraindik.

Lop: Parisen diren euskaldun askon
sentimenduak dakizkit
bihotz erdian gaur sartu eta
aberrira daramazkit
atzo bortxatu zinuztelako
zagozelako Paristik
zenbat alditan kanta duzute
penaz bortzetan geroztik?

Azp: Sendia utzi, honuntz etorri
bilatu zuten etxea
ez gero pentsa samurra denik
hain urruti etortzea
nik neuk hitz asko botiak ditut
jende hoién bihotzea
Euskal Herria galtzea baino
askoz hobe da hiltzea.

Lop: Nere laguna azaldutzen du
hitz goxo eta zigurra
bainan Euskadi kantatutzean
berela dator egurra
oso ttipia ta atsegina
izan arren gure lurra
mundu guzian zabaldutzen da
eskualdunaren malurra.

Azp: Orain delarik denbora ainitz
handik hona ziran irten
eta geroztik, sufri ezinik
dabilte egiak erraiten
naranja zuhaitz batetik ezin
liteke sagarra emaiten
ta Euskal Herria zertan ari da
erdaldun frutu egiten?

Lop: Askatasuna ez baldin badu
gizona ez da gizona
ta pekatutzat hartutzen dute
handik horrelako sona
kantu tristea ekarri dugu,
Euskal Herrian dagona,
beste egun batez ekarri nahi dut
askatasun berri ona.

Orai erraitera nuana gertatua da, Xalbadorreri gertatua. Xalbadorrek Irungo etxe batean oihu egin du, atea jo du eta bederatzi urte inguruko mutil koxkor bat etortzen zaio. Xalbador espainolez hasi da mintzatzen bederatzi urteko mutil koxkor horrerri eta mutil koxkorrak errandio: "Ez al dakizu euskeraz mintzatzzen?" Gertakizun horrek ia zer esanarazi dizuten, hiruna bertso.

Azp: Zenbat alditan gure bihotza
izaten da samindua
euskerarentzat kontra delako
justiziko agindua
baina oraindik poztu daiteke
ez dago indarrez ahuldua
hori gertatu dan ezkeroztik
euskeraz ez da galdua.

Lop: Zaharrak dituzte errakuntz asko
ta gazteak garrantzia
gaztetasunez ikusi nahi dut
gure herria jantzia
neurtua dela pentsatu arren
euskeraren lizentzia
Euskal Herriko gure landarak
badute kontzientzia.

Azp: Poztu beharra arkitzen zaigu
penatan nengona lehendik
berri politak daramazkigu
gure herrira hemendik
Irunen ere euskeraz hasi
zauzkigu euskaldun sendik
etorkizuna badago eta
askatuko da oraindik.

Lop: Hoi eskualduna zein da hain koldar
sarri hitzeiten dizuna?
zer da zedorren sentimentuan
atzeratutzen zaizuna?
zure ondoreak ez dute maite
zuk dezun bide lizuna
zorionean argitu dute
euskaldun etorkizuna.

Azp: Gertakizun hau entzuteak'e
guri kentzen digu pena
gazitarik nola daguan
gure etorkizun dena
batzuk isilik badaude ere
zutik dago ondorena
ta gazte hauek irits bezate
asabak galdu dutena.

Lop: Beldurgarria gu eskualdunak
beti jasotzen deguna
ezin sinistu dela guretzat
sekula bide leguna
hori da sarri gure euskalduna
atzean jarritzen duna
lorak frutua bihurtutzean
etorriko da eguna.

Hi aurkitzen haiz tribunal baten aintzinean. Hik badakik tribunal horren aintzinean bizitza arriskatzen dekela, hiltzerat kondenatuko hauela. Badakik ere tribunalari erraten badiok "Ni eskualduna naiz eta eskuara hutsean mintzatuko naiz" hire arriskua haunditzen dekela. Beraz, tribunal horren aitzinean hago

**eta hiru bertsoan esaiok tribunal horri
eskualdun haizela eta eskuara hutsean
mintzatuko haizela.**

1

Tribunal horrek hartua badu
bere indarraren beta
deskuiduren bat baldin banuke
neretzat heriozketa
nere hizkuntza nola ukatu
hoinbeste nik maite det-ta?
bertze hizkuntzetan nola mintzo naiz
bertzerik ez dakit eta?

2

Ai tribunalala! pentsatu zazu
zuk nahi zenduken moduan
baina pentsatu ahal guziak
ez dituzula munduan
kontzientziak zer agintzen dun
pentsatu zazu geruan
ta hemen mintza ez banindaike
mintzatuko naiz zeruan.

3

Orai artean gertatu dena
ikusi degu behinipin
tribunal gutti saiatzen dela
legean zuzen eta pin
gizona zertan ez luke fitsik
behar bere ideiekin
Jesukristokin egin zutena
egin zazute nerekin!

**Azken saioa txapelketarako. Bertso
bana: Zer da zoriona?**

Azpillaga

Zorionaren hitz ederra da
gauz ederrekin betia
ta zoriontsu oso gutti da
Euskal Herriko jentia
halako baten etorri zaite
ene zorion maitia!
Zorionikan ederrena da
aske bizi izatia.

Epaia: Bizkaiak 208 puntu eta Lapurdik 206. Bizkaiak bi puntuz irabazten du eta epaileek ohar bat egiten dute; erraiten dute gaietan ezberdintasun bat izan dala. Mattinentzako gaiak tristeegiak ziren. Gai irrigarriak ekilibratu behar ditugula gai serioekin.

Aurreko urtean Parisen jokatu behar zen txapelketa, Saran jokatu behar izan zen “1968ko maiatza” zela eta. Lehen norgehiagoka hura Iparraldekoek irabazi zuten.

Hirugarrena eta azkena hurrengo urtean jokatu zen Gernikan eta Bizkaitarrek irabazi zuten. Hala, bi alditan irabazten zuenarentzat gordeta zegoen kopa eraman zuten.

Hiru sariketa hauetan Lopategik atera zuen puntuaziorik handiena. Luis Baraiazarrak idatzitako “Jon Lopategi, bertsozko mezularia” liburuan Lopategi esker onez mintzo da Azpillagaz:

“Orokorrean neu izan nintzan lehenengo puntuazioan; baina, Azpillagak baeukan zerikusia nire puntuazio altuan, aurretik kantatuaz neure alde sakrifikatzen zalako”

Martin Gartzia Urteagak Mexikotik urrezko txanpon batzuk bidali zituen bertsolarientzako.

Azpillagaren eskertza

Beti ez dira eskuratutzen
holako sari edarrak
eta bidali duen jaunari
horra bihotzez eskerrak
Euskal herrian egin ditezke
berdin gabeko biharrak
hemen baleude Ameriketan
sobran dabiltzan dolarrak.

Puntuazioa eman eta gero saioak jarraitu zuen. Hona azkeneko bi jardunak:

Azpillaga oinak emanda: gain, Urtain, ezpain, artzain

Lehenago izatua
baserriko artzain
orain ia eginda
Europa danen gain
dana puska beharrian
hor ari da Urtain
oaindik puska behar ditu
makina bat ezpain.

Puntuka bukaera

Azp: Erran dute bukatzeko
orena badela

Lop: baina begira oraindik
kantari gaudela

Mat: uste dut jendia gutaz
gaur kontent direla

Xal: nor ez da kontent izanen
kantatuz honela.

Lop: Berak ez dakit baina
gu ez gera gogaitu

Mat: Mattinek gehiago ere
kantatu nahi ditu

Xal: bainan zurekin harririk
ez dute abitu

Azp: oraindik gure indarrak
ez zaizkigu ahitu.

Mat: Lagunak omen daozi
oain indarrarian

Xal: guk ere egin ginero
halabeharrian

Azp: inor ez degu hartzen
lantei gogorrian

Lop: beti txikiena da
joko bihurrian.

Xal: Nolaz gelditu zinen
zu, Mattin, hoin txiki

Azp: regimenari emango
baitio atxiki

Lop: haundien maleziak
honek badakizki

Mat: ni txiki izanagatik
bizi naiz ederki.

Azp: Haundi-txikian berdin da
bat edo bertzea

Lop: bildurgarrizkoa da
etxera azaltzea

Mat: nik lehenago betetzen dut
tripako ertzea

Xal: irri eiteko aski da
huni behatzea.

Lop: Irria erreza du
jan ta edaten dunak

Mat: eta uste dut berdintsu
ditudan lagunak

Xal: txarrak gaztigatzen ditu
maite dituzunak

Azp: ez zaizkio ez ahaztuko
Parisko egunak.

Mat: Parisen ibili gira
umore onian

Xal: ederki jan eta edan
beti egoniam

Azp: baina goizo erretira
egin du gabiam

Lop: dena izan dedila
gaur zorioniam.

Xal: Eskual Herria zer laike
Mattin ez bazina?

Azp: oraindik hoi gogor dago
ta ez da ezina

Lop: bertso dala etekin honek
eiten du mitina

Mat: agur esan beharko
hemendik aitzina.

Txapelketa kontuekin amaitzeko, hona txapelketa
celebre eta informal bat. Mutrikun 1993ko iraileko Kal-
baixoko jaialdian halako gai bat jarri zuten:

**Lizaso, Egaña, Peñagarikano, Azpilla-
ga, Lopategi eta Okelar. Bertsolari txap-
elketa laster datorrela eta entsaio txiki
bat egingo degu. Horretarako epaimahaia
aukeratu degu; gaur egungo txapelduna,
Lopategi, eta Okelar. Gaia kotxearen in-
gurukoa izango da. Bertso bakar bana.**

LIZASO: **motorra**

Giltzari eman, broum, broum, broum hasi
hortik sortzen da demanda
arrankatu ez eta txoferra
zer dan ezin antzemanda
hartu librua ta irakurri
etxearen propaganda
orririk orri han izaten du
dena ikusteko txanda
mekanikatik ezer jakin ez
eta konpontzea lan da
motorrik ez da inoiz ibiltzen
hiru "ostia" esanda
ta kotxea bultzaka eman behar
motorra ibiltzen ez bada.

EGAÑA: **asientoa**

Asientoa aipatu dezu
neskatxa bejondeizula!
Garrantzitsua, nahiz baten batzuk,
zigarrillo puntaz zula
kotxeak daukan gauzik onena
beraz hortatik kalkula
eseritzean inportantzia
ezin inor disimula
kotxea zutik gidatu dunik
ikusi al dezu sekula?

PEÑAGARIKANO: **bolantea**

Ni zenbat naizen aitortutzeko
hemen nago desiuari
bat baino gehio jarri ohi ditut
nik e amorrazian
baldin txoferra ibiltze z bada
adi ta atentzian
hamaika aldiz sartu ohi gera
kontrako direkzian.

AZPILLAGA: **gurpila**

Gurpilak ondo inflatu eta
kotxea nola dijuan
txoferra ere ibiliko da
abilenaren tajuan
haizearekin egon liteke
presio goi nahiz bajuan
baina gurpilik gabe kotxerik
ez leike inora jua.

LOPATEGI: **erabakia**

Dardarka eta erdi ezinean
ikusi degu motorra
eta asientuak gaur ez du jaso
guk nahi genduen altxorra
bolante hori zuzen bideak
hartzeko nahiko gogorra
norbaiti eman beharra dago
erabaki derrigorra
jubilatatu bat degu txapeldun
Juan Azpillaga jatorra.

OKELAR: **erabakia**

Txapela nori eman ez degu
izan pentsatutzen errez
motorrak bere alderdi onak
erakutsi ditu aurrez;
asientuak dana esan du
izkutuan ezin gordez
ta bolanteak bereak, berriz,
beste batzuenen ordez,
horiek geldirik egoten dira
gurpila joaten da berez.

Jatorra delako eta “berezkoa” duelako irabazi zuen txapelketa hau. Ez dira bertsolari batentzako ezaugarri makalak!

Bertsolarien ibilerak

Bera bertsotan hasi zen garaiko bertsolariak nola-koak ziren gogoratzen du Azpillagak:

Haiek bertsolari bertsolari ziren, hartarakoxe bizi zirenak. Basarrik ere periodikuan lana egiten zuen. Gaur egungo bertsolariak ere bertsolari bertsolari dira baina bada, nik uste det badela alde pixka bat lehengo bertsolariatatik gaur egungoetara: egoteko modua, hitz egiteko era, jendearekiko jokaera... izaeraz ere ez dira berdinak.

Lehen askoz ere lasaiago ibiltzen ginen edozein lekutara joateko. Oraingo bertsolaria beti dabil urduri, presaka, inon egoteko patxadarik gabe... Bertsolari haiek (Uztapide, Xalbador...) bertsoetarako bizi ziren eta ni ere bai, noski! Bertsoa gauza haundia zen haientzat.

Azpillagak bertsolari horiengandik jaso zuen bertsotara joateko modua. Edozein herritara doala ezagunak aurkituko ditu, nonahiko jendea ezagutzen du. Horretaz gain, jende artean izateko egundoko erraztasuna garatu du. Ezagun edo ezezagun, lasai asko aurkitzen da jende artean, uneoro jakingo du zer esan eta, bertsotan bezala, hizketari bide berriak irekiko dizkio ezezagunen arteko isiltasunak deserosotasuna sortu aurretik.

Maritxuk, emazteak, horrelakoa juzkatzen du senarra:

Jon danen laguna da. Pertsona zaharrakin eta umeekin. Nobixotan ere kalean zehar gindoazela umiei kontuak egiten zizkien. Nik uste det bertsolari gehienak dutela, jende artean ohi-tuta dira-eta. Jon jendezalea izan da beti eta lagunzalea eta familizalea.



Ereñozu, 1975-5-4. Azpillaga, Kosme Lizaso, Lopategi, Jose Lizaso, Uztapide, Lasarte, Mitxelena, Mattin eta Xalbador.

Lehenago eta oraingo bertsolarien jarrera azaltzen du Jonek:

Gaur eguneko bertsolarien ibilera ez da berdina. Gu bertsoetara joaten baginen eta eguerdiko 12etan kantatu behar bazen (orduan 12etan kantatzen zen, orain ordu batetan eta beranduago kantatzen da herriko plazan, meza nagusian ondoren) bertsolariak, lehenengo autobusa hartuta, gero tren, azkenik ahal zen bezala... pare bat ordu aurretik joaten ginen. Herriarekin beste kontaktu bat izaten genuen. Kontaktu gehiago. Orain ez dago. Oraingo bertsolariak, (ni ere hala joaten naiz orain, oraingoak baino azkarrago baino...) puntu-puntu, bertso saioa hasteko garaian iristen dira. Ordu batetan da saioa, bada, ordu batak hamar gutxitan edo bost gutxiagotan, danba!. Irten tablaura, egin saioa, kontuak egin, hartu kotxea eta abaila. Lehenago herriko harreman hori, edozein herritan izatea lagun edo ezaguna,... galdu egin da.

Ereñozura, San Antoniotan, joaten baginan, saioa 12tan bazen, 11etarako han ginen, hamaiketako egin,... mezatatik ateratzen zirenekin kontuak esan... Herriko berriak jasotzen genituen, hau edo bestea pasatu dela, halako mutil zaharra ezkondu dela edo... Orduan librean egiten zen (txapelketarekin etorri zen gaia-ekin kantatzea) eta zeresana jasotzeko modua zen hori. Gaur, saioa gai librean bada ere, itsu-itsuan joaten dira.

Lopategi eta biok urteak pasa ginuzen gairik inun jarrri gabe. Eta Uztapide eta biok eta Agirre eta biok...

Bertsolaria izan arren, Azpillaga puntuala da. Mari-txuk esango digu:

Gure gizona hortan kasue! Jon hiru-lau ordu aurretik jun-go zatzu. Nahiz eta etxean presaka, heldu ezinda ibili.

Ni inora jua behar dudan guztietan hasarratuta ibiltzen naiz. Igual ezkontzaren bat daukagu eta nik, azken momentu-ara arte, lanian egon behar eta bera listo-listo:

- Andrea!

Nerbiosa ipintzen zaitu, atzera eta aurrera:

- Oraindik hola zagoz?

- ...

- Ondo zagoz!

Baina berandu ez da inoiz helduko. Gainera, nik uste det amorraziorik haundiena inork, berandu joatean, ematen diola.

Orduko bertsolariak binaka joaten ziren eta bikote horiek plaza pila egiten zituzten: Uztapide eta Basarri; Azpillaga eta Lopategi,...

Bai. Eta gaztetan Mugartegi eta Azpillaga. 1961ean Uztapiderekin egin nituen plaza gehienak, 1962an Agirre-ekin, ondoren Lopategirekin,...

1960-70 hamarkada horretan herriz herri ibiltzea odisea izan zitekeen:

Adibidez, Eiherralarrera urte mordoan joan nintzen Xalbador, Mattin, Xanpun, "Errezil" eta hauekin. Asentsio eguna izaten zen hango jaia. Ni, hara joateko bezpe-

ran ateratzen nintzen arratsaldeko seiretako autobusean. Irunen "Bar Iñazio"n egiten nuen lo. Handik bistan zegoen Hendaiako estazioa. Goizean, oinez joan Hendaiaraino eta handik Donibane Lohitzunera tren hartu eta hemendik beste tren bat Donibane Garazira hartzen nuen. Donibane Garaziko geltokian izaten zen baten bat zain. Handik Eiherralarrera lau bat kilometro ziren eta mezatarako iristen nintzen. Egun guztia bertsotan pasatzen genuen eta gabaz herri afari bat izaten zen eta gau guztia izaten zen juerga. 300-400 biztanleko herria zen baina afaltzen 600 inguru izaten ziren. Hurrengo goizean herriko apaizak ekartzen ninduen Hendaiara. Irunen "Topo" tren hartu eta Donostiara, gero kostaldeko tren hartu eta Debara eta hemendik Mutrikura.

San Isidro egunez Antzuolara joaten ginen. Mutrikutik Debara, Deban tren hartu eta Maltzagara. Bertan beste tren bat hartu eta Bergarara. Gero Bergaresa autobusa hartu eta Antzuolara. Antzuolara 10ak aldean ailegatzen nintzen eta bertsotan 12.30etan egin behar. 12.30tan bertsotan egiteko etxetik goizeko 7etan irten behar nintzen. Eta hau urtero.

Ibilera ikaragarriak ziren. Ez zen, gero bezela, egun berean 3 plaza eta 4 plaza egiterik. Lopategi eta biok, egun berean, 3 plaza sarri kantatu genituen. Gaur egun ere egiten dituzte gaurko bertsolariak. Akordatzen naiz egun batean lehenengo Amezketako Uhartan kantatu genuela eguerdian, gero Lazkaon, hain zuzen Lazkao-Txikiren omenaldia zen; gero Iruran (San Migelak ziren, ez dakit biharamuna edo... jaiak ziren behintzat) eta azkenik Markinako Arretxinagan.

Horrelako ibilerari ekin aurretik deia etorri behar zen:

Herrikoak abisua ematera bizikletan edo motorrean.... etortzen ziren. Ez zegoen, orain bezala, telefonotik hitz egiterik, herri guztian telefono bat zegoen-eta. Inguruko plazak izaten ziren. Inguruko erromeriak eta. Behin Otxandion ere izan nintzen mutil gaztea nintzela, ez da

kit Euskaltzaindiak edo nork deituta. Gero fama hartu nuenean tailerreko telefonora deitzen zuten.

Herriz herri ibiltzen ziren bertsolariak mikrofonorik gabe kantatzen zuten. Gerora jarri ziren plazetan:

Txapelketekin batera. Ordura arte batere gabe kantatzen genuen.


Hasieran ez zitzaien gehiegi gustatzen ez mikrofonoak ezta jendeak kasetekin grabatzera joatea?

Ez. Mikrofonoak ere hasieran halako erreparoa eragiten zuen. Gero, ohitu ondoren, gustatu.

Grabatzearena, ordea... Garai hartan diktadura zegoen eta esaten ziren gauzak jasotzen bazituzten zintan... Patxi Mujika zebilen orduan. Nik ez nion sekula ezer esan, Lopategik hamaika aldiz, eta Uztapidetik galarazi ere bai grabatzea. Baina mikrofonotik hartzen ez bazituen ere, altabozetik hartzen zituen. Horregatik orain Euskadi Irratian gaizki grabatutako batzuk entzuten dira. Patxi Mujikak ez dauzka Lopategi eta bion bertso asko; berak gehien hartu zituen garaian galerazita eduki genuelako.

Urte luzeetako ibileran, herri batera behin baino gehiagotan joatea tokatu zaio. Urtero-urtero betetzen duen plazarik ere bada.

Bai, Mugartegi eta biok Gorozika auzoan 25 urte segidan egin genituen. Lopategi eta ni Iurretan 25 urte urterik galdu gabe. Durangoko Arriaundin ere 25 urtetan joan naiz. Mutrikuko Santaeskean 33 urte pasa, Debako Zoro Feria, Urkiolako San Antoniotan, San Iñazio egunean Donostiako Jesuiten elizan; hemen Basarri eta Mitxelenarekin hasi nintzen, gero Uztapiderekin ere kantatu izan det, Lopategirekin Behin Mitxelenarekin nintzen kantatzeko baina bera ez zen azaldu ez dakit zergatik. Ni bakarrik geratu nintzen eta jesuitei lagunekin baino hobeto edo bezain ondo kantatzen nuela iruditu zitzaien eta, ordutik aurrera, bakarrik kantatuko nuela esan zidaten. Urte mordoa da, ez dakit zenbat bai-



Nafarroako Erriberan. Nemesio Etxaniz apaiza, Azpillaga eta Lopategi.

na Franco bizi zeneko kontua da. Lehenbiziko ikastola klandestinoak etxeko ganbaratan ematen hasi zireneko garaitan eta haietako laguntzeko eta presoetako laguntzeko biltzen zen dirua mezatan. Meza honek oso ordu arraroa zeukan, 10:20an hasten zen.

Donostiako San Inazio elizako saioen berri, bertako abade den Aita Alejandrok, Itziarko Ugarteberri base-rikoak, ematen digu:

Lehenengo meza duela 29 urte izan zen. Dantzariak eta bertsolariak izaten ziren. Hona Basarri, Uztapide, Lazkao-Txiki, Lasarte, Mitxelena, Joxe Agirre,... etorri ziren

Behin Azpillaga eta Lopategi etorri ziren. Sakristiara etorri beharrean korura joan ziren eta guk ez zirela azaldu pentsatu genuen eta ez zuten abestu. Gero hasi ginen Azpillagarekin eta gaur arte hogeitaka urtean.

Bere eginkizuna hau da: lehenengo abestia bukatzen denean, elizkizuna girotzeko bi-hiru bertso kantatzea eta gero, Kredoaren ondoren, herri-otoitza egitea. Lan honetan daramazki 25-26 urte.

Lehen dantzariak zirenean meza 10:20an hasten zen dantzariak luzatu egiten baitzuten. Orain 10:30tan da.

Hona 1998ko uztailaren 31an egin zuen saioa:

Hasierako bertsoak.

Gaurko egunez lehenengo aldiz
aspaldi etorri nintzan
badakizute urte morduan
zer modutara gabiltzan
meza santua donostiarrok
San Inazion elizan
urte guztia pasa dezagun
kristau jatorraren gisan
San Inaziok lagunduko du
horren dudarik ez izan.

Benetakua degu hemengo
anai-arreben jarduna
Jaunai eskatu eta ikasi
aldaretikan entzuna
San Inazio da gure patroï
gainera geure laguna
meza santua gogotik entzun
hau da egingo deguna
pozez ta alai pasa dezagun
San Inazio eguna.

Herri-otoitza

Jesukristoren maitetasuna
garbi dago ikusia
Golgota mendi ganean hil zan
gurutze baten josia
eskerrak, Jauna, gu salbatzeko
eman zenuen bizia
orain guk ere eskaintzen degu
ahal genezaken guzia.

Jainko haundia entzun eiguzu
bertsoaren erregua
langileari lana emaiozu
ta lantoki segurua
gerralariei emaezue
armak uzteko gogua
gaixo danari itxaropena
ta hiltzen danari zerua.

Herri gehiagotan ere kantatu ohi dut mezatan: Zamudion, Mutrikuko Zaharren eguneko mezatan,... azken honetan ere 25 urte izango dira hutsik egin gabe kantatzen detena.

Elizetan askotan kantatu du Azpillagak. Inoiz, sermoia bertsotan egin izan du. Egia esan, erlijio gaietan asko daki. Jon, fede handiko gizona da eta fede horrek eramane du bai mezatara baita Biblia irakurtzera ere (osorik ez bada, zati handi bat bai, behintzat) Bere jakintza ez da santuen egunak noiz diren esatera mugatzen; hainbeste santuen omenez egin diren festarik festa 50 urtetan ibili denak erraz gogoratu lituzke, eliza inguruko liturgia, historia santuak, ere ezagutzen ditu. Herriz herriko ibilerak apaiz askorekin egoteko parada eman dio eta berak, beti ikasi guran, entzunctik asko ikasi du.

Erljio gaia bertso gaia izan du zenbait saiotan:

1960ko Txapelketa nagusia. Donostiako Victoria Eugenia



Urkiolan Azpillaga eta Mugartegi.

Azpillaga eta Xalbador. Azpillaga herri handi bateko apaiza dugu eta Xalbador, berri, herri txiki batekoa. Hasi Azpillaga.

Azp: Apaizak geran aldetik bada
gurekin'e hitz leunik
ta bete gabe ezin da utzi
obispaureko ordenik
herri haundiko erretore naiz
lana nahiko badaukat nik
lagun, ez esan herri txikian
gaizki bizi zeratenik.

Xal: Gure ofiziuak bizitzez bertze
deusik ez dia emaiten
arimak hola zerurat buruz
bide onez eramaiten
nago zuek hor hoin jende anitz
hola nola zabiltzaten
nik lana frango badukat neure
ttikia ongi egiten.

Azp: Nik ondo dakit bakarrik dana
mila ardiren artzaina
ta ni hurrena ehunka mila
daitekeen talde haundina
ezin esan du gaizki dagonik
hain azaltzen da apaina
ni nekatzen naiz erakustean
Jesukristoren dotrina.

Xal: Lana gehiegi duen gizonak
ez duke hainbat zorion
nik nahiago dut naizen lekuan
naizen artzain ttiki egon
ez pentsa gero alaitasuna
hunek bihotzetik dion
berrehun ardi txarrak baino, nik,
nahiago ditut ehun on.

Azp: Herri txikian gure hizkuntza
bestarik ez da aditzen
ta kulpitotik beste hizkuntzik
hauek ez dute mintzatzen
zuk ba al dakizu herri haundian
gu zer modutan gabilten?
dotrina baino gehio kostatzen
euskerara erakutsitzen.

Xal: Jende erdia deraukan batek
ez du erdi baizik lanik
hunek doblea baderaukala
dakit beronek erranik
bai lana ere gehiegi dauka
nekatua da jadanik
baina halere bizi ni baino
oilasko gehiago janik.

Azp: Bertso garratza bota du baina
asmatu det segituan
herri txikia izanagatik
zer janak eiten dituan
honek ez dauka beste hitzikan
beti jartzen da puntuan
igual bertsoan hasiko da hau
altare ta kulpituan.

Xal: Indarra duen gizona beti
jasotzen dute kargura
nik indar gutxi daukatala
daukat neure arrangura
zuk lanik asko baduzu eta
heldu zure helburura
konten nindaie nik ditudanak
bidal banitza zerura.

Fededuna dela esan dugu eta fede hori eliz kanpoko jardunetan ere erakusten du. Hona adibide batzuk:

Lehenago Jon Azpillaga sinisgabea genuen baina berari sinismena ekarri zion apaiz lagun batek. Orain apaiz laguna sinismenik gabe omen da.

1

Berriro hor nun bilatzen detan
lehenagoko apaiz hua
Ni fede gabe nenbilen eta
hark jarri zidan planua
baina denbora gutxian asko
ganbiatu da mundua
o, apaiz jauna! zuri beituta
nun ote da infernua?

2

Lehenago etxetik ginaden beti
beldurrik gabe ertenak
besteentzat utzi izan genitun
geure animako penak
apaiz gazteak ez dituk gaizki
ez egiten obra denak
meza ematen gaur'e badabiltz
zure antzera daudenak.

3

Badakit fedea ez dala inoiz
barrura berez iristen
ta neri zu ibili izan zinan
zekizuna erakusten
leheno arditzat hartu zenduna
oin nola ari zera uzten
nik ere nola sinistuko det
zuk ez badezu sinisten?

Erljioari buruzko beste gai bat. 1976ko apirilaren 25ean Aranalde gai-jartzaileak emandakoa:

“Judas”

1

Nonbait harentzat ez zan erori
Jainkuan barkaziua
berdingabea izandu baitzan
egin zuen aziua
gurutzeratu zun Jesukristo
ta ondatu naziua
ejenplogarri behar genduke
Judasen traiziua.

2

Garai hartatik nahiz gauza asko
orain egon mudaturik
inork ez zuen egin izango
hainbesteko pekaturik
soka batean ahorkatu zan
eginakin damaturik
hamaika Judas badabil hemen
izena kanbiaturik.

1978ko apirilaren 30a. Ahetze. Mattini omenaldia.
Gai-jartzailea: Itzaina

Bibletik hartua da; Moisek atera zuenean bere populua Egiptotik, eta deserturat eraman, populu hura Moisen kontra jazarri zen lur gizenetik eraman zuelako deserturat. Bi bertso gai hortaz.

1

Istorio hau da Bibliatik
hartu ta irakurria
Moisek egin zuen irteera
ez al zan harrigarria
Egipto utzi ta mendiratzean
jende guztien tirria
nahiz ta esklabo lanean bizi
bera baitzen herria.

Egiptotikan herria hartu
 mendira eramatia
 izan zitekeen mesedea ta
 izan zitekeen kaltia
 hango jendeak bere kultura
 eta herria maitia
 hori bai dala egi-egitan
 abertzale izatia.

Bertsolariarena langintza sorgina da. Batean Jainko ipini dutena, hurrengoan deabru jarriko dute gai-jar-tzaileek. Abel Muniategik 1976ko ekainaren 4ean Gabriel Arestiri egindako omenaldian gai hau eman zien bertsolariei:

**Igartzazal, Jose Lizaso eta Azpillaga.
 Igartzabal abadea, apaiza, Azpillaga dea-
 brua eta Lizaso, apaiz eta deabruaren er-
 dian, heriotzako orduan.**

Iga: Hara gizona! Eman nahi dizut
 orain lau bat iritzi
 orain akordatu behar dezu
 alperrik da bihar eo etzi
 etsaia aldamenean; hortik
 ezer ezin da iritsi
 nik zerbait eskeiniko nizuke
 nahiz hura izan hain gutxi.

Liz: Aspalditxoan ohiean nago
 gaitz gogor batek harturik
 oain hemen nago apaiz jator bat
 neuregana inguraturik
 nola ez dedan gizonikan hil
 ta ez daukat lapurretarik
 horregatikan ez du Lizasok
 heriotzaren bildurrik.

Azp: Apaizarekin argi ibili
beharra dago behinik behin
fede haundirik lehenago ere
ez daukazula det jakin
zure anima ezin liteke
orain zerurako egin
artista danak lagunak ditut
etorri zaite nerekin.

Iga: Apaiz bezela hitz egin behar
dizut zuri bihotzera
nola zu ere heldu zeraden
ia-ia heriotzera
baldin inpernura bazoaz zu
etsaiak dion antzera
ikusi nahi ez dezun aitona
batekin juntauko zera.

Liz: Apaiz gazte hau behin behar eta
hemen ari zait serio
gaixuarentzat bai omen dauzka
milo bat erremerio
ta esaten du nere fedeak
bat'e ez dula balio
horregatikan deabruakin
sartu nahi nuke sozio.

Azp: Apaiz honena, bakar-bakarrik,
engainatzeko gogua
horretarako ikasia dau
eta badauka modua
baina, gizona, kontuan euki
heriotzako ordua
apaiz ta moja han inpernuan
nik badadukat mordua.

Iga: Egiak izan litezke, noski,
etsaiaren albistiak
nola gu bezela ez diraden
hemen ibiltzen bestiak
baina heriotzan zauden hori
hau dio apaiz gaztiak
etsai horrekin batuta daude
lehengo fazista guztiak.

Liz: Apaiz gazteak gaur hemen dauka
bere kopeta beztuta
nere anima ez du emango
gela hontatik ostuta
esan dituzun ipuin danak
ez daduzkat sinistuta
apaizena nik nola sinistu
berak sinisten ez du-ta.

Azp: Egia esan nik ere honen
arima hartu nahi nuan
eta ez dakit apaiz jaun horrek
ze kristo egin nahi duan
santu kontua eta tristura
bakarrik dago zeruan
eta gu beti dantzan gabiltza
San Juan suen inguruan.

Erljioaren bizipena aldakorra agertzen zen 1976an.
Hona, Seguran, J.M. Iriondok jarritako gaia:

**Azpillaga eta Igartzabal. Lehenago, gu-
re garaian, oraindik urte asko ez dirala,
dena pekatu huen eta orain dena libre
duk.**

Azp: Gure denboran zein libratzen zan
pekatuaren gaitzetik
guk ere maitemina baginun
mingain eta bihotzetik
desio asko bagendun baina
konformatuak hutsetik
nahiago nuke jaio bagina
hogeit bat urte atzetik.

Iga: Lehenoa jendea egon omen zan
dana pekatuz beterik
gaur, berriz, pekatua zer degun
ez omen da esaterik
nola ez dagon gaztediari
gezurrikan gaur sartzerik
horixe da gertatutzen dana
ez da gertatzen besterik.

Azp: Ta mundu zahar hau beti aurrera
doa bere istorian
urteak oso azkar dijuaz
gu behera abildadian
plaia aldera jua zaite ta
haragiak agirian
holako gauzik ez zan izaten
gu sasoiko ginanian.

Iga: Pekaturikan ezak ere ez du
gaztedi hori beteko
hortan badaukat nere ustetan
beste gauz bat esateko
eleiza ere gaur azaltzen da,
noski, beste era bateko
baina ez dakit mesedeko dan
edo hau ere kalteko.

Azp: Lehenago beldur izaten ginan
gu musu bat emateko
esku artean zeguen prenda
nola ez gendun maiteko?
Baina halare zerbaitengatik
gauza ez gendun beteko
Jainkuak berak agindu zuan
alkar maite izateko.

Iga: Ai Azpillaga! Zer kontsejua
orain zuk eman diguzun
nik ere beste bat esan nahi det
inork nahi baluke entzun
seigarren hori hainbat pekatu
ez dala, noski, gaur egun
baina beharra datorrenean
gizon bezela erantzun.

Azp: Erantzuteko ere oraindik
ederki dago mundua
gauzak ikusi ta pentsaketan
sarri nago egondua
hainbeste neska eder daude ta
ni bihotza bigundua
orain'e hortako onak gaude gu
balego nork lagundua.

Iga: Beraz, zuri falta zaizuna gaur
dadukazun norek bultza
itxura danez gizon hau ere
ez dago oso amutsa
nik eskeiniko nizuke, noski,
neuk ahal nezakeen laguntza
baina gaurko bizitza hau ere
ez degu, ez, lore hutsa.

Pekatuak pekatu, 1977ko otsailaren 5ean konfesa-
tzea ere egokitu zitzaien:

Puntuka: Jose Lizaso, Lazkano eta Azpillaga: Azkena noiz konfesatu zineten?

Liz: Entzun al dezute horrek zer esan diguan?

Laz: Ibiltzen al geraden apaiz inguruan

Azp: hanka ez dezu sartu toki seguruan

Liz: ez dakit pekatu azkena nik noiz egin nuan.

Laz: Hortara ezin leike inor derriortu

Azp: konfesatzeko behar da pekatuan sartu

Liz: ez al degu hobia bihotzak samurtu?

Laz: Pekatuik ezin egin ta zertan aitortu.

Azp: Konfesatzeko nor da holako afanian?

Liz: Hori sobratua dago gaurko egunian

Laz: nik ere egiten nun fedea nunian

Azp: neu ere joango naiz eiten detanian.

- Liz: Hori ezin litake
hemen erabaki
- Laz: bakoitzak bere berri
hori ondo daki
- Azp: hemen nahi dutena da
kontzientziz garbi
- Liz: gustoko laguna bada
isilik eduki.
- Laz: Gauz denak esatea
ez baita komeni
- Azp: arrazoia dezula
pentsatzen nago ni
- Liz: norbera nahi ez dunik
inoi ez eskeini
- Laz: neure andrearekin
konfesatzen naiz ni.
- Azp: Nere lagun bi hauek
hain borondatian
- Liz: zeure konbertiuko zera
halakoen batian
- Laz: apaiza aspertuko dek
bien bitartian
- Azp: ez dira konfesatu
hamar bat urtian.

Liz: Zertan ari gerade
gauza hauek esaten

Laz: nezkazaharra ez al da
holakoa izaten

Azp: pekataria ez da
zuzenetik joaten

Liz: lehengo konziliuan
libre utzi zuten.

Laz: Oraindik kontu hoik danak
neri ez zaizkit ahaztu

Azp: eta ni ere ez naiz
ondo enteratu

Liz: nahiko ipuin bazegok
nahi badek sinistu

Laz: gizon garbiak horren
beharrikan eztu.

Azp: Gizon pekatariak
batzuk omen dia

Liz: hargatik dago begira
hemendik jarria

Laz: Azpillagak badauka
barrengo larria

Azp: baina pekatu eiteko
abilidadia.

Liz: Batzuk hor pikardian
ibilitzen dituk

Laz: hik ere intentzioak
aldizka badituk

Azp: eta jarraituzia
lehen hainbat merituk

Liz: haiek salbatzen ba'ira
salbatuko gaituk.

Laz: Ohitura horren faltik
askok ez dute izan

Azp: hala ere denbora asko
pasatu elizan

Liz: denbora zertan galdu
hutsaren peskisan

Laz: norberenak gordeta
besterenak esan.

Azp: Berdin samarrak daude
mutil eta neska

Liz: horrek ematen al dik
horrenbeste kezka?

Laz: Zeinek sinisten duen
hasi hai galdezka

Azp: guk egiten deguna
pekatua ezta.

Liz: Azkenian atera da
kontu seriua

Laz: ez al degu hutsezko
gure baliua

Azp: konfesatzea al zan
erremediua

Liz: Don Joakin eman zaiguzu
absoluziua.

Plazetako oholtzetatik kanpo ere Azpillaga apaizarena egin du. Euskal telebistan ikusi ahal izan genuen "Pernando amezketarra" marrazki bizidunetako erreto-re lodikoteak Jonen ahotsa zuen.

Horretaz gain, "Txirrita" marrazki bizidunetan ere parte hartu zuen eta "Jaun eta Jabe" telesailean, aktore lanak egin zituen Jose Lizasorekin batera. Egia esan, ez zuen paper gaitza Jon Azpillagarena egin behar izan zuen-eta.

Ikusten denez, gaur eguneko bertsolarien lana bertsuak botatzea baino gehiago da.

Bertsu lanak aipatuta, ez genuke umorea aipatu gabe utzi nahi. Ondorengo bertsuak umorea dute haria.

DONOSTIA. 1977ko urtarrilaren 16a. Jose LIZASORI omenaldia. Gai-jartzailea: J.M.Iriondo.

**Mattin eta Azpillaga. Mattin hila zela-
koan Mattinen trajea jantzita etorri da
Azpillaga.**

Mat: Gauza bat ni nago hemen
kasik ezin sinetsita
norbaitek esan baitio
nauela hila ikusita
nere trajeakin etorria da
bera etxean utzita
ez da harritzeko etorri dela,
gaixua erdi jantzita.

Azp: Gauzak hala behar eta
hau're egin behar genduan
egin ez ta hobe nuen
gaur hotza nola daguan
beso muturrak bistan daduzkat
ta berdin belaun buruan
zure trajea jantzi ezker
plaira joateko moduan.

Mat: Nik hori're ikasi det
beste batek esan eta
ondoena zinuela
txapela edo boneta
baina oso gaizki zinala
prakak soinin eman eta
zangoraino ez heltzen eta
belaun gainian brageta.

Azp: Oker txiki bat egin det
okerra behar da jaso
trajea hain txiki baina
txapela, berriz, eroso
ni ikusita jendeak ere
badu hainbat parre goxo
berez xelebrea banintzake
juan ninteke pailaso.

Mat: Aisa joaten ahal zira
itsasora ta mendira
neska gazteak zuri beira
parrez egonen baitira
txaketa ere ez ailegutzen
lagun honeri gerrira
gainera behekuak guzien bistan
gero geldituko dira.

Azp: Hala ere, honek gauzak
harro samar ditu kanta
jantzi honen barrendikan
nola egin zalaparta?
Hain da txikia! Ez nau estaltzen
nunahitikan tela falta
baina nik traje hau jantzi nuen
gizon batena zala-ta.

ZESTUA. 1977ko otsailaren 5a. Gai-jartzailea: J.M.
Iriondo.

**Mattin, Jose Lizaso eta Azpillaga. Gaur
arratsaldez, Mattin, Miarritzen zine au-
rrean ikusi dituzu Lizaso eta Azpillaga.**

Mat: Bi lagun nik baditut
oraintxe auzuan
goizian Miarritzen
zagozin gustuan
zinea ikusteko
ari apustuan
horrelakorik ez al da
zuen Gipuzkuan?

Liz: Moda berriak jarri
dira historian
Mattin begira zala
nik'e banekian
pelikula ederrak
badabiltz Frantzian
emakumiak dabiltz
erdi agirian.

Azp: Lizasok nahi baitzuen
gaur nire laguntza
biaje bat egin degu
ez da izan hutsa
hemengo zine berdea
haizearen putza!
Pornoa zer dan jakiten
joan gaituk haruntza.

Mat: Hauek zine aurrean
ziren parragarri
nik ez dakit zertako
dien haruntz etorri
biak begira zeuden
hango afitxari
neska bat zalakotz han
ipurdi ageri.

Liz: Ez dira kaltegarri
gure ibiliak
nolabait'e gozatuak
ditugu begiak
orguiloso gerade
handik etorriak
ikasi baititugu
numero berriak.

Azp: Gaur arratsaldean deu
jira bat egina
inoiz ez det ikusi
nik gauza gordina
urtez aurrera goaz
hau penaik haundina
lehenago ez joatia
det pena berdina.

Mat: Hauk badute edadea
ba'ituzte adinak
ta oraindik hartu nahi
beren atseginak
pelikula ikusteko
ziran hitz eginak
hango ta hemengoak
ez al duk berdinak?

Liz: Esan nahi du ote nagon
oso narrastua
oraindik neure kandela
ez nabil piztua
neretzako lan hori
ez da erreztua
gutxinez eman diot
begiai gustua.

Azp: Joanda ikusi degu
zer erremedio!
Gauza batzuk goguan
dauzkat oraindio
haiek ikusita jarri
naiz oso serio
besteak ikusteak
ez baitu balio.

Azpeitia, 1977ko abenduaren 17a. Sebastian Liza-
sok bi puntu jarri zizkion Azpillagari:

**Bi kilo txuleta jan,
hala ere gosiak**

nola geran berela
bete ezin klasiak
goserik pasa ditut
denbora luziak
ta orain jaten ditut
ahal diran guziak.

**Ez da erreza zuri
nahikua ematen**

gazte hauek ez dakit
zer uste daukaten
nere lanak ez dira
hain zailak izaten
nere andreak ez du
zuk bezela esaten.

Donostia, Karmelo Balda, . 1978ko urtarrilaren 22a.
MITXELENARI omenaldia.

Gai jartzailea: J.M. Iriondo

Azpillaga, Kosme Lizaso eta Gorrotxategi: Lehen dena estali behar zan eta gaur, aldizkarietan, neskatzak bilutsik, larrugorritan, azaltzen dituzte. Gustatzen al zaizkizue?

Azp: Aspalditxoan bete zaizkigu
hutsikan ziran lekuak
eta asetzen ere hasiak
daude gure modukuak
gure aldera etorri zaigu
lehengo estranjerikuak
narru gorrian gustatzen zaizkit
bainan ez paperekuak.

Gor: Inoiz edo behin gustatutzen zait
errebista bat hartzia
eta denbora pasa banago
berari begiratzia
ez da harritzeko hor matrikulak
orain bistan agertzia
izkutuan dagoan bitarte
daduka inportantzia.

Liz: Gaur egunean moda berri bat
dago golpetik hartua
gustatzen zaigu egitazkoa
baita ere erretratua
gizonak geran partetik hori
behintzat ezin ukatua
haientzat juaten zaigu kristauok
lehenengo begiratua.

Azp: Lehen ezkutuan ziraden gauzak
jarri dira agirian
ikusi gabe bagenekigun
hori zegola erdian
txuleta gauza ederra dala
bazkari eder batian
baina hark ere aspertutzen du
gehiegi jartzen danian.

Gor: Garai batean erretraturik
ez zan ikusten horrela
baina gauzak mudatu zaizkigu
aitonak joan ta berela
esan liteke eguneroko
besterik ez dagoela
pekatu al da azaldutzia
jaio ginaden bezela.

Liz: Beraz, ontzako hartutzen dezu,
Gorrotxategi, hoi zuk'e
neronek hoinbat ikusitzeko
desiorikan ez nuke
gizonak geran partetik zerbait
begirate'ioгу guk'e
gordexiago jarri ezkeru
hobeto emango luke.

Azp: Lege berriak etorri dira
dana jarri da aidian
hemengo gauza ez da bakarrik
hau dago mundu danian
argazkietan narru gorri ta
lana eginaz gabian
Ama Birjina hoiiek ez dira
joango ezkontzen diranian.

Gor: Orain holakoxe gauzak daude
ez ziradenak lehenago
hoietakon bat azaltzen bada
begira gustora nago
zalia ez naizenikan ez det
santa sekulan esango
gizonezkoak gustatutzea
ez da hobea izango.

Liz: Nahi ez dala ere agertzen dira
noiznahi eta aurrian
bat gelditzen da bere buruaz
izuaren beldurrian
uste ez dala, nunahi agertzen
zaizkigu larrugorrian
gaur arratsian jarko nituzke
Ernioko tontorrian.

Saio berean:

**Agirre eta Azpillaga: Biok zoroetxeko
gela batean topo egin dezue.**

Agi: Zerbait esan beharra
da gaia emanik
zenbaitek ez du izaten
erotutzen lanik
egia esan, gutxi
beti falta nun nik
baina, zu, ez nun uste
eroa zinanik.

Azp: Hemen arkitu gera
orain dira lanak
horren zoroak lehen
ez gera izanak
hemen zergatik gauden
ez dakigu jaunak
horla etortzen omen
dira honuntz danak.

Agi: Leku hontan badaude
hamaika dozena
eta nik aitortzen det
premizko naizena
hau oso erotu bada
ez da gauz zuzena
Santa Agedan dagoen
zororik luzeena.

Azp: Zoro naizela pentsa
behar holakuan
halare arkitzen naiz
itxura bapuan
eta erabat lehen
entzun izan nuan
naturalak barruan
zoruak kanpuan.

Agi: Horrek sortutzen ditu
kezkak eta penak,
beraz, gu ez gerade
zoro nabarmenak
okerrago dirala
kanpuan daudenak
honuntz ekarritzeko
premia dutenak.

Azp: Hau leku txarra danik
ez degu esaten
lanik egin beharrik
ez baita izaten
sendo ekartzen badute
jaten ta edaten
berela aspertuko
dirade ematen.

Agi: Hala ere hau degu
paraje tamala
ta badirudi hauxe
pozik bizi dala
sinistu segituan
pentsatu dedala
lanik ez eitearren
etorri zerala.

Azp: Agirrek asmatu du
halako mitina
besterik hitz eiteko
dadukan dotrina
lanik ez eitearren
detan examina
baina zu ere zera
nerekin berdina.

Azken bertso saio hauetan, nola edo hola jana aipatu da. Ezaguna da Azpillagaren *sakea* eta txuletarako afizioa. Mutrikun, 1993ko irailaren 11n, Sebastian Lizaso sukaldaria zen:

Lizaso sukaldariak aldameneko bertsolari bakoitzari menu bat prestatu behar dio. Azpillagari bat prestatu eta honek erantzun egin zion.

LIZASO

Haundienetik hasi behar det
hau jartzeko jakinean
hezurrak gaizki, kilo gehiegi
ta ibili ezinean,
honi berdura komeni zaio
ta gainera gordinean
eta goseak gelditzen bada
porrusalda bat gainean.

AZPILLAGA

Hezurretako gaitza detala
behar zun esplikatzea
kilo gehiegi detala eta
kostatzen zait ibiltzea
baina oraindik ez nago gaiso
ondo arkitzen naiz zea!
Goserik bizi baino askozaz
nahio det janda hiltzea.

Uztapide

1960ko txapelketa bikainaren ondorioz, 1961ean 65 plaza egin zituen, horietatik 63 Uztapide maisu handiarekin.

Uztapide adinako bertsolariak ez dakit berriz noiz izango diren. Txapelketa aurretik ibilita nengoen Uztapiderekin, Berriatuan, San Jeronimon, Ondarrun... Oso bertsolagun ona zen. 1960an bera bigarren gelditu zen txapelketan eta ni hirugarren. 1961an 63 plaza kantatu nituen Uztapiderekin. Lagun ederra zen atzetik kantatzeko.

Inork ez zuen sekulan esaten Uztapidek ahots ona zeukanik eta ondo kantatzen zuenik. Nik ordun esaten nuen Uztapidek adinako boza eta kantatzeko era gutxik zeukatela. Orain haren orduko bertsoak entzutean ikusten da oso kantari ona zela.



Ondarroako Santa Eskeko bazkaria 1959. Uztapide eta Azpillaga.

1980koak dira ondorengo bertsoak:

1

Lagun jator bat agurtu nahi det
gurasoaren antzera
hargatik noa Uztafidentzat
bertso batzuek jartzera
lantegi hontan nere guraso
Manuel zu izan zera
orain eskerrak ematen nator
oso denbora luzera.

2

Berriatura azaldu zinan
Basarri laguna zala
mutiko nintzan baina ordutik
dadukat zure itzala
kontu haiekin gogoratzen naiz
atzo pasata bezala
zeinek pentsatu gero zurekin
ibili behar nintzala.

3

Bazkari baten ni ezagutu
ninduzun bertso lanian
txapelketa bat gero izan zan
Victoria Eugenia
zu bigarren ta ni hirugarren
ginalako azkenian
hamaika bertso bota genduen
alkarren aldamenian.

4

Euskal Herrian jakina zegon
ze errespeto zeukazun
ni gazte nintzan eta orduan
karga nork hartu behar zun
nere okerrak zuzendutzeko
jator ohi zendun erantzun
herriarekin nola portatu
zuk erakutsi zidazun.

5

Zuk berrogeita hamaika urte,
hogeita bost nituela
hor da seinale hemeretzi bat
izan beharko duela
herririk herri ibiltzen ginan
aita-sumeak bezela
hargatik nion bertso giroan
zure umea naizela.

6

Agur bihotzez Uztapideko
geroaren oihartzuna
bertso zaleek gordeko dute
zure ahotik entzuna
hainbeste lagun dituzu eta
danak maitasun astuna
ni ere nauzu haiek hainbeste
gutxinez maite zaituna.

Bat-batean ere, kantatu izan ditu bertsoak maisua-
rentzat. Ondokoa, 1978ko martxoaren 19an Bergaran
kantatu zuen. Basarri eta Uztapideren omenez antola-
tutako saioaren agurra da:

Gerra ondoren hemen baziran
kondizio ta neurriak
Euskera eta Euskadirentzat
karga ikaragarriak.
Enbajadore pasa zituzten
kale eta baserriak
gu gera hoi enborretatik
sortutako adar berriak,
orain isilik bazaudete ere
maite zaituzte herriak.

Mundu honetatik joatea ere tokatu zitzaion Uztapideri, Oiartzunen, 1983ko ekainaren 9an eman zioten lur. Bertsolari eta bertsozalez gainezka zen ingurua. Beste askok bezala, Azpillagak, zerraldoaren aurrean, azken agurra eman zion:

Bertsolaritzak noiz izan ditu
zu bezelako maisuak?
Nik ere zure onduan eman
nitun lehenengo pausuak
Uztapidentzat bukatu dira
hitz neurtu ta bertsuak
orain zeruan gorde dezala
denon Jaungoiko ahaltsuak.

Lopategi-Azpillaga

Azpillaga eta Lopategi; Lopategi eta Azpillaga. Bertsozaleen belarrietan eta buruetan bereiz ezineko bikotea da. Euskal Herri osoa pasa dute, herri txiki eta auzo, jaietan eta jaialdietan. Bikotea eratzearen nondik norakoak gogoratzen du Azpillagak:


1962ko txapelketan izan ginen Donostian. Ez genuen hain paper ona egin, baina, ni bertan bizi nintzelako eta Lopategi Bizkaiko Txapelduna zelako Mutrikuko Kalbarixotako Feri Egunean kantatu genuen. Baserritar jendea zen entzulea eta ataundar bat bazen Mutrikura etorrita bertan zituen parientiak bisitatzerara: Joxe Rezola. Hari gure saioa gustatu zitzaion eta harek esan zigun Atauneko San Martinetako. Orduan Ataun herri famosua zen jai haundiak egiten zirelako eta beste herrietatik jendea hurbildu zen bizkaitarrak zetozela-eta.

Han ere oso saio ederra egin genuen. Politikan de-xente sartu ginen eta hura izan zen gure konsagrazioa: Mutriku eta Ataun. Hurrengo urtean Ataunen 5 aldiz kantatu genuen elkarrekin. Gero Goierrin ibili ginen Zaldibia, Idiazabal, Ordizia, Legazpi, Telleriarte, Zerain, Zegama,... Hortik zabaldu ginen Tolosaldera eta abarrera baina gure hasera hori izan zen.

Aurretik, Lopategi eta biok kantatuta ginen elkarrekin baina txapelketan. Biok bakarrik eta gai librean Mutriku kantatu genuen lehenengoz.

Esan daiteke politika gaiak elkartu zituela eta jendeak entzun nahi zuena esateak eman zizkiela plaza asko:

Gehienbat bai; baina politika behar zenean politika erabiltzen genuen eta politika behar ez zenean bestela-



Ataun. Lopategi, Jose Rezola eta Azpillaga.



Ereñozu. Txirrita gogoan.

?, Uztapide, Azpillaga, Lazkao Txiki, Martin Berasategi, Jose Agirre, Lopategi.

ko gauzak ere bai. Politikarekin bakarrik ezin zen ibili baina jendeari gustatzen zitzaion politikan sartzea. Beste inork ez baitzuen ezer esaten. Jendea zain egoten zen, eta beste batzuk ere zain egoten ziren, "zaintzen" zeudenak. Gero eta gehiago ibili ginen eta azkenean galarazi egin ziguten kantatzea. Kantatu egiten genuen baina bodatan eta holakoetan. Plazetan kantatu gabe bi alditan egon ginen; lehena 1967tik 1970era eta bigarrena, 1972tik 1975era. Inoiz joan ginen beste baten ize-nean baina gutxitan.

Gobernadoreak idatziz eman zigun debekua. Eta hori baino gogorragoa: nik badaukat etxean dokumentu bat beste inork ez duena. Bertsolari batek ez zeukan, berez, permissorik plazan kantatzeko, ez ginen profesionalak-eta. Orain bai, baina Francoren denboran ez zezakeen profesional ez zenak kantatu. Gobernadoreak emandako karta bana daukagu Lopategik eta biok baimena ematen atzera kantatzeko, barkatzeko esanez, baina huraxe egin beharra eduki zuela eta berriz ematen zigula plazan kantatzeko baimena baina FORMAL ibiltzekotan.

Atzera baimena emateak, aurretik kendu izana salatzen du. Eta baimena kentzeko arrazoiaz horrela mintzo da Azpillaga:

1969an izan zen. Akordatzen naiz. Lopategi eta biok Amezketara joan ginen bertso-tara eta goizean saio bat bastante politikoa edo gogorra egin genuen eta jendea gustora gelditu zen. Baina apaiza frankista zen eta hura ez zen gustora gelditu. Alkatea ere frankista zen; orduan denak ziren-eta. Alkatea izatea normala zen; alkatea eta kontzejalak frankistak izaten ziren denak. Apaizak ere batzuk baziren frankistak eta hura ere frankista zen. Hain zuzen ere, egun hartan gure izenak ez ziren programan. Pixka bat kamuflatuta zegoen. Mugartegi eta Muniategi zeuden programan jarrita. Goizetik haiek izango zirelako joan zen jendea baina ikusi zute-nean Lopategi eta Azpillaga zirela, arratsaldean egun-

doko jende pila etorri zen eta, oraindik oroitzen naiz, arratsaldeko saioa eginda, tabladutik jaitsi eta gure ko-txera toreroak joaten diren moduan joan ginela biok. Po-litika arazo edo gauzetan jarduteagatik horrelako arreta ikaragarria izan genuen lehenbiziko saioa izango zen.

Laster ziren guardia zibilak etxean. Koartelera era-man ninduten. Mutrikun kuartela gaur batzokia den le-kuan zegoen. Behean, "Zidargin" taberna zen eta goian kuartela. Hara eramán ninduten eta galdezka hasi zi-tzaizkidan zer esan genuen eta zer ez genuen esan... nik zeure zerak esan nizkien, gezurrak ere batzuk neure bu-rua zuritzeko baina, azkenean, 7500 pezetakoa izan zen pagatu genuen multa.

Beste batean, Ugarten, Amezketako auzoan, San Mi-gel hurrengo igandean, berdin. Han ere galerazita ge-neukan kantatzea baina nolabait kantatu genuen.

Gu deituta joan ginen, ez ziguten gero deitu ez joate-ko eta joan egin ginen. Han dena zen goardia zibila. Ge-rra atera behar zela ematen zuen. Irteeran gure bila ze-biltzan kontrola jarrita hainbeste goardia zibil eta, gu, Lopategik zeukan Bizkaiko matrikuladun Citröen 2C ba-tean joan ginen. Beste denei alto ematen zieten eta, gu-ri, goardia zibilen erditik pasa arren ez ziguten altorik eman. Gu aurrera! Han garbi zegoen guri alto eta gure-kin hasi balira herri dena gainera eroriko zitzaie-la eta orduan, paso eman ziguten.

Tontoarena egin eta gero harrapatu zituzten hango antolatzaileak eta koartelera eramán zituzten. Handik irten zirenean antolatzaileek niri deitu zidaten goizean, argi ibiltzeko esanaz; beraiek zer aitortu zuten esanez eta nik esan nien horixe esan behar nuela ez genuela ko-bratu eta gure kontura kantatu genuela.

Telefono deia jaso eta, ez ziren 10 minutu, tailerrera etorri zitzaizkidan bila goardia zibilak. Orduan, Mutri-kun ere tailer txiki bat bagenuen eta Mutrikuko koarte-lera eramán ninduten. Lehenengo galdetu zidaten ea zer kantatu nuen Tolosan eta, nik, Tolosan ez nintzala egon.

Brigadak, baietz, ea bera tontoa zela uste nuen edo... Nik atzera, ez nintzela Tolosan egon, Tolosatik pasa egin nintzela baina ez nintzela Tolosan egon. Berak berriz, Tolosan edo Tolosako barrio batean... Ezta ere! ni ez nintzela Tolosako barrio batean egon, ni Ugarten egon nintzela, baina ez zela Tolosako barrioa, Amezketakoa baino.

Gogor hartu ninduen gainera, firmes jartzeko bere aurrean eta. Ni ez nintzen firmes jarri, jarri baino eseri egin nintzen han zegoen eserleku batean eta ezta jaiki ere, soldadu aspaldi egon nintzela eta ez neukala nik zertan firmes jarri. Haserre samar ibili ginen eta hangoa pasa zen. 10.000pta izan zen hango multa.

Hala ere, ez zuten 10.000 pezetako isun hori ordaindu beharrik izan. Errekurtsoa onartu egin zieten. Gobierno Civil-eko ebazpenak dioenez, aurreko 7.500 pezetako isuna nahikoa zen bertsolarien jokaera zuzentzeko. Ebazpenak, kontuan hartu zuen bigarren saio hau, aurreko isuna jaso baino lehen egin zutela eta bere jokabidea ez zela oso larria izan.

Ikusi dugunez, Azpillagak zenbait bisita egin du koartelera. Maritxuk dioenez, etxera ere etorri zaizkio guardia zibilak:

Guardia zibilak edonoiz etortzen ziren etxea erregistratzera. Sarritan Jon lanean edo bertsoetan zela. Behean bi geratzen ziren, etxeko ate parean beste bi eta bat, auzoko bateren bat lekukotzat hartuta, barrura sartzen zen. Etxeko zoko danak harrotzen zituzten; gizonak ohean zein alderditik lo egiten zuen galdetzen zuten,...

Nik Joni esaten nion:

-Baina gizona, nundik nora ibiltzen zera zu? Hola ta hola etorri dira gaur.

Beste batean, Aldaban izan genuen zerbait. Aldabako saioa nire lagun Martinek hartu zuen zintan baina guardia zibilak han zebiltzan eta plazatik behera zegoen artasoro batean gorde zituen grabagailua eta zintak.

Guardia zibilak alde egin zuenean jaso zituen atzera. Bertso haiek badira nonbait jasota, egundoko jende pila zegoen Aldaban orduan. Ez dakit zenbat zen baina hango multa ere pagatu genuen.

Martin hori, Martin Elordi Jauregi da, Atalluko "Illarratzuko borda" baserrian jaioa. Bera eta bere emaztea den Arantza Gaztelumendi Lasa, Hernanikoa, Ibarra bizi dira eta Azpillaga-Lopategi bikotearen atzetik ibili ziren urte hauetan.

Arantxaren esanetan:

Lopategi eta Azpillaga ziran herrian mundua biltzen zen, ikaragarri! Hori ikusi ez dunak ez du sinesten.

Eta Martinek horren arrazoiak azaltzen dizkigu:

Gu ginen euskaltzale amorratuak eta hemen ez baitzun hok biek bezalako lanik inork egiten. Hok latzak esaten zituzten Franco bizi baitzen eta gazte jendea erruz biltzen zuten eta orduan ezagutzen zen jendea: hau dek euskaltzalea, hura dek euskaltzalea,... beste txibato putaren bat ere edo beste sartzen zen.

Txibatoa, garai haietan nazka eta kezka sortzen zuen pertsona zen. Nork-zer-non-nori esan zizkionak poliziei edota guardia zibilei esaten zizkiena. Jendearen esanetan soldatapekoak ziren. Geroxeago irakurriko ditugun bertsoetan txibato hitza aipatuko da.

Gauzak horrela, harrigarria da Azpillagak eta Lopategik inolako trabarik ez jartzea Martinek eta Arantxak bere bertsoak graba zitzaizten.

Martinek eskertzen du:

Ez ziguten ez grabatzeko esan eta hori bihotzean iltzatua geratzen da.

1971n Txaraman kantatutako bertsoek txibatoen ingurukoak azaltzen dizkigute.

Txarama, 1971

Kantu ezagun baten doinuan kantatu zuten eta entzuleek kantu horren errepika kantatzen zuten.

Ondoko hau bazkalosteko saioa da.

Azp: Mahai baten bildu gera
honenbeste lagun
eta esaten dute
behar dala jardun
bertsoa nahi dutela
nola dan ezagun
hauek erantzungo'ute
guk kanta dezagun.

Entzuleak:

Gu gera Euskadiko
gaztedi berria
Euskadi bakarra da
gure aberria. (Bir)

Lop: Hauek jarriko dira
gure esanera
haxe da beste herritan
genduen joera
nahizta gu bertsoetan
aritu lanera
hauen erantzun gabe
alperrikan gera.

Entzuleak: Gu gera Euskadiko...

Azp: Guk kanta ta erantzun
gogotikan denak
probatzeko bertsoak
dituen kemenak
gure tartian ere
ba omen diradenak
festarik ez danean
kantatzen dutenak.

Entzuleak: Gu gera Euskadiko...

Lop: Guk sortu nahi genduke
denen zoriona
guziak alaiturik
andre ta gizona
euskaldunentzako da
bertsoaren sona
kanpora joan dadila
gustora ez dagona

Entzuleak: Gu gera Euskadiko...

Azp: Hemen aditzailea
zer gustoz dagan
baina bertsoen fama
nik hemen banuan
onak egon balira
Lizartza inguruan
bizkaitarrak etorri
beharririk ez zeguan.

Entzuleak: Gu gera Euskadiko...

Lop: Hauek sentitzen dute
bizkaitarren kezka
hargatik eratu da
honelako festa
hemen dagon jendea
jator eta presta
hitza ematen dizut
txibatorik ez da.

Entzuleak: Gu gera Euskadiko...

Azp: Txibatoa izateak
ematen du pena
ta horrek jetsitzen du
bertsoen kemena
Kaxak zion aspaldi
geldi zegoena
eta bera omen da
denetan onena

Entzuleak: Gu gera Euskadiko...

Lop: Bertsoak sartzen dira
Kaxaren kontuan
eta noizbehinka jartzen
dizkigu mokuan
gizon bat maitatzen da
ezaututakuan
jende segurua da
Kaxa dan lekuan.

Entzuleak: Gu gera Euskadiko...

Azp: Salatariak beti
dira gure kontra
lehen ere emana det
makina bat nota
minik ez dute hartzen
muturrian jota
txibatorik balego
leihotikan bota.

Entzuleak: Gu gera Euskadiko...

Lop: Guk kantatuko degu
joera samurrez
ez da hori pekatu
nor beraren lurrez
txibatoak hainbeste
izan dira aurrez
baina joan zaizkigu
bertsoen beldurrez.

Entzuleak: Gu gera Euskadiko...

Azp: Txibatoak gugana
sarritan erori
ez dakite kalte egin
diotela inori
galde ta falta dute
zenbait kategori
lapurra izatea
baino txarro da hori

Entzuleak: Gu gera Euskadiko...

Lop: Txibatuak badira
azaldu lurrean
baina ez dira jarriko
gaur gure aurrean
eta baldin bageunde
lagun beharrean
dinamita izango da
bentara sarreran

Entzuleak: Gu gera Euskadiko...

Azp: Ni berriz ere nua
mendizaleengana
hauek egiten dute
aindutako dana
badakizute nor zan
Sabino Arana
harek ere mendian
egiten zun lana.

Entzuleak: Gu gera Euskadiko...

Lop: Ez naiz konbentzitzen
zure esanera
kalera joan beharra
ez al da lanera?
"Gora Euskadi" mendian
herrian erdera
ez zazutela hartu
holako joera.

Entzuleak: Gu gera Euskadiko...

Azp: Nik esan behar nizun
gauzak nola dian
hoien mende baikera
gu beti kalia
euskera aurkitzen gera
egin beharrian
oporrak kalean ta
biltzarrak mendian.

Entzuleak: Gu gera Euskadiko...

Lop: Beharrekoa degu
gazteen afana
etortzen baldin ba'ira
gero guregana
nik azalduko diet
egin behar dana
mendian propaganda
ta herrian lana.

Entzuleak: Gu gera Euskadiko...

Azp: Nolanahi ere dago
ausartu beharra
eta sortu behar da
sua eta garra
aspaldi jakin gendun
non dagon indarra
oraindik lotan dagon
Naparrua zaharra.

Lop: Baldin jartzen badira
gaur borondatian
indar faltarik ez da
Naparru partian.
Baina isildu gaiten
halako batian
hobeak joango dira
plazara joatian.

Entzuleak: Gu gera Euskadiko...

Azpillaga eta Lopategi entzutea eta grabatzea ia de-
bozio bihurtu zen, Martin eta Arantxa elkarrekin joaten
ziren ahal zuten guztietan.

Senarrak lana zuenetan, nik zer egin behar nin ba? Hartu
maleta eta taka-taka, hara. Gero, lana bukatuta, senarra etor-
tzen zen, alkarrekin bazkaltzen genuen eta segi; guretzako fes-
tik ederrena huraxe izaten zen.

Guk beste inork ez zuen grabatzen garai hartan. Bertso
hauek ez dauzka inork munduan. Bertsook guk dauzkagu, zin-
tak guk erosi ditugu baina bertsoak zeinek kantatu ditu? Ber-
tsoak beraienak dira. Arrisku pixka bat ere pasa genuen gra-
batzeagatik. Bildurrik haundiena gure Martinek Albadan pasa
omen zun. Ni ez nintzan joan handik 6 egunera erditu nintzen-
eta.

Guardi zibilak atzetik zitula artasoroan gorde zituen graba-
gailua eta zintak. Guardia Zibilak ezagutu eta gureak ukatu
egin zien. Gerora itzuli zan eta errekuperatu zitun.

Gerora ere, etxean, sabaiko zulo batean gordeta izan
zituzten zintak. Garai hura bizi zutenek gogoratuko du-
te eta bizi ez zutenek jakingo dute apur bat bertso
hauek irakurrita.

Martinek eta Arantxak, Arantxak eta Martinek, egin-
dako lana eskertzen ez gara nekatuko. Beraiei esker,

hona aldatuko ditugu Aldaban botatako bertsoak. Hona hemen, goizean, bazkalondoan eta arratsaldean librea egindako saioak:

Aldaba 1970eko irailaren 27a

Goizeko saioa

Azp: Beti bezala guk hemen ere
heldu beharra lanari
egun ederra bidali du ta
eskerrak goiko Jaunari
gustu eder bat guk egin nahi ge-
nioke zuek danari
lehendabiziko ongi etorri
azaldu zeratenari.

Lop: Aldaba honek egun honetan
zerutxo baten itxura
badegu hemen jende jatorra
badegu euskal ohitura
gotzai bat ere gurekin degu
bere herrian gustura
goitik beheraino bizar ta guzti
aita San Pedron figura.

Azp: Obispo jaunak goraintziren bat
badu ondo merezia
gaztetatikan hemendik erten
gero asko ikasia
bere ustetan ia pasatu
izan du mundu guzia
zein herrik dauka obispo baten
jabe izateko grazia.

Lop: Guk badakigu nolakua dan
obispo jaun baten grina
mundu guztian zabaldutzea
Jesukristoren dotrina
txinatar batzuk zibilizatzen
egin zuen ahalegina
Ebrotik behera jeitsi balitza
han'e bazegon premina.

Azp: Lekaroztikan Txina aldera
abiatu zan orduan
pentsatu gero artzain on batek
zenbat indar behar duan
baina Txinako ezjakin haiek
beretzako amorruan
kulparik gabe urte ta erdi
han pasa zitun barruan.

Lop: Obispo jauna kartzela baten
egon omen zera triste
Euskal Herrian giro hobea
degula ez zazu uste
gau ta egun dabiltz hemen otsuak
ardi zintzoaren eske
Zamoran sartzen ez bazaituzte
pozikan egon zindezke.

Azp: hemen gai batzuk esan dituzte
haiekin gaude lanian
Obispuari bota dizkagu
hiru edo lau onian
baina gehiago esan beharra
daukagu ondorenian
ta orain beste hiru-lau bertso
euskeraren izenian.

Lop: Gure euskerak laguntasuna
denona behar omen du
guk nahi genduen zuen bihotza
bide onetik zuzendu
egi batzuek esan gaberik
ez genduke nahi aldendu
gauzak erdizka esanda ere
jendiak entenitzen du.

Azp: Egia da, bai! Behar genduke
geure arrazoien jabe
zertako izan beharrik ez da
beldurti eta herabe
gehiegi hizketan ari gerala
zahar batzuek esan dabe
baina guk ikusten degunez, gaur,
gazte jatorrak badaude.

Lop: Gazte jatorra mantendutzen du
egi garbizko ogiak
hoien asmoak azaltzen dira
garbiak eta loriak
baina badira jantzi berde ta
jende guztiz dotoriak
txinatar haiek txarrak baziran
hoiek ez dituk hobiak.

Azp: Txina aldian zer gertatzen zan
lehenago degu esana
euskaldun gazte jendeak dauka
gaur mendi goiko afana
beldurrik gabe han bildu leizke
guztiak elkarrengana
ta lasai asko kanta lezake
herri beheran ezin dana.

Lop: Beraz ez degu Txina haundia
gu bezain behera jausia
herriarentzat zerbitzari bat
han dagoen nagusia
Euskal Herrira ere badator
kanpotik jende itsusia
Galiziatik Andaluzira
badegu zer ikasia.

Azp:
.....
..... batak besteai
zabaldu behar bideak
Aita Santuak emanak ditu
arrazoi onak bereak
munduan libre behar direla
gizonen eskubideak.

Lop: Bertso ederra, arrazoi onak
gehiago ezin edertu
borondatea duen gizona
hartzeko gaude gu gertu
baina kanpotar hoiien jokera
nahi nuke garbi agertu
praka zaharrakin etorri eta
alkate bastoia hartu.

Azp: Saio txiki bat esateko ez zan
ta jua dira guztiak
goiz partetikan izanagatik
ez gera etorri tristiak
guk bakarrikan ez genezake
hemen badaude bestiak
orain entzun ta ikusi behar dira
dantzak eta abestiak.

Lop: Bariazio hain dotorea
nola ez dan egunero
bertsolariak isiltzen goaz
abeslarien espero
arratsaldean izango gera
gu oraintxe bezain bero
gure bihotza denoi zabaltzen
ondo bazkaldu ta gero.

Arratsaldeko saioa

Doinua: Uso zuria

Azp: Peligrua non dagan
nork daki gaurko munduan
ikusirikan hainbeste gazte
daudela gure onduan
hemen egia esan behar da
nahiz ta kartzelara juan.

Lop: Horretan ez det ilunik
eta ongi hartzen zaitut nik
baina guk nola ez gendun falta
disgustuaren egunik
zuen artean ez al da inork
egia maite ez dunik.

Azp: Hain egi kuriosuak
olerkiak ta bertsuak
gehienak maite dituzte baina
badaude kristau faltsuak
ardi zurien larrua jantzi
ta han dabiltzaten otsuak.

Lop: Nahi gaituztela iraindu
guk behar degu sumindu
kanpo aldetik etorri eta
hemen nahi dute agindu
Aldaba garbi zegon lehenago;
ez dezatela zikindu.

Azp: Gabiltz goiz ta arratsalde
ta entzutzaile asko daude
gure berriak kontatuzera
poliziak joaten dirade
horrelakoak jaio ez balira
denentzako askoz hobe.

Lop: Euskal Herria zerbitzen
zenbait badira argitzen
beste ezerrikan ez degu maite
hortan ez gera isiltzen
ta askatasuna ezarri arte
egia ez da inoiz hiltzen.

Azp: Oraindik daude kemenak
ez zaizkigula hil denak
gazteak herriagaitik dauzke
kastigu eta kondenak
zer diote gaur, gure itxuran,
preso sartuak daudenak.

Lop: Asko ditugu katigu
ta pena ematen digu
galernen batek kalte hainbeste
ekarritzen baitzikigu
presoak dira gure martiri
ta egiaren testigu.

Azp: Bada denbora lasaia
denetan behar da saia
deabru asko hartzen ziguten
kristau zuzenen usaia
baina hoietan ez deu nahi ezer
hemen daukagu artzaia.

Lop: Gero eta herrirago
nik ezautu nun lehenago
Txina alderdian zuk diktadore
izan bazenduen Mao
nik bezain ongi ezautzen dezu
hemen txarragua dago.

Azp: Beraz Txina aldetikan
zebilen aspalditikan
hau da artzaina ta gu profetak
gerade gu kristaugintzan
Jesukristo're gurutzean hil zan
bere herriagatikan.

Lop: Bere herrian sartuta
hiltzeko zegon gertuta
enteratua, jarri ote da
gaur gurekin alkartuta?
Hemen kartzelan sartzen gaituzte
gurutzea eskuan hartuta.

Azp: Geurea behar da kanta
eta aberria maita
lehenago gendun Mujika zana
baina hura ere hil da-ta
Larrañagakin daukagu orain
euskaldun guztiok aita.

Lop: Lagunak hala du kanta
badezu aitaren planta
Euskal Herrian izatekotan
guretzat artzain aparta
zeure eskuan behar zenduke
aita San Pedron ezpata.

Azp: Zuk esan dezuna bapo
izango da sekulako
ta bi probintzi hautan obispo
mardulik badago franko
ta Larrañaga guk aski degu
Euskal Herri guzirako.

Lop: Nonbratu zera honela
eta onartu berela
Inoiz ezpata ikusitzean
eskuetan dagoela
belarriakin ez konformatu
Pedro Markokin bezela.

Azp: Kristau jakintsuen grina
da izatea haundina
kategori bat bada Espainin
mundu guziak dakina
hau da obispo jatorra baina
ez da Madrilen egina.

Lop: Berri onak ongi betoz
gara entzuteko asmoz
hemen daukagu jokerarekin
begi hoiek daude malkoz
Madrilen dira Jonas ta Kaifas
eta Donostin Pilatos.

Azp: Ardientzat degu kanta
bazan hainbat zalaparta
abeslariak badaude hemen
ezin dutenak aguanta
hoiek abestu bezate orain
guretzat nahikoa da-ta.

Abeslariak hasi ziren kantuan, lehen kanta zein izan zen gogoratzea ondo dator: "Geuria da-ta geuria" eza-guna izan zen. Kantuak bukatuta beste saio bat egin zuten.

Zoritxarrez zintan dagoena ulertzea kosta egiten da. Artasoroak eta sabaiko zuloak izango dute erru pixka bat. Hona hasiera:

Azp: Berriro ere azaldu behar
lehen aitutako kontua
geure guraira edukitzea
inola ez da pekatua
nahiz eta egon besteren mende
nahizta izan zigortua
munduan zein da Euskal Herria
dan bezin herri batua?

Lop: Maitasunakin sortutzen zaigu
alkarren borondatia
ta herri batek hortatik dauka
etorkizunen atia
denon artean sortzen badegu
holako lagunartia
berehalaxe hautsiko degu
lepuan degun katia.

Bizipen bizi-bizia zen bertso saioa Martin eta Arantzarentzat. Oraindik, zenbait bertso buruan gordetzen dituzte eta datak, 30 urte pasa arren, ondo gogoratzen dituzte:

Belauntzan 1970ko uztailaren 12an kantatu zuten. Muñoz Grandes bezperan hil zen.

Saio hark sortutako zirraren berri ondoko pasadi-
zoak adieraziko digu:

Belauntzan, berriz, plazako bertsoak hartu, Azpillaga eta Lopategirekin bazkaldu, bazkalondokoak eta arratsaldeko plazakoak grabatu eta gero, bide bazterrean gelditu eta aditzen egoten ginan. Gainera, eurak ikusi eta gelditu egin ziren:

-Baino,baino,...ez al zerate aspertu?

Zorionez, Belauntzako saioa ondo kontserbatu da. Saioa irakurri aurretik bi ohar egitea komeniko da:

1. Bertsoetan aipatzen den Muñoz Grandes jenerala, Espainiako ejertzitoen buru zen. Itxura denez, beste militar batekin errietan ari zela elkarri tiroa bota zioten. Egun batzuen buruan hil zen.
2. Morcillo, Bilboko gotzaina izan zen. Bilboko kaleetan besamotzean ibiltzea debekatu zuen. Beti jertsea edo beso luzedun zerbait jantzi behar zen.

Belauntza, 1970 uztailaren 12a. Gazteen eguna.

Bazkalosteko saioa

Doinua: Uso zuria

Azp: Oratutzeko lanari
esana digute guri
txibatorikan ez zala baina
hemen sortu da ugari
lehendabiziko gazte ta zaharrak
on ein zagula danori.

Lop: Orain lana guretzako
ta atsegina bestentzako
gusto pizka bat ingo al degu
hemen dauden denentzako
lau aparatu jarri dituzte.

Azp: Bildu gerade batean
ta denok poztu gaitean
Tolosatikan gertu daguan
Belauntza tontor batean
Jaungoikoa ere pozikan dago
holako jende artean.

Lop: Jarrai bezate aurrera
erori gaberik behera
Tolosa aldetik etorri gera
gaur pozik tontor honera
gazte hauekin gu aingeruen
tarteetan sentitzen gera.

Azp: Hemen daguan grazia
degu ondo ikusia
herri txikia degula baina
euskaltzalea guzia
Tolosak ere Belauntzagandik
badauka zer ikasia.

Lop: Tolosak ibai ustela
ta hemen gaude bestela
ikusirikan ardi gazteak
ingurura datozela
apaiza ere onduan degu
artzai zintzo bat bezela.

Azp: Egin diozun galdea
zan gogorra ta trebea
apaiz hau degu Morcillo eta
Gurpide baino hobea
gaur Espainian nork izango du
honelako artaldea?

Lop: Bilatutzeko belarra
badegu artzai beharra
gaine hontara etorri eta
hemen da mailo edarra
Tolosaldeko ardi sanuak
hemen daukatela larra.

Azp: Ederra dezu kantatu
tolosarrari kontatu
ardi on bati hemen sartzea
ez leikio debekatu
hark egiten du Tolosan bizi
ta Belauntzan bazkatu.

Lop: Sortzeko itxaropenak
eta aldentzeko penak
era ederra izan behar du
honuntz egiten duenak
mendi hauetan ditugu beti
gure ardirik onenak.

Azp: Lehenago sarri entzuna
goian dago osasuna
aginteak'e behian beti du
egundoko erantzuna
zuk zein kaletan bilauko dezu
hemengo askatasuna.

Lop: Bada hainbat gauza edar
zuen herri hontan zehar
baina euskaldunak aspaldi hontan
ez daukagu suerte lar
"Gora Euskadi" kantatutzera
mendira etorri behar.

Azp: Lur hau behar da garbitu
nahi bada ongi segitu
Muñoz Grandes'e atzo gabean
hil zala degu aditu
nahiago nuen lagunak ere
batera eaman balitu.

Lop: Bertso horren balioa
ta bere ondorioa
militar denak baldin badute
Muñozen kondizioa
beren trajetan jantzi liteke
Espainiko nazioa.

Azp: Beti beren hitzekuak
arrazoia galtzekuak
hura hil dala ta notiziak
ziran zerbait poztekuak
baina oraindik mordo bat bada
hil danaren antzekuak.

Lop: Hainbeste dira oindio
badute hainbat jenio
Muñoz Grandes-ek hemen utzi du
bere hainbat ondorio
baina San Pedron aurrekaldean
pistolak ez du balio.

Azp: Ez zala izan umila
ezta gerrero debila
nik opa diot bihotz bihotzez
zeruan gerta dedila
baina handikan etorri bedi
bere lagun zaharren bila.

Lop: Ez zuen ona bizitza
falta du zeruko giltza
militar jende zabar horiek
lagun baitzuten eliza
nahiago nuke Morcillo ere
berakin jua balitza.

Azp: Izan gaituzte katian
euskal herrien kaltian
Morcillo jua izan balitza
Muñoz Grande-kin batian
sarrerarikan ez zedukaten
hoiek zeruko atian.

Lop: Horiek dirala bitarte
baditugu zenbait kate
gizon artean egin baitzuten
nik al dakit zenbat kalte?
Purgatoioan egongo dira
Euskadi Libratu arte.

Azp: Ezagutu nuen hala
Bilbaon obispo zala
ijito baten antzekua du
arpegia ta azala
nik galdetzen det zer ote degun
obispo edo jenerala?

Lop: Edozer gauz bihotzian
gabean eta goizian
Muñoz Grandes ta bere laguna
hil direla aditzian
sepultura bat ingo nieke
Gibraltarreko haitzian.

Azp: Heldu da errematera
esandakua bete da
sermoi luzea ta ona duenik
apaizik inor ba ote da?
Oain isildu ta hobe deu kanta
hemendik pixka batera.

Lop: Hara gauza agertuta
nola gabiltzen lehertuta
ordu batzuek pasa gintzazke
oraindikan alkartuta
beste era baten kantako degu
arnasa pixkat hartuta.

Arratsaldeko saioa

Azp: Berdingabeko garrantzia du
herriarentzat gaurkuak
ta egun berezi bat sortu du
zeru-lurren Jaingoikuak
bat bezelaxe beste hamaika
behar du lagun urkuak
arratsalde on ta ongi etorri
euskaldun benetakuak.

Lop: Goizean jende ugari gendun
orain heldu da berria
bihotzez hartu zazute denok
gure ongi etorria
pizkat goguan jarri nahi degu
lehen gendun Euskal Herria
herri hontako gazte jatorren
bihotzeko egarria.

Azp: Hainbeste mila urte ditugu
pasatuak euskaldunak
ta ez ziran izango geuretzako
errezak eta bigunak
gazte maiteak indartu gogoz
egite eta jardunak
halako baten esnatutzeko
heldu zaizkigu egunak.

Lop: Zutikan mantendu dezagula
Euskal Herriko arbola
uste det zuen herri honetan
etorkizuna dagola
bihotz guztiak maite baitute
Sabino Aranan eskola
kate astunak urtu nahiean
bero dezute odola.

Azp: Egia odol beroa bada
kateak urtuko dia
Erromar, moro ta gainontzeko
haien denborak joan dia
hainbat urtetan indartsu zegon
gure euskera garbia
lehenago baino txarragoa al da ba
orain dugun gaztedia?

Lop: Gaur egun ez dira ikusitzen
lege garbi ta zuzenak
gauz hortan kontuan jarri gera
herrietan gabiltzanak
bota zituzten Espainiatik
Afrika aldeko zezenak
baina ez dira askoz hobiak
gaur honuntza datozenak.

Azp: Gauz danak ezin bota ditazke
eskatu arren barrenak
punta bat zorrotz samarra zuan
lagunak esan duenak
kanpo aldetik etorri arren
mankoak edo herrenak
bertan sortutzen zaizkigun prendak
denetatikan txarrenak.

Lop: Prenda hoiek ikusi ta berela
tristetzen zaigu barrena
badegu izar oso argitsua
guregana datorrena
eta Madrilen izanagatik
agintaritan txarrena
beste mundura bialdu dute
harek zuen bigarrena.

Azp: Gaitz asko egina izango du
juan daneko urteetan
baina guk saia beharra degu
hain indar nabarmenetan
milioi bat gera gu gabiltzanak
gure euskeraz ezpainetan
danok bilduta zerbait lezake
saia gaitean benetan!

Lop: Saiatu gaitezen, beraz, denok
argi berri bat sortuta
bihotzak agindutzen diguna
anaieri agertuta
geure egiaren izar ederra
guk gidaritzat hartuta
kate astuna eten liteke
gu guztiok alkartuta.

Azp: Kateak astun samarrak dira
badakizute honezkero
ez zazutela erreztasunik
inolaz ere espero
zaharrak joan dira eta gazteak
jarri zaitezte la bero
Euskal Herriak zer balio du
geurea galdu ezkerero?

Lop: Geurea amets eiten deguna
eta ze amets ezitia!
Lore bat usaindu nahiean ta
berdin zahar eta gaztia
gaur egunean nola daukagun
hain egoera tristia
Zamora aldean gastatu dute
genduen burni guztia.

Azp: Batzuen barrunbe eratu ditu
bere ardien egarriak
izan'e hoi en eskabideak
bazeukan Euskal Herriak
eta hemendik somatzen dira
haien irrintzi larriak
haien frutuak botatzen daude
sortuko dira berriak!

Lop: Berriak ikusteko gogua
edonun sortu omen da
guretzat itxaropen garbia
bizigarri izaten da
eta lagunak esan dunakin
berehalaxe hemen da
hazia ere lurren azpian
landara bihurtutzen da.

Azp: Haziak nola sortutzen diran
hasi gera gogoratzen
hazirik gabe fruiturik ez da
ez al gera konturatzen?
apaiz guztiak ez dira juan
batzuk zaizkigu geratzen
Martin jaunak ederki daki
bere kontuak kontatzen.

Lop: Martin hau hori beti izan da
jokabide jatorrean
artzaia bezela hemen degu
gaur alkarte ederrean
eta begira lore polita
era oso samurrean
lehen ereindako hazi jatorra
hemen frutua aurrean.

Azp: Eguna hemen igaro degu
eta izan det entzuna
Martinek komeni dan gisara
ematen du erantzuna
apaizentzako beti bijili
eta beti garizuma
zuk ere berdin egin behar dezu
Jesukristok egin zuna.

Lop: Egiten duenarekin ez du
inoiz azaldu okerrik
sermoia eiten hasten danean
ez du esaten gezurrik
nahiago neuke Martin jaun hori
ez bagenduke bakarrik
horrek ez dauka gobernadore
ta obispuen beldurrik.

Puntuka

Azp: Aurrera begiratuta
hau edertasuna

Lop: bertsolariak hontan
dauka poztasuna

Azp: hau da Sabino Aranak
lehen esan zuna

Lop: laster helduko zaigu
gure askatasuna.

Lop: Gaztedi ederra ta
gainera abila

Azp: hemengo nahia ez dago
oraindikan hila

Lop: ez gaitezela egon
motel ta umila

Azp: eskuan dago gauza
joan gaitezen bila.

Azp: Triste samarra ez al da
gure egoera?

Lop: laster hartu diozu
herriai tankera

Azp: indartutzia nolana
denentzat hobe da

Lop: geure askatasuna
ta gure euskera.

Lop: Baina kate astuna
jarri dute ordez

Azp: hemen gaude geroko
indar danak gordez

Lop: indar haundirik ez da
gure eskubidez

Azp: askatasuna nola dan
danak daude galdez.

Azp: Nor ez da pozez izaten
holako tokian

Lop: nola arkitzen geran
oso egokian

Azp: baina, halare, ez gaude
gustuko pakian

Lop: ez genduke bizi nahi
betiko kation.

Lop: Gauza ederragorik
ez degu ikusi

Azp: ta agur egiten behar-
ko gerade hasi

Lop: urruti bizi gera
baguaz ihesi

Azp: agur belauntzatarrak
eta ondo bizi!

Orain arteko saioak libreko saioak izan dira. Gehienetan Lopategi eta Azpillaga inork gairik eman gabe jarduten ziren. Gerora, gaia ematearena zabaldu zen eta ez zuten librean ia inoiz egiten. Hurrengo saioa tar-teko saioa da. Alde batetik, hasieran gaia emanda jar-dun zutelako eta bukaeran librean; eta, bestetik, emandako gaiak librean jorratuko lituzketenak izan zi-relako.

Lopategik bere paperean sartzeko dituen zailtasu-nak ikustea interesgarria da. Garai eta egoera hartan, bertsoak errealitatearekin bat egiten zuen eta emanda-ko paperak eskatzen zuen urrutiramendua lortzea zai-lagoa zen.

OREXA; 1971

Azp: Beraz, ordua iritsi da-ta
heldu beharra lanari
berotutzeko edo indartzeko
bagendun nahiko janari
errespetoan hitz ein behar zaio
dagoen jende onari
beti bezela arratsaldeon
opa dizuet danari.

Lop: Jatekoz ongi hornitu gera,
orain bertsoaren gosez
zuek aurrean ikusitzean
bihotza daukagu pozez
egualdia zakarra baina
ez gera makaldu hotzez
goizean hemen ez zeundetena
ongi etorri bihotzez.

Hiruna bertsoan, orain, abestuko diguzute. Zu, Lopategi, gobernuko lege horiek jartzen dituzten gizon horietako bat eta zu, Azpillaga, legearen aurka dagoen langile jator bat.

Azp: Eskubidea daukan gizona
da amenazo senduan
gaurko gaitza hau nola ez degun
aspaldi ikusi genduan
legegizonak badira asko
behar lukeenak infernuan
botaziotan eginda gaur zein
ote dago gobernuan?

Lop: Oso zoli ta oso garratza
langilean eztarria
nik honen aurka jokatzeko
dedan momentu larria
ni legegizon ipini naute
hau puestu lotsagarria
ta hemen nabil garbitu ezinik
Patxin ipurdi zerria.

Azp: Hain erreza da ta ahal dutena
beti ohi dute berendu
ta honek ere eskubidea
nahi duan aina omendu
ematerikan inoiz ez dute;
ahal duten guzia kendu
zuek zer kristo eingo zenuten
lanik egingo ez bagendu?

Lop: Holaxe nago langile hauen
eskabideai begira
negargarria izango baita
egiten dedan dizdira
eta ez diot begiratu nahi
lehengo ipurdi zerrira
ni aspertu naiz zuen eskutan
banua Euskal Herrira.

Azp: Nahi beste diru egin dunian
gehiago iraun ezin da
lapurreta egindakua zera
hori pekatuz, berdin da
sindikaletan asko dabilta
aginteak eraginda
sindikatorik bai al dago, ba
gaur langileak eginda?

Lop: Langile hauek berotu dira
ezin litezke zuzendu
eta nik ongi pentsatua det:
Españiatik aldendu.
Hemen ditugun lege horiekin
ezin ninteke ezkondu,
agur banoa kanpora eta
Patxirekin zu konpondu.

Orain puntu batzuetan abestu iezaguzue eliza eta gobernu-estaduaren harremanetaz.

Azp: Gobernu ta klerua
berdintsu dabilta

Lop: beti ikusi ditut
nik alkarren gisa

Azp: ez dakit zeinek bete
behar dun hoi en hitza

Lop: Espainikua ez da
nahi degun eliza.

Lop: Faltso asko degula
nago igarria

Azp: noiz egingo ote digute
eliza berria

Lop: horren begira dago
gure Euskal Herria

Azp: aspaldi zuzentzeko
badet egarria.

Azp: Ikusten dezute aspaldi
nolatan gabiltzan

Lop: Jesukriston dotrina
daukate eskaintzan

Azp: haiek egindakorik
ondo ez leike izan

Lop: langileak isiltzeko
dabiltza langintzan.

Lop: Baina hoiengatik
ez gera engainatu

Azp: ahal lezaken gauza danak
berentzako batu

Lop: mezara joan ez ta ere
ni ez naiz penatu

Azp: apaiza gizen duta
eleiza hondatu.

- Azp: Aspaldi aditzen da
halako kantua
- Lop: ez leike konprenitu
hemengo kontua
- Azp: berak jarri nahi luke-
te mandamentua
- Lop: Franko ote degu ba
gaur Aita Santua?
- Lop: Franko alde batean
ta bestean Carlos
- Azp: gozatu behar gaituzte
makil edo paloz
- Lop: tonto batzuek joan
ta besteak datoz
- Azp: alkarren antzera a-
legia biak dagoz.
- Azp: Kontzilio bat egina
bada aspaldian
- Lop: ez degu ezagutu
gure Euskal Herrian
- Azp: sotanak, behintzat, bota
dituzte aidian
- Lop: apaizak jarri dira
zentsura berrian.

Lop: Ezkontzeko gogua
aspaldi zeukaten

Azp: hori're egingo dute
halakoren baten

Lop: oraintxe hasi dira
ejenplu ematen

Azp: andreak eman behar-
ko diete jaten.

Saio hau amaitzera doa. Beste bertso batzuek botaiezazkiguzue zuek nahi duzuen gaia hartuta.

Azp: Nahi degun gaian kantatutzeko
badago libertadia
eta gaietan hartu litezke
moda zahar eta berria
herri askotan zer gertatzen dan
gaude ondo igarria
bat eginikan behar lukete
apaiza eta herria.

Lop: Apaizak ditun jokabideak
ez dira jauzi grazitan
ni lehenbizikoz, gaur egina det
Orexaraino bisita
ta berehala zer joko dagon
nago ongi ikusita
ardi zaharrakin dabil artzaia
bildotsak suelto utzita.

Azp: Zuk nonbaitetik bazenituzun
eta hala dezu konta
ni ere herri askoko gauzak
lehendik jakinda nago ta
ta apaizen bat hasiko balitz
herriko gaztien kontra
beste egiterik ez leike egon
herritikan azkar bota.

Lop: Misterioak izaten dira
apaiza askoren goguan
ta gaur artean ibili dira
berak nahi zuten moduan
baina gazteak gaur ezin utzi
arduratzeko orduan
bestela laster doaz urruti
artaldetikan, orduan.

Azp: Inork ez degu ezer jakiten
aho danak isilduta
ta herri baten gauzik onena
arrazoian umilduta
Orexak ere haundienian
indar haundirik ez du ta
gauzik onena liteke hemen
guziak elkar bilduta.

Lop: Alkartutzeko borondatean
jarri zaitez teta bero
kantatutzen du bertsolariak
ta edonon egunero
apaiz jauna're argitu bedi
ez bedi jarraitu ero
baratza laster lehortzen baita
landarak galdu ezkerro.

Azp: Bertsolariak joan behar du
datorren hainbat grazita
klase askoko jende modua
hemen degu ikusita
kanpoko apaiz batzuek ere
egin digute bisita
baina ezagutzerik ez dago
danak paisano jantzita.

Lop: Jendea ondo ikusitzeko
laguna degu abila
usterik gabe apaiz gazteai
atera die makila
baina nik ontzat jotzen det hemen
duten asmo hain umila
etorri dira ardientzako
janari on baten bila.

Azp: Honek'e nunbait usaia hartu du
eta eman du aitzera
urrutiraino joandako seme
bat bihurtzen da etxera
apaiz gazte bat lehen bazan hemen
tratatu anai antzera
Errenteritik gaur etorri da
lagunak bisitatzera.

Lop: Ez zaitez tela bat'e bildurtu
lagun honen esanean
apaiz gazteak ikusi ditut
desio guztiz onean
ta probetxua izango dute
jaitxo honen azkenean
neska-laguntzan joate'z badira
ilunabartzen danean.

Azp: Noizbait bukatu behar genduen
ez degu nahi dana nahastu
zuen herria argitasunez
nahi genduen aberastu
horra agur bat azkenerako
nik nahi dizuet abestu
berriz bertsoak nahi diranean
bizkaitarrekin ez ahaztu.

Lop: Zuen artean lehendabizikoz
ni zorionean nintzan
eta, azkenez, kontseju on bat
eman nahi nuke eskaintzan
euskaldun onak izan zaitezte
beti egun honen gisan
ta askatasuna logratu arte
burrukalariak izan.

Urte bete geroago, berriz zigortu zuten Azpillaga. Donostiako Anoetako frontoian, 1972ko apirilaren 30ean izan zen. Gai jartzaile Jose Mari Irtindok jardun zuen.

Uztapide, Agirre, Azpillaga eta Gorrotxategi: Zuentzat gaia; esaera bat, Euskal Herrian oso ezaguna dena. Esaerak dio: "Odolkiak ordainetan"

Uzt: Gaia eman du Jose Marik ta
bertsoz hasi gaitezela
eskubitikan ni nenguen ta
ni hasi bihar naizela
odolki horiek ordainetan hoi
dira esaera bezela
guk hemen egiten degun ona
Jainkuak ordain dezala.

Agi: Gure Jainkuak maiteko gaitu
ez bada txarreko grinik
baina indar gutxi duen gizonak
ezin hartu leike gainik
gu triste gabiltz beste batzuek
nahi duten dana eginik
hamaika daude gaur odolkiak
ondo ordaindu ezinik.

Azp: Esakera hau ederra degu
azaldutzeko argira
onak gerala sarri esaten
aitu dira arpegira
bizi ezinda ogia jaten
badatoz gure kabira
ordainetako odolki horiek
noiz datoz Euskal Herrira?

Gor: Gure aitonen esaera hau
oso bide bikainetan
oraindik ere gordetzen degu
bihotzaren barrenetan
ardi gaixoak zenbat egurka
hartzen du bizkar gainetan!
Noiz demonio esango ote de
"odolkiak ordainetan"?

Uzt: Ia berriro luzatzen degun
lehen hartu degun haria
izerdi asko atera degu
jornala ez ugaria
lasto hutsakin bizi gerade
noizko gorde da garia?
Garaia dela iruditzen zait
emanazteko saria.

Agi: Sariaren zain arkitzen gera
zuk esan dezun antzeko
baina ez dago emalerikan
alde danetik kentzeko
kanpotik datoz zakur gaiztuak
gure etxean agintzeko
guk ez daukagu erreztasunik
odolkiak ordaintzeko.

Azp: Hau eginkizun jator bat degu
izakera zaharrekua
gure gainetik daudenak dute
hau betetzeko lekua
ordaina, berriz, izan litake
intentzio txarrekua
odolkia ere izaten baita
eiten dan bezelakua.

Gor: Aspaldi hontan nun gabiltzan gu
bururik jaso ezinez?
Hainbeste kalte egiten dute
bihotzez eta mingainez
odolki horiek guk ordainetan
onak ematerikan ez
baldin ordaindu behar badegu
hartutakuen ordainez.

Uzt: Bizi guzia daramakigu
hain egoera tristian
Jesus maitia errukitzen da
gu honela ikustian
nola sufritzen ari gerade
geure bizitza guztian
mundu honetan lortzen ez dana
izango ahal da bestian?

Agi: Alde guztik amenazoka
etengabe ai zaizkigu
nik esaten det: "motibuakin
hauek heldu al zaizkigu?"
Baina gaiztuentzat izango da
oraindik zerbait kastigu
Jainkua dago danen gainetik
eta denbora testigu.

Azp: Ordua degu halako baten
zentzunik jeikiteko
agindutako ordainen truka
ez ote dute beteko?
Garaia degu ordaina noiz dan
etortzeko jakiteko
txerri faltarik ez dago behintzat
odolkiak egiteko.

Gor: Eguna argi dagon garaian
hor dator hodei iluna
irriparrezka dagon barrena
negarrez jartzen diguna
“Guztia galdu da” ez pentsatu
etorriko da eguna
orain negarrez ari geranok
barre egingo duguna.

Saio honen ondoren Donostiako koartelera bisita egin eta gero jasotako zigorra kontatzen du Azpillagak:

Denuntzia etorri zen eta 10000pta. Abogadu baten-gana joan nintzan eta denuntzia horretan jartzen zuen Anoetako frontoian kantatutako bertsoagatik 10000pta-ko multa nuela eta abogaduak esan zidan pagatzen baren kantatzeko libertatea izango nuela, han ez zuen ipintzen-eta kantatzea galeraziko zidatenik eta nik nahiago nuen pagatu-ez eta kartzelara joan baino, pagatu eta kantatzen segi.

Donostiako saio honek bestelako ondorio gaiztoak ere ekarri zituen:

Uztapideri, hain zuzen egun hartan eman zion infarto edo bihotzeko atake horrek. Hura izan zen plazan egin zuen azkeneko saioa. Geroztik, hurrengo astean, uste det Zestuan, afari batean izan zela eta han ere kantatuko zuen baina gero, ondorenean eman zion beste bat eta mutu gelditu zen. Atzera etorri zitzaion hitza baina oso gutxi. Gehiago ez zuen inon kantatu.

Azpillagaren agurraren ondoren jendeak luze jo zuen txalo.

Azp: Oker bat gertatu izan zaigu
ta hartzekoa da aintzat
bertsolarien buruzagia
hartu baitigu ondoezak
ta haren partez agurtutzea
ongi iruditutzen zat
agur ta txalo eder bat danok
Uztapide zaharrarentzat.

Isuna ordaindu zuen arren, kantatzeko debekua ere etorri zitzaion Azpillagari. Lopategi ere, zigortu egin zuten.

Istilu honen aurretik ere galerazita egona ginen baina saio hura zela eta 3 urtez egon ginen Gipuzkoan eta Bizkaian kantatzeko baimenik gabe. Nafarroan eta Iparraldean eta Araban libre geneukan. Gipuzkoan eta Bizkaian kantatzen genuen baina baimenik gabe, besteren baten izenean eta hola, edo bodatan edo eleizetan...

1972an, bertan, OARGI taldeak Zumaian antolatutako bertso jaialdi batean kantatzekoak ziren Azpillaga eta Lopategi. Gobernadore Zibilak zigortu zituela eta ez zuten jardun. Saioan parte hartu zuten bertsolariiek bertso bana kantatu zieten. Bertso onenari saria eman zitzaion. Lazkanoren bertsoa ez dago, zintan, ulertzeko moduan baina, Jose Lizaso, Gorrotxategi eta Agirrerenak idatzi ditugu.

Liz: Anai-arrebak iritsi zaigu
esnatutzeko ordua
Bizkai aldetik beste bi anai
baginun etortzekua
baina egia esan dutelako
eskubidea kendua
jakingo nuke nork ote daukan
pekatu horren errua.

Gor: Moztu dituzte bi lagun zaharren
jardunaren aipamenak
isilik egon beharra dute
alperrik beren kemenak
hoi da baratza baten moztea
bi landarerik onenak
orduan sasia indartutzen da
ta sortzen dira ondamenak.

Agi: Gure anairik maitekorrenak
prestu zeunden lanerako
lehen ere zerbait eginak dira
herriaren onerako
ta gaztigatu egin dituzte
egia esan dutelako
ta gu bertsoan ote gabilta
kobardeak geralako?

Zigortuta izan ondorengo saio batean Basarri zuten
gai-jartzaile. “Ume eder bat” doinua erabili zuten doinu
honek dituen bi ahotsak erabiliz. Ohikoa zuten doinu
hau:

**Azpillaga eta Lopategi. Zeuk esan nahi
dezutena esatea libre**

Azp: Berriro ere geren kontuak
emon nahian atzera
sartu nahi degu lehen bezela
Gipuzkuen bihotzera
hor egon gera txori gaixoa
kaixolan dagon antzera
ta bizkaitarrak berriro gatoz
Donosti agurtutzeroa.

Lop: Ezaunak dira gure jokoa
eta gure adoriak
eta frutua eskatutzen du
udaberriko loriak
zuen aurrera etorri gera
gizon oso dotoriak
askatasuna bilatzen degun
Bizkai aldeko txoriak.

Azp: Berak esan du askatasuna
bilatutzen ari gera
lehenago ere leku askotan
bota ditugu aidera
hil batzuetan hor juan gera
estropozuzka gainbehera
baina berriro azaldu gera
egiak predikatzeraz.

Lop: Apostoluak bezelaxe gu
ibiltzen gera batean
txoriarentzat isiltasuna
nolatan degun kaltean
askatasuna degu egarri
aspertu gera katean
bide hortatik segiko degu
arnasa degun artean.

Garai hartako bertso giroa ez zen gaur eguneko modukoa:

Lopategik eta biok egiten genituen saioak herri txiki edo ez hain txikietan izaten ziren, Tolosa aldeko herrietan, Ataun, Zaldibin, Bizkaian...

Bertsolarion saioarekin batera izaten ziren aizkolarriak, harrijasotzaileak (orduan Endañeta eta Urtain zebiltzan)... Bertsolarien saioa arrakastatsua zen oso. Behin, gogoratzen naiz, Lopategi, Gorrotxategi eta hiru

rok Altzon ginela. Gu iristerako frontoiko kanpo aldean ikaragarritzko jende pila zegoen.

Guk esan genuen :

- Nola dago jende hau hemen oraindik? Zergatik ez dituzte ateak zabaldu?

Eta hala erantzun ziguten:

- Joan dan ordu betean pilota tokia beteta dago.

Eta kanpoan beste bat betetzeko aina bazen. Kanpora jarri zituzten altabozak eta hala konpondu ziren. Alzo herri txikia da baina kanpotik jende asko etorri zen.

Halako jendetza herri txikietan biltzeak arrazoiren bat izango zuen:

Lopategi eta biok elkarrekin hasi ginanean politika gaietan hasi ginen gehienbat bertsoan; aurretik ez zen inor hortan sartzen. Ni Uztapide, Agirre eta Lasarterekin ibiltzen nintzen baina ez ginen politikan sartzen. Euskarra gaitzat hartzen genuen baina politikan ez. Gero beste bertsolariak ere hasi ziren. Jendeak aditu nahi zuena aditzeagatik joaten zen. Inork ez zuen ezer esaten telebistak, irratiek, egunkariek... zerbait esan izan balute itxi, multa edo gaztigua izango zuten. Gu eta, inoiz elizan ausartzen ziren apaizen batzuk, besterik ez ginen. Apaiz horietako batzuk kartzelara eramane zituzten: Amuriza, Gabika,...

Azpillaga-Lopategi bertsolariak librean aritzen ziren, gehienbat. Hala ere, gaia emanda hasi ziren garai honetan:

Geroago izan zen. Arrazoi batzuk badira, txapelketak ezarritako moldea,... baina beste bat behartzen zutelako da. Bertsolariak eramane behar baldin baziren Donostiako Gobernu Zibilera entregatu behar ziren informeak, zein bertsolari izango ziren eta zer gaitan kantatuko zuten esanez. Baita bi bertsolari baldin baziren ere. Eta orduan etorri zen moda hau (neri ez zait sekula gustatu) bi bertsolari izanda ere gaia emanda kantatzekoa; Gober-

nu zibilera eramandako gaiak edo beste batzuk igual izaten ziren. Ordura arte bi bertsolari ez zitzaien gairik jartzen. Lau edo sei bertsolari baziren bai, horiek jaialdiak izaten ziren baina bi bertsolari bertsoan aritzeko sekulan ez dute gaien beharrik izan.

Donostia, 1972ko apirilaren 30a. Gai jartzailea Jose M. Iriondo.

Lopategi eta Azpillaga. Biak lagun haundiak dira. Lopategi Euskal Herrian gelditzearen alde da, Azpillaga, ostera, bizimodua errazago irabaziko duela eta atzerrira lanera joateko erabakia hartua. Bi lagunon elkarrizketa.

Azp: Ni jaio nintzan Euskal Herrian
ta maite det txoko bera
berdingabeko indarrarekin
honuntz sartu da erdera
bizi ezinda aurkitutzen naiz
eta banoa gainbehera
beste egin beharrik ez daukat ta
noa Kaliforni aldera.

Lop: Kaliforniko urre dizdirak
asko jarri zitun ero
eta zu ere joan dan aspaldin
haruntz joateko bero
nik herritxo hau maite det eta
uztea ez det espero
gorantza nola jasoko degu
guztiok alde ezkerok?

EXCMO SR GOBERNADOR CIVIL DE LA PROVINCIA

SAN SEBASTIAN

=====

Jose Maria Zuriarrain Urretavizcaya, mayor de edad, de estado soltero con D.N.I. de profesion carrocero, natural y vecino del Ayuntamiento de Iruerrieta, con domicilio en Orendain C^o Larraspi, a V.E. con todo el respeto y consideracion tiene el honor de exponer:

Que deseado celebrar la juventuda de Orendain los dias 18 y 19 del actual mes, figuran programados entre otros actos los siguientes:

DIA 18 a las 6 de la tarde en la plaza de Orendain, actuacion de los siguientes bersolaris:

Jose Aguirre Esnal con D.N.I.	de Azpeitia,
con domicilio en el C ^o Oranda.	
Javier Amunitza Zarraundia con D.N.I.	de
Amorabieta.	
Juan Azpillaga Urrutia con D.N.I.	de
Motrico.	
Manuel Lazcano Uranga con D.N.I.	de
Azpeitia.	

TEMAS a tratar:

Problemas economicos de nuestros caserios.
Agua mas cara en Orendain que en Bilbao
La carretera de Icazteguieta a Orendain, para cuando
Ventajas del no tener escuelas en Orendain.
La parroquia de Orendain.

DIA 19 a las 6 de la tarde en la plaza de Orendain actuacion de los siguientes bersolaris:

Jose Eizaguirre Uñaderra con D.N.I.	de
Azcoitia.	
Sebastian Lizaso Iraola con D.N.I.	de
Azpeitia.	

TEMAS a tratar:

Obreros y patronos.
Problemas economicos para organizacion de las fiestas del pueblo.
Los chicos de Orendain siguen viviendo aqui y a donde se han ido las chicas.

En virtud de todo lo expuesto es por lo que a V.E.

S U P L I C A: Tenga a bien ordenar sea dada la autorizacion correspondiente.

Es gracia que espera alcanzar de V.E.

Bertso saioak antolatzeko baimenaren eskaria.

Azp: Euskal Herria nik maitatzen det
gogotsu eta lekutik
lehenago ere etorri dituk
eta nik ez dakit nundik
Kalifornira nua bizitzen
hemen ez ziok gauza onik
Euskara galdu ezkeru ez zait
ezergatikan inportik.

Lop: Era hortara mintzatutzea
zuk behar zenduke lotsa
Euskal Herriak eskatutzen du
gizon sendo eta zorrotza
hango diruak ez du aseko
sekula zure bihotza
bien-bitartean izango degu
hemengo nausi arrotza.

Azp: Ez gero pentsa nik ez dedala
berdingabeko penikan
baina aspaldi ez det pasatzen
ordu ta egun onikan
ni harrapatzen etsai batzuek
hor dabilta atzetikan
ni banijua hoi en eskuan
erori baino aurretikan.

Lop: Horien eskuan gu erortzea
ez degu gauza nekeza
baina guziak bialdutzeko
hartu dezagun amesa
Kalifornian ze izango dezu
diruaren interesa?
Nik maiteago izango det gaur
Euskal Herriko pobreza.

Batzutan, elkarri kontra egin beharrean, bertsolariei
gai bera jartzen zaie horretaz elkarrizketa izan dezaten.

Mota honetakoa da 1975eko apirilaren 26an Lazkaon jarri zieten gaia.

Lopategi eta Azpillaga. Zenbait aldiz entzun dugu anaitasuna beharrezkoa da la euskaldunen artean baina, noiz lortuko ote dugu egiazko anaitasun hori?

Lop: Anaitasuna entzundakuan
bihotza daukat amesti
bihar-etziko bizimoduan
izango ahal gera ezti!
Itxaropena badadukat nik
eta zuek'e bai noski!
Geure artean anaiak gera
kanpotarrez gabiltz gaizki.

Azp: Baina euskaldunak beren artean
sarritan dirade mindu
bata bestea gailentzen nola
gindezke gu ahalegindu?
Alkarren kontra dabilen jende
batek gauz onik ezin du
ta alkar maite ez baldin badeu
euskaldunenak egin du.

Lop: Erratu gera, sarri askotan
egin ditugu okerrak
hainbeste aldiz galdu ditugu
guztion amets ederrak
ez ote dira zuzenduko inoiz
gure herri honen lerrak?
Gure katerik ez du hautsiko
euskaldun arteko gerrak.

Azp: Zabaldutzea ongi litake
guziak jakin dezaten
gauza hutsa da lo egitea
haren amets gozo baten
maitasun hori errezago da
izaten baino esaten
danak familiratuko ahal gera
anaiak esku ematen.

Lop: Besteen konduta juzkatutzeko
sarri gabiltza gertuta
ardi galduak ez dira oindik
artaldera agertu ta
maitasun hori jarri dezagun
bihotz denetan sartuta
Euskera eta askatasuna
denok helburu hartuta.

Azp: Muda litezke izakerak ta
muda litezke egunak
eta argira bihurtu ere bai
oraingo egualdi ilunak
beltzak badira aspalditxoan
ikusitzen ditugunak
anaiak alkar joka badabiltz
non konpondu euskaldunak?

Mota bereko saioak dira 1975eko uztailaren 5ean
Tolosan, OARGI taldeak antolatutako jaialdiko hauek.
Gai-jartzailea Juanjo Uria izan zen:

**Azpillaga eta Lopategi. Euskal Herria
iluntasunean bizi da. Ez dugu eguzkia
behar bezela, garbi, ikusten hodei eta
lainoz estalia dagoelako. Ea, galdera ho-
nen erantzuna hiruna bertsoan ematen
diguzuen: Noizko argia Euskal Herrian?**

Doinua: "Ume eder bat"

Azp: Joan daneko aspalditxoan
gaude ilunpe batian
argitasunik ez baita sartzen
ez lehio ta ez atian
ta gauza hauek nolanaahi dira
gure herrien kaltian
ta euskaldunak zer eingo degu?
Eutsi ahal degun artian.

Lop: Azpillagaren alimu horiek
dira oso begikuak
entzungo al ditu Tolosak eta
entzungo al ditu Jainkuak?
Gure ilunaren arrazoi denak
nola diran betikuak
eklipse haundia egiten baitu
palioan azpikuak.

Azp: Gure herriari gelditu gabe
egin daiegun omena
sortzen zaizkigun gazte jatorrak
nola baduten kemena
badakizute zer izaten dan
trumoiaren ondorena
gaur hodei baltzak dauzkagu baina,
badago itxaropena.

Lop: Itxaropena gure bihotzak
sentitutzen du oindio
hodeiarekin trumoi soinura
euria sarri dario
baina Tolosan gazte maiteak
jarri baitira serio
argi pizka bat sortuko al da
OARGI dala merio?

Azp: Aspaldi hontan ekintza dago
laguntasunen eskera
ta zerbait egin nahi duenentzat
orain badago aukera
bertsolariak gure herriaren
guardatzailiak gera
bertsolari bat bizi dan arte
ez da galduko euskera.

Lop: Gure bertsuak azaldu nahi du
zuen gogo amestia
erleak nola maitatzen ditun
lorea eta eztia
gaur Tolosarrak bezela biltzen
bada Euskal Herri guztia
iluna laister uxatuko da
sortuko da eguzkia.

Azpillaga, Lopategi, Mattin eta Xalbador. Anaiak izanik, muga batek banatzen gaitu. Batzuk hemen eta beste batzuk, berriz, mugaz bestalde bizi dira. Herri bat eta bi zati.

Azp: Hamaika aldiz hori dala-ta
ibilia naiz kezketan;
aldi batzutan esna naizela
ta bestetan ametsetan,
anaiak izan ta zertan jartzen
gaituzte zorigaitzetan?
Baina mugarik ez da aurkitzen
euskaldunen bihotzetan.

Lop: Gorputzarentzat ere mugarik
ez gendun izan behinola
gaur egunean apartatuak
jarri gaituzte gu hola
berdina degu hizkuntza eta
berdina degu odola
bi zati einda ez leike bizi
Euskal Herriko arbola.

Mat: Hori ikusten dadukan batek
besteik ezin du sinetsi
holako gauzik mundu guztian
inun ez baita ikusi
ama bera guk daukagu eta
lutuz behar dula jantzi
beraren umiak gera ta
bi auzotan behar bizi.

Xal: Bai muga batek zatitzen ditu
gure ontasun haundiak
gureak diren lur ta itsaso
gureak dira mendiak
bi aldetan xurgatzen'tuzte
kopet baten izerdiak
baina iguzki berak berotzen
derauzku bi alderdiak.

Azp: Egunen baten sortu liteke
gaur uste ez dan aukera
eztabaidatan bagabiltz ere
heldu gindezke pakera
hau inolatan ez da izango
gure herrien kaltera
ta zeinek daki zenbat gindezken
bageunde danok batera.

Lop: Sentitu nahi det nere anaien
bihotza eta usaia
egun haundi hau etorri arte
ni nola egon lasaia
artaldea da bi zatitan ta
erdi erdian etsaia
sortuko ahal da otso maltzurra
uxatu leiken artzaia!

Mat: Bidasoako muga zahar hori
euskaldunentzat kaltera
hori pentsatuz nere gogoa
nigartsu alde batera
hau baino gauza tristeagorik
gizon batentzat ote da
paperik gabe ezin joana
anaiak bisitatzera.

Xal: Anai tartean muga bat jarri
horra egin zuten marka
bihotzik duen anaiak hori
inoiz ez lezake barka
baina zorigaitzez guk ezin
egin deus mugaren aurka
baina bihotzez maitatu elgar
bizi gaitzen besarka.

**Azpillaga, Mattin, Lazkao-Txiki, Gar-
mendia eta Xalbador. Azken aldi honetan
asko erabilitako hitza; Amnistia edo as-
katasun osoa giltzapetuentzat.**

Azp: Geure denboran ezagutua
gure sorterri maitian
lehen eta orain makinatxo bat
daude loturik katian
nolanahi ere izan behar du
sinismenaren kaltian
fedea pizka bat dadukagunak
gogor altxatu gaitian
presorik ez litzateke behar
katolikuen tartian.

Mat: Umore onik ez da izaten
noski kartzela batian
ni ez naiz behin'e izandu baina
izandua naiz atian
gisa hortako leku txar hoiek
dirade gure kaltian
nik amnistia desiatzen det
bihotza bete-betian
txoria ere alaiago da
beraren libertatian

Laz: Gorroto edo zitalkeriai
gaude guztiok emanak
ai ze akatsa gauza denekin
konturatutzen ez danak
fedea santuan salbatzearren
lehen ibili ziranak
gizon bihurtuta Jauna hartzera
hor joaten dirade danak
baina etsai haiei barkatu zien
gurutz batean hil zanak.

Gar: Erromatikan urte santu bat
danantzako zala hobe
ta amnistia izango zala
aurtengo urte hontan lege
hainbat guraso, hainbat ezkongai
negar malkotan hor daude
bere maiteak espetxe baten
bat'e eguzkirik gabe
horientzako erruki gaitezen
gure anaiak dirade.

Xal: Bai egia da gure maiteak
higatzen espetxe baten
eta barkamen hitza aitatzen
ere hasi dira aurtan
baina nik galde hau egiten det
hobena nundik daukate?
uste dut enekin jaun-andreak
bat etorriko zerate
nor ikusi da inozentari
barkamenaren ematen?

Errenteria 1976ko apirilaren 25ean. Gai-jartzailea:
J.M. Aranalde.

Lazkao-txiki, Lazkano eta Azpillaga.
Badakizute gure arteko zorioneko demo-
krazi behar hontan herrietako alkateak
ere aukeratzen hasteko omen generala eta
bertsolariei galdetu behar diegu gauza
bat: ze kondiziotako gizonak behar diran
Euskal Herrian alkate izateko eta nork
izendatu behar dituan, beraz Lazkao-txi-
ki hasten da hiruna bertso kanta dezaten.

Ltx: Aspalditxoan arkitzen gera
itxaropenez beteak
hala dirudi, puskatzen doaz
lehen genduzkagun kateak
zabaltzearren Europa aldera
itxita dauden atea
eta herriak bereiz behar ditu
herrirako alkatea.

Laz: Herriko etxeak jokatu dute
oso jokabide motzez
izanez ere, bertako sillak
bete dirade arrotzez
zerbait eskatu behar badegu
demokraziaren hotsez
dedila herriak aukeratua
ta abertzalea bihotzez.

Azp: Gizona libre egina baitu
zeru-lurreko Jainkuak
alkate on bat izateko ere
behar ditugu botuak
berrogei urte hontan ziraden
fazismuak eindakuak
oaingo berriak izango ahal dira
lehengo horiek ainakuak.

Ltx: Oraindik zerbait urruti gaude
iritzi hori daukat nik
pizka batean ez da izango
guk deseatzten dugunik
bolada hontan herri batean
alkatea ez du indarrik
goikuak ere aukeratuak
ta ez alkatea bakarrik.

Laz: Hemen dagoan inortxok baldin
egin nahi badu alkate
kontseju hauxe eman nahi diot
bertso hau dala bitarte
alkartasuna errespetatu
ta zeure herria maite
hortaratzea nahi badezu
ikuluan sartu zaitte!

Azp: Alkate berri batzuek gaude
hemen jarri beharrian
demokrazia nahi bada izan
komeni dan indarrian
eginkizuna batek behar du
bera sortu zan herrian
alkate denak euskeraz jakin
bezate Euskal Herrian.

Ltx: Demokrazia bidean dala
telebisiok diote
nahiago nuke esaten dana
norbaitek bete baluke
baina oraindik gauz hortan bada
inork uste ez hainbat tarte
oraindik ere ez det sinisten
neronek ikusi arte.

Laz: Esan diguten demokrazia
badatorrela korrikan
baina askotan pentsatutzen det
hor badala okerrikan
gizonak gizon izan behar du
bai hemen ta bai Afrikan
demokrazia ez bedi izan
mingainetik bakarrikan.

Azp: Alkate hutsez bakarrik ezin
genezazkela indartu
beste gauza asko behar ditugu
atundu edo aldatu
preso zeudenak atera ez ta
gehiago barruan sartu
demokrazia hori danikan
ez dezatela pentsatu.

1976ko martxoaren 27an "24 ordu euskaraz" eguna antolatu zuten Loiola eta Donostiako Herri irratiek. Horri buruzko gaia jarri zien Aranaldek bertsolari hauei: Gorrotxategi, Lopategi, Jose Lizaso, Lazkao-Txiki, Lazkano eta Azpillaga.

Euskal Herriak ezagutu berria du egun bat famatua "24 ordu euskaraz" hori dela eta bertso bana kantatuko dute Gorrotxategi hasita nahi dutenari: antolatzaillei, hitzik esan ez duten erdal aldizkariari, negarrez, gaua ere, irratia entzuten pasa duten euskaldun finei...

Gor: Bi irratia bat egin eta
hoita lau ordu euskeran
mundu guztiai azaldu nahirik
oraindik nun bizi geran
baino ez gaitezen bertan itzaldu
ordu horien bukaeran
ia arnasa degun bitarte
euskaldun izaten geran.

Lop: Gaur euskalduna izate hori
ez da errez eta merke
Loiola eta Donostiatik
nahiko arduara ta neke
euskaltzaleak batu ezkeron
asko egin baiditeke
Euskal Herriko ordu guztiak
euskeraz behar luteke.

Liz: Arrats bat eta egun bat pasa
ginuzen goxo eztian
poza besterik ez zan sentitzen
ez gure bihotz garbian
askok diote egun haundi hoi
jarritzeko istorian
hoita lau ordu gutxitxo dira
behar da bizi guzian.

Ltx: Pixka banaka gora goaza
poliki-poliki txukun
egun hartako irratsaioa
barrura sartu zitzaigun
aspaldidanik horrelakorik
inork ez genduen entzun
ia hurrenguan urte osoa
euskeraz egiten degun.

Laz: Bi irriatiak nere ustetan
badituzte merituak
euskaldun asko egin ginaden
bihotzez erdibituak
berrogei urtez hoita lau ordu
eta gaude harrituak
hortikan pentsa zenbateraino
bizi geraden lotuak.

Azp: Martxoko hilaren hoita zazpia
ez da egunero izaten
hor ikusi da euskerarekin
zenbat lan egin lezakeen
hori aitatu ez duten danak
lotsa eduki dezaten
beste hogeita lau behar litzazke
“GORA EUSKADI” esaten.

Politika kontua agerian zen gai batzuetan. Beste batzuetan, gaiak hala derrigortzen ez bazuen ere, ber-

tsolariak adierazi nahi zuena esateko aprobetxatzen zuen. Hala, 1976ko maiatzaren 23an Arozamenari egin zitzaion omenaldian gai-jartzaileak gai hau jarri zien bertsolari guztiek bertso bana kanta zezaten. Azpillagaren bertsoa besterik ez dugu hona ekarri:

Zer eskatzen diozue Euskal Herriari?

Garai batean Euskal Herria
lanakin zeguan larri
askok kanpora alde egin zuan
hau ez al da penagarri?
behar litzake haiek guziak
beren herrira ekarri
ta kanpotarrak bialdu edo
euskaldun eginda jarri.

Adibide gehiago:

Markina, 1976-12-8.

Azpillaga puntua emanda:

Faltso ugari dira zintzoen itxuran

badakit, batzuk nola
ezautzen ditudan
txibaoen lanak egin
neguan ta udan
horiekin ezin leike
urrutira juan.

Durango, Arestiren omenez.

Gai-jartzailea: Abel Muniategi

Azpillaga oinak emanda: uste, nahaste, dituzte, gaituzte.

Askok txarrak ginala
ote zuen uste?
Horregatik jarri dabe
honenbeste nahaste
etxetik hartuta asko
barrura dituzte
makilaz jota hola
hilko al gaituzte?

Segura, 1976-6-10.

Gai-jartzailea: J.M. Iriondo.

Azpillaga oinak emanda: artian, kaltian, urtian, gaitian.

Larri zabiltzan Fueruak
bukatu artian
hori izan zan euskaldun
guzien kaltian
gabe biziak gera
gu ehun urtian
garaia da ta danok
saiatu gaitian.

Azken bi saio hauen artean 6 egun besterik ez ziren pasa. Garai jakin baten historiaren azterketa egiteko bertsolaritza oso tresna bizi eta baliagarria izan daiteke. Euskal gizartean zerbait mugitzen ari zela, ondoko bi saioek erakusten dute. Bi gai-jartzaileek, Muniategik eta Iriondok, aste berean, gai bera jarri baitzioten Azpillagari. Lehenean, bakarka eta bigarrenean, Larrañaga eta Agirrerekin batera. Azpillagaren bertsoak besterik ez ditugu idatziko.

Durango: Bizkaian eta Gipuzkuan zenbait aiuntamentu Foru eske dabil.

1

Euskal Herria zelan bizi zan
 entzun izan dogu sarri
 bere ohitura ta izatetan
 ez orain bezela larri
 aiuntamentu danak alkartu
 ta behar ditugu jarri
 lehen galdu ziran Fueroak barriz
 nahi baditugu ekarri.

2

Canovas zanak eindako lanak
 dirade aipatzekoak
 Euskal herriko Fueroak eta
 nortasuna galtzekoak
 gaur ere kontuz ibil zaitezte
 euskaldun bihotzekoak
 gure artean asko baitira
 Canovasen antzekoak.

3

Lagi zahar eta Fueroakin
 gendun lehengo batasuna
 Euskal Herriak hortatik sortu
 leike lehengo osasuna
 mundu guzian entzun dagien
 didarraren oihartzuna
 esan dagigun: "Gora Euskadi
 ta euskaldunen nortasuna!"

**Segura: Gure aiuntamentuak, besteak
beste Segurakoa, Lege Zaharren eske ha-
siak dira.**

1

Pozez beterik egon litake
herri hontako jentea
herriko etxea kontseilulari
onekin baita betea
lehengo Lege Zahar hoietako ere
badago borondatea
hamaika herrik hartuko luke
hemen dagon alkatea.

2

Makina batek: "zer gauz dan hori?"
Egingo zuten galdera
ehun urtean gure herri zahar hau
galtzen joanda gainbehera
Fuero zaharrak ekarri eta
ekonomia aldera
lehenago baino askoz hobeki
orduan biziko gera.

3

Uztailaren hoita batian
une ikaragarriak
ehun urte dira Fueruak galdu
zituela aberriak
aiuntamentu ta gainontzeko
daude begira jarriak
emango'ituzte denok bildurik
eskutzen badu herriak.

Eskaera horrek, nonbait, ez zuen erantzun handirik izan. Sei hilabete ondoren 1976ko abenduaren 18an, Azpeitian Txapeli egindako omenaldian, gai-jartzaileak, Iriondo berak, Fueroen gainean kantatzea eskatu zion:

Gure Fueruak horrela geldituko ote dira?

1

Uztailaren hogei ta batak
zitun pozezko malkoak
hainbeste ginan Bergara aldera
orduan juandakoak
Canovas zanak Euskal Herriai
kenduak Estatutoak
gaur'e hamaika ikusten dira
Canovas bezelakoak.

2

Ehun urtean gure Fueroak
gu ez gaituzte zerbitzen
kendu zituna gaiztua zala
berak ai dira argitzen
oraingo hauek hobeak diranik
ez zaizkigu iruditzen
diktadoreko zerbitzaileak
gaur'e dauzkagu agintzen.

3

Ekonomia behar genduke
Espainitikan aparte
ta Euskal Herriko mutil gazteak
soldaduzka hemen bete
Fueroa zer dan galdetzen bada
hori guztia daukate
hemen ez dago demokrazirik
Fueruak ekarri arte.

Saio honetan, Lopategi eta Azpillaga elkarrekin, politikaz jarri zituen Iriondok.

**Galtzaileak eta irabazleak elkartzea
benetan gauza zaila omen da.**

Lop: “No” omen gendun diktadura ta
“Si” omen zan demokrazi
bien erdian zer gordetzen zan
berak ez zekiten kasi
kalamidade jende guziak
hor jardun dira “No” ta “Si”
gure botoa nahi zuten baina
ez gaituzte irabazi.

Azp: Demokrazia sortu nahiean
badabil planta edarrik
Errepublika denboran ere
ez zan faltatzen indarrik
miloi batetik gora hil ziran
hiru-lau ez ziran bakarrik
horretarako ez gendun izan
soldaduak hil beharrik

Lop: Errepublika zuzendutzea
omen gendun oso zaila
anbiziuan jeiki zan hura
ez gendun gizon umila
gerran milioi bat hil zituzten ta
gerra ostean berrehun mila
berak etorri behar luteke
gure amnistiaren bila.

Azp: Pakean zegon Republika ta
hor jarri zuten aidian
beldurrarekin egonak gera
joan daneko gizaldian
notizi hauek jakinda danak
galdetze'ute aspaldian
kontaktzen diran terrorista horiek
Espainian zeintzu dian?

Lop: Armak harturik jeiki badira
dozen erdi gazte bero
izena laster jartzen diete
gaur kriminal, bihar ero.
Orain berrogei urte ere ez zun
inork gerrarik espero
terrorismoa libre ote da
handian eginez gero?

Azp: Berrogei urte hontan egin da
makinatxo bat pekatu
probintzietan hain maite diran
gauza asko debekatu
lehenago goian ziraden gauzak
ezkutatu ta apurtu
hau egin duten irabazleekin
inor ez liteke batu.

Lop: Republikako botaziua
gogoratzea komeni
traiziuan lagun zituzten
Hitler eta Mussolini
demokrazia deitzen bazaio
beraien reforma honi
gerrakin zeren bila jun ziran
jakin nahiean nago ni.

Azp: Aspalditxoan izandu gera
arrazoi txarrak aitzeko
berrogei urte pasa ditugu
Espainia zerbitzeko
garaia degu euskaldun danak
elkarrengana biltzeko
hainbat urtian erdibituta
dagon herria batzeko.

1976ko abenduaren 8an itxaropentsu azaldu zen
Azpillaga Markinako frontoira. Hona agurra:

Gerra aroko gizonak gara
ohituta gagoz danian
haundi samarrak hazi bagera
txit gaizki hazi ginian
etsaia beti gu menderatzen
ari zan eginahalian
berrogei urte pasa ditugu
eutsi ta eutsi lanian
poztu zaitezte euskaltzaleak
pasa gera txarrenian.

Hilabete bat geroago, 1977ko urtarrilaren 16an, Donostian Jose Lizasori omenaldia eskaini zitzaion. Ondorengo saio honek garai hartako pasadizo bat oinarri duela, ederki adierazten digu garai hartako giroa. Gai-jartzailea J.M. Iriondo izan zen.

Azpillaga, Lazkano eta Lopategi. Orain urte bete aukeratu ziren alkate haietako batzuek, gaur Etxarri-Aranazen biltzea nahi zuten.

Azp: Orain urtea alkate sail bat izan zen aukeratua ta talde horren indarra dago elkarrengana lotua aidean dabiltz ministro danak, Suarez, ikaratua; urtea ez da luzea baina eman du bere frutua.

Laz: Alkate mailan Etxarrin zegon egun haundi bat jarria baina goitikan zapaldu dute hau gauza negargarria! Oraindik ere nunbait lotuta euki nahi dute herria hau izango da reformarako egin dan lege berria.

Lop: Alkate jator hoiek reforma
egin nahi zuten Euskadin
ta bazekiten zazpi probintzi
guziak zirala berdin
lehengo batzarra Bergaran zuten,
gaur bigarrena Etxarrin
Naparrua ere Euskadi dala
dudarik izan ez dedin.

Azp: Alkate hoiek iritsi ez ta ere
dijoaz Etxarri aldera
danak dakigu alde zurretik
egindako eskaera
autonomia eta Fueruak
preso guziak kalera
hori guzia iritsiko da
denok alkartzen bagera.

Laz: Nork uste zuen egun modu hau
ez zigutela utziko
pozten hasiak ginaden, baina,
nahiko denbora gutxiko
bainan dabilta beren arrazoi
dabilta kontzientziko
diktaduraren umeak ez du
diktadurarik hautsiko.

Lop: Ta diktadura hautsitzekotan
behar degu amnistia,
gero Lege Zahar ta hizkuntzakin
geure ikurrina amestia
diktaduraren itzalarekin
alper-alperrik guztia
Madrilek inoiz ez du sortuko
Euskadiko eguzkia.

- Azp: Radio Paris ere lehengoan
 esplikatzen da jarduna
 ederki asko esanda gero
 alkate talde hau juna
 gobernadore bat denontzako
 eta bera euskalduna
 gainera, izan beharko luke
 guk aukeratzen deguna.
- Laz: Iruñeatikan gogor mintzatu
 da lehenguan Martín Villa
 gu bonbarekin jartzen degula
 ikurrinaren makila
 hemendik oihu egin nahi diot
 eta kontura dedila
 guri pakean uzten bazaigu
 ez goaz gerraren bila.
- Lop: Jauregi jauna ez zaite juan
 berrien berri Madrila
 han oniritzi ugari eta
 gaisetikan txalo pila
 Suarez etorri nahian zegola
 zetorrela Martín Villa
 hoiek ez dira emanzeak
 hoiek beti datoz bila.

1977an legeztatu zuten ikurrina. Otsailaren 5ean,
 Zestoan, honela ekin zion Azpillagak:

Lehendabiziko agurtu nahi det
 zuen Zestuako herria
 lehenago baino urduriago
 nola dagan jarria
 bi ikurrinen erdian nago
 ez da oraingo berria
 zabarkeria ez dedila izan
 jendearen egarria
 geureak dira zaindu ditzagun
 euskera ta Euskal Herria.

Ikurrina batasun ikurra ere bazen. 1977ko otsailaren 26an hilabete batzuk lehenago hil ziren Arozamena eta Xalbador gogoan, saio handi bat egin zen Hernaniko Galarretan.

Azpillaga, Lopategi eta Amuriza. Goazen denok ikurrinaren atzetik

Azp: Hainbat urtetan itxaron gendun
irudi bat da agiri
askok galdutzat bazuan ere
oraindik ez da erori
artistak eta kirolariak
kantore ta bertsolari
ikurrin baten biltzen bagera
askatuko da Euskadi.

Lop: Ikurrin bakar hori hemen da
lore bat litzakeen gisan
urte honetan garaiz aurretik
saratsa loretu baizan
ni're otoika mintzo natzaio
izar gidari bailitzan
Euskal Herriko indar guztiak
lehenbailehen alkartu ditzan.

Amu: Batasunaren ezaugarria
hemen dago ikurrina
gorria eguzkiz, zuria ilargiz
berdea izerdiz egina
badakit hori sinbolo huts bat
besterik ez dela baina
horixe ere ez zen izango
mantso ibili bagina.

Azp: Pentsakizunak ugari daude
hau da danen nagusia
ikurrin baten jabe generala
asabetan ikasia
bera dala-ta makina batek
eman izan du bizia
orain frutuen zain hemen gaude
botata dago hazia.

Lop: Hazia bota, frutua dator
begiratu lore horri
Ebroren behetik berdina dira
guretzat zuri eta gorri
Afrika aldetik gugana ez da
gauz onik inoiz etorri
Europarako batu ditzagun
gure zazpi Euskal Herri.

Amu: European sartu nahi dugu baina
ibil gaitzen arretan
askatasuna falta baitzaigu
gurutze bikoitz horretan
geuk agintzea geuk landutako
lantegi eta lurretan
Euskadirentzat ikurrin hori
eskatzen dut Galarretan.

Azp: Egia da, bai, sartu nahi dugu
Europaren babesean
hiru kolore horiek dauzkagu
guk guziok bihotzean
baina taldeka ibili gabe
bildurik anai antzean
eta orduan juango gera
ikurrin baten atzean.

Lop: Ikurrin baten batasunean
dator askatasuna're
bestela astindu behar ditugu
berrien berri goi ta behe
herria herri, gizonak gizon
geure kondairaren jabe,
Europar sartu nahi dugu baina
nortasuna galdu gabe.

Amu: Nortasun hori hartzeko noizbait
uste dut garaia zala
ikurrin hutsa izan liteke
mami gabeko azala
guk nahi duguna Euskal Herriak
herri libre bat bezala
bere burua gobernatzeko
indarra euki dezala.

Ikurrina legeztatua, Autonomia zen kezketako bat.
1977ko abenduaren 17a. Txapel gogoan. Gai-jartzailea:
Iriondo

**Azpillaga eta Lopategi. Heldu ezinik
dabilen Autonomia jaunari bertsoak.**

Azp: Aitatu duen izena dabil
etorri eta juaten
Kataluniari eman diote
pasatu dan egun baten
Euskadirentzat hor ari ziran
baietz ta baietz esaten
baina gurekin ohituta daude
agindu ta ez ematen.

Lop: Beti haizeak eramaten du
agindua ta esana
hargatik dago gaur samindurik
gure Euskal Herri dana
konparazioz ikusten det nik
autonomiaren plana
beti partoan dagon umea
ta inoiz jaiotzen ez dana.

Azp: Autonomia horrek badauka
guretzat hainbat bertute
eta bere zain gu hemen gaude
nik ez dakit zenbat urte!
Gerra ezkerro hemengo diru
danak eraman dituzte
txarrak generala baina, halare,
berentzako nahi gaituzte.

Lop: Katalan hoiei eman zioten
hargatik dabilta pozik
euskaldunentzat lehenago ere
nola ez zuten bihotzik
asko agintzen digute baina,
uzten gaituzte biluzik
euskaldunentzat ez dago ezer
gerra bidez izan ezik.

Azp: Nahiz ta Madrilen dagon oraindik
Euskal Herriaren giltza
autonomia dala ta ez dala
ez dirade gutxi mintza
Claverok ere hemen eman du
formalidatezko hitza
Naparru gabe nahi baldin bada
alper-alperrik dabilta.

Lop: Geure herrian kaltegarriak
baititugu zenbait txori
madrildar hoién laguntasunez
jarri direlako lodi
inoiz gugana etortzekotan
geure autonomi hori
abisu on bat eman zaiogun
Naparruako Burgori.

1976an itxaropentsu azaldu zen Azpillaga, etsi samar agertu zen urte t'erdi geroago Ahetzen. 1978ko apirilaren 30a. Mattini omenaldia. Gai-jartzailea: Itzaina.

Azpillaga: Zer berri dago hegoaldean?

1

Hegoaldean zer berri dagon
eman nahi dizuet parte
alde batzuek badira ere
denak behar alkar maite
etsairik sortzen ez baldin bada
anai artean gerrate
guk horrelaxe ibili behar
zazpiak bat egin arte.

2

Hemen falta da gidari on bat,
zuzentzen duan izarra
Euskal Herria bildu behar du
bilkura edo biltzarra
ta nahi deguna bat egitea
hegoa eta iparra
eta orduan zuzenduko da
gure Euskal Herri zaharra.

Soraluze. 1978ko uztailaren 7a. Iriondo gai jartzai-leak orduko berria jarri zien gaitzat:

**Azpillaga eta Lopategi. Heriotz zigorra
konstituziotik kendu dute.**

Azp: Konstituzio hori dala ta
etorria da berria
hiltzeko kargua kendu dala
ta jendearen irria
gizona hola hiltzea ere
ez al da negargarria?
Kendu beharrik ez zan izango
lehendik ez bazan jarria.

Lop: Holako penik ez gendun behar
lehen ere lege justuan
estuasuak pasiak dira
Bizkaia ta Gipuzkuan
“Pena de muerte” kendu dutela
Konstituzio prestuan
baina ez nuke nik erori nahi
militar hoi en eskuan.

Azp: Halare konstituzio hori
ez degu gora altxako
jende ederra arkitzen baita
faltsokerizko fartsako
nik ez nuke nahi hai en eskutik
sartu ta egon mantxako
askatasunik ez dute emango
Euskal Herriarentzako.

Lop: Gure herriari begiratzean
hoien pausuak kaltera
Askatasuna noiz helduko da?
Euskaldun danen galdera
Amnistia ta Demokrazian
sasoian sartu al gera?
Euskadientzat Amnisti hori
inoiz helduko ote da?

Azp: “Pena de muerte” kendu dutela
ez da, ez, berri tristia
“indar berriak” deitzen zaienak
Euskadikuak ez dia
ez dakit zeinek zuzendu leiken
hemen dabilen nahastia
galde dezaie zeinek hil duan
Etxaberen emazia.

Lop: Eskuma aldetik sortua baitzen
heriotzaren girua
ondo dakigu nundik heldu zen
metrailetaren tirua.
Horrez aparte kultura aldetik,
edozein da testigua,
Euskerarentzat ez dute kendu
“Pena Muerte” kastigua.

Azp: Aldaketaren susmo batzuek
badauzkagu ezagunak
ez dira alperrik parlamentuan
egiten diran jardunak
bukatu ziran Carrero Blanco
eta Francoren egunak
haiek joan ziran baina oraindik
hemen dabilza lagunak.

Lop: Ta uste dute euskaldunak'e
lehengo tontuak garela
bota dituzten gezur guztiak
sinisturikan berela
lehengo herentziz jokatzten dute
ikusten degu horrela
Euskadirentzat gauza onikan
Madritik ez datorrela.

Lopategi eta Azpillaga gaiak markatutako bikotea
dela erakutsi dugu. Hala ere, ez dute politika gai baka-

rra izan eta umorezko saio batzuk ere kantatu izan dituzte. Hona zenbait adibide:

Aia, 1979ko martxoaren 18a.

Etxeberria, Lopategi eta Azpillaga: “Bi bizkaitar hauek borrokan ai ziren Etxeberria sartu da tartean eta azkenean Etxeberriak hartu ditu.

EtX: Beti dator finena
munduan galtzea
lotsa da markatuta
hemen azaltzea
gaur juan naiz bi asto
apartatutzea
neronei gertatu zait
kristonak hartzea.

Lop: Burrukan genbiltzela
gu biok batian
apartatzen zentozen
zu borondatian
eta kristonak hartu
gero erreमतian
berriz ez zaitez sartu
ijito tartian.

Azp: Etxebarriai eman
nahi diot aitzera
zergatik iritsiak
geraden heltzera
lagun bezela juan
gera probatzera
tonto arraiua hemen
zertan sartu zera?

Etx: Gauza behar dan lekun
nahi nuke berezi
ez det pentsatu broman
diradenik hasi
zilipurdika biak
hantxe jo ta hautsi
gaurko egunak ez zuen
hoinbeste merezi.

Lop: Hasarrea hain errez
sortzen da munduan
guk ere hizbide bat
alkarraz genduan
kristonak hartu ditu
Patzik leponduan
saltserua zera ta
merezi zenduan.

Azp: Listotzea merezi
du bere tontuan
orain guk sartu behar
deu eskarmentuan
gu apartatzen berriz
ibili kontuan
boxeoan genbiltzen
entrenamentuan.

Etx: Edozer egiten du
gizon ezerezak
bat bezela're biak
ziran aldebresak
azkenez nei berotu
bi belarri ertzak
ederra eman didate
zuriak ta beltzak!

Lop: Zuriak du indarra
ta beltzak kolera
erdipurdiko honentzat
gertatu galera
hartu du eskuma aldetik
ta ezker aldera
zerbitua zaude ta
zoaz ospitalera.

Azp: Ezker ta eskubiak
biak zabaldua
noizik behinian geldi
gengozen helduta
jotzen txarrak gerala
Patxiren konduta
baina bera gelditu
kristonak hartuta.

Aia, 1981eko abuztuaren 7a.

**Azpillaga eta Lopategi. Lopategiri afa-
riak kalte egin omen dio. Koltza olioa ote?**

Azp: Ikusi degu Lopategiren
gogoa ta pikardia
honuntz etorri baino aurretik
irten dio izardia
juxtu-juxtuan zaude tente ta
kolore berde berdia
askoz hobeto egongo zinan
jan bazenduan erdia.

Lop: Haundi samarra zen afaria
ta ez det ordaindu merke
dijestioan badaukat orain
nahiko izerdi ta neke
nere albokoak ze osasuna
nere gaitz guzien truke!
Harri koxkorrak janda ere honi
ondo egingo lioke.

Azp: Txuleta haundia eman diote
ta saiatu da janian
hamaika aldiz ibili gera
jaten gu biok lanian
baina lagunduko liokenik
ez zeukan aldamenian
Lopategi hau ez da gaixotzen
nerekin dabilenian.

Lop: Beraz, kalteak azaldu behar
Lopategiren muturrak
nere lagunak ditun jokerak
ez ziran inoiz maltzurak
nik mami hutsak jan ditut baina
honek mami ta hezurak
baina kalterik ez du sekula
hau bezelako zakurrak.

Azp: Txuleta haundi bat zuan aurrian
hura zan haragi pila!
Jan ezinian gogor ari zan
triste ta isil-isila
disimulatzen gero atzetik
eskatu du manzanila
hainbat sufritzen ez dakiena
etxera joan dedila!

Lop: Ni bezelako gizon klasiak
tabernarako ez dia
alperrik galdu behar azkenian
hain afari garestia
hainbat ordaindu ta kalterako
gertatu baitzait guztia
eskerrak honek jan dizkidala
kafia eta postria.

Amerika

Beste bertsolari batzuen modura Azpillaga joan izan da Amerikako euskaldun anai-arrebak bisitatzera. Lehenengo aldia 1974an Lopategirekin eta bigarrena Jon Enbeitarekin. Hirugarren baterako deia ere jaso zuen:

Amuriza zan joatekoa baina ez zioten laga, kartzelatik atera zenean ez omen zituen firmatu behar zituen paperak eta ez zioten joateko baimenik eman. Gero niri esan zidaten, baina, orduan egundoko saio pila neuzkan aginduta eta ez nintzen joan.

Lehenengo aldian hilabete eman zuten Lopategi eta biok Amerikan. Arregi, Berriatuako bertsolaria ere joan zen baina ez bertsotara. Amerikan Jess Lopategi bizitzen, Jonen anaia. Jessek deitu zituen Elkoko Euskal Jaiarako. Amerika urruti dela eta, behin joanda aprobetxatu egin behar omen da. Hara hemen, Azpillagak eta Lopategik egin zuten ibilaldi luzea:

Elko Nevadan dago. Baina leku askotan kantatu genuen. San Pedro egunean Boisera (Idaho) joan ginen kantura. Euskal jaiak bukatu zirenean, Washintong-eraman gintuzten. Euskaldun mojak ziren komentu batean lo egin eta bertako euskaldunekin ibili ginen. Handik San Frantziskora, bertan 3 egun pasa ondoren Maxwell-era joan ginen. Beste gau baten, hainbeste artzain euskaldunekin afaria egin gendun. Herriaren izenaz ez naiz gogoratzen, izen zailegia zuen, hangoak izen arraroak dira. Las Vegas-era joatekoak ginen. Las Vegas-en hainbeste pilotari ziren gure zain, Ireneo Ajuria tartean. Billeteak eskuan genituen arren, Sakramenton billeteak aldatu eta jarraitu egin genuen. Buenamuka-ra deitu ziguten. Hemendik Elkora atzera; azken afaria egin eta



Elko (EEBB) 1974. Azpillaga, Lopategi eta Arregi.

Denver-era, han dana abioiez egiten da. Handik New York-era eta Madrilera.

1986an berriz bueltatu zen.

Oraingo honetan Boisera joan ginen eta inguruko herri txikietan ibili ginen. Kotxea hartuta, hango lagunekin ederki pasa genitun 12 bat egun. Bertan zegoen Mugairiko bertsolari batekin bertsotan egin genuen, Goikotxearekin. Honekin, hemen ere, Euskal Herrian, bertsotan eginda nago.

Amerikako ibilaldiak, bai bertso jarrietan baita bat-batean, kantatu ditu:

Lehenengo saioa 1980an argitaratutako kasetean grabatua da:

Arregi, Lopategi eta Azpillaga Ameriketara joan ziren bertsotara. Handik bueltan bertso hauek jarri zizkien hango euskaldunei.

1

Mila bederatzi ehun hiru hoge
 hamalagarren urtean
 hilabete bat pasa genduen
 Amerikako partean
 bihotza triste bazegon ere
 Euskal Herritik joatean
 ai, zer egunak pasa genitun
 euskaldunekin batean!

2

Ekain ilaren hogeitalauan
 etxetik ginan atera
 airean azkar iritsi ginan
 hango lagunen artera
 deitu ziguten bertsoen bidez
 besarkada ematera
 berriro ere joan liteke
 halako toki batera.

3

Euskaldun batek lana bilatzen
 dauka gauzik errezena
 artzaintzan eta nekazaritzan
 hain gera jende zuzena.
 Agintariak somatu dute
 oso jator dabiltzena
 gorengo mailan aurkitzen da han
 euskaldunaren izena.

4

Iparraldean gehientsuena
 ikusi izan genduan
 egiz aitortu beharra dago
 zeinen ederra daguan
 gazte aroko lagun jator bat
 esaten somatu nuan:
 "Hau ona baina Euskal Herria
 bakarra dago munduan"

5

Basomortuan ardiak zaintzen
bakarka ohi dira jarri
begietatik negar malkoa
eta arnas estua sarri
ezagun dute nolatan dauden
maitasunaren egarri
dolar askorik ez bada ere
osasun ona ekarri.

6

Amerikako anai-arrebak
heldutzean agurrari
aitzera eman beharra dago
zuen bihotz samurrari
haurrak besarka ematen dion
bezela bere amari
eman beharra daukazitela
sortu zintuzten lurrari.

Leitza, 1975eko martxoaren 2a. Manuel Lasarteri
omenaldia. Gai-jartzailea: J.M. Iriondo.

**Azpillaga eta Lopategi. Lehengo urte-
an (1974ean) biak Ameriketan izan ziren
hango euskaldunak koplatzen. Badakit
esan ezin litezkeen gauzak badirala bai-
na han zer moduz ibili zineten kontatu
behar diguzue bertso batzuetan.**

Azp: Amerikara bertsolaria
edonoiz ez da juaten
nahi eta ere juateko era
ez baita beti izaten
saiatu ginan golfokerian
berdin jaten ta edaten
baina ezingo gerade hasi
eindako danak esaten.

Lop: Hango anaien deia ukatzen
hasteko ez nuen bihotzik
zer bizimodu izan genduen
esateko ez det lotsik
mundu berri bat ezautu nahi ta
hara joan ginen pozik
gauza guztiak probatu nitun
lan kontuak izan ezik.

Azp: Lopategi hau hemengo gisa
han'e saiatu zan tinko
esan ziteken hangoa zala
edo joan zala betiko
nola beltza dan indioak'e
hau hartu zuten begiko
nerekin jua ez baldin balitz
honuntz ez zan etorriko.

Lop: Ai zer zintzoa degun lagun hau
besteen konduktak ematen!
Baina oin arte ez zaigu hasi
bere kontuak esaten
zur baitzebilen lore polit bat
beretzako nun zegokeen
Azpillagari "Palo Blanco"ren
izena jarri zioten.

Azp: Inolaz ere ezin gindezke
ibili bihotz minduan
hiru-lau lagun genituela
hantxe ibili ninduan
monumentu ta gauza haundiak
han baziren inguruan
baina Euskal Herri bakarra dago
gurea hau da munduan.



Elko (EEB3). Lopategi, Azpillaga eta Arregi ikurrinarekin.
Hego Euskal Herrian debekatua zegoen garaian.

Lop: Arkitu gendun Ameriketari
euskaldun hainbat erreztu
nolako poza hartutzen zuten
ez leike inola sinestu
nahiz ta bertsuak erruz kantatu
ta dolar batzuekin poztu
sortu ginuzen txoko honekin
sekulan ez ginen ahaztu.

**Azpillaga eta Lazkano. Duela urte bat
inguru biok joan zineten Ameriketara.
Ez alkarrekin baina denbora beretsuan.
Hemengo Napar aldetik hainbat eus-
kaldun ikusiko zenduten han Amerike-
tan artzai eta beste batzuk beste lane-
tan; zer egoeratan ikusi dituzue hango
euskaldunak?**

Azp: Eman beharra dadukagula
Amerikan notizia
orain bi urte Iparraldea
gehiena nuen pasia
eta ez dakit zenbat napar nik
ote nuen ikusia
haruntz joaten dan naparrarentzat
han errez dago bizia.

Laz: Sasoian kezka sentitu zuten
eta hau nahi zuten kendu.
Bizi beharrak eragin eta
Amerikara aldendu
mendi tartean hantxe dabilta
ardik zaindu ta mantendu
mendi tartean jaioa danak
mendia maitatutzen du.

Azp: Haiekin bildu eta pasatu
genduan egun baporik
ezin baztertu Gipuzkoa ta
Bizkaiatik joandakorik
naparra beti mendizalea
ta ezin ahaztu lehenokorik
artzaintzan eta rantxotan ez da
naparrak bezelakorik.

Laz: Esan bezela menditar danak
begiratzen du mendira
baina naparrun behar zutenak
zoritxarrean han dira
lau sos bai baina bizi dirade
beren lurrari begira
gaur frontoi hontan izango ziran
Naparrun bizi balira.

Azp: Han'e euskeraz mintzatzen dira
nunahi bertso kantatuta
eta pozikan handina dute
elkarrengana batuta
ahal duten dana aurreratzeko
menditara baztertuta
bihar edo etzi hemen ditugu
dolar pila bat hartuta.

Laz: Galdetzen zuten Euskal Herria
al dabil jator antzian?
Guk esan diou: "Gaurkoz badago
nahiko era narratsian,
etsai gaiztoak etorri eta
jabetu dira etxian"
Negar malkoak bota zituzten
gauz hoitaz enteratzian.

Bertso eskola

Azpillaga bertsolaria ez da bertsoak kantatzera mugatu. Euskara eta Bertsolaritza sustatzeko ahaleginak ere egin ditu. Mutrikuko ikastolaren sorreran parte hartzeaz gain, bertso eskolari ere bultzada handia eman zion:

Nik banuen gogo horretarako baina ez nuen ikusten inor gogorik zeukanik. Behin Xabier Uranga etorri zitzaidan Mutrikun bertso eskola bat ipini behar litzatekeela eta hark egin zituen udaletxeko harremanak, gero Goizeko Izarra ikastolarekin ere bai, lokal hau utzi ziguten eta orain dela 11 urte hasi ginen, 1989an. Udaletxeak laguntza pixka bat eman zigun eta hau ere badoa aurrera.

Mutrikuko Udalak laguntza handia ematen dio Bertso Eskolari eta, ordainez, Bertso eskolaren esku dira urte osoko bertso saioen antolaketa: Otsaileko Bertsolari Gazteen jaialdia, Santa Eskea, Udaberriko bertso afaria, Kalbariotako jaialdia, ...

Gainera bertsolari gazteak sortu dira Bertso eskola-tik. Dagoeneko badira Mutrikuko beharrak ondo betetzeko lain, eta nork daki aurrerantzean noraino irits daitezkeen.

Bertso eskolak bere ibilbideari ekin zionetik Azpillaga astero-astero joan ohi da eta bere ezagutza eta laguntza ematen dio. Gazteak animatu eta beraiekin kantatzen du. Ordainez, gazteek eskertu eta benetan estimatzen dute bertsolaritzaren izar batek beraiekiko duen gertutasuna.

Ondarroako Leire eta Urki Bilbao neba-arrebak ere Mutrikuko eskolan jardun izan dira.

1998ko abenduaren 19an, Mutrikun, umoretsu kantatu zuten bertso eskolako gazte batzuek Azpillaga gai zutela.

Iñigo Arrizabalaga, Egoitz Alkorta "Beano", Leire Bilbao eta Urki Bilbao

Azpillagari monumentua egin behar diotela eta, non egingo den erabakitzen ari dira.

Doinua: Orbelak airez aire

Arr: Goiko plaza erdian
ezin da kokatu
bestela kotxerikan
ezin aparkatu.

Bea: Ondarroa da berez
hain herri estua
beraz han ipintzea
ez da hain justua.

Lei: Monumentua egin
behar bada neurrika
Ondarrutik ikusi
Mutrikun jarrita.

Urk: Nik beste arrazoi bat
emango dut bapo
bi egin ditzatela
herri bakoitzerako.

Arr: Nahi badegu guk jarri
edozein tokitan
dietan jarriko degu
egin aurretikan.

Bea: Uste dut galderetan
nahastuta nagola
Mutrikuarra izanik
Ondarruan, nola?

Lei: Bere haunditasuna,
esango dut ozen,
monumentu batean
ez dela kabitzen.

Urk: Beste ideia bat be
badaukat betea
justu muga erdian
hori ipintzea.

Arr: Leiren intentzioa
oraintxe igarri
Mutrikun ez dagola
horrenbeste harri.

Bea: Gauza bat esaten dit
neronen barrenak
nekatu egin behar du
egin behar duenak.

Arr: Bat'e ez estorbatzeko
behar dan bezela
etxeko ate aurrean
jarri dezatela.

Bea: Ate aurrean bere
itxura jarrita
Ondarrutar denentzat
atea itxita.

Lei: Azpillagai begira
esango dut hara!
bizirik dagola be
monumentala da!

Urk: Bere haunditasunak
du hainbat bertute
hiru eskultorek edo
ein beharko dute.

Arr: Konturatu naiz lana
alperrikan dela
disekatuko degu
txakurrak bezela.

Bea: Entzun dituzu neska
hark esandakoak
emozionauta zaude
sikatu malkoak.

Lei: Monumentua behar
bada eraikitzeko
Gughemhein beharko da
bertan kabitzeko.

Urk: Zer egin behar dugun
hori dut igarri
Txurruka plaza kendu
ta Azpillaga jarri.

Donostiako omenaldia egin zitzaionean 2 urte falta ziren bertso eskola sortzeko baina Mutrikuko ikastolak opariak eta bertso bat eskaini nahi izan zion. Bertsoa, gerora bertso eskolako ikaslea ere izango zen ikastolako ikasle batek kantatu zion, Mutrikuko J.M. Arrizabalaga "Erdikua" bertsolariaren semea den Oier Arrizabalagak

Nik ere danen artian
behar det kantatu
Azpillagaren omenez
pozik gera batu
geure oparitxo
hemen dago gertu
Mutrikuko Ikastolan
izenean hartu.

Omenaldiak

Herri jatorra denak badaki merezi duten bere seme-alabak omentzen. Omenaldietan bertsolariak izaten dira herriaren ahotsa. Bere bidez esaten ohi diegu omen-duei zenbat, zergatik estimatzen ditugun eta gainontzekoak. Ez da erreza izango bakoitzari berea esatea, sentitzen den moduan. Baina bertsolariak horregatik dira bertsolari.

Azpillagari, bestei bezala, tokatu zaio omenaldietan parte hartzea. Hona hemen adibide batzuk.

Manuel Lasarteri.

Leitza, 1975eko martxoaren 2a: Lazkao- Txiki, Azpillaga eta Lopategi.

Laz: Sekula santan izan ote da
horrelako jai mardula?
ikusitzen da alde danetan
lagunak badituzula
pentsatu guk'e bihotz barrendik
Manuel maite degula
ni Jaungoikoa baldin banitza
ez nuke hilko sekula.

Azp: Nik ere berdin agurtutzen det
aspaldiko lagun zaharra
malda hauetan bizi izana
hain bertsolari edarra
gaur Gipuzkoak babestutzen du
baina jaiotzez Leitzarra
horregatikan deitzen diote
Naparruako izarra.

Lop: Hain zuzen ere izartxo batez
deitu zidan honuntz neri
Zaldibar eta Gernika aldetik
dakarzkiz zenbait agiri
mila zorion zuri Lasarte
adiskide maite hori
eta haritzan lore berriak
Naparru herri zaharrari

Laz: O senideak alde hontara
guk ekarri degun poza!
Hemen utzi nahi degu burua
edo eztarriko boza
ikusitzen da, Manuelekin
dago Leitzako bihotza
zu jaio zinan sehaskatxoa
oraindik ez dago hotza.

Azp: Lasarte honek bere denboran
ez al du egin beria?
Hogeita hamar urtean kantu
kantari dagon txoria
hemendik mila urtera ere
euskeraz mintzo badira
seguru aski oroituko da
Lasarte bertsolaria.

Lop: Santxo zaharraren odol berria
hementxe baitzen jaiua
Gipuzkuara joan ta han egin
hain bertsolari iaiua
itxaropenak zabaldu du gaur
itxita zegon lehiua
Naparru zaharrak jaurti baitigu
batasunaren oihua.

Laz: Leitza maitea iruditxo bat
hortxe diozu ezarri
ondorengoak jakin dezaten
lehen pasatakoen berri
orain haragiz bizi zerana
gerorako hor da harri
Leitza ta denok izan dezagun
betiko oroimengarri.

Azp: Umiltasunik haundienean
egin zuen Jaungoikuak
munduan inor ba ote gera
debildade gabekuak?
Horren begiak kanpora gabe
barrena beti malkuak
Euskal Herriak asko beha'itu
Lasarte bezelakuak.

Lop: Eta guzion sentimentu bat
nahi nizuke adierazi
gure herriak behar zaitu ta
ez zaite jua ihesi
irudi ederra jarri dizute
kale bat duela hesi
zu bezelako bertsolariak
hiltzea ez baitu merezi.

1972ko urtarrilaren 16a. Mattini omenaldia

Azpillagaren agurra:

Bestek esana ia guzia
nik ez daukat zer esanik
baina Mattini ematekoak
mila zorion dauzkat nik
danak diote txikia dala
hazten ez zuela lanik
berdin gabeko euskaltzalea
eta alaia izanik
Euskal Herrian ba ote inor
Mattin maitatzen ez dunik?

Mattini berari 1978ko apirilaren 30an, Ahetzen egin zitzaion beste omenaldi bat.

Azpillagaren agurra:

Jendea anitz izango zela
hemen ez da jende faltik
Mattin zer degun jakina dago
joan daneko aspalditik
jira galanta egin ta gero
Ahetzen nago Bizkaitik
Parisera ere joango nintzen
Mattin besarkatzegatik.

LESAKA. 1976ko maiatzaren 23a. Arozamenari omenaldia.

Azpillagaren agurra:

Arozamena banekin
Lesakan jaioa zala
bere semeak goratzen
ez dago txoko makala
Euskal Herriko kondairak hau're
barruan gorde dezala
lesakatarrak maita itzazu
zu lesakarrak bezala.

**Durango, 1976ko ekainaren 4a. Arestiren ome-
mez. Gai-jartzailea: Abel Muniategi.**

Azpillagaren agurra:

Gauza askotan oroitzen gara
denbora joan ta geruan
heriotzaren karga astuna
denak behar deu eruan
agur egiten deusuet danoi
daukagun giro beruan
Aresti zanak hainbat lan eder
egin zituen munduan
hemen gizon bat itzali baina
izar bat piztu zeruan.

Puntua emanda:

**Ahaztuko ote dira
Arestiren lanak?**

hamaika idazki eder
baditu emanak
kontu hobea luke
gure Euskadi amak
haren modukoak gu
baginazke danak.

Azken agurra:

Maisuengandik hainbeste gauza
badaukagu ikasirik
penagarri da heriotzara
azkar dirala jausirik
gure denboran ez da ahaztuko
ez, Gabriel Arestirik
bere gorputza hil zala baina,
asmoak dagoz bizirik.

**Gernika, 1978ko urriaren 15a. Urretxindorrari
omenaldia**

Azpillagaren agurra:

Kepa Enbeita jaio zala da
ehungarren go urtea
ta Gernikari toketan jakon
goratzarre egitea
berak zabaldu eban Bizkaiko
bertsolarien atea
harek ipini eban bidean
guk hartu dogu parte
Gora Enbeita Urretxindorra!
Agur Gernika maitea!

**Donostia, 1979ko otsailaren 11a. Joxe Agirre
"Oranda"ri omenaldia.**

Azpillagaren agurra:

Besarkada bat hartu bezate
Joxe ta bere sendiak
gizon jator bat suspertua du
zure Izarraitz mendiak
urrutiraino zabaldu dira
programaren durundiak
zazpi probintzi batu ditu gaur
Agirren omenaldiak
hemen da ezagun maite zaitula
Euskal Herriko jendiak.

**Aia 1979ko martxoaren 18a. Manuel Lasarteri
omenaldia**

Azpillagaren agurreko bertsoak:

Leitza aldetik Orioraino
mutil kolore berdea
bien bitarte horretan Aian
egona zera gordea
hemengua da zure hizkuntza
izaera ta airea
Aia izan da bertso-lanetan
zure unibertsitatea.

Doinua: Uso zuria

Zabaldu dan durundia
Lasarten omenaldia
kanpo herritik etorritako
bertsozaleak badia
agur entzule bihotzekoak
gora Aiako herria (bis)

1995eko otsailaren 4ean. Mutrikuko Santa Eskak omenaldia egin zion Roman Maiz "Okelar"-i.

Azpillaga:

1

Urte mordo bat badauka eta
aldrebestu da pausuan,
gizon formal bat ibiltzen da ondo
kalean eta basuan
problema gabe lasai bizi da
Ibiri ibaia auzuan
erregaloak asko baziran
gehiago merezi zuan.

2

Nik Aranzubin egingo nuen
honekin lehen jarduna
geroztik hainbat herri txiki ta
sagardotegira juna
arrazoi txarrik sekula ere
eman ez didan laguna
bedeinkatua Roman "Okelar"
ezautu nuen eguna.

3

Hogeamabost urte badira
alkar ezautu genduan
hainbeste ordu pasa ditugu
gero alkarren onduan
halabeharrez txapela ere
neuk jarri diot buruan
hau bezelako beste koplari
bat ez baitago munduan.

Une batean gertu izan du
 begietako malkua
 berdingabeko koplaria da
 ta bertsolari bapua
 burua dauka oso argia
 eta gorputza flakua
 monumentua egin diote
 bera dan bezelakua.

Bertsolarienak ez diren omenaldietan ere sarri izan da Azpillaga. Hona hemen 45 urtean Itziarko organojole izan, den eta oraindik horretan diharduen, Juan Maria Aizpurua Aizpurua jaunaren omenaldian kantatutako bertsoak.

Bera bakarrik ari denean, Azpillagak narratzaile handi baten teknika agerian jartzen du. Hurrengo zortzi bertsoak bata bestearen ondoren bota zituen bazkalostean. Sarrera, garapena eta bukaera ondo bereizten ditu. Bat-bateko sail honetan, eguna, tokia, ingurua eta omenduaren datuak maisuki tartekatzen dituela, zortzi bertsoko pieza bat osatzen du. Honetan bere koplari etorria ageri-agerikoa da.

Itziar, 1994ko martxoaren 20a. Juan Mari Aizpuruari omenaldia.

1

Eskerrak eman beharra dago
 gure Itziarko Amari
 ta aitormena egin behar zaio
 gaur, egindako lanari
 zahar eta gazte, andre ta gizon
 ongi etorri denari
 bazkariak on egin dezala
 mila zorion Juan Mari.

2

Ebanjelio Santuak gaur'e
 erakutsi du egia
 ondo kostata sortutzen dala
 eguneroko ogia
 gero kosetxa jasoko bada
 bota behar da garia
 merezitako saria da, bai
 gaur dezun omenaldia.

3

Galdezka ibili gabe egin naiz
 zure berriaren jabe
 zeure bizitzan pasatu dezu
 hainbat poz eta nahigabe
 solfeoa ere ikasi zendun
 inork erakutsi gabe
 fenomenoak badira baina,
 holako gutxi dirade.

4

Andutz mendian altzuan pasa
 dezu bizitza osua
 hemen gorputza gozatutzen da
 begientzat itsasua
 merezitako esker eder bat
 gaur hemen dezu jasua
 Donostia da jardín eder bat
 ta Itziar paradisia.

5

Penaz beterik uzten dunean
 Donostiko eremua
 hango lagunei esaten die
 Itziarreraino nua
 haize freskoa han hartuko det,
 agurtu jende sanua
 gero, aitzakia ederra dauka
 eleizako organua.

6

Zuk badakizu itziartarra
 dala oso jende fina
 denak bildutzen ditun prenda bat
 hor dago Ama Birjina
 omenaldi bat egin dizute
 egin zezakeen haundina
 beharbada ez haundia baina
 bai maitasunez egina.

7

Argitasuna sendo egonda
 Juan Mari zure kaskuan
 Induban edo Bilbao-Bizkaia
 egon zan zeure eskuan
 jubilazio ederra dauka
 lan egin zuen bankuan
 diru faltarik ez daukazu ta
 gozatu urte askuan!

8

Beti izan det Itziarrentzat
 errespetu ta itzala
 zazpirehun urte ba omen dira
 herri gisan dabiltzala
 badakizute Itziarrentzat
 zerbitzaria nintzala
 agur, Juan Mari, sarri biltzea
 Jaungoikoak nahi dezala.

Besteen omenaldietan egon denari egokitu zaio be-
 rea ere. Azpillagak dozenatik gora omenaldi jaso ditu.
 Lehena, 1980an Zestoan egin zioten. Saio honetan,
 Lazkao-Txikik bertso gogoangarriak kantatu zizkion se-
 haskari.

Lazkao-Txiki: Sehaska

1

Nere sehaska oraindik ere
gordea daukat goguan
neronek ere zail da esaten
zenbat maitatutzen nuan
bere gainean ibiltzen ninun
txoritxo baten moduan
karga haundirik ez nuen eta
aisa jasotzen ninduan.

2

Ta sehaskari zail da esaten
merezita daukan dana
bera da nere lehendabiziko
neskame orde izana
haurra nintzala une goxo ta
amets ederrak emana
bihotz bihotzez maitatzen dedan
nere bigarrenko ama.

3

Hara ta honuntz astindutzen zan
hotsa jotzen zuen kun-kun
aingerutxo bat banintz bezela
gordetzen ninuen txukun
amak ertzetik kantatzen zuen
gero sehaskak erantzun
gaur nik dakidan euskera ere
zuk erakutsi zidazun.

**Olalde. Azpillagari bi bertso omenaldia eskeiniz.
Kuardro bat oparitu zion.**

1

Azpillaga da gizon haundi bat
zentzun ta ganorakua
argazki bat egin nahi gendun
bera dan bezelakua
neri Lurdesek leheno esan dit
falta zulako lekua
guztia ez dala kabitzen eta
gerritikan gorakua.

2

Zestuak badu izar haundi bat
esker beroenak horri
horregaitikan kuadro eder hau
gaur zuregan da etorri
gehiago ere izango dituzu
hau haien tartean jarri
Zestuko herriak zuregan duen
maitasunan ezaugarri.

Azpillagaren bertsoak eskerrak emanez:

1

Ni margotzeko egun hauetan
Lurdes ari zan lanian
kuadro horretan ez al nau jarri
itxura ederregian
iltze batetik han jarriko det
tokirik ederrenian
andreak norbait eduki dezan
kanpuan nabilenian.

2

Pasain jaio ta urte t'erdira
 Berriatura abia
 han hazi nintzan eta hurrena
 Mutrikun hartu andria
 hiru herriko seme naizela
 esan dutenak badia
 baina Zestuan egin didate
 lehenengo omenaldia.

3

Badakizute bihotz barrendik
 hau estimatzen detela
 ikusitzean hemen daguan
 giro eder ta epela
 nik zestuarrak maitatzen ditut
 zestuarrak ni bezela
 pentsa lehen eta gero're zuen
 morroi izango naizela.

Euskal Herriko mailako omenaldia jaso zuen Donostiako Astoria aretoan. 1987ko urtarrilaren 18an izan zen. Bertso saioa egin zuten bertsolariez gain 38 bertsolarik kantatu zioten bere omen-bertsoa Azpillagari. Ez ditugu guzti-guztiak ekarri baina bai gehienak.

Jon Mugartegi

Bertsolaritzat menderik mende
 baditu hainbat jatorri
 gaurko egun hau izango ahal da
 zorionaren iturri!
 Bertsozale ta bertsolarion
 atsegin eta pozgarri
 Azpillagari zorionak ta
 zueri ongi etorri.

Txomin Garmendia

Bizkai aldetik izar bat dator
egiten duena diz-diz
Azpillagaren homenajeak
Donosti bete du argiz
ondo merezitakoa dala
entzun da hamaika aldiz.
Hi haundia haiz gizonez eta
haundia haiz bertsolariz
nahiago nuke egun eder bat
danontzat ertengo balitz.

Modesto Maiz “Okelar”

Bertsolari on asko
Euskadi munduan
eta hoietako bat
degu inguruan
begira Eskeren alde
zer lan egin duan
hamar bihotz baneuzka
elkarren onduan
ez nuke hau omenduko
behar dan moduan.

Roman Maiz “Okelar”

Ai Azpillaga! Bertsolaritzan
gazterik zinan hasia
ta Euskal Herri osoa dezu
hainbeste aldiz pasia
ez zinan izan asperturikan
gelditutzeko klasia
hargatik dezu gaurko omena
merituz irabazia
izan daizula urte askoan
segitutzeko grazia.

Joakin Mitxelena

Lagun baten omenez
etorrita gaudez
zertara heldu ginan
badakigu aurrez
bertsolari haundi bat
izandu da berez
eta egin ditun lanak
ukatzerikan ez
kontua alperrik da
obrak dira juez.

Jose Agirre

Azpillaga Euskadin
degu ezaguna
herriz herri berekin
sarritan naiz juna
beti pozik igaro
izan det eguna
gerraren etsaia da
pakean laguna
holakoxea da gaur
omentzen deguna.

Egileor

Juan Azpillaga gaurko eguna
desio dizut suertez
jendeak, behintzat, erantzun dizu
eta pozik egon zaitez
nik enkargu bat eman nahi dizut
bihotzaren borondatez
mila zorion, besarkada bat
Bergara danaren partez.

Lazkao-Txiki

Nahiz ta aurreko egun hoetan
elurra genduen txuri
udaberria datorrela-ta
bildu gera hainbat txori
omenaldi bat egin asmotan
geure lagun onenari
Azpillagari zorionak ta
egun on beste denori.

Arregi

Euskal Herria hamaika aldiz
jarri du zoramenean
gizon haundi bat bertso kantari
izateik jatorrenean
baina herriak gogoan dauka
omena datorrenean
zorionak ta besarkada bat
Berrituren izenean.

Patxi Etxeberria

Gaur urte bete hasi genduen
Azpillagaren auzia
neria utzi, horrena hartu
ta eraman du bizia.
Bai, Azpillaga, etorri zaizu
maite zaituen herria
ondo egiten duen gizona
beti ondo ikusia
gaur ez dizugu ezer ematen
hau zendun irabazia.

Salaberria (Pasaia). Bi bertso paperetik irakurriak

1

Gaur goizeko omenaldia
gauza ederra ta egokia
iruditzen zait daukazutela
ondo merezia
sortu da ia eskasia
ereinik zuen hazia
eta urtero sortu dadila
bertsolai berria.

2

Nahiz eguna edo gaba
bertso giro ederra bada
gaurko goiz hontan bertsotarako
oso jende ona da
bertsoa euskaldun lana da
eta gauza hau nola laga?
Hiru Pasaien partetikan'e
Gora Azpillaga!

Xanti Zabala

Garai batean zer bikotea
Lopategi-Azpillaga
oroitzapenak berez datozkit
nola bazterrera laga?
Frankismoaren kontra burrukan
gaindituaz mila traba
berdin egun edo gaba (bis)
askatasuna aldarrikatuz
hura bertsozko aldaba!
Euskal Herriko historiaren
zati iadanik, Jon, zara.

Etxaluze

Azpillaga lehenengoz Zerainen
ezagutu nuanetik
nere kolkoan maitasunezko
txoko bat bete dek beti
mila zorion hire gain Jaunak
isuri ditzala goiti
zer gutxiago opa leioke
bihotzez maite dan bati.

Joanito Loiola

Hamalau urtez hasi
zendun bertso lana
geroztik herriz-herri
hartu zendun fama
herriagatik dezu
guztia emana
bertsolai historira
pasako zerana
mundutik juan arren
ahaztuko ez zerana.

Jaialdiaren hasieran agurreko bertso hauek ez ziren bakarrak izan. Bukaera aldera, opariekin batera, gehiago izan ziren.

Altzalei

Gogoratzen dut herriko plazan
oraindik ume nintzala
jaien barnean egitarau bat
bertso-emanaldi bat zala
Jon Mugartegi Arregirekin
zu ere bertan zinala
Ai Azpillaga! Kantuan segi
orain artean bezala.

Kristina Mardaraz

Bertsolariak bizitzan dauka
makinatxo bat komeri
gauza denetan guretzat maisu
Azpillaga izan zaigu geuri
bere andrea ere hementxe
daukagu nahiko urduri
bihotz- bihotzez mila zorion
andriai eta biori.

Buztarri

Urte batzuek badauzkat baina
tribuna lanera io
lagun artera sartu naiz eta
laguntasunakin fio
Azpillagari egun eder hau
gaurkoan eskeini zaio
haundiagoak ere merezi
izango ditu oindio.

Xanpun

Anai-arrebak Jaunak ditzuela
deneri arratsalde on
anaia on bat omenduz gira
oren pare bat gaur egon
nork ez ote du nahi gaur bihotzez
goretsi Azpillaga Jon?
Eskaintzen dauzkot familiarekin
besarkada ta zorion
Iparraldeko haurridek ere
horrenbeste zor ginion

Bertso hauez gain, omenaldiko saioan izan zen, gai jartzaileak gaia emanda, bertso hunkigarrik:

Jon Enbeita. Iazko omenaldian hemen ziren gizonetatik izen haundi bat falta zaigu; Balendin Enbeita joan zitzaigun. Jon, hor daukat Azpillaga hik eta hire aitak ongi ezagutzen zenuten bertsolaria. Hire aitaren izenean botaizkiok pare bat bertso.

1

Gaur etortzeko irrikatzen zen
sarri aitortu zidanez
omenduari besarkada bat
emateko maitasunez
gogoz kontrara aldendu zaigu
mila ejenplu emanaz
Jon Azpillaga, gaur ziur izan
nahiz ta ez hemen zuzen ez
zeru erdian bertso kantari
dezula zure omenez.

2

Euskara eta Euskadi zuen
aho eta bihotzean
anima hemen gelditu zaigu
gorputzan heriotzean
zurekin hainbat kantatu zuen
uda zein negu hotzean
ni ziur nago zure izena
Azpillaga aitortzean
bere bihotza kantari dela
seme honen ahotsean.

Jon Lopategi. Nola juzkatzen dezu Azpillaga lagun bezela?

1

Lagun atsegin eta leiala
noranahi joateko ere
saiotik kanpo kontularia
beti sano ta alegre
kantuz hastean bera aurrelari
eta gaiak biltzen trebe
horretan ni ta lagun guztiok
berakin zorretan gaude.

2

Lagunen lagun zerbitzala ta
zer esan bakar lanean?
Hiru-lau bertso besterik gabe
kanta behar direnean
utzi bakarrik! Ez jarri Juani
trabarik aldamenean
mezu bat ezin daiteke jarri
inoiz altaboz onean.

3

Bertsolarien euskerak beti
jo du batasunerantza
horretan ere gure Azpillaga
izan genduen ardatza
nola kantuan hala hizketan
badu aparteko gatza
gizon eder hau haundia baita
haundi eta aberatsa.

4

Hargatik ditu hainbeste lagun
heldu ezin diradenak
baina begira! Jendez beterik
goi, behe eta aldamenak
Euskadi dena bihotzez hemen
bildu du zure omenak
hartu itzazu lagun zahar baten
zorionik beroenak.

Jon Azpillagak bost bertso bota zituen omenaldia eskertzeko:

1

Agurtzen ditut Labaien jauna
eta Imanol Murua,
Pasai San Pedro, Berriatua,
Mutriku ta Ondarrua;
agurtutzen det Astoria hontan
bildu dan jende mordua
saria ekartzen heldu diranak
berdin agurtzera nua
ta bertsolari lagunak, berriz,
agur eta esker berua.

2

Egia da bai, herri zahar hontan
kantu asko det emana
baina negurriz gorakoa zen
bertsolarien esana.
Hainbat senide, hainbeste lagun
bildu zaizkit niregana
badakizute banan-banaka
agurtzerik ez dedana
denok batera hartu zazute
besarkada haundi bana.

3

Bertsolarien bizimodua
 dira poza eta penak
 etxetik irten ta herririk herri
 ibiliak gera denak
 baina gehiago sufritzen dute
 sukaldean zai daudenak
 bertsolarien emaztekiak
 nerea eta besteenak
 zuek zerate txalo guztiak
 merezi dituzutenak.

4

Ta Lopategi lagun zaharra ere
 aitatzea komeni zan,
 garai batean uztarri baten
 berakin ibili nintzan
 polizi eta guardia zibilak
 gure atzetik zebiltzan
 bertsoa gendun gure armatzat
 gerra edo gudaritzan
 poz bat badaukat egin genduna
 ez zala alperrik izan.

5

Zuzendaritzat hartu dezagun
 Gernikan dagon haritza,
 zazpi anaiak goza dezaten
 egiten duen geriza
 bertsolariak herririk herri
 predikatutzen gabiltza,
 menderik mende bizi dedila
 gure arbasoen hitza
 eskerrik asko, agur danori
 ta gora bertsolaritza.

Omenaldi eta esker bertso guztiek liburu sail oso bat
 beteko luketenez, aukera egitea derrigorra da. Hona,

bukatzeko, Jon Azpillagak Pasai San Pedron, 1998ko azaroaren 8an, eskaini zioten omenaldian kantatu zituen bi bertso.

1

Pasai San Pedron jaio nintzan ni
hogeita hamabostian
aita gerrara eraman zuten
irabazteko ustian
gero umezurtz bizi izan naiz
neure bizitza guztian
Euskal Herria salbatzen bada
konforme honenbestian.

2

Ez zait ahaztuko egun honetan
hemen egindako lanik
ez zait faltatu esku zartarik
ta emakumien laztanik
urte batzutan ez naiz etorri
ta, urruti bizi izanik,
ez nuen uste jaioterrian
horren maitea nintzanik.

Honenbestez bukatzen da liburua. Orri hauetan Azpillaga bertsolaria eta Jon Azpillaga gizona ezagutu ditugu. Bertsolari moduan dituen ezaugarriak iradoki ditugu liburuaren zehar: kantaera onekoa, narratzailea, jardun naturala bertso bihurtua, deskribatzaile ona, koplari aparta, saio libreko itzain estimagarria... baina ez dugu azterketa sakonik idatzi. Beste liburu mota baterako utzi dugu. Gizon bezala zer den emazteak, lagunak eta bertsolariak esan digute. Jendezalea, euskaltzalea, pakezalea, "inorekin haserretzeko asmorik ez duena", laguntzailea,...

Ez dugu bukatuko berak bere buruari buruz duen iritzia eman gabe. Azpillagak eman dio hasiera liburuari eta bukaera ere, bertсотan emango dio. Berak argituko digu azken zalantza hau:

antolatzailea ONDARTXO Abesbatza

Pasai San Pedroko ¹³ Musika Abesbatza Astea

1998ko Azaroaren 3tik 8a bitartean

EGITARAUA - PROGRAMA

- Asteartea** *Amaia Urriaga* Soprano
- Asteazkena 4** *Pasala Abesbatza*
- Osteguna 5** *Escolania del Coro Easo*
- Ostirala 6** *Katz-Eskifaita Abesbatza*
- Larunbata 7** *Orquesta de Cámara Musikabi*
- Igandea 8** *Jon Azpillaga Bertsoak*
- Omenak*



Elosua, 1982ko urriaren 10a, Jesus Alberdi "Egileor"-i omenaldia. Gai jartzailea: Bega

Berriz jaioko bazina, zer izan nahiko zenduke?

Urtez urte banijoa,
dator sortzeko atia;
laster hil beharko degu,
eman behar degu partia.
Nik maite ditut Euskal Herria
eta sorleku maitia.
Berriz sortuko banintz nahi nuke
bertsolari izatia.

Berriatun hazia naiz
ta Pasain bataiatua;
Euskal Herriarentzako
eginkizun bat hartua
izan ninteke nabarmena ta
kirtena edo kaikua
baina berriz'e izan nahi nuke
oraintxe bezelakua.

**Auspoa-ren azken
liburuak:**

261 Manuel Lasarte: *Uztapide
gogoan*

262 Antonio Zavala: *Auspoaren
auspoa, III*

263 Antonio Zavala: *Oññez eta
jakin miñez, II*

264 Joxe Mari Aranalde: *Bertso
kontuak*

265 Bizente Barandiaran:
Tratabideak

266 Sor Justina Aldalur: *Ama
Birjiñaren bizitza*

267 Ataño: *Ondaretzat gorrotoa*

268 Mariano Ostolaiz: *Senda-
Belarrak*

269 Tomas Gerrickagoitia:
Arantza eta Larrosa

270 Andoni Basterretxea: *Ene
Ondarru*

**271 Jesukristoren Bizitza
"Ataño"**



1051110
G-129/21



Jon Azpillagak, Jon Mugartegirekin batera, 1950ean kantatu zuen plazan lehen aldiz. Liburu honek, 50 urte hauetan, bertsolaritza, bertsolariak, gizartea, politika, erlijioa... bertsoz bertso, jaialdiz jaialdi eta gaiez gai zenbat eta zertan aldatu diren azaltzen du.

Lopategi lagun zuela, inon aurkitzen ez diren bertsoak aldatu ditugu liburura, garaia bizi zutenen oroigarri eta belaunaldi berrientzat erakusgarri.

Bizkaiko txapelduna izandakoak ahozko jardun aberatsa bertso bihurtu du, patxadaz eta tenple handiz, entzuleak gogoan zuena bertsotan jartzen asmatu zuen, kalitatez eta ausardiaz.

Azpillaga kontalaria, bertsotan bezain narratzaile eta deskribatzaile bikaina agertuko da, bere ahotik entzundakoa aldatu baitugu orriotara.

Bertsolariek, libreko saioetarako, lagun estimagarritzat dute Jon, haria eramaten eta gaiak sortzen aparta baita.

Bertsotan bezalaxe, bera izango dugu gidari liburuan zehar. Eman diezaiogun, bada, hitza, milaka bider entzundako esaldiaz:

HASI, AZPILLAGA



PASAIKO
UDALA



MUTRIKUKO
UDALA



BERRIATUKO
UDALA



Auspoa